

G.K. Chesterton

**Ostegun
izan zen gizona**

euskaratzailea: Juan Garzia

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Juan Garzia.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1997

Jatorrizkoaren data: 1908

G.K. Chesterton euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=330>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1540>

Hitzaurrea

Chesterton eta Ostegun izan zen gizona

G. K. Chesterton-i buruz entziklopediek dakarten berrian, jaio eta hil urteak dira daturik seguruenak (1874-1936). Hortik aurrerakoan, fizkiogile izatearen aurretik eta gainetik aipatu ohi da polemistaren figura. Polemista ageriko eta temati izate horrek behar baino gehiago lausotzen du, halakoetan gertatzen denez, haren literatur obren balorazioa eta azalpena bera, polemikaren parte fikzioz mozorrotua baino ez direla pentsaraz bailiteke horrenbestez.

Ez da hala, ordea. Ustekeria horren errefusapena nik nezakeen baino hobeki egina du Borges-ek (bide batez esanik, Chesterton-en literatur balioaren azpimarratzailerik behinena dukegu Borges, hemen bilduko ditugun aipua lagin):

«Aurretik, gehiegi nabarmendu diren kontu batzuk berraztertzea komeni da. Chesterton katolikoa izan zen. Chesterton-ek prerrafaelisten Erdi Aroan sinetsi zuen (*Of London, small and white, and clean*), Chestertonek pentsatu zuen,

Whitman-ek bezala, izate hutsa bera hain dela miragarria, ezen ezein zorigaiztok ez baikaitu libratzen halako eskerron komiko edo baten zorretik. Sineste horiek bidezkoak izan daitezke, baina eragiten duten interesa mugatua da; Chesterton horrenbestean ahitzen dutela uste izatea zera ahanztea da, sinesmen bat prozesu mental eta emozionalezko serie baten azken burua dela, eta gizon bat serie osoa dela. Herri honetan, katolikoek zeruraino goraipatzen dute Chesterton; libre-pentsazaleek, berriz, ukatu. Sinesmen bati datxekan idazle oro bezala, Chesterton ere sinesmen horrengatik da epaitzen, hargatik da gaitzesten edo txalotzen. Kipling-en kasuaren antzekoa da, hura Britainiar Inperioaren arabera epaitzen baitute beti.»

Borges-ek, ohiko fineziaz, besterik ere bazela, eta nolakoa, agerrarazi zuen arte, Aita Brown apaiz detektibea protagonista duten istorio poli-ziakoen egiletzat gutxietsia zen oro har Chesterton (irakurlego zabal bezain sutsu bat ez zaio inoiz falta izan). Argentinan irakurle itsuaren jenialtasuna ez zen izan noski besterik ere idatzia zuela eta haren balioa goraipatzea, baizik

eta obra xumeok berok ere ziruditena baino (eta ez baitzen gutxi) askoz gehiago zirela agerian uztea. Askok —irakurle zein idazle— geure egin nahi genituzkeen honako hitzoz laburbildu zuen Borges-ek bere iritzi orokorra:

«Chesterton-en obra guztiz ere zabala da eta ez dauka orri bakar bat ere zorientasun bat eskaintzen ez duenik.»

Chesterton-en obra zabal, genero askotariko horretan, topikoa da dagoeneko zenbait ezaugarri azpimarratzea: umore ironiko fina, iritzi-desberdintasunen gaintetik atsegingarri gertatzen den argudiatzeko modu argi eta grafikoa, paradoxaren erabilera sistematikoa (zentzuna — *common sense* delakoa— arrazoibide logiko hutsari kontrajartzeko xedez askotan), kontaeraren plastikotasun eta bizitasun paregabeak, irudimen harrigarria, suspenserako sena...

Horiek guztiak —eta gehiago— kausitzen ditugu *Ostegun izan zen gizona* obra honetan ere. Obra aski goiztiarra da Chesterton-en lanen artean (1908), baina egingo nuke hori oro har mesedetan dela, geroko ekoizpen oparoan nekez ageriko baita hemen bezain fresko eta

kementsu Chesterton-en estiloa eta —apika— nortasuna.

Gero landuko zuen Aita Brown-en serie ospetsuen horretan bezala, eleberri honen azaleko eta hasierako itxura polizi nobelarena da. Irakurleak ongi egingo du, hala ere, itxuraz guztiz fidatzen ez bada. Kingsley Amis-ek, eskola-mutila zenean lehen aldiz irakurri zuenetik hasi eta geroko irakurketetako bere irakurle-esperientzia bilduz, honela dio *The Man Who was Thursday*ri eginiko hitzaurrean:

«Ez da guztiz politikazko amesgaizto bat, ezta *thiller* metafisiko bat ere, ezta espioi-nobela baten itxurapeko broma kosmiko bat ere, baina badu hirurotatik zerbait... sekula irakurri dudan libururik zirraragarriena izaten segitzen du.»

Espero izatekoa zenez, zenbait irakurle okerrak (kritikariak okerren noski), liburuak berez lantzen duen anbiguitate zehatz horri jator ekiteko gauza ez, eta liburuaren irakurketa *zuzenegia* —*gordinegia*— egin zuten, justu idazlearen intentzio aski bistakoaren kontra. Besteak beste, mundua beltzegi (!) pintatzearen salaketa lepo-

ratzen zioten. Segidan aurkituko dituzuen Borges-en aipu luzexeago horiek argi gehixeago egin dezakete amesgaiztoon itzalen artean egosten zenaz, baina Chesterton-ek akaso kritiki horientzat finegi zatekeen ironia batez erantzun zien kritika edo horiei:

«Liburua irakurri dute baina ez dute irakurri izenburuko orria.»

Izan ere, azpтитuluak «amesgaizto bat» zioen. Hona, hala ere, Borges-en iritzia, amesgaiztooz eta Chesterton-ez oro har.

«Albo-ohar bat. Oscar Wilde-ren izena ordokiko hiriei loturik dago; haren loria, kondenari eta kartzelari. Halaz guztiz [...], haren obraren zaporre oinarrizkoa zorientasuna da. Aitzitik, Chesterton-en obra hain ere adoretu hori, osasuntasan fisiko eta moralaren prototipo izanik, amesgaizto bilakatzear dago beti. Deabruzko aldea eta izua dauzka zelatan; gutxien espero litekeen orrialdean, laborriaren itxura har dezake. Hautzaroa berreskuratu nahi duen gizon bat da Chesterton; Wilde, berriz, gaizkiaren eta zoritxarraren despit, halako xalotasun eragoztezin bat gordetzen duen gizon bat.

«Poe eta Baudelaire-ren asmoa, Blake-ren harako Urizen tormentatu harena bezala, laborrizko mundu bat sortzea zen; gauzak dakarrena da haien obra izuaren formaz oparoa izatea. Chesterton-ek, ustez, ez zuen inolaz ere onartuko amesgaizto-ehule izatea leporatzea, *monstrorum artifex* halako bat (Plinio, XXVIII, 2), baina erremediorik gabe lerratzen da gaitzezko zantzu beltzetara. Itauntzen du ea apika gizon batek hiru begi dituen, edo txori batek hiru hegal; aipura dakar, panteisten kontra, paradisuari aurkitu duen gizon hil bat; aingeru-koruen izpirituek haren aurpegi bera dutela azkenik gabe; ispiluzko kartzela bat aipatzen du; erdigunerik gabeko labirintu bat; metalezko automatek irentsiriko gizon bat; txoriak irensten dituen eta hosto ordez lumak dituen zuhaitz bat; irudikatzen du (*The Man Who Was Thursday*) munduaren ekialdeko azken mugetan badela ausaz zuhaitz bat, zeina jadanik zuhaitz bat baino gehiago, eta gutxiago, baita, eta mendebalekoan, berriz, zerbait, dorre bat, zeinaren arkitektura hutsa gaiztoa baita. Hurbilekoa urrunekoaren bitartez definitzen du, eta are gaitzik beltzenaren bitartez;

begiez mintzo bada, Ezekielen hitzez (I: 22), «kristal ikaragarri» deritze; gauaz ari bada, berriz, laborri zahar bat ontzen du (Apokalipsia a: 6) eta «begiz eginiko munstro» deritzo.

«[...]

«Adibideok, zeinak aise berretu bailitezke, agerian uzten dute Chesterton-ek ahaleginean jardun zuela Edgar Allan Poe edo Franz Kafka ez izateko, baina bazela zerbait beraren nia egina zen buztinean, amesgaiztora emana zena, zerbait ezkutua, zerbait itsu eta gune-gunekoa. [...] Tirabira hori, deabruzko borondate bat nahi bezala bridatu ezin hori, horra zerk definitzen duen Chesterton-en izatea.»

Honaino azaldu ditugunek ondo ere ondo justifikatzen dute noski *Ostegun izan zen gizona* literatur maisu-lan handi-koxkorren artean kokatzea, nahiz eta abentura eta suspense liburu soil gisa ere arrakastatsu izan (Shakespeare-ren obrak jende arruntari eta are jendailarik adimen-laburrenari gustagarri gertatzeak bestelako meriturik baliogutzen ez dion modu berean). Besterik ez bada, ekintzaren biziaz eta irudimeneren bitxiaz harrapatuko du irakurlea, edo intri-

ga hutsez. Edo, formagoseak ere jende baitira, idazkeraren bizitasun malguaz.

Zezenari adarretatik erabat heltzekotan, hala ere, liburuaren oinarri ideologikoaz ere mintzatu behar genuke. Alde batetik, anarkisten logika eromeneraino zorrotzaren eta ordenazaleen zentzun zuhur bezain xeblearen arteko borroka dugu. Onen eta gaiztoen arteko tirabira horri, beste zerbaiten salaketa egotz dakioke, baina ez inolaz ere, irakurlearen hasierako usteak uste, manikeismoarena. «Denak gara berdinak Jainkoaren begian» edo aterako litzateke ondorioa, alegia anbiguo honen ikaskizuna erlijio-terminoetan biltzerik balego. Inoiz nola edo halako anarkismorako tentazioak tiratu gaituen orok, tentazio horri aurre egiteko ez ezik, kontrakoan ere ez erortzeko abisurik ere aurki dezakegu liburu ez batere inozo honetan (egilea ere ez zen urruti ibiliko tentazio guztiotatik beti, karikatura gordinetik errukizko azalpenetara eramán duen istorio honi kontu egitera).

Bestetik, Erdi Aro *sui generis* bat aldeztu du Chesterton-ek. Artean erlijioak hitzaren etimologiak (*re-ligare*) egozten dion funtzioa betetzen

zuen garai akaso irudimen hutsezkoaren nostalgia halako batek egiten zion kosk barrenean. Datu historikoei begiraturik, badirudi garai modernoan nihilismo jainkogabetik orduko fatalismo jainkozulora erortzea litzatekeela jarrera horren sasi-irtenbidea; Chesterton-ek, ordea, ez etsipen jainkoaren beldurrezkoa, baizik jainkoarengatik —edo gutxienez jaingoarengandiko— adorea ikusten zuen —edo ikusi nahi zuen— hartan. Eta —are zailago baita— adore *sano* hori demokraziarekin lotzen zuen, hierarkiak errespetzen dituen jende arruntaren zentzunean eta ekinean oinarritu nahi baitzuen, nonbait, mundua (kontraesan nabarmenak bizitzaren paradoxa bizitzat integraturik edo).

Esperantza dateke hiru bertute nagusietatik ezinbestekoena, eta hartaz dihardu Chesterton-ek. Adorea ere deitzen dio, aipatu dugunez, besterik ez baita adorea: esperantza bere ekinean (ekintzaren nagusigo horri zor zaio, besteak beste, abentura-liburuz gorpuztu izana *mezua*).

Hartatik —esperantzatik— proiektu daiteke fedea, zeren espero izateak, nahiak, itxaropenak, subjektuaren jarrera berezko izatetik, hark

beregandik kanpo espero dukeen hori, izan, badela sinestera baitarama subjektu hori aurki, biziraupenezko optimismo-erreflexuz eta magia guztiek erabiltzen duten mekanismo hain giza-tiarraz.

Alegia, Saizarbitoriak gurean leit-motiv moduan bere obretan erakusten duenez, *itxarote* hutsetik zerbaiten *zain egotera* dagoen aldea da kontua. Becket-ek berak ere behinola azaldu zuen *Esperando a Godot* ospetsuaren izenburua horrelaxe, gazteleraz, egokiago zitzaiola, beste hizkuntza batzuetan, jatorrizkoa barne, «esperar» aditzaren eta «esperantza» izenaren artean halako loturarik ez zegoelako. Hala gurean ere, argitu beharra bailegoke Godot dena delakoaren nahiz besteren itxaropen hutsez gauden esperotan, ala haren zain.

Zain egotea dateke, bada, fedearen abiapuntua, eta ez alderantziz, baina horretarako esperantza nolabaitekoak bultzatu behar gaitu itxarote jarrerara gutxienez, eta hori —hori baita azkenean auzi modernoa—, adimenaren etsipen orokor batetik, nihilismo gutxi-asko disimulatutik.

Karitateari dagokionez, berriz, Savater-ek (arima salbu) dioen moduan, «moral altuarekin» dagoena bakarrik izan daiteke «moralki bikaina», ez dagoenetik ez baitago, eta are gutxiago inori ematekorik. Hala, «moral», lehen zentzu horretan behintzat, esperantzaren somatizazioa baino ez da; esperantzaz kargaturik egotea, adoretu.

Bertute horien xerka zebilen, bada, Chesterton, eta, ahantzi nahi duenak oroit duen bezala, bila dabilenak ere eskas duke noski bilatzen duen hori.

Esperantza-fede-karitateok, derragun bide-nabar, ez dute zertan izanik, bertuteon hirutasunak beste Hirutasun jakin bat iradokitzen badu ere, erlijiozkoak, eta are gutxiago katolikoak (horrek erreskata dezake guztiontzat liburu honen *mezua* bera ere). Laugarren bertute bat eskatzen zaio, hain zuzen, Chesterton-en irakurle sinesgabeari: erlijiozko nahiz bestelako proselitismoaren usainak nabarmenen dirudienean ere, sinesmen jakin horren azpiko nahiz gaineko benetako giza auzi bat dagoela sinestea.

Dena den, alderdi ideologiko horrek traba egiten dion irakurle eraman eskasekoak ere baluke beste aukera bat, idazle batek baino gehiagok bere egin eta berridatzi baitu liburu hau bere erara. Neuk une honetan gogoan dutanek (eta ez bainaiz batere irakurle eruditoa): S. Lem (*Ikerketa* izenburuko eleberrian, protagonistaren izen eta guzti, omenaldi esplizitu gisa) eta Borges bera, besteak beste eta nabarmenen, *Kongresua* deritzan beraren istoriorik luzeenean.

Liburu honetako abentura zoroetan zehar, besteak beste, Chesterton-ek behinola bere estilo paradoxazalean bromarik gabe bota zuena itxuratzen da: «Eroa ez da arrazoimena galdu duena, arrazoimena ez beste guztia galdu duena baizik». Hots, arrazoimena bakarrik geratzen denean hasten dira amets gaiztoak, Goyak ere bazekienez (Chesterton ere artegintzatik zetorren literaturara): «Arrazoiaren ametsak muntroak sorrarazten ditu».

Orain, bada, irakurle, zure txanda da: nik hemen esandakoak ere ahaztu, eta barnera zaitez liburuaren misterio zirraragarrian: zeure egizu.

Juan Garzia Garmendia

EDMUND CLERIHEW BENTLEYri

Hodei batek zeuzkan giza gogoak,
Aroa intziri bizian;
Gaitzezko hodei beltz bat zen, bai, jauntzen,
Bi mutiko ginen garaian.
Zientziak zera: deus ez zela deus;
Artea, gainbeheraren jai;
Mundua zahar zen, akaberako:
Zu eta ni, ordea, alai;
Gure inguruan, zoroan zuzen,
Galbide elbarriak horra:
Lizunkeria, irribarre gabe;
Beldurra, lotsagabe, gorra.
Whistler-en kizkur zuri hura nola
Noraez beltzetan guk argi,
Gizonek lumazko gandor zuria
Oilartzen zuten harrogarri.
Bizitza euli indargaldua zen,
Heriotza erlastar zorrotz;
Mundua, zinez, zeharo zen zahar,
Gu biok gazte ginen sasoiz.
Bekatu prestua bera baitzuten

Ez aipatzeko huts bihurtu:
Lotsagarria zen ondra garbia;
Gu ez ginen, baina, lotsatu.
Erkin izanik eta buru-arin,
Ez ginen, ez, hain makur jausi;
Baal beltz horrek zeruak ixtean
Guk ez hari agur-eresi.
Haurrak ginen: gu bezain ahul ziren
Hondarrezko gure forteak
Goiti jasoak gelditu beharrez
Itsaso latz haren oldeak.
Zoro huts ginen, bai, bufoi-jantzian,
Zaratatsu, jauzkari, zuntzun:
Isildurik eliz ezkilak oro,
Kapelu-txintxinez guk ttun-ttun.

Ez laguntzarik gabe eutsi zion,
Gure ikurrin erkinak zut;
Zenbait gizandi saiatzen zen goitik
Hodei horri egiten axut.
Hor dut berriz orduko liburua,
Hor ordu hori zeinak duen
Paunamok arrainkaraz at egiten
Gauza garbiagoez auhen;

Horra Krabelin Berdea zimeldu,
Oihan-suen gisa, iraizki,
Orro biziz lau haize zabaletan
Hamar milioi belar izpi;
Txori bat euritan kantari bezain
Zoli, fin, bat-batean jirik...
Egia zen Tusitalatik mintzo
Eta atsegina minetik.
Bai, txori bat ortzi grisean bezain
Jator, txorrotx, inondikari,
Dunedin-ek Samoari zirautsan,
Eta ilunak argiari.
Baina gazte ginen: ikusi gurak
Jainkoa xarma gaitzok hausten,
Jainko ona, Haren Errepublika,
Armetan zaldizka itzultzen:
Horra hor Gizarima Hiri hori,
Kordokatua arren, zutik...
Bedeinkatuak ikusteke ere
sinetsi dutenak, itsurik.

Beldur zahar haien ipuina da hau,
Zein infernu hustu haiena,
Zuxek bakarrik ulertuko duzu

Ipuin honen egia bena...
Zeinen jainko itzel-uste ustelez
Beldur ziren gizonak, etsi;
Deabru gaitzez josirik izarrak,
Nahiz tiro hutsek eraitsi.
Zalantzak, uxatzen errazak bezain
Aurre egiten gogor, latzak...
Oi, nork ulertuko, zuk izan ezik;
Nork ulertuko, bai, zalantzak?
Gau luzean guri ziztaka dudok,
Grina beroz biok hizketan,
Argi-urratzea lehenago zen,
Buruan baino, kaleetan.
Gure artean, Jainkoaren bakez,
Egia daiteke plazara;
Bai, indar-seinale dira sustraiak;
Zahartzea, berriz, eder da.
Zerk elkaturik badugu gaugerero:
Kredo bat, gogo-uztargarri:
Lasai idatz dezaket nik orain hau,
Eta zuk lasai irakurri.

1. KAPITULUA

Saffron Park-eko bi poetak

Saffron Park-eko aldiria Londresko sartaldean han zetzan, ilunabarreko hodei bat bezain gorri eta urratua. Goitik beheraino adreilu trinkoz eraikia zen; ortze-bista fantastiko hutsa zuen, eta oin-planta ere orobat itxuragabea. Arte kontuan ikuspegi nahasi samarra zuen eraikingin espekulatzaile baten tupusteko burubideari zor zitzaion. Arkitektura molde horri batzuetan Elizabeth estiloa eta bestetzetan Queen Anne esaten zion, bi erreginak bat eta bera zirelako ustean baitzegoen, antza. Kolonia artistikotzat deskribatu izan dutenek ez diote okerrik, nahiz ez duen inolako modu zehazgarrian inolako arterik sortu. Baina zentro intelektual bat izatearena aski kontu lau-soa bazen ere, toki atsegina izatearena, berriz, ezin ziezaiokeen inork ere uka. Etxe gorri bitxiak lehen aldiz ikusten zituen arrotzak derrigor gogoetatuko zuen zeinen berezia izan behar zuen haietara egokituko zen jendeak. Eta jendea

ezagutzeak ere ez zion pentsamendu hori gezur-
tatuko. Lekua ez zen soilik atsegina, betegina
baizik; iruzur bat bailitzan begiratu beharrean,
amets bat bailitzan begiratzen asmatuz gero,
behintzat. Hango biztanleak «artistak» ez izana-
gatik, osotasuna, hala ere, artistikoa zen. Ile luze
gaztain-gorria eta halako aurpegi lotsagaldua
zuen gizaseme gazte hura... gazte hori ez zen
zinez poeta bat; baina bai dudarik gabe poema
bat. Halako bizar zuri nabarmena eta kapelu zuri
orobat nabarmena zeramatzan jaun adintsua,
berriz... trikimaisu beneragarri hura ez zen zinez
filosofo bat; baina bai besterengan filosofia era-
giten zuen norbait azken finean. Burua arrautza
baten itxuran soildua eta lepoa txori batena
bezalako zimela zuen zientzia-gizon itxurako
hark ez zuen zinezko eskubiderik halako zien-
tzia-itxurarik egiteko. Ez zuen ezer berririk aurki-
tu biologian; zein izaki biologiko aurki zezakeen,
ordea, bera baino bereziagorik? Horrela, eta
horrela bakarrik begiratu behar zitzaion leku
osoari; ez zen hainbestean artistentzako lantoki-
tzat hartu behar, artelan herbal baina amaitutzat
baizik. Hango gizarte-giroan sartzen zena kome-

dia idatzi batean sartu balitz bezala sentitzen zen.

Berezikiago suma zitekeen irrealtasun erakargarri hori iluntze aldera, noiz eta, teilatu bitxiek arrastiriko distiraren kontra beren isla iluna erakutsirik, haizeak daraman hodei bat bezain deslai baitzirudien bere osotasunean auzune zoroak. Are biziagoa zen sentrazio hori bertako jai-gau ugarietan, zeinetan jardin koxkorrak argiztatzeko ohitura baitzegoen, eta txinatar argiontzi handiek fruitu anker munstrokara antzo distiratzen baitzuten arbola ñañoetan. Eta guztiz ere nabarmenen, berriz, lausoki bada ere bertakoek artean ere gogoratzen zuten arrats jakin batean, zeinean delako poeta ile-gaztain-kolorea gertatu baitzen heroia. Ez zen hura izan, inondik inora, gure poetari heroia izatea egokitu zitzaion arrats bakarra. Gau askotan, haren etxe-atzealdeko jardinaren ondotik pasatzen zirenek aukera izaten zuten haren ahots altu, didaktikoa entzuteko, gizonak eta bereziki emakumeak bapo leziatzen. Halako kasuetan, alabaina, auzuneko paradoxetariko bat zen emakumeen jarra. Emakumerik gehienak *askatu* izen lauso hori

ematen zaien etakoak ziren, eta nolabait kexu ageri ziren arraren nagusitasunaz. Emakume berriok, haatik, ezein emakume arruntek sekula egiten ez dion kunplimentu guztiz bitxia egiten zioten gizonari, hura hizketan ari dela entzutearena, alegia. Eta Lucian Gregory jauna, poeta ilegorria, zinez zen (zentzu batean) entzutea merezi zuen gizona, azkenerako barrea eragiten bazizun ere. Artearen legerik ezaren eta legerik ezaren artearen lelo zaharra errepikatzen zuen, une-unean behintzat nolabaiteko atsegina ematen zuen freskura lotsagaldu halako batez. Neurri batean, itxuraren bitxiak ere laguntzen zion horretan, atera zekiokkeen etekin guztia ateratzeko lantzen baitzuen, esan ohi denez. Ile gorri iluna, marra erdiz erdi, emakume batenaren berdina zen literalki, eta pintura prerrafaelista bateko birjina baten kiribil mantsoetara bihurritzen zen. Santu batena gogoraraz zezakeen obalo horren barnetik, hala ere, zabal eta basa irteten zen aurpegia, kokotsa aurrera lotsagabetua nabarmen, bazter-auzotar landugabearen destaina halako batez. Konbinaketa horrek aldi berean kilikatu eta ikaratu egiten zituen hango

biztanle neurotikoen kirioak. Birao ibiltari bat ematen zuen, aingeruaren eta tximinoaren arteko nahasketa bat.

Arrats konkretu hura, beste ezergatik ez bada, egun hartako iluntze guztiz harrigarriarengatik gogoratuko da auzunean. Munduaren azkena ote zen ematen zuen. Halako lumaje bizi-bizi, ukigarri batek estalia zirudien zeru osoak; esan zitekeen ortzea lumaz beterik zegoela, eta lumok aurpegia igurtzitzen zizuten ia. Zeru-gangaren zatirik zabalenean grisak ziren lumak, bioretaren eta malbaren tonurik estrainioenez eta halako arrosa naturazbesteko batez zein berde zurbil batez han-hemenka koloreztatuak; mendebalerantz, ordea, ez zegoen hitzik zerua deskribatzeko, garden eta suhar hantxe, azken luma goriek inork ikusteko ederregia litzatekeen zerbeit bailitzan ezkututzen zutela eguzkia. Zeru osoa lurrarekiko hurbil-hurbil zegoen, halako isilkontu bortxazko bat adierazi nahian edo. Enpireoa bera sekretu bat zela zirudien. Auzoko bertakozaletasunaren arima den txikitasun bikain hori irakur zitekeen bertan. Zeruak berak ere txikia zirudien.

Aipatu dut badela auzotarrik, zero estu-larri horregatik baino ez bada ere, oraindik gogoan izan behar duenik arrats hori. Beste batzuek, berriz, Saffron Park-eko bigarren poetaren lehen agerraldiarekin egokitu zelako gogoratuko dute noski. Iraultzaile ilegorria aurkaririk gabeko jaun eta errege izan zen denbora luzean; ilunabar haren ondoko gau hartan, ziplo amaitu zen haren bakartasuna. Poeta berria, zeinak Gabriel Syme izen-deituraz aurkeztu baitzuen bere burua, oso gizaseme otzan-itxurakoa zen; bizar laru txorrotxa zuen, eta ilea horaila. Baina aurki sumatzen zen ez zela zirudien bezain etorkorra. Bere sarreraren seinale garbi bat uzteko, Gregory-rekiko, han inork zalantzan jartzen ez zuen poetarekiko, bere ezadostasun erabatekoa adierazi zuen, poesiaren izatearen kontuan. Esan zuen berak, Syme poetak, legea kantatzen zuela, ordena; eta areago ere bai: errespetagarritasunaren poeta zela. Hala, une hartantxe zero ezinezko hartatik erori balitz bezala begira geratu zitzaizkion Saffron Parketar guztiak.

Izan ere, Lucian Gregory jaunak, poeta anarkikoak, lotu egin zituen bi gertakariak.

— Ez da zer harritu —esan zuen, bere modu tupustean liriko hartan—, ez da zer harritu, honelako gau hodeiz eta kolore ankerrez betean, poeta prestu bat den bezalako miragarri bat sortu izana lurrera. Legearen poeta zarela diozu; nik, berriz, terminoen arteko kontraesan hutsa zarela. Gauza batez bakarrik harritzen naiz; alegia, ez dela kometarik eta lurrikararik izan zu jardin honetan agertu zaren gauean.

Begi urdin otzanak zituen eta bizar laru xorrotxa zeraman gizonak halako solemnitare makurbera batez jasan zituen ostots horiek. Taldeko hirugarren parteak, Rosamond-ek, Gregory-ren arrebak, zeinak nebaren ilemotots gorri berdinak baitzituen, baina aurpegi atseginago bat haien azpitik, barre egin zuen, familiako orakulari eskuarki erakusten zion miresmenaren eta gaitzespenaren arteko nahaste harekin.

Gregory-k bereari ekin zion osterara, oratoria ederreko umore ederragoz.

— Artista bat anarkista baten berdina da —esan zuen goraki—. Bi hitzok trukagarriak dituzu edonon. Anarkista bat artista bat da. Bonba bat jaurtitzen duen gizona artista bat da, zeren une

berebiziko bat nahiago baitu beste zernahi ere baino. Konturatzen da zenbatenaz baliotsuagoa den distira beteko argi-lehertze bakar bat, ihortziri-zartada bakar bat, hiruzpalau polizia itxura garbirik gaberen gorputz arrunt soilak baino. Artista batek ezjaramon egiten dio gobernu orori, konbentzioak oro deuseztatzen ditu. Desordenan laketzen da soilik. Hori horrela ez balitz, munduko gauzarik poetikoena Lurrazpiko Trenbidea litzateke.

— Eta halaxe da —esan zuen Mr Syme jaunak.

— Baita zera ere! —esan zuen Gregory-k, zeina oso arrazoibidetsu agertzen baitzen beste inork paradoxaren bat saiatzen zuenean—. Zergatik ikusten ditugu, bada, lurrazpiko trenetan doazen bulegari eta langile guztiak halako triste eta nekatu, hain ere triste eta nekatu? Neuk esango dizut. Trena xuxen doala dakitelako, hain justu. Badakitelako, noranahiko txartela hartu dutelarik ere, haraxe iritsiko direla. Badakitelako Sloane Square pasatu eta hurrengo geltokia Victoria izango dela hutsik gabe, eta Victoria baino ez. Oi, nolako zoramen bozkariozkoa haiena! oi,

haien begien izarrak, haien arimak Edenera osteria itzuliak, hurrengo geltokia ezustean Baker Street balitz!

— Zu bai zarela poesiaren ukapena — iharde-
tsi zuen Syme poetak—. Bulegariei buruz diozu-
na egia izatekotan, zure poesia-moldea bezain
prosaikoak izan behar dute. Harrigarria, arraroa
dena, xedea erdiestea da; huts egitea, berriz,
gauza arrunt nabarmen, hortik horrakoa da. Epi-
koa deritzogu gizon batek gezi jare batez txori
urruna jotzeari. Ez al da orobat epikoa gizonak
makina jare batez geltoki urrun bat jotzea?
Kaosa gauza lausoa da; izan ere, kaosean trena
edonora joan daiteke noski, Baker Streetera zein
Bagdad-era. Baina gizona azti bat da, eta gizona-
ren magia guztia horretantxe datza: Victoria
esan, eta hara! horra hor Victoria. Ez, ez, utikan
poesia nahiz prosa hutsezko zure liburuok, uzta-
zu niri ordutegi bat bozkariozko malkoz irakur-
tzen. Utikan zure Byron hori, gizakiaren porrotak
baititu aipu; emadazu niri Bradshaw, tren ordu-
tegia, gizakiaren garaipenak baititu aintzat har-
tzen. Emadazu niri Bradshaw, diotsut!

— Joan beharra duzu ala?— itaundu zion Gregory-k sarkastikoki.

— Zinez diotsut —segitu zuen Syme-k bero-bero—, tren bat iristen den bakoitzean, gudu-bateria bat baino gehiagoren setioa gainditu behar izan duela sentitzen dut neure baitan, eta kaosaren kontrako gudu bat irabazi duela gizonak. Zuk mesprezuz diozu norbaitek Sloane Square pasatu duenean Victoriara iritsi behar duela. Nik diot hainak bestelako mila aukera dituela, eta, benetan hara iristen naizen guztietan, doi-doi ihes egin izan banu bezala sentitzen naizela. Eta trenzaina «Victoria» hitza deiadarkatzen entzuten dudanean, ez zait hori esanahirik gabeko hitz halako bat. Niretzat mezulari baten konkista-aldarria da. Niretzat hori «Victoria» da, hain zuzen; Adanen garaipena, alegia.

Gregory-k bere kaskagorri astunari eragin zion, irribarre mantso eta triste batez.

— Eta are orduan —esan zuen—, poetok beti galde egingo genuke: «Eta zer da Victoria orain, behin bertara ezker?» Zuk uste duzu Victoria Jerusalem Berriaren parekoa dela. Guk jakin dakigu delako Jerusalem Berri hori beste Victoria

halako bat baino ez dela izango. Bai, jauna: poeta disgustura egotekoa da zeruko kaleetan bertan ere. Poeta beti erreboltan dabil.

Hara, berriz! —esan zuen Syme-k minberaturik—. Zer du, ordea, poetikorik erreboltaturik ibiltzeak? Horretarako berdin esan zenezake itsasgaitzak jota egotea poetikoa dela. Ondoez hori errebolta da. Bai ondoezak hartua egotea eta bai matxino izatea gauzarik guztizkoena izan litezke zenbait kinka larritan; baina urka nazatela bertan, horrek poetiko izatearekin zer lotura duen ikusten badut. Errebolta, horrela, abstraktuan, zera da... barruak oka egiteraino nahastea. Gomitolarri hutsa.

Neskak imintzio bat egin zuen lipar batez hitz gozogabearen aurrean, baina Syme-k beroegi ziharduen hartaz ohartzeko.

—Gauzak xuxen eta ondo joatea —esan zuen goraki—, horra zer den poetikoa! Gure liseriketak, esate baterako, sakratuki eta isilki beren martxan doazela, horra poesigintza ororen oinarria. Bai, gauzarik poetikoena, loreak baino poetikoagoa, izarrak baino poetikoagoa... munduko gauzarik poetikoena ondoezik ez egotea da.

— Zera —esan zuen Gregory-k sufizientziaz—
, aukeratzen dituzun adibidideak ere, horratio...

— Berorrek barka beza —esan zuen Syme-k serio-serio—; uste nuen konbentzio guztiak deuseztaturik zeudela gure artean.

Aurreneko aldiz gorritasun bat agertu zen Gregory-ren bekokian.

— Ez duzu, bada, usteko —esan zuen— belardi honetan hasiko naizenik gizartea iraultzen?

Syme-k zuzen begiratu zion begietara, eta irribarre ezti bat egin.

— Ez, ez dut halakorik uste —esan zuen—; baina bai zeure anarkismoa serio hartuko baze-nu horixe egingo zenukeela, hain zuzen.

Gregory-ren begitzar zezenarenen tankerako haiek lehoi haserre batenen gisa klisk egin, eta buruaren jirako adats gorria harrotu ote zen ere irudi zukeen.

— Ez duzu uste, beraz —esan zuen ahots makur batez—, serioa naizenik nire anarkismoa-ri dagokionez?

— Berorrek barka beza? —esan zuen Syme-k.

— Ea ez naizen serioa nire anarkismoari dagokionez? —esan zuen goraki Gregory-k, ukabilak estuturik.

— Adiskide maitea! —esan zuen Syme-k, eta patxadan alde egin zuen handik.

Ezustean, baina atsegin bitxiz, Rosamond Gregory artean ere ondoan zuela konturatu zen.

— Syme jauna —esan zion—, benetan esan nahi al du esaten duena zu eta nire neba bezala mintzo den jendeak? Benetan ari al zara zu orain?

Syme-k irribarre egin zuen.

— Eta zu? —galdetu zion.

— Zer esan nahi duzu? —galdetu zion neskak, begi larriz.

— Hara, Gregory andereñoa —esan zuen Syme-k emeki—, zintzotasun mota asko dago. Gatza eskura eman dizutelako «eskerrik asko» diozunean, benetan hori esan nahi al duzu? Ez. «Mundua biribila da» diozunean, benetan hori esan nahi al duzu? Ez. Egia da, baina ez diozu esanahi berezirik ematen horri. Hala, batzuetan zure neba bezalako jendeak berarentzat esanahi berezi-berezia duen zerbait aurkitzen du. Izan

daiteke gezur-erdia, gezur-laurdena, gezur-hamarrena; baina esan nahi duena baino gehiago esaten du kasu horretan... esan behararen esan beharrez.

Neskak bekain zuzen-berdin bien azpitik begiratzen zion mutilari; aurpegia oro-nabari horietakoa zuen bere serioan, eta emakumerik arinenak ere funtsean bere gain hartzen duen erantzukizun arrazoizbesteko horren itzala ageri zuen orain begitartean, mundua bezain zaharra den ama-begirada kontuegile hori.

— Anarkista bat da, orduan? —galdetu zuen.

— Aipatu dudan zentzu horretan bakarrik — ihardetsi zuen Syme-k—; edo nahiago baduzu, ez-zentzu horretan.

Bekain zabalak zimurtu, eta tupustean irten zitzaion:

— Ez litzateke behintzat kapaz... bonbarik eta halakorik erabiltzeko, ezta?

Syme-k barre-algara handi bat egin zuen; handiegia, itxura batera, dandy-ukitu hura zuen halako gizon mirrin batengan.

— Jainkoarren, ez! —esan zuen—. Halako lanek anonimotasuna eskatzen dute.

Hori entzutean, irribarre batez zabaldu ziren neskaren ezpain-ertzak, aldibereko atsegina eragin baitzioten gogoan Gregory-ren zentzugabetasunak eta haren arriskurik ezak.

Syme-k jardineko bazter batean zegoen eserleku batera lagundu zuen neska, astiro, eta bere aburuak jaregiten segitu zuen. Gizon zintzoa baitzen, eta, axaleko dotorekeria guztiak gorabehera, erro-erroan apala ere bai. Izan ere, gizon apalarena izan ohi da gehiegi hitz egiteko joera hori; gizon harroak kontu handiegia egin ohi dio bere buruari. Suhartasunez eta demasiaz jardun zuen errespetagarritasunaren alde. Grina beroa erakutsi zuen txukuntasunaren eta egokitasunaren gorazarrea egitean. Hala hizketan ari zen bitartean, lila-lurrin halako bat zerion inguru guztiari. Behin, doi-doi entzuteko moduan, esku-organu baten soinua iritsi zitzaion, kale urrunen batean jotzen hasia, eta beraren hitz heroikoak munduaz azpitiko edo haraindiko doinutxo baten konpasean mugitzen ote ziren sumatu zuen.

Neskaren ile gorri eta aurpegi irriberari so eta hitz egin zien, ustez minutu bakan batzuez; gero, halako tokietan egokitasunak eskatzen zuena

taldeak nahastea zela juzkaturik, zutitu egin zen. Baita harritu ere, jardin guztia hutsik kausitu baitzuen. Aspaldi alde eginak ziren guztiak, eta berak ere halaxe egin zuen, desenkusa arrapaladako samar batez. Xanpaina-sentsazio halakobat zuen buruan, zeinari ez baitzion gero esplikaziorik aurkitu. Jarraian etorriko ziren gertakari bidegaldu haietan guztietan, neska horrek ez zuen inolako parterik izan; Syme-k ez zuen behin ere berriro ikusi, beraren istorio guztia amaiera iritsi zen arte. Eta hala ere, nolabaiteko modu deskribagaitz batez, musikan motibo bat nola, behin eta berriro itzuliz, hantxe ibiliko zen, Syme-ren handik aurrerako abentura zoro haietan guztietan, eta haren ile bitxiaren distirak hari gorri batek bezala zeharkatuko zituen gauaren tapiz ilun, itxuragalduek. Jarraian gertatu zena, alabaina, hain nekez gerta litekeen kontua da, ezen amets baten itxura bete-betea baitu.

Syme jardinetik izarren argipeko kalera irten zenean, une hartan hutsik kausitu zuen. Gero konturatu zen (modu estrainio batez) hango isiltasuna areago zela isiltasun bizia ezen ez hila. Atetik irten eta zuzen farola bat zegoen, eta

haren argitasunak urrez janzten zituen atzean utzitako hesia gainditzen zuen zuhaitz baten hostoak. Farolatik oin batera edo, ia farolaren zutoina bera bezain zurrun eta mugimenduga-bea, gizaitxura bat ageri zen. Kapelu altua eta longain luzea zeramatzan, beltzak biak; aurpegia, berriz, tupusteko itzalean, ia ilunaren pare zen. Argiaren kontra nabarmentzen zèn ile gorri-gorritzko zerrenda bat, eta jarrerak adierazten zuèn agresibitate puntua: beste ezerk ez zuen salatzen agerpen hura Gregory poeta bera zela. Ezpata eskuan bere arerioaren zain legokeen *bravo* mozorrotu baten itxura apur bat zuen.

Diosal zehar-lauso bat egin zuen, eta Syme-k gisatsuxeago itzuli zion agurra.

— Zure zain nengoen —esan zuen Gregory-k—. Solasaldi txiki bat izan dezakegu?

— Bai noski. Zertaz, baina? —galdetu zuen Syme-k, halako harridura motel batez.

Gregory-k farola-zutoina eta gero zuhaitza jo zituen bere makilaz.

— *Honetaz*, eta *honetaz*, —esan zuen goraki—; ordenaz eta anarkiaz—. Horra hor zure ordena preziatua, burdinazko farola argal hori,

zatar eta elkorra; eta horra hor anarkia, aberats, bizi, ugalkorra... horra anarkia, bikain bere orlegi eta urrez.

— Halarik ere —ihardetsi zion Syme-k pazientziatsu—, zuk oraintxe farolaren argiari esker baino ez duzu ikusten zuhaitza. Nahi nuke jakin noiz lortuko duzun zuhaitzaren argiari esker farola ikus dadin.

Eta gero, isilune baten ondoren:

— Baina, atrebentzia handia ez bada...: gure tirabiratxoari ekiteko asmo hutsez egon al zara hemen kaleko ilunbean itxaroten?

Ez —esan zuen Gregory-k, eta durundiz bete zuten kalea haren hitz ozenek—, ez dizut hemen itxaron gure tirabirari berriro ekiteko, tirabira horri betirako akabera emateko baizik.

Isiltasuna nagusitu baitzen berriro, Syme, nahiz ezer ulertu ez, sen hutsez adi zegoen, zerbait seriorik noiz entzungo. Gregory-k ahots leunez eta halako irribarre estrainio batez ekin zion.

— Syme jauna —esan zuen—, aski seinalagarria den zerbait egitea erdietsi duzu arrats honetan. Ama-semek lehenago sekula erdietsi ez duen zerbait egin didazu.

— Hala ere!

— Orain oroitzen naizenez —jarraitu zuen Gregory-k—, beste pertsona batek ere lortu zuen. Bapore koxkor baten kapitainak (zuzen oroitzen banaiz) Southend-en. Neure onetik atera nauzu.

— Damu naiz, oso —ihardetsi zuen Syme-k, serio.

— Nire sumina eta zure iraina gogorregiak dira desenkusa soil batez ezabatzeko —esan zuen Gregory-k, bare-bare—. Duelo batek ere ez lituzke ezabatuko. Jo eta hiltzen bazaitut, ezingo nituzke ezabatu. Bide bakarra dago irain bat deuseztatzeko, eta bide horixe dut aukeratzen. Bizitza eta ohorea bertan galtzeko arriskua neure gain harturik, *frogatu* egingo dizut oker zeundela hala hitz egitean.

— Nola hitz egitean?

— Esan duzu ez nintzela serio ari anarkista nintzela nioenean.

— Seriotasun mailak daude —ihardetsi zuen Syme-k—. Ez dut inoiz dudarik izan erabat zintzo ari zinela horretaz, alegia esaten ari zinena benetan ez zela inolako txorakeria, alegia zure

ustez paradoxa batek iratzar litzakeela gizonak, arretarik ematen ez zaion egia bat ikusaraziz.

Gregory tinko begira geratu zitzaion, saminez beterik.

— Eta beste ezein zentzutan —galdetu zuen— ez nauzu seriotzat hartzen? *Flâneur* horietakotzat naukazu, noizean behin egiaren bat botatzen duena. Ez al duzu uste beste zentzu sakonago, erabatekoagoan, serioa naizenik?

Syme-k bortizki jo zituen karrikako harriak eskumakilaz.

— Serioa! —egin zuen espantu— Jainko maittea! serioa al da karrika hau? Horrako txinatar argiontzi demoniook serioak al dira? Serioa al da ezer hemen? Hona etorri eta solasean hasten da bat: zentzugabekeria mordoa, eta tartean zentzuzko zerbait ere bai, beharbada; baina oso iritzi eskasa nuke nik bere bizitzaren sakonean solasok baino serioagoa den zerbait gordetzen ez duen gizon bati buruz... zerbait serioagoa, nahiz erlijioa izan, nahiz zurruta baino ez.

— Ederki —esan zuen Gregory-k, aurpegia goibel—; aurki ikusiko duzu, zurruta zein erlijioa, biak baino serioagoa den zerbait.

Syme bere ohiko otzantasun aire harekin egon zen zain, Gregory-k berriro ezpainak ireki zituen arte.

— Puntuak hitz egin duzu erlijioaren kontuaz. Baduzu zuk, bene-benetan, erlijiorik?

— Zera —esan zuen Syme-k irribarre zabalaz—, katolikoak gara guztiok dagoeneko.

— Orduan arren eskatu behar dizut zin egiteko, zure erlijioa jainko nahiz santuen izenean, direnak direla, ez diozula azalduko kontatuko dizudana ezein adan-semeri, eta bereziki polizia-ri. Zin egizu! Zeure gain hartzen baduzu ukapen eskerga hori, prest bazaude sekula egin behar ez zenukeen boto batez eta sekula ametsetan ere bururatu behar ez litzaizukeen ezagutza batez zure arima zamatzeko, ordainez agintzen dizut...

— Ordainez agintzen didazu? —itaundu zuen Syme-k, bestea horretan gelditu baitzen.

— Ordainez agintzen dizut guztiz ere arrats dibertigarria.

Bet-betan, Syme-k kapelua erantzi zuen.

— Zure eskaintza ergelegia da, inondik inora, ez onartzeko. Poeta bat beti anarkista bat dela diozu. Ez nago ados: baina espero dut finean beti

izatea garbi jokatzen duen gizon bat. Uztazu, bada, hemen eta orain, kristau gisa zin egiten, eta burkide jator eta artista-kide gisa promes, ez diodala kontu honetaz, zernahi dela ere, ezeren berri emango poliziari. Eta orain, Colney Hatch-en izenean, zer da kontua?

— Ia hobe —esan zuen Gregory-k, loturarik-ez patxadatsuz— kotxe bat hartuko bagenu.

Bi txistu luze egin zituen, eta zalgurdi bat etorri zen kanean behera binbilika. Isilik sartu ziren biak. Chiswick aldeko ibaiertzeko taberna ilun baten helbidea eman zuen Gregory-k sabai-zulotik. Zalgurdiak bideari ekin zion ostera, gure bi mamuok beren mamu-hiritik eramanez.

2. KAPITULUA

Gabriel Syme-ren sekretua

Kotxea garagardotegi bereziki lizun- eta koipe-zulo baten aurrean geratu zen, eta Gregory-k bizkor eraman zuen bere laguna barrura. Halako saloi-bar estu, argi-eskas batean eseri ziren, zurezko mahai zikin hanka-bakar batera. Hain zen gela txikia eta iluna, ezen nekez baitzitekeen deus bereiz deira etorri zen zerbitzariaz, ez bazen halako bizardun kankailu bat zelako inpresio lausoa.

— Afalduko duzu noski zertxobait? —galdetu edo zion Gregory-k, gisatsu—. *Pâte de foie grasa* ez dute oso ona, baina zinez gomendatzen dizut orkatz-okela.

Syme-k soraio jaso zuen iruzkina, txantxatatzorik. Umore-ildo beretik, heziera oneko ezaxolasun lasaiz esan zuen:

— Otarraina maionesarekin hartuko dut.

Baita erabat txunditurik geratu ere, gizona, «Berehala, jauna» esan, eta, antza, agindurikoa-
ren bila joan baitzen.

— Zer edan nahi duzu? —berrekin zion Gregory-k, lehengo tonu arduragabe baina desenku-
sa-usaineko berean—. Nik neuk *crème de menthe* hutsa hartuko dut; afalduta nago. Xanpainak ez du inolako aitzakiarik. Zer iruditzen zaizu Pommery botila-erdi bat, hasteko, gutxienez?

— Eskerrik asko —esan zuen Syme-k, zurtu-
rik—. Estimatzen dizut.

Artean ere solas-saio baldarren bat edo beste egin bazuen ere, otarrainaren agerpenak eten zizkion ziplo Syme-ri. Dastatu, eta bereziki ona iruditu zitzaion. Orduan mauka-mauka jateari ekin zion.

— Barkatu halako gozatu nabarmena hartzen badut —esan zion Gregory-ri, irribarrez—. Nire zoriak ez dit askotan ematen halako ametsetarako aukerarik. Estreineko aldia dut amesgaizto batek otarrain batera nakarrena. Batekoz beste izan ohi da kontua normalean.

— Ez zaude lotan, sinestadazu —esan zuen Gregory-k—. Aitzitik ere, zure biziko unerik

errealen eta erneenaren aurrean zaude. Hara, hor dator zure xanpaina! Aitortzen dut egon litekeela halako desoreka ttiki bat, nolabait esateko, ostatu bikain honen barne antolaketaren eta kanpoaldeko itxura soil, apaingabearen artean. Apaltasuna baitugu begiko. Lurgainean sekula bizi izan den jenderik apalena gara.

— Nortaz ari zara *gu* diozunean? —galdetu zuen Syme-k—, xanpaina kopa hustuz.

— Ez da zaila asmatzen —ihardetsi zion Gregory-k—. *Gu* anarkista benetakoak gara, zuk sinesten ez dituzun horiek.

— Bada —bota zion Syme-k—, bapo zabilzate edarien kontuan.

— Hala da, bai, serio hartzen dugu hori ere —erantzun zuen Gregory-k.

Gero, isilune baten ondoren:

— Hemendik pixka batera mahai hau apur bat jiraka hasten bada, ez egotzi hori xanpainaren eraginari. Ez dut nahi zeure buruari oker iritz diezaiozun.

— Tira, ez nago mozkorrik, erotuta nago —ihardetsi zuen Syme-k, patxada osoz—; baina

espero dut edozein kasutan jaun gisatsu baten modura portatzea. Erretzerik bai?

— Bai noski! —esan zuen Gregory-k, purukaxa bat aterarik—. Probatu nireetatik.

Syme-k zigarro bat hartu zuen; poltsikotik atera zuen puru-mozteko batez muturra kendu, ahoan kokatu, astiro piztu, eta ke laino luze bat jaulki zuen. Eta ez zuen meritu makala errituok egokitasunez burutzea, zeren, ia zigarroarekiko-ei ekin orduko, mahaia jiraka hasi baitzen, hasieran geldiro, eta gero bizkor, izpiritismo-saio burugaldu batean bezala.

— Ez arduratu —esan zuen Gregory-k—, torloju moduko bat da.

— Ah, bai —esan zuen Symek patxadaz—, torloju moduko bat! Siplea gauza!

Handik berehala, zigarroaren kea, ordura arte gelan zehar suge bat bezala zigi-zaga ibilia, zuzen gora tentetu zen, lantegi bateko tximinia-tik bezala, eta bi gizonak, aulki, mahai eta guzti, ziplo galdu ziren zoruan behera, lurrak irentsi balitu bezala. Binbilika jaitsi ziren, berealdiko erruan, tximinia moduko batetik, hariak etenda-ko igogailu bat bezain azkar, eta danbada zakar

batez jo zuten hondoa. Guztiarekin ere, Gregory-k ate pare bat ireki eta lurpeko argi gorria sartu zenean, Syme-k purua erretzen segitzen zuen, zangoa zango gainean, eta ez zitzaion nahastu bere ile laruetatik bat bera ere.

Gregory-k pasabide makur, gangatu batetik eramane zuen. Haren azken muturretik zetorren argi gorria. Argiontzi gorrimin eskerga bat zen, ia sutegi bat bezain handia, burdinazko ate txiki baina astun baten gainean jarria. Atean sabaizulo edo sare-leiho moduko bat zegoen, eta hartan jo zuen Gregory-k bost aldiz. Kanpotar azentua zuen ahots sendo batek nor zen galdetu zion. Eman zuen erantzuna ezusteko samarra gertatu zen: «Joseph Chamberlain jauna». Ate-erro astunak higitzen hasi ziren; kontrazeinu moduko bat zen, noski.

Atetik barrura, halako dirdai bat zerion pasabideari, altzairu-sarez lerroztatuak bailituen hormak. Hobeki begiraturik, Syme-k ikusi zuen ez zela hori, baizik dirdir hura, pakete estutan nahiz elkarri loturik, hantxe lerroka gordetzen ziren kabitua ahal errifle eta errebolberrena zela.

— Arren eskatzen dizut formalitate guztiok barkatzeko —esan zuen Gregory-k—; zorrotz jokatu beharra daukagu hemen.

— Oh, ez desenkusatu —esan zuen Syme-k—. Ezagutzen dut lege eta ordenaren alderako duzun grina —eta aurrera egin zuen, altzairuzko armaz lerroztaturiko pasabidean barrena. Bere ile luze argi eta soingaineko luze dotore harekin, guztiz itxura hauskor, bitxia zuen, heriotzaren hiribide distiratsu hartan behera zihoala.

Halamoduzko zenbait pasabidetatik iragan ziren, eta azkenean altzairuzko ganbara estrainio batera iritsi ziren. Ganbarak horma okerrak zituen; ia esferikoa zen. Banku-ilara batzuek, hala ere, zientziazko ikas-areto biribil horietako baten tankera apur bat ematen zioten. Ez zegoen ez erriflerik ez pistolarik gelan, baina, hormen jiran, are itxura badaezpadakoago eta lazgarriagorik ageri zen han zintzilik: burdinazko landare batzuen erraboilak edo burdinazko txori batzuen arrautzak. Bonbak ziren, eta gelak berak ere bonba baten barrualdearen itxura zuen. Syme, bere puruaren hautsa hormaren kontra astindu, eta sartu egin zen.

— Eta orain, Syme jaun preziatua —esan zuen Gregory-k, bonbarik handienaren peko bankuaren gainera egotziz lagunkiro bere burua—, leku lasai honetan, garbi hitz egiteko moduan gaude. Ez dago giza hitzik, aditzera eman diezazukeenik zergatik ekarri zaitudan hona. Erreakzio guztiz arbitrario horietako bat izan da, labar batetik bera jauzi egitea edo maitemintzea bezala. Aski izan bedi esatea zu edonor bere onetik ateratzeko moduko tipoa agertu zarela, eta, egia esateko, oraindik ere hala ikusten zaitut. Hogei sekretu-zin ere hautsiko nituzke zuri haize horiek apaltzeko plazerraren truke. Zigarro bat pizteko duzun modu horrek aitortza-ren sekretua aise hautsaraziko lioke apaiz bati. Tira, esan duzu guztiz ziur zeundela ni ez nintzela anarkista serio bat. Hartzen al diozu batere serio trazarik toki honi?

— Hala dirudi, bai, funts bat behar duela honek, bere dibertigarrian —baieztu zuen Symek—; baina egin al diezazkizuket bi galdera? Ez duzu beldurrik izan behar niri informazioa emateko, ezen, oroituko zarenez, promes eginarazi didazu, zuhur, ez niola poliziari deus kontatuko,

eta ziur egon zaitezke eutsiko diodala neure hitzari. Jakingura hutsez egiten dizkizut, beraz, itaunok. Lehenengo eta behin, zertara dator hau guztia? Zeren kontra zaudete? Zer nahi duzue, Gobernu deuseztatu?

— Jainkoa deuseztatu! —esan zuen Gregory-k, fanatiko baten begiak zabalduz—. Ez dugu aski hiruzpalau jarrera despotiko eta beste hainbeste polizia-araubide hankazgora jartzea; anarkismo suerte hori existitzen da, baina Ezkonformisten adar bat baino ez da. Guk sakonago aztertzen dugu, eta gorago doaz gure jomugak. Bizio eta bertute, ohore eta traizio bereizkuntzak, matxino hutsek oinarri hartzen dituzten bereizkuntza arbitrario guztiok ukatzera gatozgu. Frantziako Iraultzako sentibera ergel haiek Gizonaren Eskubideez mintzo ziren. Guk gorroto ditugu Eskubideak eta orobat gorroto Bidegabekeriak. Zuzena eta Okerra abolitu ditugu.

— Eta Ezkerra eta Eskuina —esan zuen Syme-k, berotasun zozoz—, espero dut horiek ere abolitzea. Askoz ere gatazkatsuagoak zaizkit niri.

— Bigarren galdera bat ere aipatu duzu — moztu zuen Gregory-k.

— Atsegin handiz —jarraitu zuen Syme-k—. Zuen ekintzotan guztiotan eta ingurumarietan, bada sekreturako saio zientifiko halako bat. Izeba bat badut denda baten gainean bizi zena, baina lehenbiziko aldia da aukeran taberna baten azpian bizi nahi duen jendea aurkitzen dudana. Burdinazko ate sendo bat jarri duzue. Ezin zarete hartatik pasatu, zuen buruari Cham-belain jauna deitzeko umiliazioari men egin ezean. Inguru guztia altzairuzko tresnaz josita daukazue, eta horrek, atrebentziarekin esan dezadan, etxekoi bainoago, lazgarri bihurtzen du lekua. Galde dezaket, bada, zuen burua lurraren barrunbeetan barrikadetaratzeko lan hori guztia hartu ondoren, zer dela-eta erakusten duzun gero denen aurrean nabarmen zuen sekretua, Saffron Park-eko emakume ergeloi anarkismoaz hitz eginez?

Gregory-k irribarre egin zuen.

— Erraza da erantzuna —esan zuen—. Nik esan dizut zuri benetako anarkista bat nintzela, eta zuk ez didazu sinetsi. Bada, *hai*ek ere ez

didate sinesten. Non eta ez ditudan infernu-gela honetara ekartzen, ez didate inoiz sinetsiko.

Syme-k gogoetatsu erretzen zuen purua, Gregory-ri arretaz so. Hark jarraitu egin zuen.

— Dibertigarria gertatuko zaizu agian horren historia —esan zuen—. Anarkista Berrietako kide bilakatu nintzenean, hasieran mota guztietako errespetuzko mozorroak saiatu nituen. Gotzain jantzirik ibili nintzen. *Sineskeria*, *banpiro hori* eta *Apaiz harrapariak* gure panfleto anarkistek apezpikuei buruz zekarten guztia irakurri nuen. Irakurketa horietatik garbi atera nuen edonor ikaratzeko moduko agure estrainio batzuk direla gotzainak, gizateriari sekretu krudel bat ezkutu nahi diotenak. Lehen aldiz gotzain jantzirik agertu nintzenean saloi batera, eta trumoi-ahotsez oihuztatu: «Utikan! utikan! giza adimen handi-ustea!», nola edo hala antzeman zidaten ez nintzela inongo apezpikua. Berbertan atxilotu ninduten. Milioidun baten mozorroa saiatu nuen hurrena; baina hain burubide argiz aldeztu nuen Kapitala, ezen inozoenak ere aise ikus baitzezakeen behartsu hutsa nintzela. Gero gudalburu baten uniformearekin saiatu nintzen. Iza-

tez, gizakoia naiz ni, baina badut, espero dut, heziketa intelektual nahikorik, zera, Nietzsche-k bezala, bortxa miresten dutenen jarrera ulertze-ko... Naturaren gudu itsu harroa, eta hori guztia, badakizu. Gudalburuaren lekuan jarri nintzen, buru-belarri. Ezpata atera eta zirti-zarta erabil-tzen nuen taigabe. «Odola!» oihukatzen nuen, arretarik jarri gabe, ardoa eskatuko lukeenak bezala. Sarri esaten nuen: «Utzi ahulei beren gisa hiltzen; hori da Legea.» Bada, nonbait, ez dirudi hala jokatzeko dutenik gudalburuek. Berri-ro atxilotu ninduten. Azkenean, etsi-etsian, Anar-kisten Batzar Nagusiko Lehendakariarengana jo nuen, Europako gizonik bikainena baita.

— Nola du izen-deitura? —galdetu zuen Syme-k.

— Ez zenuke ezagutuko —erantzun zuen Gregory-k—. Horretan ageri da haren bikaintasuna. Zesarrek eta Napoleonek beren asma-ahal guztia ipini zuten entzutetsuak izateko, eta bete-betean lortu zuten. Hark bere asma-ahal guztia ipini du entzutegabea izateko, eta bete-betean lortu du. Baina bost minutu pasatu harekin gela batean, eta ez zaizu dudarik geldituko ezen,

haren eskuetan, haur gisako batzuk baizik ez ziratekeela Zesar eta Napoleon.

Isilik eta are zurbil geratu zen une batez, eta gero jarraitu:

— Izan ere, aholkuren bat ematen duenean, epigrama bat bezain txundigarria izaten da beti, eta hala ere Ingalaterrako Bankua bezain praktikoak. Esan nion: «Zer mozorrok ezkuta nazake mundutik? Zer nuke errespetagarriagorik gotzainak eta gudalburuak baino?» Bere aurpegi zabal baina igartezin horrekin begiratu zidan. «Mozorro seguru bat behar duzu, ezta? Arriskurik ez duzula bermatuko duen itxura bat nahi duzu; inork sekula bonba bila arakatuko ez duen jantzi bat?» Baietz egin nion buruaz. Bat-batean bere lehoi-ahots hori jaso zuen: «Zergatik ez zara, hortaz, *anarkista* mozorrotzen, txoriburu hori!» bota zidan, halako marruaz, non dardaraz utzi zuen gela. «Hala inork ez du espero izango zugandik ezeren okerrik.» Eta bere bizkar zabala eman zidan, beste hitzik gabe. Jaramon egin nion aholkuari, eta ez naiz inoiz damutu. Izugarrikeriarik odoltsuenak predikatzen aritu natzaie emakume horiei gau eta egun, eta —Jainkoa-

rren— beren haur-kotxeak eramaten ere utziko lidakete lasai asko.

Syme begira geratu zitzaion, bere begi zabal, urdin haietan nolabaiteko errespetua agertuz.

— Ziri ederra sartu didazu —esan zuen—. Ez da batere amarru txarra.

Gero, isilune baten ondoren, jarraitu zuen:

— Nola deitzen diozue zuen Lehendakari ikaragarri horri?

— Jeneralean Igande esaten diogu —erantzun zuen Gregory-k, xalo-xalo—. Hara: Anarkisten Batzar Nagusia zazpi kidez osatua da, eta asteko egunen izena ematen zaie. Hura Igande da guretzat; Igande Odoltsu, haren miresleetako batzuentzat. Gauza bitxia da zure aldetik hori galdetzea, zeren zuri bazter hauetara bisita egitea (hala esaterik badaukat) bururatu zaizun gau honetantxe hautatu behar baitu gure Londresko adarrak, gela honetan batzartzen den taldeak, hain zuzen, bere ordezkaria, Batzarrean gertatu den hutsune bat betetzeko. Denboraldi batez, egokitasunez eta denon onespenez, Ostegun-en eginkizun ez batere erraza bete duen jauna guztiz bat-batean hil da. Horren kariaz, arrats hone-

tarakoxe deitu dugu batzarra, haren ondorengo aukeratzeko.

Zutik jarri, eta gelan zehar ibiltzen hasi zen, mantso-mantso, irribarrez estaliriko ahalke moduko batez.

— Nire ama bazina bezalako sentsazioa edo dut zurekin —berrekin zion, seriotasuna kenduz hitzei—. Edozer gauza aitor diezazuket, konfiantza osoz, isilik gordetzeko promesa egin baituzu. Oraintxe bertan, esaterako, hemendik hamar bat minutura hona bilduko diren anarkistei modu berean inolaz ere aitortuko ez niekeen zerbait aitortu behar dizut. Jakina, hauteskunde moduko bat antolatu beharko da; baina ez zait axola zuri esatea ia jakina dela zein izango den emaitza —une batez begiak lurrera jarri zituen, apal—. Ia gauza segurua da ni izango naizela Ostegun.

— Lagun preziatua —esan zuen Syme-k, bihotz beroz—, zorionak! Bikaina karrera!

— Gregory-k irribarre egin zuen, garrantzia kenduz, eta gelan zehar ibiltzen hasi zen, bizkor-bizkor hitz eginez.

— Egia esan, dena prest dago niretzat mahai honetan —esan zuen—, eta labur-labur joango da noski zeremonia.

Syme ere mahaira inguratu zen pixkanaka, eta haren ganean topatu ibil-makila bat, zeina hurbilagotik arakaturik ezpata-makila izatea gertatu baitzen, Colt errebolber handi bat, ogitarte-ko-kaxa bat, eta brandy-petaka ez nolana hiko bat. Aulki ganean, mahai ondoan, itxura astuneko kapa edo soingaineko bat.

— Gure arteko hauteskunde modu horrekiko-ak egin —segitu zuen Gregory-k, animaturik—, soingaineko-makilok hartu, beste zerok sakelan sartu, eta kobazulo honetako ate batetik ibaira irtengo naiz, eta hantxe edukiko dut zain bapora koxkor bat, eta gero... eta orduan... oi, Ostegun izatearen bozkario eta zoramena! —eskuak aurretiazko pozez estaturik.

Syme, ohiko bere ezaxola-itxura guztiz nabarmen harekin eseria baitzen osterara, ohi ez bezalako zalantza-aire batekin zutitu zen.

— Zergatik iruditzen ote zait —galdetu zuen, zalantzati— guztiz gizon prestua zarela? Zergatik ote zaitut dudarik gabe gogoko, Gregory? —

une batez gelditu, eta gero halako jakingura bizi-bizi batez erantsi zuen—: Halakoxe astoa zarela-ko ote?

Isilune gogoetatsu bat gertatu zen oster, eta gero bero-bero ekin zion Syme-k:

— Tira, pikutara kontuok! bizi guztian egokitu zaidan egoerarik xelebreena da hau, eta nik ere dagokion moduan jokatu behar dut, Gregory. Promes bat egin dizut hona sartu aurretik. Pintza gorien torturapean ere ez nuke hautsiko. Egin zeniezadake zuk, neronen segurtasunerako, gisa bereko promes koskor bat?

— Promes bat? —galdetu zuen Gregory-k, harritu samarturik.

— Bai —esan zuen Syme-k, oso seriooki—, promes bat. Nik Jainkoaren aurrean zin egin dut ez niola poliziari zure sekretuaren berri emango. Egingo al duzu zuk zin Gizateriaren izenean, edo sinesten duzun demontre arraioaren izenean, ez diezula nire sekretuaren berri emango anarkis-tei?

— Zure sekretua? —galdetu zuen Gregory-k, harri eta zur—. Sekretu bat duzu zuk?

— Bai, —esan zuen Syme-k— sekretu bat dut —gero, isilune baten ondoren—: Zin egingo duzu?

Gregory begira geratu zitzaion apur batez, zorrotz, eta gero kolpetik bota zion:

— Sorgindu egin nauzu, antza, baina jakin-min eutsiezin bat sortu zait, horra, zuregana. Bai, zin egingo dut ez diedala anarkistei esaten didazun ezeren berririk emango. Baina agudo beharko du, ezen minutu pare bat barru hemen dituzu.

Syme zutik jarri zen, eta bere esku zuri luzeak bere galtza gris, luzeen poltsikoetara sartu. Ia horrekin batera, bost kolpe entzun ziren kanpoko sare-leihoan, konspiratzaileetako lehe-na bazetorrela iragarritz.

— Hara —esan zuen Syme-k astiro—, ez dakit nola adierazi egia laburrago ezen esanez poeta arriskugabearen jantziaz baliatzearen hori ez dela zuen Lehendakari horren trikimailua soilik. Scotland Yard-en aspaldian erabiltzen dugu amarru hori.

Gregory zuzen tentetzen saiatu zen hirutan, baina ez zuen asmatu.

— Zer diozu? —galdetu zuen, ahots gizagabez.

— Bai —esan zuen Syme-k xalo-xalo—, poli-ziako detektibea nauzu. Baina, entzuten dudanez, hortxe ditugu zure lagunak.

Ate aldetik halako marmar bat iristen zen: «Joseph Chamberlain jauna». Birritan eta hirutan errepikatu zen, eta gero hogeita hamar bider, eta Joseph Chamberlain jendetza (pentsamenduaren gaitza) han zetorren, pauso astun oze-nez, korridorean barrena.

3. KAPITULUA

Ostegun izan zen gizona

Aurpegi berririk atean agertu orduko, ezuste harritu hura alde egina zen Gregory-renetik. Mahai ondora jauzi egina zen, piztia basati bate-na bezalako hotsa eztarrian. Colt errebolberrari eskua erantsi, eta Syme apuntatu zuen. Hark ez zuen zirkinik ere egin atzera, baina esku zurbil kortesiatsu bat jaso zuen.

— Ez izan halako ergela —esan zuen, apaiz baten duintasun afeminatuaz—. Ez al duzu ikusten ez dela beharrezkoa? Ez al duzu ikusten ontzi berean gaudela biok? Eta itsas-gaitzak xelebregi jota, gainera.

Gregory ez zen mintzatzeko gauza, baina tiro egiteko ere ez, eta begiekin galdezka geratu zitzaion.

— Ez al duzu ikusten elkarri xake-mate eman diogula? —esan zuen Syme-k goraki—. Nik ezin esan diezaioket poliziari zu anarkista bat zarela. Zuk ezin esan diezaiekezu anarkistei ni polizia

naizela. Nik egin dezakedan bakarra zera da, zu nor zaren jakinda begira egon; eta zuk beste hainbeste, ni nor naizen jakinda. Hitz batean, bakarkako duelo intelektual bat dugu geure hau, bion arteko buruz-buru bat. Ni poliziaren laguntzaz gabeturiko polizia bat naiz. Zu, lagun gaitxo, anarkiari hain funtsezko zaion lege eta antolaketaren laguntzaz gabeturiko anarkista bat zara. Bion arteko desberdintasun soil bakarra zure aldekoa da. Zu ez zaude polizia kuxkuxeroz inguraturik; ni anarkista kuxkuxeroz inguraturik nago. Nik ezin dizut zuri traiziorik egin, baina bai neure buruari. Tira, gizona: itxaron eta ikusiko duzu nola egiten diodan traizio neure buruari. Primeran egingo dut nik hori, ikusiko duzu.

Gregory-k pistola jaitsi zuen, astiro, itsas-munstro bat balitz bezala begira-begira Syme-ri.

— Nik ez dut sinesten hilezkortasunean — esan zuen azkenean—, baina, honen guztiaren ondoren, zeure hitza hausteko gai bazara, Jainkoak infernu bat egingo du zuretzat bakarrik, beti-betiko uluka hantxe egon zaitez.

— Ez dut hautsiko neure hitza —esan zuen Syme-k, serio-serio—, eta zuk ere ez duzu hautsiko zeurea. Hemen ditugu zure lagunak.

Anarkista ostea gelara sartu zen, urrats astu-nez, nagitasuna edo nolabaiteko nekea nabarmenduz ibileran; gizontxo bizar-beltz betaurrekodun bat, ordea —Tim Healy jaunaren nolabaiteko antza zuena—, taldetik bereizi, eta aurrera lehiatu zen, paper batzuk eskuan.

— Burkide Gregory —esan zuen—, gizon hau ordezkari bat izango da noski?

Gregory-k, ezustean harrapaturik, begiak apaldu eta Syme-ren deitura murduskatu zuen; Syme-k, berriz, nabarmen samar ihardetsi zuen:

— Pozgarri zait ikustea zuen atea aski ongi zaindua dagoela ordezkari ez den inork zail izan dezan hona sartzea.

Gizontxo bizar-beltzaren bekainak, artean ere, kizkurturik segitzen zuen, susmo txarrez edo.

— Zein adar ordezkutzen duzu? —galdetu zuen, zorrotz.

— Nik ez nuke esango adar bat denik —esan zuen Syme-k, barrez—. Nik esango nuke gutxien-gutxienez sustrai bat dela.

— Zer esan nahi duzu?

— Egia esan —esan zuen Syme-k patxada lasaiz—, egia esan behar badut, Sabatario bat nauzu. Iganderi behar bezala men egiten dio-zuen ikusteko mandatu bereziarekin etorria naiz.

Gizontxoari bere paperetako bat erori zitzaion esku artetik, eta izu-ikara halako bat pausatu zen taldekoen aurpegietan. Bistan zenez, Igande zeritzan Lehendakari ikaragarri hark halako enbaxadore ezohikoak igorri ohi zituen tarteka adar-bilkuretara.

— Hortaz, burkide —esan zuen paperdun gizonak, isilune baten ondoren—, hobe izango dugu aulki-leku bat ematea bilkuran.

— Adiskide baten aholkua nahi baduzu —esan zuen Syme-k, onberatasun zorrotzez—, uste dut hobe duzuela, bai.

Gregory, arriskuz beteriko elkarrizketa hartatik bere aurkaria onik ateratzen zela ikusirik, tupustean jaiki eta hara-hona ibiltzen hasi zen, gogoetaneketsuan. Izan ere, hil edo biziko diplo-

mazia-auzi baten aurrean zegoen. Garbi zegoen bere etorri lotsagabea baliagarri izango zitzaiola Syme-ri, halabehar hutsezko kinka guztietan aurrera ateratzeko. Alde hartatik ez zegoen zer egin handirik. Berak ezin zezakeen Syme saldu, alde zaharagatik, eta alde beren, arrazoiren bategatik, hura suntsitzea lortzen ez bazuen, hala ihes eginda, Syme sekreturako obligazio guztietatik libre baitzegokeen, eta aski baitzukeen noski hurbileneko polizia-egoitzara jotzea. Azken finean, gau bakar bateko eztabaida baino ez zen, eta detektibe bakar bat haren berri izango zuena. Ahalik eta gutxiena agertuko zuen gau hartan bere planei buruz, eta gero Syme-ri alde egiten uzteko arriskua bere gain hartu.

Anarkista taldearengana jo zuen, haiek ordu-rako bankuetan beren lekuak hartzen ari zirela.

— Hasteko ordua ere badugu —esan zuen—; baporea zain egongo da honezkero ibaian. Buttons burkidea proposatzen dut mahaiburu.

Proposamena esku jasoz onarturik, paperdun gizontxo mahaiburu-aulkira lerratu zen.

— Burkideak —hasi zen, pistola-tiro bat bezain ziplo—, gaurko gure bilkura hau garran-

tzizkoa da, nahiz ez duen zertan luzatu. Gure adar honek bere gain izan du beti Europako Biltzar Nagusirako Ostegun aukeratzeko ohorea. Ostegun asko eta bikainak aukeratu izan ditugu. Denok deitoratzen dugu joan den astera arte postu hori bete duen langile heroikoaren heriotza tamalgarria. Dakizuenez, zerbitzu ez nolana hikoak zor dizkio gure kausak. Hark antolatu zuen Brighton-eko dinamitaldi bikaina, zeinak, gauzak hobeki joan balira, kai gainean zeuden guztiak akabatu behar baitzituen. Orobat dakizuenez, heriotza ere bizitza bezain altruista izan zuen, ezen esnearen ordezeko kare eta ur nahaste higieniko batean zuen fedea zela-eta hil zen, zeren barbarotzat baitzeukan edabe hori, behiaren aurkako krudelkeria baten bidez lortua izanik. Krudelkeriak, edo krudelkeriaren antzeko edozerk, barrua iraultzen zion. Baina ez gara bildu haren bertuteei ohore emateko, eginkizun nekezago baterako baizik. Zaila da haren kalitateak behar bezala goraiatzea, baina are zailagoa haien ordezkoa aurkitzea. Zuei dagokizue orain, burkideak, arrats honetan, bildu garenon artetik hautatzea Ostegun izango den gizona.

Burkideren batek izenen bat iradokitzen badu, bozketara joko dugu. Inork ez badu izenik iradokitzeke, esan dezakedan gauza bakarra zera da, betirako galdu zaigun dinamitari preziatu horrekin batera galdua zaigukeela, jakin ezineko leize sakonetara galdu ere, haren bertuteen eta haren xalotasunaren azken sekretua.

Ia ez entzuteko moduko txalo-dardara bat sumatu zen, elizan batzuetan izaten denaren gisakoa. Gero, bizar zuri luze beneragarri baten jabe zen agure luze-zabalak, akaso bilerako langile egiazko bakarra bera, astun-astun jaiki, eta esan zuen:

— Gregory burkidea proposatzen dut Ostegun izateko hautagai—. Eta jaiki bezain astun eseri zen atzera.

— Inor gehiago proposamen horren alde? — galdetu zuen bilera-buruak.

Belusezko jaka zeraman gizontxo bizar-zorrotz bat agertu zen alde.

— Bozketari ekin aurretik —esan zuen bilera-buruak—, Gregory burkidearen txanda da, adierazpen bat egin dezan.

Gregory txaloaldi bikain baten erdian zutitu zen. Hilotz antzo zurbil zegoen, eta kontrastean ile gorri bitxiak eskarlata ematen zuen ia. Baina irribarrez zegoen, lasai oso. Erabakia harturik zeukan, eta argi eta zelai ikusten zuen handik aurrera zein jokabide zegokion. Onena zen halako hitzaldi ematu, anbiguo bat egitea, anarkisten anaiarte harena azken finean arrisku handirik gabeko gauza zelako inpresioa uzteko detektibearen buruan. Bere literatur ahalmenean sinesen zuen, ñabardura sotilak iradoki eta hitz egoiak aukeratzeko zuen gaitasunean. Pentsatzen zuen kontu apur batez lor zezakeela, inguruan zuen jende hura guztia gora-behera, erakundearen halako irudi modu sotil eta delikatu batean faltsu bat ematea. Syme-k lehen ere pentsatu izan zuen anarkistak, beren erronka harro guztien azpitik, pailazoarena egiten baino ez zirela ari. Ezin ote zion berak orain, arriskuaren tenorean, horixe pentsarazi?

— Burkideak —hasi zen Gregory, ahots baxu baina sarkor batez—, ez da beharrezkoa nik hemen azaltzea nire egitasmoa zein den, zuen egitasmo bera baita. Gure sinesmena gaitzesana

izan da, desitxuratua, erabat nahastua eta ezkutatua, baina sekula ez ezertan aldatua. Anarkismoaz eta anarkismoaren arriskuez mintzo direnek toki guztietara jo dute beren informazioaren bila; edozein tokitara, salbu eta guregana, salbu eta iturburura. Anarkistei buruz dakitena bostxentimoko nobeletatik dakite; *Ally Sloper's Half Holiday* eta *Sporting Times*etik dakite anarkisten berri. Sekula ez dute ezer jakiten anarkistei buruz anarkistengandik. Guk ez dugu aukerarik Europako mutur batetik bestera guregatik esaten dituzten mendi-halako oker-irainak gezurtatzeko. Izurri ibiltariak garela betidanik aditu duen gizonak ez du inoiz entzun gure erantzuna. Ongi dakit ez duela entzungo gau honetan ere, nire hitzaren berotasuna gure gaineko sabaia altzarazteko modukoa izanik ere. Zeren sakonean, lurraren barne sakonean baizik ezin baitira bildu jazarriak, kristauak katakunbetan biltzen ziren bezala. Baina, halabehar sinesgaitz baten bitartez, gaur hemen balego bizi guztian gutaz halako irudi guztiz ere okerra izan duen gizon bat, honako galdera egingo nioke: «Kristau haiek katakunba haietan elkartzen zirenean, nolako

ondra-fama zuten han gaineko karrketan? Zer izugarrikeriak ez zizkioten kontatuko erromatar ongi heziek elkarri haien gainean? Egizu gogo — esango nioke—, egizu gogo historiaren paradoxa oraindik ere misteriotsu horren errepikapena baino ez dela gurea. Egizu gogo kristauek bezain arriskugabeak garelakoxe dirudigula kristauek bezain asaldagarriak. Egizu gogo horrexegatik dirudigula haiek ziruditen bezain zoro: kristauak bezain otzanak garelakoxe.»

Hasierako esaldiei abegi egin zien txaloaldia ezarian motelduz joan zen, eta azken hitzekin ziplo etenda geratu zen. Bat-bateko isiltasunean, belusezko jaka zeraman gizonak, ahots altu, garrasi-antzeko batez, esan zuen:

— Ni ez naiz otzana!

— Witherspoon burkideak diosku —jarraitu zuen Gregory-k— bera ez dela otzana. Ah, zein gutxi ezagutzen duen bere burua! Hitzak, izan ere, neurritz kanpokoak ditu; itxura, berriz, basantza, eta akaso (gustu arruntarentzat) ez oso erakargarria. Nirea bezalako adiskidetasun sakon eta delikatu baten begiek baizik ezin dezakete atzeman, alabaina, hondo-hondoan

ageri duen otzantasun sendozko oinarri sakona, berak ikusteko ere sakonegia. Berriz diot: gu gara benetako lehen kristauak; beranduegi hel-tzea, besterik ez. Xaloak gara, haiek xaloak ziren bezala: begira Witherspoon burkideari. Lotsa onekoak gara: begira niri. Errukitsuak gara: ...

— Ez, ez! —deiadar egin zuen belusezko jakadun Witherspoon jaunak—. Errukitsuak garela diot —errepikatu zuen Gregory-k haserre— lehen kristauak errukitsuak izan ziren bezala. Horrek ez zuen eragotzi, hala ere, giza haragi jale izatea lepora ziezaieten. Guk ez dugu giza haragirik jaten...

— Tamala! —oihuz Witherspoonek—. Zergatik ez?

— Witherspoon burkidea —esan zuen Gregory-k, bozkario sukartsuz— irrikaz dago jakiteko zergatik inork ez duen bera jaten (barre). Hemen, bederen, bihotzez maite duen lagunarte honetan, maitasunean oinarritzen den lagunarte...

Ez, ez! —berriz Witherspoon-ek—. Behera maitasuna!

— Maitasunean oinarritzen den lagunarte honetan —errepikatu zuen Gregory-k, hortzei kirrinka eraginez—, ez dugu zalantzarik gorputz bat bezala bat eginik erdietsi nahi ditugun jomugez, eta jomuga horiexei helduko diet nik gorputz horren ordezkari gisa hautatzen banauzue. Asasinotzat eta gizartearen etsaitzat aurkezten gaituzten mihi gaiztoei inolako jaramonik egiteke, adorez helduko diegu, ahalegin isil, intelektualez, anaitasunaren eta xalotasunaren ideal betierekoei.

Gregory-k, eseri eta eskua pasatu zuen beko-kian. Isilune bat gertatu zen betan, deseroso, baina bileraburuak, automata baten gisa zutitu, eta ahots koloregabez esan zuen:

— Gregory burkidea hautatzearen aurka inor?

Batzarrak modu lauso, subkontziente batez gogozapuztua zirudien, eta Witherspoon burkidea artega higitzen zen bere aulkian, bere bizar trinkorako marmarka. Errutinaren errutinaz, hala ere, mozioa aurrera aterako zen. Bileraburua ebazpena emateko ahoa irekitzera zihoala,

ordea, Syme, ziplo zutitu, eta ahots apal bare batez esan zuen:

— Bai, bileraburu jauna, ni nago aurka.

Oratorian gauzarik eragingarriena ahots-aldaketa ezusteko bat da. Gabriel Syme jauna, bistan zenez, jantzirik zegoen oratoria kontuan. Lehen hitz formalok ahots moderatuz eta xalotasun laburrez esan ondoren, hurrengoak sabai-gangan zartaka durundiarazi zituen, armetako bat bere gisa tiroka hasi bailitzan.

— Burkideak! —egin zuen deiadar, zeuden lekutik dardaraz jauzaraziz bilerako guztiak—, honetarako etorri gara hona? Arratoiak bezala lurpean bizi, horrela hizketan entzuteko? Igande-Eskola bateko ekitaldi batean bizkotxoak janez entzun litekeen hitz-modua da hori. Honako hormok armaz josi eta horrako atea herioz itxi, zertarako, eta inor ezin izan dadin sartu Gregory burkideari entzutera guri esaten: «Izan onak, eta zoriontsu izango zarete», «zintzotasuna da joka-biderik onena», eta «bertuteak beregan du saria»? Ez zegoen hitz bat bera ere Gregory burkidearen hitzaldian, apaiz batek gustura entzungo ez zuenik (hori, hori!). Ni ez naiz, ordea, apaiz

bat (animo ozenak), eta ez naiz egon gustura entzuten (animo gehiago). Apaiz on bat izateko egokia den gizona ez da egokia Ostegun adoretzu, sendo, erabakior bat izateko (hori, hori!).

Gregory burkideak esan digu, desenkusaz beteriko tonuan, gu ez garela gizartearen etsaiak. Baina nik diot halaxe garela, eta hainbat gizartearentzat kaltean. Gizartearen etsaiak gara, gizartea gizateriaren etsaia delako, gizateriaren etsairik zaharren eta gupidagabeena (hori, hori!). Gregory burkideak esan digu, desenkusaz berriro, gu ez garela اساسوak. Horretan bat nator. Ez gara اساسوak, exekuta-tzaileak baizik (animoak).

Syme zutitu zenetik, bere aulkitik begira-begira egona zitzaion Gregory, aurpegia txundiduraz leloturik. Oraingo isilunean, baina, haren kare-ezpainak erdiz erdi ireki ziren, eta halako zorrotasun automatiko, bizigabe batez ebaki zituen hitzak:

— Hipokrita alaena!

Syme-k begi ikaragarri haietara bere begi urdin-argie zuzen begiratu, eta duintasunez esan zuen:

— Gregory burkideak hipokresia leporatzen dit. Nik bezain ongi daki neure engaiamendu guztiak betetzen ari naizela eta nire eginbeharra dena baizik ez naizela egiten ari. Itzulingururik gabe mintzo naiz. Ez dut itxurarik egiten. Esaten ari naiz Gregory burkidea desegokia dela Ostegun izateko, bere izamolde jator hori gora-behera. Izamolde jator horrexengatik da, hain zuzen, Ostegun izateko desegokia. Ez dugu nahi Anarkiaren Biltzar Nagusia halako bihozberatasun belaxkaz kutsatzerik (hori, hori!). Hau ez da garaia zeremoniazko kortesiarako, ez eta apaltasun xalorako. Gregory burkidearen aurka jartzen dut neure burua, Europako gobernu guztien aurka jarriko nukeen bezala, zeren bere burua anarkiari emana den anarkistak ahaztua baitu apaltasuna, harrokeria ahaztua duen bezala (animoak). Ni ez naiz gizon bat inola ere. Ni kausa bat naiz (animo gehiago). Gregory burkidearen aurka jartzen dut neure burua, hain inbertsonalki eta hain lasaiki nola horrako hormako pistolen artean bat besteetatik bereiziko nukeen; eta, Batzar Nagusian Gregory eta bere

ur-esne jokabideok ikusi baino lehenago, neure burua eskainiko nuke hautagai...

Txalo zaparrada latz, gorgarri batek ito zuen esaldia. Aurpegiak, adostasunez gero eta pizti-beroagotuz joanak erretolikak zeharbideari utzi ahala, zer gertatuko irrimirriz oker ageri ziren batzuk, atsegin-garrasiz ebakirik bestetzuk. Ostegun posturako hautagai izateko prest zegoela iragarri zuen unean, asaldura eta adostasun orro bat lehertu zen, eta ez zegoen inolaz ere hura kontrolatzerik. Une hartantxe, Gregory, ahotik bitsa zeriola, zutitu, eta oihuka ekin zion oihuen kontra.

— Zaudete, gero, eroak ez bestelakoak! — egin zuen deiadar, ahotsaren ahaleginean ezta-rria urratzeraino—. Zaudete, gero!

Gregory-ren oihuak eta gelako harrabotsak baino are ozenago, ordea, Syme-ren ahotsa entzuten zen artean ere, trumoi-hots gupidagabe:

— Ez noa Biltzarrera erantsi diguten hiltzaile-izen hori garbitzeko; izen hori irabaztera noa (animoak, ozen, luze). *Gizonok erlijioaren etsaiak dira* dioen apaizari, *gizonok legearen*

etsaiak dira dioen epaileari, *gizonok ordenaren eta jendartekotasunaren etsaiak dira* dioen parlamentari lodiari, horiei guztiei, hona nire erantzuna: «Errege faltsuak zarete, baina benetako profetak. Zuek suntsitzera etorria nauzue, eta zuen profeziak betetzera.»

Ardaila ozena motelduz joan zen ezarian, baina, erabat itzali baino lehen, jauzi batez zutitua zen Witherspoon, ilea eta bizarrak tente-tente, esanez:

— Emendakin gisa, proposatzen dut Syme burkideari eman dakion postua.

— Bertan behera uzteko esan dizuet! —egin zuen deiadar, Gregory-k, aurpegiaren eta eskuen espantuz—. Bertan behera utzi, zer honek guztiak...

Bileraburuaren ahotsak azentu hotzez moztu zuen Gregory-ren jarduna:

— Emendakinaren alde inor?

Begi malenkoniatsuak eta amerikar jiteko kokots-bizarra ageri zituen gizon altu, nekatu bat astiro zutitu zen atzeko bankuan. Gregory-k denbora puska bat zeraman garrasika; oraingoa

aldaketa bat gertatu zen haren doinueran, ezein garrasi baino lazgarriago baitzen.

— Pikutara dena! —esan zuen, harria bezain astuna zen ahotsez—. Ez dago gizon hau hautatzerik. Gizon hau...

— Bai? —esan zuen Syme-k, zirkinik ere egi-teke—. Zer gertatzen zaio gizon honi?

Gregory-ren ahoa soinurik gabe higitu zen birritan; gero odola narraska itzuli zitzaion, poliki-poliki, hilotz-aurpegi zurbilera.

— Bada, esperientzia gutxi duela, oso, gure lanean —esan zuen, eta ziplo eseri zen.

Hura eseri orduko, bizar amerikardun gizon luze, zimela zutik zegoen berriro, ahots altuko amerikar doinu betiberdinez errepikatuz:

— Arren, Syme burkidea hautatzeko proposamenarekin ados nago ni.

— Emendakina, ohi denez, lehenik bozkatuko da —esan zuen Buttons jaunak, bileraburuak, bizkortasun mekanikoz—. Bozkatzen dugu ea Syme burkidea...

Gregory berriro zutitua zen, arnasestuka, asaldu bizian.

— Burkideak —egin zuen deiadar—, ez nago erotuta.

— Oh, oh! —esan zuen Witherspoon jaunak.

— Ez nago erotuta —berresan zuen Gregory-k, une batez gela osoa kolokan jarri zuen halako zinezkotasun izugarri batez—, baina nahi baduzue erotzat jo dezakezuen aholku bat ematen dizuet. Ez, ez da, zuzen hitzeginez, aholku bat, ezin baitizuet hartarako arrazoirik eman. Agindu bat dela esan dezagun. Aholku ero bat dela pentsa ezazue, baina kasu egiozue. Jo, baina jaramon egidazue! Hil nazazue! baina men egidazue! Ez hautatu gizon hau.

Egia hain da ikaragarria, are loturik dagoeanean ere, ezen une batez Syme-ren garaipen badaezpadako hura kili-kolo jarri baitzuen, hai-zeak ihi herbala nola. Inork ezin izango zuen, ordea, halakorik igarri Syme-ren begi urdin bareetan. Soilik honela ekin zion:

— Gregory burkideak agintzen du...

Orduan liluramendua hautsi egin zen, eta anarkista batek deiadar egin zion Gregory-ri:

— Nor zara zu ba? Zu ez zara Igande.

Eta beste anarkista batek ahots goragoz gehitu zuen:

— Ezta Ostegun ere.

— Burkideak —ekin zion Gregory-k, oinazearen estasian oinazeaz haraindi iragan den martiri baten ahotsez—, bost axola niri tiranotzat gorrotatzen nauzuen zein esklabotzat. Nire agindua onartzen ez baduzue, onartu nire degradazioa. Belauniko eskatzen dizuet. Zuen oinetara egozten dut neure burua. Arren erregutzen dizuet. Ez hautatu gizon hau.

— Burkide Gregory —esan zuen bileraburuak isilune oinazetsu baten ondoren—, ez da hori, gero, gisa duina.

Ekitaldi guztian lehen aldiz, une bakan batzuez benetako isiltasuna gertatu zen. Gero Gregory bere aulkian amildu zen atzera, giza hondakin zurbil, eta bileraburuak, berriro marxan jarritako erloju-makina bat bezala, errepikatu zuen:

— Biltzar Nagusian Ostegun izateko Syme burkidea izendatzea dugu bozketagai.

Itsasoa bezala goratu zen orroa, oihan bat bezala eskuak ere gora, eta handik hiru minutu-

ra Gabriel Syme jauna, Polizia Sekretuaren Zerbitzukoa, hautaturik zegoen Europako Anarkisten Biltzar Nagusian Ostegun izateko.

Bilerako orok sentitzen bide zuen baporea ibaian zain, eta, orobat zain, ezpata-makila eta errebolberra mahai gainean. Bozketa amaitu zela eta eragoztezina zela garbi geratu eta Syme-k hautetsi-agiria jaso zuen unean, brau zutitu ziren denak, eta talde basakarak harat-honatean nahastu ziren. Syme-k, nola edo hala, Gregory-ren aurrez aurre topatu zuen bere burua. Harri eginiko gorrotoz begira segitzen zuen. Isilik egon ziren minutu luzez.

— Deabru hutsa zara! —esan zuen Gregory-k azkenean.

— Eta zu zinez gisatsua —erantzun zuen Symek serio-serio.

— Zuk sartu nauzu ni amarru-zuloan —ekin zion Gregory-k, burutik behatzetaraino dardaraz—, halako amarru-zuloan non...

— Ez esan txorakeriarik —moztu zion Syme-k, zorrotz—. Zer deabruetako parlamentu-zulotara ez nauzu zuk limurtu, horretara bagoaz? Nik zu behartu aurretik behartu nauzu zuk ni zin egi-

tera. Beharbada zuzen deritzoguna egiten ari gara biok. Baina zuzen deritzoguna hain arraioetan desberdin izanik, ez dugu geure artean elkarri zertan amor emanik deus ere. Ezin izan liteke deus ere gure artean, ohorea eta heriotza baizik —eta kapa handi hura sorbalda gainean jantzi eta mahai gaintetik pattar-ontzia hartu zuen.

— Baporea prest-prest da —esan zuen Buttons jaunak, oldar bizian—. Arren, zatoz nirekin, hemendik.

Dendazain batena zen keinu nabarmen batez, burdinaz estaliriko pasabide labur batetik eramane zuen Syme, Gregory beren oinatzetan jarraika, artean ere herio-larri. Pasabidearen amaieran, ate bat zegoen; Buttons-ek hura tupustean ireki, eta ibaiaren irudia bistaratu zitzairen bat-batean, ilargiak urdin eta zilar kolorez jantzirik, antzerki bateko agertoki batean bezala. Hantxe ondoan bapora ñaño bat zegoen, begi gorri bakarreko herensuge bat irudi.

Ontzi gainera iragaiteko unean ia, Gabriel Syme Gregory-rengana jiratu zen, hura artean ere ahoa zabalik zegoela.

— Emandako hitzari eutsi diozu —esan zuen emeki, aurpegia itzalean—. Hitzeko eta jator agertu zara, eta eskerrak ematen dizkizut. Eta eutsi ere, ia huskeria den xehetasun bateraino eutsi diozu zeure hitzari. Promes berezi bat egin didazu gure honen hasieran, eta zinez bete duzu zeure hitza amaierako honekin.

— Zer esan nahi duzu? —ekin zion Gregory-k, kaos hutsean oihuka—. Zer agindu dizut nik?

— Guztiz arrats entretenigarria —esan zuen Syme-k, eta agur militar bat egin zuen ezpata-makilaz, baporea bere bidean astiro abiatzen zela.

4. KAPITULUA

Detektibe baten istorioa

Gabriel Syme ez zen soilik poeta izateko itxura egiten zuen detektibe bat; izatez benetan zen poeta bat, detektibe izaten bukatu zuena. Anarkiaren kontrako gorrotoa ere ez zen harengan hipokresiazkoa. Iraultzaile gehienek eromen txundigarriak gaztetatik jarrera kontserbatzaileegi batera eramaten dituen horietakoa zen. Eta hori ez zitzaion zor inolako tradizio etorkorren eraginari. Berezkoa eta tupustekoa zuen errespetagarritasuna, errebelamenduaren aurkako errebelamendu halako bat. Xelebrekeriaz beteriko familia batetik zetorren, zeinean zaharrenek zituzten ideiarik berrienak. Gabriel-en osabetako bat beti paseatzen zen kapelurik gabe, eta beste batek, berriz, arrakastarik gabeko saio bat egina zuen kapeluarekin baina beste ezer gabe paseatzeko. Aitak artea eta autorrealizazioa lantzen zituen; ama, berriz, soiltasunaren eta higienaren aldekoa zen. Hala mutikoak,

bere urterik samurrenetan, ez zuen ezagutu beste edaririk bi muturretako absenta eta kakao hutsak baino, eta halako higuin osasuntsu bat zien biei ere. Zenbat eta puritanoa baino areago-ko abstinentzia bat predikatu amak, orduan eta gehiago lerratzen zen aita paganoa baino areago-ko laxotasun batera; hala, bata bejetarianismoaren aldeko amorratu bilakatu zenerako, bestea ez zen atzera geratzen kanibalismoaren defentsan.

Pentsatzerik dagoen errebolta mota guztiez inguraturik txikitatik, Gabriel-ek ere bere errebolta bilatu behar zuen, eta hala, geratzen zitzaion gauza bakarraren aldera erreboltatu zen: buru-osasuna. Baina artean bazen mutilaren fanatiko haien odoletik askixe, zentzun arruntaren aldeko defentsa hura bera ere suharreria izan zedin zentzuzkoa izateko. Legegaberia modernoaren aurkako gorrotoa ere ezbehar batez iritsi zitzaion gailurreraino. Gertatu zen bazter-karrika batetik pasatzen zela justu dinamita-eraso bat egokitu zenean. Itsu eta gor gertatu zen une batez, eta gero ikusi zuen kea sarezen, leiho hautsiak eta aurpegi odolduak.

Harrezkero, ohi bezala segitu zuen: bare, gisatsu, otzan-atsegin; baina buru barruan bazuen gunetxo bat sano ez zegoena. Harentzat anarkistak ez ziren, gutako gehienontzat bezala, gaixorako joera zuen gizon taldeska bat, ezjakintasuna intelektualkeriarekin konbinatzen zuena. Harentzat gupidagabeko galbide ikaragarri bat ziren, Txinatar inbasio bat bezalakoa.

Atergabe igortzen zuen egunkarietara eta haien paper-ontzietara ipuin, olerki eta artikulutsuzko halako zaparrada bat, jendea ohartarazi nahirik ukapen barbarozko uholdetzar haren arrisku larriaz. Itxura zenez, ez zuen hala ere lortzen areriorik batere inguratzerik, eta, are okerrago zena, bizibiderik ere ez. Tamesis ibai ertze-ko Ibilbidean gora eta behera zebilela, puru merke bat hortz artean mingostasunez estaturik eta Anarkiaren aurrerapena gogo ilunean, poltsikoan bonba bat zeraman anarkistarik ez zen, hura bezain basatirik edo bakartirik. Izan ere, iruditzen zitzaion Gobernu bakarririk eta irtenbiderik gabe zegoela borroka hartan, bizkarraren hormaren kontra harrapatuz. Kixoteskoegia zen bestela halako ardura hartzeko.

Ur ertzeko Ibilbidean halaxe zebilen arratsapal gorri ilun baten pean. Ibai gorriak zero gorria ispilatzen zuen, eta biek ere ibiltariaren haserrea. Izan ere, hain zen zerua ilunkara, eta ibai-ko argia haren aldean hain bitxi, ezen urak garbizikoagoa zirudien ia, ispilatzen zuen arratsapal hura baino. Su-jario baten itxura doi-doi zuen, lurpeko lurraldeko leize sakonetarainoko espiraletan galduz.

Syme arlote samar zebilen garai hartan. Lehengo moda zaharreko tximinikapelu beltz horietakoa janzen zuen; are modaz pasatuago-ko kapa beltz zarpaildu bat zuen estalki; eta konbinazio horrek Dickens-en eta Bulwer Lytton-en pertsonaia maltzur-gaiztoen jitea ematen zion. Haren bizar eta ile horiak ere zabar eta lehoikarago zeuden, handik denbora luzera, moztu eta zorrozturik, Saffron Park-eko belardietan agertu ziren hartan baino. Soho-n bi sosean erositako zigarro beltz luze mehar bat zeukan hortz artean estuturik, eta, oro har, gerra santuaren zina egina zien anarkista jende haietako ale peto-peto bat zirudien. Beharbada horregatik

zuzendu zitzaion polizia bat Ibilbidean, «Arrastiri on» eginez.

Syme-ri, gizateriarekiko bere beldurren krisi betean, ziztagarri gertatu edo zitzaion iluntze-argitan urdin puska soil bat zen ofizial automatiko haren patxada hutsa.

— Arrastiri on, hortaz? —esan zuen zorrotz—. Munduaren amaierari ere deituko zeniokete zuek arrastiri ona. Begira eguzki gorri odoltsu horri eta ibai berdin odoltsu horri: zinez diotsut hori literalki giza odola balitz, isuri eta distiratsu, hala ere betiko patxadan egongo zinatekeela hementxe, kale gorrian bizi den gizagaixo arriskugaberen bat noiz atzemango, handik uxatze-ko. Zuek poliziok krudelak zarete behartsuekin, baina are zuen krudelasun hori barkatzeko prest nengoke, halako bareak ez bazinate.

— Bareak bagara —ihardetsi zuen poliziak—, antolaturiko erresistentziaren baretasuna da gurea.

— Eh? —esan zuen Syme-k, zurturik.

— Soldaduak bare egon behar du guduaren erdian —segitu zuen poliziak—. Gisaz egoten

jakite horrez adierazten du gudaroste batek nazio baten amorrua.

— Jainko maitea, Eskola Publikoak! —esan zuen Syme-k—. Hori al da erlijio-bereizkuntzarik gabeko heziketa?

— Ez —esan zuen poliziak—, niri ez zait ego-
kituko halako abantailarik. Nire garaian artean ez zen Eskola Publikorik. Nire hezkuntza, izan dudantxoa, gogorragoa izan da noski, lehengo era zaharrekoa.

— Non egin zenituen, bada, ikasketak? —gal-
detu zuen Syme-k, jakinminez.

— Oh, Harrow-en —esan zuen poliziak.

Klase-sinpatriak, zeinak, diren faltsu izanik, benetakoena baitira gizon askorengan, kontrola-
tzeko betarik gabe kanporatu zitzaizkion olda-
rrean Syme-ri.

— Baina, Jainkoarren, gizona —esan zuen—,
ez zegokizun poliziaren lanbidea!

Poliziak hasperen egin zuen eta buruari era-
gin.

— Badakit —esan zuen—, badakit ez naizela
duin.

— Zergatik sartu zinen, ordea, polizia? —galdetu zuen Syme-k jakingura nabarmenez.

— Zuk poliziaz gaizki hitz egiteko duzun arrazoi berdin-antzekoz —ihardetsi zuen besteak—. Konturatu nintzen bazegoela egokiera berezi bat zerbitzuan, zera, gizadiarekiko beren beldurrek, giza nahikundeen oldar arrunt eta, gehiegikeriak gehiegikeria, desenkusagarriekin bainoago, adimen zientifikoaren aberrazioekin zerikusi handiagoa zutenentzat. Espero dut garbi azaldu izana neure burua.

— Esan nahi baduzu zeure esan beharra garbi azaldu duzula —esan zuen Syme-k—, baietz uste dut. Baina horrenbestez zeure burua nire aurrean zuritu duzula uste baldin baduzu, inondik ere ez. Zer egiten du zu bezalako gizon batek filosofiaz hizketan, kasko urdin bat jantzita, Tamesis ibaiko Ibilbide honetan?

— Bistan da ez duzula ezagutzen gure polizia sistemak aspaldion egin duen aurrerapena —ihardetsi zuen besteak—. Ez naiz harritzen. Izan ere, klase ikasitik ezkutu samarrean edukitzen ahalegintzen gara, zeren klase horretan baitaude gure areriorik gehienak. Zureak, hala ere,

justu jarrerarik aproposena dirudi. Uste dut ia gure artekoa izan zintezkeela.

— Zuen artekoa zertan? —galdetu zuen Syme-k.

— Oraintxe azalduko dizut —esan zuen poliziak astiro—. Hona zertan den kontua. Gure departamentu-buruetako bat, Europako detektiberik goraipatuenetako bat, aspaldian ari da esaten konspirazio soilki intelektual batek aurki arriskuan jarriko duela zibilizazioaren izatea bera. Ziurtzat dauka zientzia eta arte mundua Familiaren eta Estatuaren kontrako gurutzada bati emanak daudela. Horregatik, polizia-oste berezi bat eratu du, filosofo ere badiren poliziaz osatua. Haien lana konspirazio horren hastape-nei kontu egitea da, ez soilik zentzu kriminalean, baita polemikoan ere. Ni neu demokrata naiz, eta garbi daukat zein egokia den gizon arrunta adore nahiz bertute arruntak eskatzen dituen kontuetarako. Baina bistan da ez dela komeni polizia arrunta enplegatzea herese-ehiza ere baden ikerketa batean.

Syme-k bihozkidetasunezko jakinminez ñir-ñir zeuzkan begiak.

— Zer egiten duzue, bada? —esan zuen.

— Polizia filosofikoaren lana —erantzun zion urdinezkoak— detektibe arruntarena baino aldi berean ausartagoa eta sotilagoa da. Detektibe arrunta taberna-zuloetara doa, lapurrak atxilotzera; gu artisten te-bileretara goaz, pesimistak detektatzera. Detektibe arruntak kontu-liburu batetik edo egunkari batetik ateratzen du krimen bat burutu dela. Guk, berriz, soneto-liburu batetik ondorioztatzen dugu krimen bat burutze-kotan dela. Jendea azkenean fanatismo intelektualera eta krimen intelektualera daramaten pentsamendu latz horien arrastoa aurkitu behar dugu. Doi-doi iritsi ginen Hartlepool-eko asasinatzea eragozteko, eta horren meritu guztia Wilkisi zor zaio, gure arteko jaun gazte argi bati, zortzidun ahapaldi bat zeharo ulertzea lortu baitzuen.

— Benetan uste al duzu —galdetu zuen Syme-k— hainbestearainoko lotura dagoela krimenaren eta egungo jardun intelektualaren artean?

— Ez zara aski demokratikoa —erantzun zuen poliziak—, baina zuzen zenioen arestian asto

samar tratatu ohi dugula gaizkile xumea. Aitortu behar dizut gaixo jartzan nauela batzuetan nire jardunbideak, ikusirik nola ez gabiltzan, ia beti, ezjakintasunak eta etsipenak jota daudenen kontra baizik gerran. Baina gure arteko mugimendu berria oso besterik da. Guk ukatu egiten dugu gaizkile arriskutsuak eskolagabeak direla dioen ingeles ustekeria ergel hori. Erromatar enperadoreak ekartzen ditugu gogora. Errenazimenduko printzeak ekartzen ditugu gogora, pozoizale bikain haiek. Guretzat gaizkile arriskutsua gaizkile eskolatua da. Guretzat egungo gaizkilerik arriskutsuena oraingo filosofo guztiz legegabea da. Haren ondoan, ohoinak eta bigamoak funtsean gizon prestuak dira; bihotza haien alde ateratzen zait. Izan ere, gizonaren ideian ados daude funtsean; bitarteko okerrak, beste aitzakiarik ez dute. Lapurrek jabetza errespetatzen dute. Jabetza hori beren jabetza bihurtu nahi izatea besterik ez, hala hobeto errespetatu ahal izateko. Filosofoek, ordea, jabetza bera dute higuin, jabetza den aldetik; jabetza pertsonalaren ideia bera suntsitu nahi lukete. Bigamoez ezkontza errespetatzen dute; bestela, ez

lituzkete jasango bigamiaren formalitate zere-
moniazko, are erritual guztiak. Filosofoek, berriz,
ezkontza bera mesprezaten dute, ezkontza den
aldetik. Hiltzaileek giza bizitza errespetatzen
dute; beren baitan giza bizitzaren betetasun
handiago batera iritsi nahi izatea, besterik ez,
hartarako garrantzi eskasagoko bizitzak deritze-
tenak sakrifikaturik. Filosofoek, ordea, bizitza
bera dute gorroto; berena nola, inorena ere ber-
din.

Syme-k eskuak elkarren kontra estutu zituen.

— Zeinen egia handia den hori! —esan
zuen—. Mutikotatik sentitu dut nik hori, baina
inoiz ez dut asmatu hitzezko antitesi egokia.
Gaizkile arrunta gizon gaiztoa da, baina azken
finean, nolabait esateko, baldintzapeko gizon
ona da, orobat. Aski bide luke oztopo jakin bat
paretik kentzea —osaba aberats bat, demagun—
, segituan unibertsoa onez hartzeko eta Jainkoa
laudatzeko. Eraberritzaile bat da; ez, ordea,
anarkista bat. Eraikina garbitu nahi du, eta ez
suntsitu. Filosofo gaiztoa, ordea, ez da saiatzen
gauzak aldatzen, ezerezten baizik. Bai, polizia-
lanak dituen alderdi zapaltzaile eta laidogarrie-

nei eutsi die mundu modernoak: txiroari jazar-
tzea eta zoritxarrekoa barrandatzea. Bertan
behera utzi du, berriz, bere egitekorik duinena,
Estatuko traidore boteretsuak eta Elizako here-
siarka indartsuak zigortzea. Modernoek diote ez
ditugula zigortu behar heretikoak. Nire duda
bakarra da ea beste inor zigortzeko eskubiderik
dugun.

— Zer da hau, ordea! —bota zuen poliziak,
tankera eta jantzi horretako pertsonengan ohi-
koa ez zen berotasun nabarmenez eskuak kora-
pilatuz—. Nola liteke! Ez dakit zertan zabilzan,
baina bizitza alferrik galtzen ari zara. Ber-berta-
tik bildu behar duzu anarkiaren kontrako gure
armada berezira. Haien armadak mugetan ditu-
gu. Haien tximista erasotzeko prest dago. Une
bat gehiago, eta bertan gal zenezake gurekin lan
egiteko loria; munduko azken heroiekin hiltzeko
loria, apika.

— Ez galtzeko moduko aukera da, noski —
baieztu zuen Syme-k—, baina ez dut oraindik
erabat ulertzen. Edonork bezain ongi dakit
mundu modernoa legegabeko gizon koxkorrez
eta mugimendu zoro koxkorrez beterik dagoela.

Baina, beren basatian, badute, eskuarki, ados ez jartzeko meritua bederen. Nondik ateratzen duzu armada baten buru izan litezkeela, edo tximist-zartateko bat jotzeko gai? Zerik da anarkia hori?

— Ez ezazu nahastu hori —ihardetsi zuen herrizainak— Errusia edo Irlandako dinamita-zartaldi noiz edo noizko horiekin, horiek benetan gizon zapalduen zartadak baitira, zapaldu bezain oker egonik ere. Beste hau, berriz, filosofia-mugimendu zabal bat da, bi zirkuluz osatua, bat kanpoan eta bestea barnean. Kanpokoari laiko-goa ere dei geniezaioke, eta barnekoari apaizgoa. Nik nahiago dut kanpokoari atal hobengabea deitu eta barnekoari, berriz, atal peto-peto hobenduna. Kanpoko zirkulua —zaleen masa behinena— anarkista hutsak dira; hots, arauak eta formulek giza zoriontasuna galarazi dutela uste duten gizonak. Uste dute giza krimenen ondorio gaiztoak oro krimen izena jarri dien sistemaren ondorio direla. Ez dute uste krimenak sorrarazi zuenik zigorra, zigorrak krimena sorrarazi zuela baizik. Uste dute gizon batek, zazpi emakume limurturik ere, udaberriko lili xaloak

bezain zer lotsatu gutxi duela haiek bertan utzi-rik alde egiten badu. Uste dute gizon batek dirusakela bat osten badu ezinago ondo sentitu behar duela naturalki. Horri esaten diot nik atal hobengabea.

— Ah! —esan zuen Syme-k.

— Pentsatzekoa denez, beraz, jende horrek hitzetik hortzera aipatzen ditu «etortzeko dagoen aldi zoriontsu bat», «geroaren paradisia», «bizioaren eta bertutearen mugakizunez askaturiko gizadia» eta abar. Eta hala mintzo dira barneko zirkuluko gizonak ere, apaizgo dontsua. Haiek ere mintzo dira jendetza txalokarien aurrean geroaren zoriontasunaz eta gizadi azkenean askatuaz. Baina haien ahoetan —eta poli-ziak ahotsa apaldu zuen—, haien ahoetan esaldi eder-alai horiek esanahi latza dute. Ez die inolako ilusiok eragiten; intelektualegiak dira pentsatzeko lur honen gainean gizona sekula guztiz aska daitekeenik jatorrizko bekatuaren eta borrokatu beharraren morrontzatik. Eta heriotza dute buruan. Gizadiak azkenean aske behar duela diotenean, zera esan nahi dute, gizadiak bere buruaz beste egingo duela noizbait. Zuzen-

okerrik gabeko paradisu batez dihardutenean, hilobiaz ari dira. Bi xede baizik ez dituzte: lehenik gizadia eta gero beren burua suntsitzea. Horregatik botatzen dituzte bonbak, pistolaz tiro egin beharrean. Atal hobengabeko oste xumeei tamal zaie bonbak erregea ez hil izana; apaizgo nagusian, berriz, pozik daude, norbait hil duela-ko.

— Nola bil naiteke zuengana? —galdetu zuen Syme-k, grina baten asalduz.

— Gertuz dakit badela postu bat libre une honetan —esan zuen poliziak—; izan ere, ohore handia dut, konfiantza dezente baitaukat lehen aipatu dizudan nagusi horrekin. Hura ikustera etorri beharko zenuke oraintxe nirekin. Edo, hobeki esateko, ikustera ez, ez baitu inoiz inork ikusten; baina hitz egitea baduzu, nahi izanez gero.

— Telefonoz? —itaundu zuen Syme-k, jakin-guraz.

— Ez —esan zuen poliziak patxada handiz—; joera xelebrea du beti alkitrana baino ilunagoko gela batean egoteko. Argitsuago omen ditu pentsamenduak hala. Zatoz nirekin.

Apur bat aztoraturik eta nabarmen samar buruberoturik, Syme-k ez zuen eragozpenik jarri, eta hala joan ziren, Scotland Yard-eko eraikin ilara luzeko albo-ate bateraino, polizia gidari. Zer egiten ari zen jabetu orduko ia, lau ofizial ertainen eskuetatik pasatua zen, eta bat-batean sarrarazia zuten orain halako gela ilun batera, non belztasun tupustekoak argi-kolpe batek bezala ikararazi baitzuen. Ez zen ohiko iluntasuna, zeinean formak nolabait asmatzen baitira; kolpetik harria bezalako itsu bihurtzearen parekoa zen ordukoa.

— Zu zara poliziagai berria? —galdetu zuen ahots sendo batek.

Eta inolako modu estrainio batez, ilunbe hartan isla baten arrastorik ere ageri ez zen arren, Syme-k bi gauza jakin zituen: lehena, tamaina marduleko gizon batengandik zetorrela; eta bigarrena, gizonak bizkarra ematen ziola.

— Zu zara poliziagai berria? —galdetu zuen nagusi ikusezinak, zeinak guztiaren jakitun zegoela zirudien—. Ongi da. Zurea da postua.

Syme, ustekabeaz zur eta lur, ganora apurrez saiatu zen esaldi bueltarik gabe haren kontra.

— Ez dut, ordea, esperientziarik —hasi zen.

— Inork ez du inolako esperientziarik —esan zuen besteak— Armagedon-eko guduan.

— Ez naiz, baina, gauza...

— Gogoia aski da, eta nahikoa duzu —esan zuen ezezagunak.

— Hala ere —esan zuen Syme-k—, ez dut lanbiderik ezagutzen gogo hutsa duenik sarbide-froga erabateko.

— Nik bai —esan zuen besteak—: martiriak. Honenbestez heriotzera kondenatzen zaitut. Egunon eta agur.

Horra nola gertatu zen, bada, Gabriel Syme, ostera arratsapaleko argi gorrimin irten zenean, kapelu beltz maiztua eta longain zarpaildu, legezkanpoko hura jantzirik, nola gertatu zen, diot, konspirazio gaitzaren eragozpenerako Detektibe Talde Berriko kide eginik irtetea. Bere lagun poliziaren aholkuari jarraiki (profesionalki txukuntasunaren aldekoa baitzen hura), bere ile-bizarrak atondu zituen, kapelu on bat erosi, udako traje urdin-gris argi ezinago fin batez jantzi, kolore hori apaleko lore bat botoi-zuloan... eta, labur esanda, Gregory-k Saffron Park-eko

jardin koxkorrean lehen aldiz topatu zuen pertsona dotore eta aukeran jasangaitz samar hura bihurtu zen. Poliziaren egoitzatik azkenean alde egin aurretik, bere lagunak txarteltxo urdin bat eman zion, zeinean «Azken Gurutzada» baitzegoen idatzirik, eta zenbaki bat, beraren aginpidearen ikurra. Txalekoaren goiko poltsikoan kontu handiz paratu txartela, zigarro bat piztu, eta etsaiaren oinatzean joan zen, Londresko saloi guztietan hari gudu egitera. Bere abenturak azken aldera zertara ekarria zuen, ikusia dugu dagoeneko. Otsaileko gau bateko ordu bata eta erdiak aldera, Tamesis isilean gora bidea egiten ari zen bapora koxkor batean kausitu zuen bere burua, ezpata-makila eta errebolberrez armaturik, Anarkisten Biltzar Nagusiko Ostegun lege onez hautatua.

Baporera igo zenean, mundu guztiz berri batera sartzen ari zelako sentsazio berezia zuen Syme-k; ez soilik lur berri baten paisajera, are planeta berri batenera baizik. Arratsapal hartako erabaki zoro bezain sendoari zor zitzaion hori nagusiki, nahiz, aldez bederen, bazuen orobat eraginik bi ordu lehenago taberna koxkorrera

sartu zenetik eguraldiak eta zeruak jasan zuten aldaketa erabatekoak. Ilunabar lainotsuaren lumaje suharraren aztarna bat bera ere zen geratzen, eta ilargi biluzi bat ageri zen zeru biluzian. Ilargia hain zen argitsu eta betea, ezen (sarritan gertatzen den paradoxaz) eguzki ahulago baten itxura baitzuen. Ilargi distiratsu baten sentazioa baino areago, egunargi itzali samar batena ematen zuen.

Inguruko paisaje guztia naturazkontrako koloregaltze argitsu halako batek jorik zegoen, Miltonek eguzkiak eklipsean isuritzat aipatzen duen ilunbista asturugaitz hartan bezala; halako moldez, non Syme-k ez baitzuen ziorik izan bere lehen burutapen hura zalantzan jartzeko, hura benetan beste planeta desberdin eta hutsago bat zela, alegia, izar tristeago baten inguruan jiraka. Baina zenbat eta areago sentitu bere baitan errauts-hondamen dirdaitsu hura ilargipeko lurrean, orduan eta biziago distiratzen zuen gauean Syme-ren zoramen zalduneriazaleak, su handi baten gisa. Aldean zeramatzan gauza arruntak —janaria eta pattarra eta pistola kargatua— halako poesia konkretu, materialez jantzi-

rik zeuden, bere ibileretarako haur batek su-arma bat hartzen duenean bezala, edo gozopil bat ohera eramaten. Ezpata-makila eta pattarontzia, berez konspiratzaile gogo-eri batzuen tresna baizik ez izanik ere, bere abentura askoz osasuntsuago haren adierazgarri bihurtu zitzaizkion. Ezpata-makila ia zalduneriaren ezpata bihurtu zen, eta pattarra, berriz, zaldiz partitze-ko tenoreko ardo-oparia. Ezen fantasia mordernorik gizagalduenak ere zenbait irudi zaharrago eta sinpleagoren zordun dira; abenturak eroak izan daitezke, baina abenturazaleak zuhur behar du. San Jurgirik gabe, herensugea ez litzateke groteskoa ere. Halaberean, paisaje gizagabe hura ez zen irudimenez bizia, benetan gizatiarra zen gizon baten presentziagatik baino. Syme-ren buru gehiegikeriara emanari, Tamesis inguruko etxe eta terraza dirdaitsu biluziak ilargiko mendiak bezain huts begitantzen zitzaizkion. Baina ilargia bera ere ez da poetikoa bertan gizon bat badelako baizik.

Ontzi-kargu, bi gizon ari ziren, eta hain neke handirako geldi samar zihoan aukeran. Chiswick argitu zuen ilargi garbia gainbehera joana zen

Battersea jo orduko, eta, Westminster-eko harri-
mulko itzalaren paretik pasatu zirenean, egun
argitzen hasia zuen ordurako. Argitu ere, berun
barra handi batzuk erdibitzean bezala argitu
zuen, barnetik zilarrezko beste barra batzuk era-
kutsiz; eta su zuri gisa distiratzen zuten zilar
puskok baporeak, bere aurrera-martxa aldatuz,
jiratu eta lehorrera-gune zabal batera egin zue-
nean, Charing Cross-etik haraindixe.

Ezpondako harri gaitzak ilun bezain erraldoi
begitandu zitzaizkion Syme-ri, behetik gora so
egin zienean. Han ageri ziren, handi, beltz, egun-
senti zuri zabal-zabalaren kontra. Haien kariaz,
iruditzen zitzaion Egiptoko jauregiren baten
sarrerako harmaila eskergetan lehorreratzeko-
tan zela, eta izan ere, ongi zegokion irudipen
hori Syme-ren aldarteari, zeren, bere baitan,
errege malapartatu eta fedegabe batzuen tronu
sendoei erasotzera baitzihoan. Jauzi egin zuen
ontzitik maila laban batera, eta hantxe zutik
geratu zen, gizairudi ilun eta lerden, harrilan gai-
tzaren erdian. Baporeko bi gizonak, irteteko
maniobra egin, eta ibaian gora ekin zioten. Ez
zuten denbora guztian hitzik ere egin.

5. KAPITULUA

Beldurraren jai-oturuntza

Hasieran harrizko eskailera zabala piramide bat bezain bakarti begitandu zitzaion Syme-ri; gailurrera iritsi baino lehen, ordea, ohartu zen bazela gizon bat ezpondaren parapetoaren gainetik ibaiatz bestaldera begira. Oso itxura konbentzionala ageri zuen handik, zetazko kapeluz eta tankerarik formaleneko longain batez jantzia; lore gorri bat zeraman botoi-zuloan. Syme urratsez urrats hurbildu ahala, besteak ez zuen zirkinik ere egin. Syme, aski gerturatu zenean, nahiz artean goiza argi motel, zurbil bat baino ez izan, ohartu zen aurpegia luze-zurbila zuela, intelektuala, adats iluneko bizar-modu triangular txiki batez errematatua, kokotsaren punta-puntan, osterantzean bizar-biboteak moztuak baitzuten. Ia deskuidu hutsa zirudien ile fits horrek; gainerakoan, bizar-mozturik hobeki ematen dutenetakoa zuen aurpegia: zehatz-garbia, aszetikoa, eta, bere erara, noblea. Syme gero eta

hurbiltzenago, horri guztiari erreparatuz, eta hantxe geldi-geldi segitzen zuen goikoak.

Hasieran senak eman zion Syme-ri hura zela berarekin elkartu behar zuen gizona. Gero, gizonak ez baitzuen inolako zeinurik egiten, ez zela ondorioztatu zuen. Eta orain atzera berriz ziurtzat zeukan gizon hark nolabaiteko zerikusia zuela beraren abentura zoro harekin. Gizon hark geldiago baitzirauen, arrotz bat hainbeste hurbilduz gero naturala zatekeena baino. Argizarizko irudi bat bezain zirkingabe zirauen, eta era bertsuan eragiten zuen ikuslearen kirioetan. Symek behin eta berriro so egiten zion aurpegi zurbil, duin, delikatu hari, eta aurpegiak ibaiaz bestaldera itsu begira zirauen hala ere. Hori ikusirik, Buttons-ek emandako hautetsi-agiria poltsikotik atera, eta aurpegi triste eder haren aurrean ipini zuen. Orduan gizonak irribarre egin zuen, eta edonor jota uzteko modukoa zen irribarrea, alde batera biltzen baitzen guztia, eskuineko masailan gora eginez eta ezkerrekoan behera.

Ez zen, arrazoibidez mintzo, deus ikaratzekorik noski. Jende askok du irribarre okerra egiteko tik nerbiozkoa, eta askorengan are erakargarria

da hori. Baina Syme-ren ingurugiro guztia kontuan harturik, egunsenti iluna, eta misio hilgarri hura, eta harritzar melatuen bakardadea, bazen zerbait urdurigarria irribarre hartan. Horra hor ibai isila eta gizon isila, aurpegi berdin klasiko baten jabe den gizona. Eta hara orduan azken amesgaizto-ukitua, oker egin baitu bat-batean irribarre.

Irribarre-espasmoak lipar bat baino ez zuen iraun, eta gizonaren aurpegia berehala etorri zen lehengo malenkonia harmoniatsura. Gehiagoko azalpen nahiz itaunik gabe mintzatu zen, kide zahar batekin hizketan ari litzatekeen gizon bat bezala.

— Leicester Square aldera abiatzen bagara — esan zuen—, justu gosaltzeko ordurako iritsiko gara. Igandek beti nahi izaten du goiz gosaldtu. Batare lorik egin al duzu?

— Ez —esan zuen Syme-k.

— Nik ere ez —erantzun zuen gizonak, tonu arruntez—. Gosaldtu ondoren saiatuko naiz ohera joaten.

Natural bezain gisatsu mintzo zen, baina aurpegiaren fanatismoarekin kontraesanean zego-

en erabateko ahots itzaliz. Hitz bihozkorak oro bizitasunik gabeko baliabide bailitzaizkion edo zirudien, eta gorrotoa zela bizi zuen bakarra. Islune baten ondoren, hizketan ekin zion ostera.

— Zure adarreko Idazkariak esango zizkizun, noski, esan ahal guztiak. Inoiz esaterik ez dagoena, ordea, Lehendakariaren azken burubidea duzu, oihan tropikal baten gisa hazten baitira haren burubideak. Jakinaren ganean ez bazaudete, beraz, esan behar dizut ezen geure burua ezkutatzeko geure burua ezkutatu gabe ibili behar dugulako bere ideia hori egundo baino harago eramaten ari dela. Hasiera batean, jakina, lurpe-zulo batean biltzen ginen, zure adarrekoak bezalaxe. Gero Igandek jatetxe arrunt batean saloi pribatu bat harrarazi zigun. Esan zuen gordeka ibiltzeko itxurarik ez duenari inork ez diola begirik botatzen. Tira, ez dago noski hura bezalakorik munduan, baina batzuetan zinez pentsatzen dut ez ote zaion bere buru ikaragarri hori adinarekin zoro samartzen ari. Ezen gaur da eguna, geure burua jendaurrean nabarmen asko erakusten duguna. Non gosalduko, eta zera... ageri-agerian gosaltzen dugu, aizu, Lei-

cester Square-era ematen duen balkoi batean, hain zuzen.

— Eta zer dio jendeak? —galdetu zuen Syme-k.

— Apartekorik ez —erantzun zion bere gidariak—: xelebrezko bilera bat osatzen duen jaunaldra bat garela, anarkista izateko itxura egiten duguna.

— Oso ideia sotila deritzot —esan zuen Syme-k.

— Sotila! Jainkoarren, hori ateraldi nabarmena zurea! —hasi zitzaion oihuz bestea, irribarre oker hura bezain harrigarri eta adosgaitza zen bat-bateko ahots zorrotz batez—. Igande jauna segundo soil batez ikusten duzunean, ez zaizu noski burutik pasatuko sotila deitzerik.

Horrenbestez, karrika mehar batetik irten zirelarik, eguzki goiztiarrak argiz betetzen zuen Leicester Square. Ez da sekula jakingo noski zergatik duen leku horrexek halako itxura arrotz eta alde batera hain kontinentala. Ez da sekula jakingo ea atzerritar jite horrek erakarri dituen kanpotarrak, ala kanpotarrek eman dioten atzerritar jitea. Kontuak kontu, goiz zehatz horretan

bereziki argi eta garbia zen efektua. Enparantzaren zabalak, eguzki argitako hostoek, estatuak, Alhambra-ren forma sarrazenoantzekoek, frantziar edo are espainiar hiri baten erreplikaren itxura ematen zioten, oro har. Eta efektu horrek aregotu egiten zuen Syme-rengan abentura hartan guztian zehar modu askotan sumatu zuen sentrazioa, mundu berri batera bidegaldia zelako sentrazio estrainio hura, alegia. Mutikotatik ezagutzen zuen noski Leicester Square inguru hura zigarro txarrak erosteko lekutzat. Eta, hala ere, izkinan jiratu eta zuhaitzak eta kupula moriskoak ikusi zituenean, zin ere egingo zuen hiri arrotz bateko *Ez-dakit-zereko Plaza* ezezagunera sartzen ari zela.

Enparantzaren izkina batera emanaz, ongi zihoakion arren artean lasai samarra zen hotel baten angelu moduko bat ageri zen, nahiz berez atzeko karrikan zuen hotel horrek egoitza. Kristalezko ate-leiho handi bat zuen, kafe-gela zabal bateko leihoa, inondik ere; eta leiho horren aurrean, ia literalki plazaren gainean zintzilik, balkoi bat, kontrahorma itzel batzuek eutsia, aski handia jan-mahai bat edukitzeko. Hain

zuzen ere, bazeukan jan-mahai bat, edo, zehatzago izateko, gosari-mahai bat; eta gosari-mahai horren inguruan bildurik, eguzkitan ñir-ñir, kalearen agerian, gizon berritsu batzuk ari ziren builaka, denak ere modaren nabarmenean jantziak, txaleko zuriz, botoi-zuloak garesti apaindurik. Haien txantxetariko batzuk ia plaza-ren beste aldetik entzun zitezkeen. Hartan, Idazkari goibelak bere irribarre naturazbesteko erakutsi zuen, eta hala Syme-k jakin zuen gosaribilera zaratsu hura Europako Dinamitzaleen isilpeko batzarra zela.

Gero, luzagoz begira egon zelarik, ordura arte ikusi ez zuen gauza bati erreparatu zion Syme-k. Eta ez zuen lehenago ikusia, literalki, ikusteko handiegia zelako. Balkoiaren hurbilene-ko aldean, ikuspegiaren zati eder bat galaraziz, mendi gaitza halako gizon baten bizkarra ageritzen. Syme-k ikusi zuenean, gizon haren pisuak harrizko balkoia hautsi zezakeela pasatu zitzaion aurrena burutik. Ez zuen hain handi izugarria egiten ohiz kanpo garai izate soilak, ez eta ez sinesteko moduko lodi egoteak ere. Jatorrizko izarrietatik erraldoi egitasmaturia zen gizon hura,

berariaz kolosal nahi den estatua bat zizelkatzen den bezala. Buruak, ile zuriz koroatua, buru batek behar duen baino handiagoa zirudien atzetik ikusirik. Albo bietara nabarmentzen ziren belarri haiek giza belarriak baino handiagoak ziruditen. Ikaragarrizko eskala handian egina zen; eta hain zen tamainaren sentsazio hori txundigarria, ezen, hura ikusi zuenetik bertatik, Syme-ri iruditu baitzitzaion enparauen irudiak unean-unean txikiagotu egiten zirela, ipotx bihurtzeraino. Hantxe segitzen zuten mahai inguruan eserita, beren lore eta longainez, baina zera ematen zuen, orain gizontzarrak bost haur txiki edo gonbidatu zituela berekin tea hartzera.

Syme eta gidaria hoteleko albo-atera inguratu zirelarik, zerbitzari bat irten zitzaien, hortzak beteko irribarre zabalez.

— Berorien jaun-lagunak goian di'a, jaunak — esan zuen—. Hor a'i di'a, jardun eta jardun, eta ge'o berriketen kontura barrez. Errege'i bonbak jaurti behar dizkiotela ez diote ba!

Eta mahaizapi bat besogainean zuela bizkor-bizkor alde egin zuen zerbitzariak, goiko solairu-

ko jaunen hitzarinkeria xebreak egundoko grazia eginda.

Bi gizonak isilik igo zituzten eskaileak.

Syme-ri ez zitzaion une batez ere bururatu galdetzerik ea balkoia ia hausteraino betetzen zuen gizon hura ote zen besteengan halako errespetu gaitza sortzen zuen Lehendakari ikaragarri ospetsua. Hala zela jakin zuen, halako ziurtasun esplikagaitz baina bat-bateko batez. Izan ere, Syme-rengan —eta ez da munduan bakarra— sarbide erraza zuten eragin psikologikorik deskribaezinenek, zeinek baino zeinek, haren buru-osasunerako arriskutsu samar ere izan zitekeen puntu bateraino. Arrisku fisikoetarako erabat beldurgabea, gaitz izpiritualaren usainera sentiberaegia zen, izugarri sentibera. Ordurako, gau hartan, birritan modu ia lizunean irabazia zioten arreta zenbait huskeria ezdeusek, infernuko buruzagitzaren egoitzara gero eta hurbilagozten ari zelako sentsazioa eraginez. Eta sentsazio hori ororen gainetik nagusituz zihoan, Lehendakari bikainarengana hurbildu ahala.

Fantasia haurkara eta hala ere higuingarri baten mozorroz jantzi zen sentsazioa. Barneko

salatik zehar balkoirantz zihoala, Iganderen aurpegi zabala gero eta zabalagotuz zihoan; eta izuak zurturik zegoen Syme, beldurrez erabat hurbiltzean handiegia izango zela aurpegi hura posible izateko, eta berak garrasi egingo zuela ozenki. Gogoratu zen nola haurretan, British Museum-en, ez zion so egin nahi Memnon-en mozorroari, aurpegi bat zelako, eta hain handia.

Labar batetik jauzi egiteko behar dena baino ahalegin adoretuago bat eginez, aulki libre baten pareraino iritsi eta hantxe eseri zen gosari-mahaira. Gizonak aldarte onean agurtu zuten, txantxati, betidanik ezagutu balute bezala. Patxada apur bat hartu zuen haien jantzi konbentzionalei begiraturik, eta kafe-ontzi gotor, distiratsu hari; gero berriro Iganderi begiratu zion. Handia zuen oso, baina giza neurrien mugan zegoen artean aurpegi hura.

Lehendakariaren presentzian, enparauek, denek ere aski arruntak ziruditen; lehenbiziko begiratuan ez zuten deus deigarririk, salbu eta, Lehendakariaren apetaz, pintxo-pintxo jantzirik egotea, jai baterako bezalako dotore, eztei-gosari baten itxura emanaz otordu-bilera hari. Gizon

bat nabarmentzen zen, alabaina, are axaleko gainbegiratu batean. Hark behintzat dinamitari arruntaren jitea zuen erabat. Izan ere, egokiera hark eskatzen zuen idun zuri eta gorbata zetazkoz jantzirik zegoen arren, idun horretatik gora, buru erabat kontrolaezin bat ernetzen zen, zer zen guztiz garbi adierazten zuena; bizar eta ile gaztainakolorezko sasiarte txundigarri bat, ia begiak estaltzeraino, eskoziar terrier batenak nola. Begiok, ordea, sasiarte bihurritik zehar so zeuden, eta errusiar jopu baten begi tristek ziren. Eragiten zuen efektua ez zen ikaragarria, Lehendakariaren kasuan bezala; bazuen, ordea, halako deabru-xarma ez nolana hiko bat, erabat groteskoak diren gauzetan gertatzen denez. Gorbata-idun zurrunon gainean kolpetik katu nahiz txakur baten burua ageri izan balitz, ez zuen kontraste zentzugabeagorik sortuko.

Gizonaren izena, antza, Gogol zen; poloniarra zen, eta egun-zirkulu hartan Astearte deitzen zioten. Erremediorik gabe trajikoak zituen arima eta hizketa; ezin zuen behartu bere burua, Igan-de Lehendakariak eskatzen zionez, gauzak primeran doazkion gizon gogoarinen papera joka-

tzera. Hain zuzen ere, Syme sartu zenean, Lehendakaria, ausardia osoz jendearen susmakizunei jaramon ez egiteko bere politika hari jarraiki, harpa jotzen ari zitzaion Gogol-i, ez zela-eta gai gisa zen dotorezia egokiaren itxura egiteko.

— Gure lagun Asteartek —zioen Lehendakariak, patxadatsu eta aldi berean ozena zen ahots sakon batez—, Astearte gure lagunak ez bide du ideia harrapatu. Jaun baten dotoreziaz jantzen da, baina handiegia bide du arima jaun dotore baten gisa portatzeko. Antzerkiko konspiratzailearen jokabideari eusten dio. Alabaina, halako jaun dotore bat Londresen barrena bere kapelu luze eta longainaz badabil, inork ez du zertan antzemanik anarkista bat denik. Baina jaun hori bere kapelu luze eta longaina jantzi, eta gero lauoinka ibiltzen hasten bada... ez da noski harritzekoa deigarri gertatzea. Horixe egiten du anaia Gogol-ek. Hain diplomazia ahitezinez ohitu da lauoinka, ezen dagoeneko oso zaila gertatzen baitzaio tente ibiltzea.

— Ni ez naiz ezkutamenduetarako trebe —esan zuen, betizu, Gogol-ek, arrotz azentu markatu batez—; ez nago lotsaturik kausaz.

— Horixe zaudela, mutiko; eta kausa ere lotsaturik dago zutaz —esan zuen Lehendakariak, aldarte onez—. Beste edonor adina ezkutatzen zara; ez asmatzea, horixe duzu zuk aitzakia, halako astoa zarenez! Bateriaezinak diren bi metodo konbinatu nahi dituzu. Etxejabe batek bere ohe azpian gizon bat topatzen duenean, seguruasko ez zaio oharkabean pasatuko. Baina ohe azpiko horrek kapelu luzea badarama, ados egongo zara nirekin, Astearte laztana, gogoan geratuko zaiola noski betiko. Bada, Biffin almirantearen ohe azpian topatu zintuztenean...

— Ni ez naiz engainuetarako trebe —esan zuen Asteartek, itun, gorriturik.

— Halaxe da, bai, mutiko —esan zuen Lehendakariak, bihozkortasun gogorrez—, zu ez zara ezertarako trebe.

Solasaldi horrek zirauen bitartean, inguruan zituen gizonak polikiago arakatu zituen Syme-k. Haiei so eginez, izpiritualki bitxia zen zerbaiten sentsazio osoa itzuli zitzaion ezarian.

Hasieran pentsatua zuen garaiera eta janzkera arruntekoak zirela denak, Gogol iletsu haren salbuespen begibistakoa gora-behera. Besteak

arakaturik, ordea, ibai ertzeko gizon harengan kausitu zuen gauza berbera kausitzen hasi zen denetan ere: deabruzko xehetasun bat non edo han. Hasieran gidari bitxi izan zuenaren aurpegia bat-batean itxuragabetzen zuen irribarre hura tipikoa zen bilera hartakoen artean. Denek zuten zer bait, hamargarren nahiz hogeigarren begiratuan atzemateko modukoa, normala ez zena, eta apenas gizatiarra zirudiena. Bururatzten zitzaion metafora bakarra zera zen: modaz egoki jantziriko gizon gisatsuen itxura betea zutela, baina ispilu faltsu okertu batek emango lukeen ukitu hori gehiturik.

Banakako adibideek bakarrik adieraz dezakete bitxitasun erdi-ekutu hori. Symeren hasierako zizerone bitxi hura Astelehen tituluaz jantzia zen; Biltzarraren Idazkaria zen, eta haren irribarre okerra jo zitekeen izugarrietan izugarrientzat, albo batera utzirik noski Lehendakariaren barre lazgarri, zorioneko hura. Orain, ordea, ongi begiratzeko asti eta argi gehiago baitzuen Symek, beste ukiturik ere atzematen zion. Hain zuen aurpegia argala, ezen Syme-ri iruditu baitzitzaien eritasunen batek joa ote zuen; begi ilunen

larriak berak gezurtatzen zuen nolabait hori, ordea. Ez zen gaixotasun fisikoa hura hala penatzen zuena. Tortura intelektual biziz beterik zeuzkan begiak, pentsamendu hutsa oinaze baliuen.

Eta, hura bezala, tribuko bakoitza ere halatsu; bakoitza zen, bere modu sotil eta bereizian, behar ez bezalakoa. Haren ondoan Astearte zegoen, Gogol buru-tximatsua, begibistanago eroturik ageri zen gizona. Hurrena Asteazken, St. Eustache-ko markesa omen zena, itxura aski nabarmenekoa. Lehen hiruzpalau begiratueta ez zitzaion ohiz kanpokorik deus atzematen, salbu eta gizon bakarra izatea mahai hartan modako jantziak benetan bereak balitu bezala zeramatzana. Bizar beltz karratu bat zuen, frantses erara moztua, eta longain beltz bat, ingelesta, are karratuagoa. Syme-k, haatik, halako gauzetara sentibera, nolabaiteko atmosfera kargatuegi bat edo sumatu zuen haren inguruan, fineziaz betea bezain itogarria. Byron-en eta Poe-ren poemarik ilunenetako usain lo-sorrak eta argi erdi-iraungiak gogorarazten zituen irrazionalki. Horrekin batera, sentsazioa zen jantziak ere, ez

kolore emeagokoak zituela, baizik oihal bigunagoz eginak; beltzak beteago eta beroago zirudien harengan, inguruan zituenengan baino, kolore sakonez osatua bailitzan. Zera ematen zuen, jantzi beltza purpura sakonegia izanez baizik ez zela beltza. Bizar beltzaren kasuan ere, ematen zuen urdin sakonegia izanez baizik ez zela beltza. Eta, bizarraren goibeltasun trinkoan, haren aho-ezpain gorri ilunek sentsualitatea eta erdeinua ageri zuten nabarmen. Zena zela ere, ez zen noski frantsesa; judua akaso; edo akaso Ekialdearen bihotz ilunean are barnagoko zer-bait. Tiranoak ehizan irudikatzen dituzten per-tsiar lauza eta pintura koloretsuetan ikus daiteke halako almendra-begirik, halako bizar urdin-bel-zik, halako ezpain gorrimin krudelik.

Gero Syme zetorren, eta hurrena agure zahar-zahar bat, de Worms Profesorea, zeinak artean ere eusten baitzion Ostiral gisa zegokion eserlekuari, nahiz egun batetik bestera espero izatekoa zen haren heriotzak libre uztea. Adime-na salbu, zahardadezko gainbeheraren akabu-hurrenean zen. Bizar gris luzea bezain grisa zuen aurpegia; bekokia, berriz, gora jasotzez azke-

nean halaxe finko geratua zitzaion, etsipen bareko zimur bat markaturik. Beste inorengan ez zuen, ezta Gogol-engan ere, kontraste samina-gorik erakusten goiz-jantziaren dotorezia ezteikarak. Ezen botoi-zuloan zeraman lore gorria nabarmen gertatzen zen noski literalki beruna bezala marguldurik zetzan aurpegi haren kontra; halako efektu lazgarri bat sortzen zuen, oro har, dandy mozkor batzuek beren jantziak gorpu bati jantzi balizkiote bezala edo. Zutitu edo esertzen zenean —ez neke luze eta arrisku handirik gabe, hala ere—, ahulezia baino okerragoko zerbait nabari zitzaion; eszena osoaren lazgarritasunarekin modu definigaitz batean loturik zegoen zerbait. Ez zen akaburako gainbehera soilik nabari, ondoko ustelmena baizik. Beste fantasia higuigarri bat gurutzatu zen Syme-ren gogoeta ikaratuetan. Ezin zuen burutik kendu mugitzen zen bakoitzean agureak zango nahiz besoren bat gal zezakeelako irudikeria.

Azken muturrean, Larunbat esaten zioten gizona zegoen, guztien artean sinpleen eta txundigarriena. Gizon txikar karratu bat zen, bizar-biboterik gabeko aurpegi ilun karratu bat zuena;

bestelako izenez Bull zeritzan, eta medikua zen lanbidez. *Savoir-faire* delakoa eta zakartasun ongi-hezi moduko bat konbinatzen zituen, osagile gazteen artean ez hain bakan gertatzen denez. Areago esan zitekeen lasai zeramatzala arropa fin haiek, ezen ez aise eta gustura, eta irribarre aldagaitz bat ageri zuen gehienetan. Ez zen deus arrarorik harengan, salbu eta betaurreko ilun, ia opakoak erabiltzea. Akaso ez zen izango beraren fantasia urduriaren *crescendo* bat baizik, ordurako nerbioak beren gisa baitzebiltzan, baina disko beltz haiek izuikara bizitan jartzten zuten Syme; doi-doi gogoratzen zuen ipuin higuinen baten oroipena zekarkioten, hildakoen begietan jartzten ziren penike-txanponei buruzko istorio ilunak. Syme-ren begiradak beti egiten zuen topo lente beltzekin eta irrimirri itsu harekin. Hilzoriko Profesore harengan, edo are Idazkari zurbilarengan, egoki emango zuten. Baina gizon gazteago eta gizen-gordinago harengan enigma bat ziruditen soilik. Aurpegiaren gakoa estaltzen zuten. Ezin zen jakin zer adierazi nahi zuen, irribarrez egon nahiz serio. Aldez horregatik, eta aldez besteengan nekez aurki zitekeen

birilidade nabarmen samar bat nabari zitzaiolako, Syme-ri iruditu zitzaion hura zatekeela gizon gaizto haien guztien artean gaiztoena. Okerragorik ere bururatu zitzaion: alegia, ikusteko ikaragarriegiak zirelako ote zeramatzan estalirik begiak.

6. KAPITULUA

Ageri gorrian

Halakoak ziren mundua suntsitzea zin eginak ziren sei gizonak. Behin eta berriro gogor saiatu zen Syme haien presentzian bere zentzuzkotasun arruntari eusten. Batzuetan, une batez, konturatzen zen irudipen horiek subjektiboak zirela, aurrean zituenak gizon arruntak baino ez zirela, bat zaharra, beste bat urduria, bestea begi-laburra. Atzera naturaz besteko sinbolismo baten sentsazioa nagusitzen zitzaion, ordea, berriro. Bazirudien irudi bakoitza gauzen muga-mugan zegoela, nolabait, gizon haien teoria pentsamenduaren muga-mugan zegoen arabera, hain zuzen. Konturatzen zen haietariko bakoitza, nolabait esateko, arrazoibidearen bide galdu baten azken muturrean zegoela. Bere baitan zera fantasiatu baino ez zezakeen egin, antzina-ko alegia batean bezala, gizon batek, mendebalerantz abiatzen bazen munduaren bazterreraino, aurkituko zuela zerbait —demagun zuhaitz bat— zuhaitz bat baino gehiago edo gutxiago

zena, izpiritu batek harturiko zuhaitz bat edo; eta ekialderantz abiatzen bazen munduaren bazterreraino, aurkituko zuela izatez zena erabat ez zen beste zerbait: dorre bat, apika, forma bera ere gaiztoa zuena. Halatsu ageri ziren giza irudi haiek, bortitz eta era berean deskribagaitz, akabuko ostertz baten kontra; muturrenetik ikusitako irudiak. Lurraren azken bazterrak hurbil zeuden.

Solasak zelai eta berdin iraun zuen Syme-
k ikuskaria berebaitaratzen zuen bitartean; izan ere, gosari-mahai txundigarri hartako kontrasterik ez txikiena horixe zen: solasaren tonu lasai egoki-egokiaren eta haren xede ikaragarriaren arteko kontrastea, hain zuzen. Buru-belarri sarturik zeuden dudarik gabe ber-bertatik ekin nahi zioten plan baten eztabaidan. Behean topo egin zuten zerbitzaria oso ere xuxen mintzatu zen bonbaz eta erregez ari zirela esan zuenean. Handik hiru egunetara Tsarra Frantses Errepublikako Lehendakariarekin biltzekotan zen Parisen, eta, balkoi eguzkitsu hartan, beren hirugihar eta arrautzak hantxe mahai gainean zituztela, jaun betargi haiek erabakia zuten nola akabatuko

ziren biak. Bitartekoa ere aukeratua zuten; Markes bizar-beltzari zegokion, itxura zenez, bonba eramatea.

Normalean, positiboki eta objektiboki gertatzekoa zen krimen horren hurbiltasunak bere onera etorraziko zuen Syme, bere ikara soilki mistiko haietatik guztietatik osaturik. Bi giza gorputz burdinak eta gas trumoitsuak txikitzetik salbatzeko premia larrian baino ez zuen pentsatuko azkenean. Baina, aitzitik, kontua zen hirugarren beldur mota bat sentitzen hasia zela ordurako, gaitzespen morala zein erantzukizun soziala baino ere zorrotzago eta praktikoagoa. Garbi eta labur esanda, ez zitzaion iristen beldurra Frantziako Lehendakariarekin edo Tsarrarekin partekatzeko; bere buruaz hasia baitzen beldurtzen. Solaskide gehienek ez zioten jaramon handirik egiten, aurpegiak elkarrengandik hurbilago ari baitziren orain ezbaian, denak berdin serio-serio ia beti, salbu eta une batez Idazkariaren irribarreak aurpegia okerka zeharkatzen zionetan, tximist zuzenki-gabeak zerua zeharkatzen duenean bezala. Bazen gauza iraunkor bat, hala ere, Syme aurrena kezkatu eta azkenerako izula-

rriturik zeukana. Lehendakaria beti ere berari so zeukan, tinko-tinko, txunditzeko moduko arreta handiz. Gizon eskerga patxadan zegoen, isil-isilik, baina begi urdinak nabarmendu egiten zitzaizkion aurpegian. Eta beti ere Syme-rengan finkaturik zeuzkan.

Syme-k gogoia zuen ber-bertan zutitu eta bal-koitik kanpora jauzi egiteko. Lehendakariaren begiak bere gainean zituela, kristalezkoa balitz bezala sumatzen zuen bere burua. Apenas zuen duda izpirik ezen Igandek, nolabaiteko modu isil berebizikoz, antzemana ziola espioi bat zela. Bal-koi-kareletik begiratu zuen, eta justu azpian poli-zia bat ikusi zuen, bere pentsamenduetan mur-gildurik burdin hesi dirdaitsuei eta eguzki argita-ko zuhaitzei begira.

Orduan etorri zitzaion geroztik egun luzez tormentatuko zuen tentazio latza. Gizon botere-tsu eta higuingarri haien aurrean, zeinak anar-kiaren printzeak baitziren, ia ahaztua zuen Gre-gory poetaren, anarkismoaren esteta hutsaren, gizaitxura herbal eta fantasiatsu hura. Are aspal-diko maitetasun-edo batekin gogoratzen zuen orain, haurretan jolaskide izan balira bezala.

Oroit zen, alabaina, promes sendo batez loturik zegoela oraindik Gregory-rekin. Oraintxe ia egiteko zorian zegoela sumatzen zuen horixe sekula ez egitea agindua zion, hain zuzen. Agindua baitzion ez zuela jauzi egingo balkoi hartatik behera eta polizia harekin hitz egin. Bere esku hotza harrizko baranda hotzetik kendu zuen. Zalantza moralezko zorabio batean balantzaka zebilkion arima. Lagunarte doilor bati egindako zin burugabe baten haria trenkatzea baino ez zuen, eta han beheko plaza hura bezain ageriko eta eguzkitsua izango zuen aurrerantzean bizitza. Beste muturrean, berriz, ohore-lege zaharkitu hari euts ziezaiokeen, eta apurka-apurka eroriz joango zen gizadiaren etsai latz haren atzaparretan, adimena bera ere tortura-gela zitzaien gizon haien eskuetan. Plazara begiratzen zuen bakoitzean, polizia babesgarri hura ikusten zuen, zentzun arruntaren eta ordena arruntaren zutabe sendo. Atzera gosari-mahaira begiratzen zuen bakoitzean, Lehendakaria ikusten zuen, isil-bare beti hantxe, begi handi, eramanezin haiez bera arakatzen.

Pentsamenduan zerabilen erauntsi bizian baziren bi gogamen hala ere sekula burutik pasatu ez zitzaizkionak. Lehenik eta behin, ez zitzaion inoiz bururatu zalantzan jartzerik Lehen-dakariak eta haren Biltzarrak jo eta txikitu egingo zutela, bakarrik eusten bazion. Lekua jendearen agerikoa izan zitekeen, proiektuak ezinezkoa irudi zezakeen. Igande ez zen, ordea, nola edo hala, non edo han, bere burdin artea prest eduki gabe halako lasai egon zitekeen gizona. Pozoi anonimoz nahiz kale-istripu bat-batekoz, hipnotismoz zein infernuko suz, ez zegoen dudarik Igandek nahi zuenean jo eta suntsi zezakeela. Kontra egiten bazion, hiltzat eman zezakeen noski bere burua, aulkian bertan ziplo ez bazen, handik denbora puska batera, alegia ondoez hobengabe itxurako batek joa. Bertatik poliziari hots egiten bazion, denak atxilotu, den-dena kontatu, eta Ingalaterraren kemen guztia haien kontra jartzen, ihes egin zezakeen noski; osterantzean, inolaz ere ez. Argiz eta jendez pirpir zegoen plaza batera ematen zuen balkoi haren beteko jaun-bilera arrunt bat zen; ez zen, ordea, seguruago sentitzen haiekin, itsaso huts baten

erdian bakarturik legokeen ontzi pirata armatuz beteriko batean gertatu balitz baino.

Bazen bigarren pentsamendu bat sekula burutik pasatu ez zitzaiona. Ez zitzaion sekula bururatu etsaiak bere alderdirako irabaz zezakeenik bera izpiritualki. Hainbat modernok, adimenaren eta indarraren gurtzara etorkor, beharbada zalantzan jarriko zuen bere leialtasuna nortasun handi baten zamapean. Igande supergizon delakoa zela iritzi, alegia. Halako izakirik irudikatzerik balego, alabaina, bazuen hark hala-koaren antz ez gutxi, bere barnean murgildurik irauteko modu lur-ikaragarri harekin, harrizko estatua ibiltari bat zirudiela bere baitara biltze abstrakziorainokoan. Gizonaz gaindiko zerbait zela esan zitekeen, antzemateko begibistakoe-giak ziren plan zabal haiekin, ulertzeko nabarie-gia zen aurpegi xalo harekin. Syme ezin zite-keen, ordea, garaiotako joera dugun zimurkeria horretan eror, bere gogo-ahulenean ere. Gizon oro bezala, indar gaitzari beldurra izateko bezain koldarra zen; ez, ordea, hain erabateko koldarra non indar hori miretsiko zuen.

Solasean ari zirela, jan ere jaten zuten, eta horretan ere bazuen bakoitzak bere ezaugarri tipikorik. Bull doktorea eta Markesa, arreta eman gabe jaten zuten, konbentzionalki, mahaiko gauzarik onenetatik: faisai hotza zein Estrasburgoko gozopila. Idazkaria, aldiz, landarejalea zen, eta seriotasun goibelez ari zen, tomate gordin erdi bat eta baso baten hiru laurden ur epel aurrean zituela, burutzekotan ziren hilketaz solasean. Irakasle zaharra, berriz, bigarren haurtzaro higuigarri bat iradokitzen zuen ahi moduko bat hartzen ari zen. Eta, are horretan, Igande Lehen-dakariak masa hutsezko bere nagusitasun bitxiari eusten zion. Hogei gizonek beste jaten baitzuen; ezin sinesteko moduan jan ere, apetitu ikaragarri, aseezinez; hainbeste, non hestebete-fabrika bati begira egotea bezala baitzen. Hala ere, dozena bat opil irentsi edo litrokada bat kafe edan ondoren, hantxe egongo zen beti ere, bere buru ikaragarri hura apur bat jiraturik Syme-ri begirik kentzeke.

— Neure buruari galde egin diot askotan — esan zuen Markesak, hozkada eder bat emanik marmeladaz gantzaturiko ogi zerrada bati— ea

hobe ez ote nukeen labana erabiliko banu. Labanari esker ditugu ditugun gauzarik onenak. Eta emozio berria litzateke Frantziako Lehendakari bati labana barruraino sartu eta jira batzuk eragitea.

— Oker zaude —esan zuen Idazkariak, bekain beltzak zimurtuz—. Tirano pertsonal baten kontrako haserraldi pertsonal baten adierazpena baizik ez da izan labana. Dinamita ez da gure tresnarik onena soilik, baizik gure metodorik onena ere bai. Kristauen otoitzena intsentsua den bezain sinbolo bete-betea dugu dinamita geurea. Eztanda hedakorra da; zabaltzearen poderioz baizik ez du suntsitzen; halaber, pentsamenduak ere ez du suntsitzen zabaltzearen poderioz baizik. Gizonaren burmuina bonba bat da —esan zuen ozenki, suhartasun guztiz bitxi bat tupustean jareginik, bere kaskoan ukaldi bortitzak emanez—. Burmuina bonba bat bezala daukat, gau eta egun. Zabaldu beharra du! Zabaldu! Gizonaren burmuinak zabal-zabal egin behar du, unibertsoa hautsiko badu ere.

— Nik ez dut nahi unibertsoa oraintxe bertan hauts dadin —esan zuen Markesak, hitzak astiro

ebakiz—. Animaleko ekintza mordoa egin nahi dut oraindik hil aurretik. Atzo ohean nintzela bururatu zitzaidan bat.

— Ez; zer baten kontua azkenean ezer ez izatea baldin bada soilik —esan zuen Bull Doktoreak, bere irribarre esfingekara harekin—, apenas dirudien merezi duenik zer horrek.

Irakasle zaharra begi sorrez sabaira begira zegoen.

— Gizon orok daki bere bihotzean —esan zuen— ezerk ez duela merezi.

Isilune estrainio bat gertatu zen, eta gero Idazkariak esan zuen:

— Gaitik desbideratzen ari gara, nolana ere. Dugun auzi bakarra da ea nola eman behar duen Asteazkenek kolpea. Denok ados gaudela jotzen dut hasierako ideiarekin; bonba jartzearekin, alegia. Antolaketa zehatzari buruz, berriz, nik proposatuko nuke ezen bihar goizean joan dadila aurren-aurrenik...

Itzal handi baten zamak moztu zion betetan jarduna. Igande Lehendakaria zutitua zen, eta zerua estaltzen zuela zirudien.

— Hori eztabaidatu aurretik —esan zuen, ahots apal, patxadatsuz—, goazen gela pribatu batera. Badut gauza guztiz ere berezi bat zuei esateko.

Syme beste guztien ondoren zutitu zen. Aukeraren unea iritsia zen azkenean, pistolaren puntan zuen burua. Han beheko espaloian polizia harat-honat alferrean entzun zezakeen, lurra-ri ostikoka, ezen goiza, argitsua arren, hotza zen.

Kalean akerpiano batek tarrataka ekin zion doinu alai bati. Syme atezuan zegoen, guduaren aurreko turuta izan balitz bezala. Inondik ere ez zetorren halako adore naturazgaineko batez beterik sentitu zen. Jende behartsuaren bizitasun, arrunkeria eta adore irrazionalaz josia begitantzzen zitzaion soinutxo txatxar hura, karrika ezain haietan guztietan kristautasunaren prestutasun eta karitate asmoei ahaleginean eusten zieten guztien musika bailitzan. Polizia izatearen gazte-txantxa hura ordurako desagertua zitzaion burutik; ez zuen gehiago ikusten bere burua luxuzko herrizain bitxiz osaturiko talde bat eratzeko bildua zen jaun aldraren ordezkariatzat, ez eta gela ilun batean bizi zen agure xelebren har-

taz oroitzen. Bai, ordea, akerpianoaren soinura egunero gudura abiatzen zen kaleko jende arrunt onbera haien guztien enbaxadore sentitzen. Eta gizatiar izatearen harrotasun berebiziko horrek garaieneraino jaso zion izpiritua, inguruan zuen munstro-jende haren gainetik infinituki gora. Une batez, bada, arruntasun sendoaren gailur izartsutik ikusi zituen gizontxo haien trakeskeria bitxi guztiak. Gizon adoretzu batek indar handiko basapiztien aurrean edo jakintsu batek indar handiko errakuntzen aurrean sentitzen duen gailentasun oharkabe, elemental hori sentitu zuen haiekiko. Bazekien ez zuela inondik ere Igande Lehendakariaren indar, ez intelektual, ez fisikorik, baina une hartan ez zitzaion hori gehiago axola tigre baten gihar-zainak ez izatea baino, edo, errinozeroak bezala, muturrean adar bat. Lehendakaria oker eta akerpianoa zuzen zeudelako ziurtasun erabateko bat nagusitu zen Syme-rengan. Errolanen Kantoreko harako erran-arrunt ukagaitz bezain ikaragarri hura zebilkion durundiz buruan:

«Païens ont tort et Chétiens ont droit,»

eta, antzinako frantses sudurkariz, burdina-tzarren kirrinkots durunditsua zuen esaldiak. Bere izpiritua ahultasunaren zamatik askatze hori heriotza onartzeko erabaki garbi batekin batera etorri zitzaion. Akerpianoaren jendea mundu zaharreko bere betebeharrari zintzo eusteko gai bazen, bera ere bai. Hain zuzen ere, emandako hitzari eustiaz hain harro bazegoen, halako jende fedegalduekikoari eusten ziolako zen. Burtzoro haien kontrako bere azken garai-pena zuen, han beheko gela ilun hartara segitu, eta haiek ulertzerik ere ez zuten zerbaitengatik hiltzea bertan. Akerpianoak bazirudien orkestra oso baten indar eta soinu-nahasketaz ekiten ziola martxa-doinuari; eta Syme-k sakoneko oldar kementsuan entzun zitzakeen, bizi-poza-ren tronpeta guztien azpian, hil-beharraren pozaren danborrak.

Konspiratzaileak ordurako ate-leihotik zehar barneko geletara sartzen ari ziren ilaran. Syme azkena irten zen, kanpoko itxuraz lasai, baina garun eta soina taupaka zeuzkala, erritmo erro-

mantikoz. Lehendakariak zerbitzariantzakoa edo zirudien albo-eskailera irregular batean behera eramanez zituen, eta handik gela ilun, hotz, huts batera. Mahai bat eta banku batzuk baziren, eta bilkura-gela abandonatu baten itxura zuen, oro har. Denak sartu zirenean, atea krisketez itxi zuen Lehendakariak.

Hitz egin zuen lehena Gogol adiskidegaitz hura izan zen, sofrimendu artikulatu gabez leher-zorian irudi.

— Hautze polita, kero! —bota zuen, berotasun ozen ilun batez, poloniar azentu gogor hura ia ulertezin bihurtzeraino—. Ez tzarete omen etz-kutatzen. Omen dutzue burua erakutzten. Hutzkerietan bai, baina garrantziz hitz egin nahi dutzuenean, ala kutxa ilun batera guztiek!

Itxura zenez, Lehendakariak erabateko umore onez hartu zuen kanpotarraren ziri mor-doilo samar hura.

— Ez diozu oraindik puntua hartu —esan zuen, aita baten itxuran—. Behin balkoi horretan txorakeriak esaten gabiltzala entzunez gero, ez dira arduratuko ea handik nora goazen gero. Hona etorri bagina lehenbizi, hotel guztia eduki-

ko genuen sarraila-zulotik begira. Ematen du ez duzula batere ezagutzen giza jendea.

— Haien alde hil bai ni —ekin zion poloniarrek bero-bero—, eta haien tzapaltzaileak jotagarbitu gero. Ni ez halako etzkutaketa-jolasen tzalea. Platzaren erdian akabatuko bai gustura nik tira-noa.

— Tira, tira —esan zuen Lehendakariak, buruaz abegikor baietz eginez, mahai luzearen mutur batean esertzen zelarik—. Aurrena giza-diaren alde hil, eta gero altxatu eta haren zapaltzaileak akabatzen dituzu. Ederki. Orain, ordea, eskatzen dizut zeure sentimendu eder horiek kontrolatu eta beste jaunokin mahai honetan eser zaitezten. Goiz honetan lehenbiziko aldiz zerbait zentzuzkoa esateko unea iritsi da.

Syme, hasierako deialditik erakutsi zuen prestasun larri harekin, aurrena eseri zen. Gogol eseri zen azkena, bere bizar gaztainakolarearen artean *gonprometzuari* buruzko zerbait marmarka. Itxura zenez, Syme-k izan ezik, inork ez zekien inondik ere nolako zartatekoa zen gainera jaustekotan. Syme-ri zegokionez, berriz, urkamendira igotzen den gizonaren sentimendua

zuen; han goian hitzaldon bat egiteko asmoz
igo, hala ere.

— Burkideak —esan zuen Lehendakariak,
bat-batean zutiturik—, aski luzatu dugu dagoe-
neko fartsa hau. Hain da gauza simple eta harri-
garria hona behera etorrarazi gaituena, non are
hor goiko zerbitzariak (gure arinkerietara aspal-
di ohituak) lehen ez bezalako seriotasun puntu
bat atzemango baitzioten nire ahotsari. Burki-
deak, planak eztabaidatzen eta lekuak aipatzen
aritu gara. Proposatzen dut, beste ezer esan
aurretik, plan eta leku horiek ez daitezela bozka-
tu bilkura honetan, eta oso-osorik utz ditzagula
kide fidagarri baten kontrolpean. Larunbat burki-
dea proposatzen dut, Bull Doktorea.

Begira-begira geratu zitzaizkion denak; gero
halako ikara-jauzi bat egin zuten denek beren
eserlekuetan, zeren hurrengo hitzek, nahiz bate-
re ozenki esanak ez izan, aparteko enfasi bizia
baitzuten. Igandek mahai gaina jo zuen.

— Ez da hitz bakar bat gehiago ere esan
behar bilkura honetan planei eta lekuei buruz.
Xehetasunik txikiena ere ez da aipatu behar
gehiagolagunarte honetan gure asmoei buruz.

Igandek bizi guztia zeraman bere jarraitzaileak harriturik uzten; baina une hartan bazirudien ez zituela ordura arte inoiz benetan harriturik utzi. Sukarrak harturik bezala higitzen ziren denak beren eserlekuetan, Syme izan ezik. Hark gogor eginik zirauen berean, eskua poltsikoan, errebolber kargatuaren ipurtondoari heldurik. Eraso gainera zetorkionean, garesti salduko zuen bizia. Hala, Lehendakaria hilkorra ote zen jakingo zuen bederen.

Igandek emeki ekin zion:

— Konturatuko zarete noski arrazoi bat baino ez daitekeela izan, askatasunaren jaialdi honetan askatasunez hitz egitea debekatzeko. Kanpotik inork zer dihardugun entzuteak batere ez du axola. Txantxetan ari garelakoan daude. Axola luke, aitzitik, are heriotzarainokoa, gure artean norbait balego guretakoa ez dena, gure xede larria ezagutzen duena baina bat ez datorena, gure...

Idazkariak garrasi egin zuen bat-batean, emakume batek bezala.

— Ez da posible! —egin zuen oihu, jauzi batez zutiturik—. Ezin liteke...

Lehendakariak bere esku luze-zabal lauaz zapla jo zuen mahai gaina, arrain erraldoi baten hegatsa irudi.

— Bai —esan zuen astiro—, espioi bat dugu gela honetan. Traidore bat bada mahai honetan. Ez dut hitz gehiago gastatuko. Traidore horren izena...

Syme erdi-altxatu egin zen aulkitik, hatza armaren katuan irmo.

— Traidore horren izena Gogol duzue —esan zuen Lehendakariak—. Poloniar itxurak egiten dabilen horrako trikimaitsu iletsu hori duzue traidorea.

Gogol brau zutitu zen, pistola bana eskuetan. Lipar berean hiru gizonak salto egin zioten lepora. Profesoreak berak ere altxatzeko ahalegina egin zuen. Syme-k, baina, ez zuen gauza handirik ikusi, iluntasun ongile batek itsuturik baitzegoen; bere eserlekuan hondoraturik zetzan, hartutako lasaitu gogorraren dardarizoz zurturik.

7. KAPITULUA

De Worms Profesorearen jokabide esplikaezina

— Eseri! —esan zuen Igandek bere denboran behin edo birritan baizik erabili ez zuen ahotsez, ateratako ezpatak bertan behera erorarazi zituen ahots batez.

Zutituak ziren hirurak Gogol-en lepoa jaregin, eta pertsonaia ezbaigarri hura ere bere lekuan eseri zen osterara.

— Tira, bada, jauna —esan zuen Lehendakariak kementsu, inor erabat arrotz zaion bati mintzatuko litzaiokeen bezala mintzatuz—, jarriko duzu, otoi, zeure eskua txalekoko goiko poltsikotan, eta bertan zer duzun erakutsi?

Ustezko poloniarra zurbil samar ageri zen ile ilunezko bere sasiarte haren azpian, baina, itxura batean lasai ederrean, atzamar bi poltsikora eramane eta txartel urdin bat atera zuen. Syme, hura mahai gainean ikusirik, kanpoko mundura iratzarri zen berriro. Zeren, nahiz txartela mahaiaren beste muturrean zegoen eta Syme-k

ezin zuen haren testurik irakurri batere, bere poltsikoan zeramanaren antz harrigarria baitzuen; anarkisten aurkako polizia-talde berezira bildu zenean eman zioten txartel harena, hain zuzen.

— Eslabiar patetikoa —esan zuen Lehendakariak—, Poloniaren haur trajiko hori, prest al zaude txartel honen aurrean ukatzeko lagunarte honetan, nolabait esateko, *de trop* zaudela?

— Horixe nagoela! —esan zuen Gogol zelakokak.

Harridurak beren lekuetan jauzarazi zituen denak, halako ahots garbi, merkatarikara, cockney ukitu apur bat zuena entzunik ile arrotzeko oihan hartatik sortzen. Irrazionala zen, txinatar bat halako batean eskoziar azentuz mintzatzen hasi balitz bezala edo.

— Pentsatzen dut ondo jabetzen zarela zein egoeratan zauden —esan zuen Igandek.

— Ez dudarik egin —erantzun zuen poloniarrak—. Ederki harrapatuta nago noski. Esan dezakedan bakarra da ez dudala uste inongo poloniarrek imitatuko zuenik nire azentua nik harena imitatu dudan bezala.

— Horretan arrazoia ematen dizut —esan zuen Igandek—. Zure azentu horri imitagaitza deritzot, nahiz neuk bainuan praktikatzeko asmoa dudan. Axola zaizu bizarra ere txartelarekin batera uztea?

— Ezta batere —erantzun zuen Gogol-ek; eta hatz batez buru-estalki ile-zut hura oso-osorik erauzi zuen, adats gorri leun bat eta aurpegi xuri bizi-bizi bat lotsagabeturik bistara—. Beroa ematen zuen —gaineratu zuen.

— Zuzen onez aitortu behar zaizu —esan zuen Igandek, eta ez zegoen aparte halako miresmen gordin bat— ez zarela, hala ere, batere gaizki moldatu horren azpian. Orain entzun zer esan behar dizudan. Begiko zaitut. Horren ondorioa zera da, bi minutu eta erdi edo bederen ez nintzatekeela gustura sentituko oinaze saminen artean hil zarela baneki. Bada, hala ere, poliari nahiz inolako gizakiri gure berri ematen badiozu, jasan egin beharko ditut bi minutu eta erdi deserosotasunez beteok. Zure deserosotasunaz denaz bezainbatean, ez dut luzatu nahi. Agur, bada. Kasu mailari.

Gogol gisa mozorrotua zen detektibe ilegorria hitzik ere gabe zutitu zen, eta ezaxolatasun itxura peto-petoan irten zen gelatik. Hala ere, Syme, bere harrituan, gai izan zen konturatzeko lasaitasun itxura hura badaezpadako hutsa zela; izan ere, atea pasatu eta bertan egin zuen behaztopatxoak argi erakusten zuen ez ziola kasu eman mailari.

— Denbora hegan doa —esan zuen Lehendakariak bere aldarterik alaienean, begirada bat botarik bere erlojuari, zeinak, haren gauza guztiek bezala, behar zuen baino handiago baitzirudien—. Berehala alde egin beharrean naiz; humanitaristen bilkura bateko mahaiburu egin behar dut.

Idazkaria bekainei eraginez jiratu zen haren-gana.

— Ez al litzateke hobe —esan zuen, zorrotz samar— gure egitasmoaren xehetasunak lotuxeago uztea, espioiak dagoeneko alde egin duenez?

— Ez, ez dut uste —esan zuen Lehendakariak, lurrikara diskretu bat zirudien aharrausi batez—. Dagoen-dagoenean utzi. Larunbatek

antola dezala bere gisa. Alde egin beharra dut. Gosaria hemen bertan datorren igandean.

Arestiko eszena zaratatsuek, ordea, beren onetik atereak zituzten Idazkariaren kirio berez ere aski axaleraberak. Krimenean ere zintzo-zintzo diren horietarikoa zen.

— Protesta egin behar dut, Lehendakari jauna, ez baita bidezko —esan zuen—. Gure elkartearen oinarrizko legea da plan guztiei buruzko erabakiak batzar osoak hartu behar dituela. Zer esanik ez, bere balioan hartzen dut erakutsi duzun aurreikuspen bikaina, ezen traidore baten presentzian...

— Idazkari jauna —esan zuen Lehendakariak, serio-serio—, zeure buru hori etxera eraman eta egosten jarriko bazenu, arbi bat bailitzan, akaso baliagarria izan liteke. Ez nago oso ziur. Baina baliteke.

Zaldi batena gogorarazten zuen haserre bizi batek hartu zuen Idazkaria.

— Benetan ezin dut ulertu... —hasi zen, biziki mindurik.

— Horixe da, horixe da —esan zuen Lehendakariak, baietz eraginez buruari behin eta berri-

ro—. Hortxe egiten duzu zuk huts, hain xuxen. Ez duzu ulertzen. Hortaz, zuk, asto dantzaria halakoa —egin zuen orro, altxaturik—, ez zenuen nahi noski espioi batek entzun zintzan, ezta? Eta nola jakin dezakezu ez zaituela orain beste batek entzuten?

Eta hitz horiekin, aterainoko bidea sorbalde beraginez egin, eta gelatik irten zen, destaina ulergaitzez dardaraz.

Lehendakariak hala atzean utziriko gizonetarik lau ahozabalik geratu ziren, zer esan nahi zuen arrasto izpirik ere gabe, antza. Syme bakarrik zuen arrasto izpirik, eta hezurretaraino hotzikaratzekoa zen. Lehendakariaren azken hitzek batere esanahirik bazuten, esan nahi zuten noski Syme ez zegoela oraindik ere susmoetatik libre. Esan nahi zuten, Igandek Syme Gogol bezala salatzeke modurik ez bazuen ere, ezin zuela artean ere besteengan bezalako konfiantzarik izan Ostegun berriarengan.

Beste laurak, gutxi-asko marmarka zutitu, eta bertatik lekutu ziren bazkari bila, zeren eguerdi ondotxo joa baitzen ordurako. Profeso-rea irten zen azken, astiro eta penaz. Gainerako-

ek alde egin eta luzaroan geratu zen artean ere Syme bere lekuan, bere egoera bitxiari bueltak emanek. Trumoi-tximist bati itzuri zitzaion, baina hodeiaren azpian zegoen artean ere. Azkenean, zutitu eta hoteletik irteteko egin zuen, Leicester Square-ra. Arestiko egun argi hotz hura gero eta hotzago bilakatua zen, eta kalera irtetean elur maluta batzuen ezustearekin topo egin zuen. Oraindik aldean bazeramatzan ere ezpata-makila eta Gregory-ren gainerako bidai puskak, soinganekoa nonbait utzia zuen konturatzeke, akaso atoiontzian, akaso balkoian. Elur jasa arina izango zelako esperantzan, beraz, kale bazterrera jo eta ile-apaindegi txiki koipetsu baten atepean egon zen hantxe. Aurrealdeko leihoan ez zen deus ageri, salbu eta argizarizko andre higuigarri bat, jai-soineko eta guzti.

Elurra, nolana ere, mardulago eta sarriago ari zuen; eta Syme-k, argizarizko andreari bota zion begiratu laburra nahikoa izan baitzuen gogoia jota uzteko, kale zuri hustura begiratzea nahiago izan zuen aukeran. Ez zen gutxi harritu, hantxe, ile-apaindegiaren parean geldi-geldi, leihoari begirik kentzeke, gizon bat ikusirik.

Haren kapelu luzea elurrez zamaturik zegoen, Papa Noel-ena bezala, eta jario zuria metatuz zihoakion bota eta orkatilen inguruan; bazur-dien, ordea, ezerk ere ezin izango zuela aparta-tu jai-soineko zikinez jantziriko argizarizko panpi-na koloregaldu haren kontenplaziotik. Ezein ere gizakik halako eguraldiarekin halako saltoki bati begira hantxe euste hutsa ere nahikoa harrigarri zen noski Syme-rentzat; harridura lelotu hura, ordea, benetako barne-zirrara bihurtu zitzaion halako batean; zeren hala eusten zion gizon hura De Worms Profesore paralitikoa baitzen. Ez zen huraxe noski lekurik aproposena halako adin eta halako osasun kaxkarreko pertsona batentzat.

Syme prest zegoen ordurako edozer sineste-ko anaiarte gizagabetu haren perbertsioez; berak ere ezin zuen, ordea, sinetsi irakaslea mai-temindurik egon zitekeenik argizarizko andre hartaz. Pentsa zezakeen gauza bakarra zera zen, haren gaixotasunak (zena zela ere) ondorio berezko zuela halako zurrunaldi nahiz trantzeren batek jota geratzea tarteka. Ez zitzaion, halaz guztiz, inolako erruki-sentipen bortitzik nagusitu kasu hartan bere baitan, ezta gutxiagorik ere.

Aitzitik, esan zitekeen pozik zegoela Profesorea-
ren atakeak eta haren ibilera baldar neketsuak
hainbat erraztuko ziotelako handik ospa egin eta
berehala tarte handi bat ateratzea. Zeren Syme-
ren une hartako gogo behinen eta bakarra
atmosfera guztiz ere pozoitsu hartatik ihes egi-
tea baitzen, ordubetez bederen. Hartara, bere
pentsamenduak ordenatu ahal izango zituen,
bere jokabidearen nondik-norakoak finkatu, eta
azkenean erabaki ea eutsi behar zion ala ez Gre-
gory-ri emandako hitzari.

Astiro abiatu zen elur dantzaritik zehar; biz-
pahiru kantoitan gorantz egin, beste bizpahiru
karrikatan beherantz, eta Soho-ko jatetxe batera
sartu zen bazkaltzera. Lau gauzatatik jan zuen,
gogoetatsu, lau platerkadatxo berexi-berexi;
botila erdi ardo beltz edan, eta kafe hutsez eta
puru batez errematatu zuen, artean ere pentsa-
kor. Jatetxeko goiko solairuan kokaturik zegoen,
eta labanen txin-txin hotsez eta atzerritarren
berriketez beterik zegoen jangela. Oroitu zen
garai batean begitandu izan zitzaiola arriskurik
gabeko arrotz atsegin haiek anarkistak zirela
guztiak. Hotzikara batek hartu zuen, gauzak zer-

tan ziren oroiturik. Ardoak, janari arrunt, etxeko hark, lekuaren familiartasunak, gizon natural, hiztun haiek, Zazpi Egunen Biltzarra amets gaizto bat izan balitz bezala sentiarazten zuten; eta, errealitate objetiboa zela jakin arren, errealitate urruna zitzaion bederen. Etxe garaiak eta karrika jendetsuak babestari zitzaizkion Syme-ri, zazpi-kote malapartatua azkenekoz ikusi zuen unetik bereziz; libre zebilen Londres librean, jende librean artean ardoa edanez. Lehen ez bezalako mugimendu eroso, lasaituxeagoz, kapelua eta makila hartu, eta beheko solairura zeramaten eskailerak jaisten hasi zen astiro.

Behera iritsi zenean, jota geratu zen, harri eta zur. Mahai txiki batean, kale elur-zuritua ikustera ematen zuen leiho biluziaren kontra, han zen, baso bat esne aurrean zuela, Profesore anarkista zaharra, aurpegi bitxia jasorik, betazalak jausirik. Lipar batez, eskuan zeraman makila bezain zurrun geratu zen Syme. Gero, presa itsuzko keinu batez, Profesorearen ondotik ziztuan pasatu, brau atea ireki, bere atzetik danba itxi, eta hantxe geratu zen kanpoan elurpean.

«Ba ote liteke gorpu zahar horrek niri jarraitzea?», galdetu zion bere buruari, bere bibote horia hozkatuz. «Gehiegi luzatu naiz hor goian bazkaltzen, eta are berunezko oin horiek astia izan dute noski ni harrapatzeko. Lasai egon naitenke, hala ere, ibilitxo bizkor samar batez hemendik Tonbuku-rainoko aldea ken diezaioket-eta. Ala fantasiakeriatan nabil? Arrastoa jarraitu ote dit benetan? Igande ez dateke hain txorrea, nor, eta herren bat bidaltzeko nire atzetik?»

Erritmo biziz ekin zion oinez, makilari jira eta bira eraginez, Covent Garden aldera. Merkatu handia gurutzatzean elurra mardulago ari zuen, itsugarriago eta aztoragarriago bilakaturik arratsaldea iluntzen hasi ahala. Elur-malutak zilarrrezko erle saldo batek bezala erasotzen zioten. Begietan eta bizar artean sarturik, beren deuseztasun atergabeaz areagotzen zuten Syme-ren kirio ordurako aski minberatuen erresumina. Hala, balantzakako urratsez Fleet Street-era iritsi zenean, pazientzia galdu, eta, igandez irekita zegoen te-etxe bat baitzen hantxe, haraxe sartu zen aterpe bila. Beste kafe huts bat eskatu zuen,

aitzakia gisa. Ez al zuen eskatu, De Worms Profesorea sartu zen kaletik kinkili-kankala; neke handiz eseri, eta baso bete esne eskatu zuen.

Syme-ren esku-makila behegainera erori zen metal-hots ozenez, altzairu gordea salatuz. Profesoreak ez zuen, hala ere, begiratzeko keinurik egin. Syme, edozer gauzaz harritzen ez diren horietakoa izanik berez, literalki ahozabalik geratua zen, baserritar inozoa magia-joko baten aurrean bezala. Bidean ez zuen ikusi kotxerik segika; gero ere ez zuen gurpil-hotsik entzun kanpoan; itxura guztien arabera, oinez etorria zen. Agure hura, ordea, barakuiloaren pausoan ibiltzeko baino ez zen gai, eta Syme haizearen ziztuan etorria zen. Makila jasotzeko makurtu zen bizkor, aritmetika hutseko kontraesanaz aztoraturik, eta ate kulunkaria bultzatuz kanpora irten zen, dastatu ere gabe utzirik kafea. Bank aldera zihoan omnibus bat pasatu zen binbilika, ohi ez bezalako abiadura handian. Ehun bat yardako korrikaldi bizia egin behar izan zuen harra-patzeko; lortu zuen, hala ere, estribura jauzi eginik nolabait barrura sartzea, eta, arnasa hartzeko une batez pausatu ondoren, goiko solairura

igo zen. Eserita minutu erdi inguru zeramala, halako arnasketa astun, asmatiko bat edo entzun zuen atzean.

Tupustean jiraturik, omnibuseko eskaileran mailaz maila gero eta gorago, elurrez mela-mela egindako kapelu luze bat agertzen ikusi zuen, eta haren hegaleko itzalean De Worms Profeso-rearen aurpegi bista-laburra eta haren sorbalda dardaratia. Beti bezalako neke-larri eta kontuz abaildu zen eserlekuaren gainera, eta kokotse-raino jaso zuen soingainekoaren lepoa.

Haren figura kordokari eta esku zalantzatiek egiten zuten mugimendu bakoitzak, keinu lauso nahiz geldiune laborrizko bakoitzak, ez zuen duda handirik uzten ezindurik zegoela agurea, gorputzaren akabuko kandetasunak jota. Hazbetez hazbete iritsia zen eserlekura, eta aulkian kokatzeko esfortzuak ere hasperen-espantu sarriak eragin zizkion. Eta hala ere —denbora eta espazioa deritzen entitate filosofiko horiek inondik inorako existentzia praktikorik ez dutela pentsatu nahi ez badugu, behintzat—, guztiz ere gauza ukaezina zirudien omnibusaren atzetik lasterkaetorria zela.

Syme brau zutitu zen bus binbilikarian, eta, une batez zeru negutiarrari zoro antzo begira geratu ondoren, eskaieran behera ekin zion korrika. Horretarako, sen gordinak agintzen zionari kontra egin behar izan zion, albotik salto egiteko gogoia izan baitzuen.

Atzera begiratzeko edo arrazoitzeko aztoratuegia, Fleet Street ondoan dauden etxarte mehar horietako batera sartu zen oldarrean, untxi bat zulo batera nola. Halako ideia lauso bat zuen buruan, ezen, ustekabe-kutxa baten irudiko agure antzemangaitz hura benetan atzetik segika bazeukan, karrika txikien labirintu hartan berehala galarazi ahal izango ziola arrastoa. Atzera-aurrera bizian murgildu zen, bada, karrika zulo bihurri haietan, areago baitziruditen pitzadura hutsak, kale formalak baino; gero, hogeiren bat angelu txiki-handi osatu eta horrenbestez poligono asmagaitz bat trazatu eta gero, pausatu egin zen, ea inolako segizio-hotsik entzuten ote zuen atzetik. Ez zen halakorik baterre; eta edonola ere ezin izango zen gauza handirik entzun, elurrezko estalkiak soinugabetzen baitzituen karrika-zoruak. Red Lion Court pasatu

eta han inguruan, hala ere, hiritar kementsuren batek hogeiren bat yardako tarte batean kendua zuen elurra, harlauza busti dirdaitsuak agerian utzirik. Handik pasatzean ez zion jaramon handirik egin, labirintu-zuloaren beste adar batera itsumustuan oldarturik. Handik bizpahirurehun yardara berriro entzutera gelditu zenean, ordea, bihotza ere gelditu egin zitzaion, harri gordin haien ganean klinki-klanka, elbarri infernuzkoaren makulu hotsa entzuten baitzuen, eta harekin batera oinen herresta neketsua.

Zerua elur-hodeiz kargaturik zegoen, arratsaren tenore hartarako goiztiarregia zen halako iluntasun eta neke-zama batean utzirik Londres. Syme-ren alde bietara pasabidearen hormak itsu eta ezaugarrigabe ageri ziren; ez zen leiho txikiarik ez bestelako begi-zulorik ere. Etxe-erlauntza hartatik ospa egin eta berriz kale zabal argitsura irteteko gogo bizia sentitu zuen. Hala ere, atzera-aurrera bihurriak eginez ibili zen luzaro, karrika nagusira irten orduko. Irten ere, uste izan zuen baino askoz gorago irtena zen. Ludgate Circus-eko zabaldi handi bezain hutsa behar zuen

hark noski, berehala bistaratu baitzitzaien, zeru goi aldean hantxe, San Pauloren Katedrala.

Hasieran harrigarri gertatu zitzaion ibilbide zabal haiek hain hutsik aurkitzea, hiria izurri batek jo izan balu bezala. Gero bere artean egin zuen alde batera normala zela hustu samarturik egotea bazterrak; lehenik eta behin, elur-ekaitza are arriskutsua izaterainoko gogorra zelako, eta bigarrenik, igandea zelako. Eta igande hitza bururatze hutsak ezpaina hozkarazi zion; handik aurrera hitz hura halako berbajoko higuin bat begitanduko zitzaion beti. Zeru goieneko elurlaino zuri haren azpian, halako koloregiro guztiz ere bitxi bat ageri zuen erabat hiriak, ilunbista berde moduko bat, itsas azpiko herri batena irudi. San Pauloko kupula ilunaren atzean ageri zen ilunsenti itxi goibelak kolore ketsu, susmo beltzekoak zituen —berde gaixo higuingarriak, gorri hilak, brontzekolore ustelduak—, zeinak doi-doi baitziren aski argiak elurraren zuritasun sendoa enfatizatzeko. Baina kolore higuin haien kontra hantxe zegoen katedralaren itzal-islak beltz tantaia; eta haren gailur-gailurrean elurplapa handi bat ageri zen, halabeharrez han

erori, eta artean ere Alpeetako haitz bati bezala zatxekona. Txiripaz behar zuen han, baina, erori zen moduan, goreneko partetik hasi eta kupularen erdia estaltzen zuen, zilarraren argi betez nabarmenaraziz orbetzarra eta gurutzea. Hari erreparatu zionean, Syme tente-tente jarri zen, eta oharkabeko agur bat egin zuen ezpata-makilaz.

Konturatzen zen deabru-irudi hura, itzala bailitzan, bizkor zein astiro, atzetik zeukala beti ere, eta ez zitzaion axola. Giza fede eta adorearen sinbolo bat iruditzen zitzaion, zeru aldea ilundu ahala lurraren goialde hartan argi egiten zuena. Deabruak zerua eskuperaturik izan zezaketen, baina ez oraindik ere gurutzea. Gogo bizia sortu zitzaion segika zebilkion elbarri arin-arinkari haren sekretua erauzteko; hala, karridak Circus zabalera ematen zuen puntura iristean, bertan jiratu zen, makila eskuan, jazartzaileari aurpegi emateko.

De Worms Profesorea astiro agertu zen, kantoian jiratu eta kalekka irregular bat atzean utziz, bere itxura naturazbesteko hura gas-argi bakarti baten kontra islaturik, halako moldez non

berehala baitzetorren burura haur-leloetako harako irudi guztiz irudimentsu hura: «adarra baino okerragoko bidea egindako gizon okerra». Zinez zirudien karrika adarbihurritsuetako ibili makur hark ote zuen hain itxuragabeki okertu. Hurbildu ahala, farolargiak distira egiten zuen haren betaurreko jaso, haren aurpegi gora altxatu, pairakorrean. Syme-k San Jurgik herensugeari bezala itxaroten zion, azken azalpen baten edo heriotzaren zain dagoenak bezala. Profesore zaharra, ordea, Syme-ren pareraino iritsi, eta inondik ere ezagutu ez balu bezala pasatu zen, betazal dolumintsu haien kliskik ere gabe.

Uste gabeko xalotasun isil hartan bazen zerbait Syme-ri ezin gehiagoko haserre bizia eragin ziona. Gizonaren aurpegi eta jokabide soraioak garbi adierazten bide zuten jazarpen hura guztia halabehar hutsa zela. Mingostasunaren eta mutiko-burlaize ezin eutsizko baten arteko kemen halako batek indarberritu zuen Syme. Keinu bihurri bat egin zuen xixtakoan, agureari kape-lua burutik kentzeko bezala, «ezetz harrapatu» edo halako zerbait oihukatu, eta lasterketan ekin zion Circus zuri, zabalean barrena. Ezkutatzea

ezinezkoa zen hara ezker. Sorbalda gaintetik atzerantz begiraturik, agure zaharraren figura beltza ikus zezakeen atzetik segika, urrats luze arinenean, miliaren lasterketa irabaztera doanaren pare. Gorputz saltari haren gaineko buruak, baina, zurbil, serio-serio, profesional zirauen berdin, arlekin batek unibertsitateko irakasle baten buruari eutsiko balio bezala.

Hanka-bururik gabeko jazarpen hark lasterka biziz iraun zuen Ludgate Circus-en zehar, Ludgate Hill-en gora, San Pauloren Katedralaren jiran, Cheapside-en barrena, inoiz izandako amesgaizto guztiak oroitaraziz jazarriari. Gero Syme-k ibai aldera ekin zion ihesean, eta ia kaietaraino iritsi zen. Taberna apal baten leihoak bistaratu baitzuten, barneko argiek horiztatuak, haraxe oldartu zen itsumustuan, eta garagardo bat eskatu. Taberna-zulo satsu bat zen, atzerriko itsasgizonen betea, opioa erretzeko nahiz labanak dantzatzeko leku aproposa.

Handik pixka batera, De Worms Profesorea sartu zen tabernara; kontu handiz eseri, eta baso bete esne eskatu zuen.

8. KAPITULUA

Profesoreak azalpenak ematen ditu

Gabriel Syme oren buruan aulki batean finkatu zenean, Profesoraren bekain goratu eta betazal berunkara haiek aurrez aurre zituela, halaberean finko eta oren buruko, bete-betean berritu zitzaizkion beldurrak. Biltzar ankerreko partaide ulertezin hura, orain ez zen dudarik, atzetik segika etorria zitzaion. Gizonak alde batetik elbarri gisa nortasun bat baldin bazuen eta beste bat jazarle gisa, antitesiak interesgarriago bihur zezakeen, baina ez inondik ere lasai-garriago. Ez zuen on handirik pentsatuz ezingo zuela berak Profesorearen joko bikoitz hori azaldu, baldin eta, ezbehar larriren bat tarteko, Profesoreak berea igartzen bazion. Txarro bete garagardo hustu zuen, Profesoreak bere esnea ukitu orduko.

Bazen aukera bat, nolanahi ere, itxaropentsu iraunarazten ziona, nahiz babes handirik ez eman. Agurearen ibilketa hark ez zuen nahita-

nahiez Syme-rekiko susmo garbi nahiz lausorik adierazten noski. Beharbada arauzko molde edo zeinu bat zen hura. Beharbada harat-honat zoro hura berak ulertu behar zukeen adiskidetasun hutsezko seinale nolabaiteko bat zen. Beharbada erritual bat zen. Beharbada Ostegun berriari beti egiten zitzaion halako jazarpena Cheapside-n zehar, alkate hautatu berriari leku berean agurrezko eskolta egin ohi zaion bezala. Bere jakin-beharren argibidean nondik ekin erabaki ezinik zebilela, hara non hasten zaion hantxe bere aurrean hizketan Profesore zaharra, eta erabat moztuta uzten. Syme-ri bere lehen itaun diplomatikoa egiteko betarik eman gabe, anarkista zaharrak tupustean galdetu zion, inolako prestaketakarik gabe:

— Polizia al zara?

Zernahi ere espero bazuen ere, ez zuen inondik inora espero noski halako galdera gordin zehatzik egingo ziotenik. Ekaitzaldian ere bare itxurari eusten trebe izanik ere, nabarmen samar irten zitzaion txantxa-doinu edo batez eman zuen nola-halako erantzuna.

— Polizia ni? —esan zuen, irri zozoz—. Nondik atera duzu, ordea, polizia traza dudarik nik?

— Ez dut askorik nekatu behar izan burua —erantzun zuen Profesoreak patxadaz—. Hasieratik iruditu zitzaidan polizia itxura zenuela. Eta orain ere hala iruditzen zait.

— Akaso polizia-kapelu bat hartu dut deskuidaturik jatetxetik irtetean? —galdetu zuen Syme-k, irrimodu xelebrez—. Ba ote daramat deskuiduan aldean zenbaki bat itsatsirik inon? Halako erne-zut itxura dute inolaz ere nire botek? Zergatik izan behar dut polizia? Uztazu, otoi, postaria izaten.

Profesore zaharrak itxaropenari lekurik ematen ez zion larritasun serio-serioz eragin zion buruari, baina Syme-k berean aurrera ekin zion, ironia sukartsuz.

— Baina beharbada gaizki ulertuko nituen zure aleman filosofiaren xehetasun finak. Beharbada adiera berezian erabili duzu polizia hitza. Eboluzioaren zentzuan, Profesore jauna, tximinoa hain ezarian doa galduz poliziaren baitan, ezen neronek ezin baitiot antzeman halako ñabardurari. Tximinoa ez da izatekoa den polizia

baino. Beharbada Clapham Common-eko neska-zahar bat ez da izatekoa zen polizia baino. Ez zait axola izakizun den polizia banaiz. Ez zait axola edozer ere izatea aleman pentsamendua-
ren arabera.

— Polizia-lanean diharduzu? —esan zuen agureak, Syme-ren etsi-etsiko ateraldi inprobisatu hari ezjaramon eginez—. Detektibea zara?

Syme-ri bihotza harri bihurtu zitzaion, baina ez zuen aurpegian mudantzarik erakutsi.

— Zure iradokizun hori irrieragingarri hutsa da —hasi zen—. Zer demontregatik...

Agureak indar biziz jo zuen mahai korrokoil-
duaren gainean bere elbarri-esku dardartiaz, ia-
ia hautsiz mahia.

— Entzun al duzu nire galdera argi eta zuzena, espioi hitzmerkea alaena? —egin zuen garra-
si, ahots neurrizgaineko, zorrotzez—. Bazara, ala ez zara, polizia-detektibea?

— Ez! —erantzun zuen Syme-k, lepoa borre-
roaren eskuetan lukeenak bezala.

— Zin dagizu? —esan zuen agureak, Syme-
rengana makurturik bere aurpegi hila, zeinak
higuingarriro berpiztua batzirudien orain—. Zin

dagizu? Zin dagizu? Zin faltsu badagizu, betiko galduta zaudela deritzozu? Zure hiletan deabruak dantza egiten duela? Zure hilobian amesgaiztoak bertan-goxo egiten duela? Seguru zaude benetan? Anarkista bat zara, dinamitari bat? Eta, oroz gain, ez zara ezein zentzuz ere detektibe? Ez zara britainiar poliziako partaide?

Ukondo zorrotza mahaian aurreratu, eta bere esku herbala belarrian ezarri zuen, hegal baten gisa zabalik.

— Ez naiz britainiar poliziako partaide —esan zuen Sy-me-k patxada zoroz.

De Worms Profesorea aulkian amildu zen atzera, atake arin bat eman balio bezalatsuko itxura xelebrea.

— Tamalgarria da —esan zuen—, ni banaiz eta.

Syme oldarrean zutitu zen, eserita zegoen aulkia atzerantz kanka botarik.

— Zu bazara-eta zer? —esan zuen, pott egi-nik—. Zu bazarela zer?

— Polizia, bada —esan zuen Profesoreak bere lehen irribarre zabalez, lenteen atzetik brist-brist begiak—. Baina zuk poliziak adiera finkorik gabe-

ko hitz bat baino ez direla deritzozunez, ez dut noski zerikusirik zurekin. Britainiar poliziako kidea naiz; baina zu ez zarela diostazunez, dudan datu bakarra dinamitazaleen elkarte batean topatu zaitudala da. Atxilotu egin behar-ko zintuzket noski —eta hitz horiekin bat, Syme-k bere txalekoaren poltsikoan zeraman txartel urdinaren faksimil peto-peto bat ezarri zuen mahai gainean Professoreak, bere polizia-aginpi-dearen sinboloa.

Syme-k lipar batez sentsazioa izan zuen kosmosa azpikoz gora iraulia ote zen erabat, zuhaitzak oro beherantza hazten ari zirela, eta izarrak, berriz, bere oinpean zituela guztiak. Gero kontrako uste sendoa joan zen nagusituz. Azken hogeita lau orduetan kosmosa zinez azpikoz gora egona zen, baina orain unibertso iraulia berriro bere zuzenera etorria zen. Egun guztia ihesean pasarazi zion deabru jazarle hura ez zuen bere etxeko anaia zaharragoa baino, eta hantxe zeukan orain mahaiaren beste aldean berari barrez. Ez zion une hartan inolako xehetasunik eskatu; aski zuen jakinik, horrek pozik bezain ergel sentiarazten bazuen ere, arriskuan

zegoelako larritasun jasangaitza sorraraziz segi-ka ibilia zitzaion itzal hura ez zela bere laguna-rengana iritsi nahi zuen norbaiten itzala baizik. Aldi berean konturatu zen gizon zuntzun bezain askea zela. Ezen edozein gaixo-egoeratik jator oneratzeko ezinbestekoa baita nolabaiteko umiliazio osagarri bat. Iristen da une bat halako ego-eretan, non soilik hiru gauza baitira posible: lehenik, bozkario sataniko harro halako batean irautea; bigarrenik, malkoak; eta hirugarrenik, barrea. Syme-ren berekeriak gogotik heldu zion lehen burubideari segundo batzuez, eta gero bat-batean hirugarrenera lerratu zen. Txalekoa-ren poltsikotik bere polizia-agiri urdina harturik, mahai gainera bota zuen; gero, bere bizar laru punta-zorrotz harekin ia sabaia jotzeraino jaso burua, eta algara zoroz ekin zion barrez.

Plateren, poteen, ahots deiadartsu, tupusteko borroka eta arrapaladako ihesaldien harra-bots atergabez beteriko zulo haren erdian ere, bazen Syme-ren algara hartan zerbait homeri-koa, erdi-mozkorturiko gizon askori burua jirara-zi ziona.

— Zeri e'iten dio parre, na'usi? —galdetu zuen kaietako behargin harritu batek.

— Neure buruari —erantzun zuen Syme-k—, eta berriro murgildu zen bere erreakzio estatikoren agonia lehegarrian.

— Eutsiozu zeure buruari —esan zuen Professoreak—, edo histeriko jarriko zara azkenerako. Hartu beste garagardo bat. Nik ere hartuko dut.

— Zure esnea hor duzu-eta oraindik —esan zuen Syme-k.

— Nire esnea! —esan zuen besteak, hondorik gabeko mesprezu destainaz betean—, nire esnea! Uste al duzu arrimatu ere egingo nintzatekeela ni nazkagarrikeria horren usainera, anarkista zikinok aurrean egon ezik? Kristauak gara denok sala honetan, nahiz beharbada —gainertu zuen, begiratu bat botarik bezeria aiko-maiko hari— ez zuzen-zuzenak. Esnea bukatzeko? Arraoietan baietz! Oraintxe bukatuko dut! —eta jo eta mahaitik behera irauli zuen zakar basoa, kristala txirtxilatatu eta zilar jario bat isuriz zoruan.

Syme begira-begira zegokion.

— Orain ulertzen dut! —egin zuen espantu, harriduran pozik— ez zara noski agure bat inolaz ere.

— Ezin dut hemen aurpegia kendu —ihardetsi zuen De Worms Profesoreak—. Lan dexente du makilajeak. Zaharra naizenentz, berriz, ez dagokit niri esatea. Hogeita hemezortzi urte bete ditut aurten.

— Bai, baina esan nahi dut —esan zuen Syme-k, erretxin samar— ez duzula osasun-aitzakiarik batere.

— Bai —erantzun zuen besteak, inpartzialtasun barez—. Katarroak harrapatu ohi ditut sarri samar.

Lasaitu ederra hartu duenaren zoro-puntu nabarmen horrez egiten zuen algara Syme-k. Barregarri zitzaion, oso, Profesore elbarria egiaz taula-gainerako bezala jantziriko antzezle gazte bat izatea. Ez zuen, haatik, barre makalagoa egingo egokiera hartan, piperrauts-pote bat iraulita ere.

Profesore faltsuak, trago egin, eta bizar faltsua xukatu zuen.

— Ba al zenekien —galdetu zuen— delako Gogol hori gureetarikoa zela?

— Nik? Ez, nik ez nekien —erantzun zuen Syme-k, nolabaiteko ezustez—. Zuk ere ez, ala?

— Hildakoek adinaxe nekien nik —ihardetsi zuen De Worms zelakoak—. Uste nuen nitaz ari zela Lehendakaria, eta galtzak bete dardaraz nengoen.

— Eta nik, berriz, nitaz ari zela uste nuen —esan zuen Syme-k, bere barre deslai samar harekin—. Eskua errebolberrean neukan denbora guztian.

— Nik ere bai —esan zuen Profesoreak, kope-tilun—; eta Gogolek ere bai, jakina.

Syme-k kolpe bat eman zion mahaiari, oihu batez lagundurik.

— Hara! Hiru ginen-eta geureetarikoak! —ekin zion bero-bero—. Zazpitik hiru borrokatzeko moduko kopurua da. Jakin izan bagenu, hala ere, hiru ginela!

De Worms Profesorearen aurpegia ilundu egin zen, eta ez zituen jaso begiak.

— Hiru ginen —esan zuen—. Hirurehun izan bagina ere, haatik, ezingo genuen ezer egin.

— Ezetz, hirurehun lagun lauren aurka? —
galdetu zuen Syme-k, burlaize nabarmen samarrez.

— Ez —esan zuen Profesoreak serio-serio—;
ez hirurehun lagun Iganderen aurka.

Eta izen hutsak hotz eta betilun utzi zuen Syme; barrea bihotzean hil zitzaion, ezpainetan hil aurretik. Lehendakari ahantzezinaren aurpegia argazki koloreztatu bat bezain bizi agertu zitzaion buruan, eta alde nabaria zegoen Iganderen eta haren satellite guztien artean, ezen haien aurpegiak, beren anker-basa eta lazgarri-bel-tzean ere, motelduz zihoazen pixkanaka oroime-nean, beste giza aurpegiak bezala, baina aitzitik Iganderen bazirudien errealago bihurtuz ote zihoan absentziarekin, alegia gizon baten irudi pintatua denborarekin bizira pizten.

Isilik geratu ziren biak puska batean, eta gero Syme-ren hitzak oldarrean etorri ziren, xanpainari bitsa tupustean nola.

— Zer da hau, ordea, Profesore —egin zuen espantu—. Beldurra al diozu gizon horri?

Profesoreak, bere betazal astun haiek jaso, eta zintzotasun ia etereo bat erakusten zuten

begi urdin handi zabal-zabalez begiratu zion Syme-ri.

— Bai, beldurra diot —esan zuen otzan-otzan—. Eta zuk ere bai.

Syme mutu geratu zen une batez. Gero, iraindu duten gizon bat bezala bertan zutitu, eta indarrez apartatu zuen ondotik aulkia.

— Bai —esan zuen, ahots deskribaezinez—, arrazoi duzu. Beldurra diot. Horregatik, Jainkoarengatik zin dagit topatu arte jazarriko natzaiola beldurrez naukan gizon horri, eta muturreko bat emango diodala. Zerua balu ere tronu, eta lurra oin-aulki, zin dagit handik eratsiko dudala.

— Nola? —galdetu zuen Profesoreak, begiak zabal-zabalik so—. Zergatik?

— Beldurra diodalako —esan zuen Syme-k—; inork ez bailuke utzi behar unibertsoan beldurra ematen dion ezertxo ere.

De Worms-ek harridura itsu halako batez kliskatu zituen begiak. Hitz egiteko saio bat egin zuen, baina Syme-k aurrea hartu zion ekinean, ahots apalez baina hala ere azpitik halako asaldura gizagabe bat zeriola:

— Nor makurtuko litzateke beldurrik ez dien gauza soilak porrokatzera? Nork apalduko luke bere burua soilik ausart izatera, boxeolari arrunt bat bezala? Nor konformatuko litzateke beldurgabe izateaz, zuhaitzak bezala? Beldurra diozun gauzari egiozu borroka. Gogoratu Siziliako bidelapur bati azken errituak eman zizkion harako ingeles apaizaren istorio zahar hura; nola heriohean lapur handi hark esan omen zion: «Ezin dizut dirurik eman, baina bai bizi guztirako aholkua: erpurua laban-ahoan, eta behetik gora jo». Halaxe diotsut nik ere: behetik gora jo, izarrak joko badituzu.

Besteak sabaira begiratu zuen, bere posea osatzen zuten trikimailuetarikoak baitzuen hori.

— Igande izar finkoa da —esan zuen.

— Izar loka bat bezala erortzen ikusiko duzu —esan zuen Syme-k, eta kapelua jantzi zuen.

Deliberamenduz beteriko keinu hark mekanikoki zutiarazi zuen Profesorea.

— Arrastorik ba al duzu —esan zuen, txundidura onbera halako batez— nora zoazen zehazki?

— Bai —ihardetsi zuen Syme-k zakar antza—
; Parisen bonba hori jaurti dezaten eragoztera
noa.

— Ideiarik ere ba al duzu nola? —itaundu
zuen besteak.

— Ez —esan zuen, deliberamendu berdinez.

— Gogoratuko duzu, noski —berrekin zion
bere buruari De Worms zeritzonak, bizarretik tira
eginez eta leihotik kanpora begiratzuz—, ezen,
arrapalada samarrean bilkuratik sakabanatu
ginenean, Markesaren eta Bull Doktoarearen esku
pribatuetan utzi zirela izugarrikeriarako antolaki-
zun guztiak. Markesak honezkero Kanala zehar-
katzen behar du noski. Baina hortik aurrera nora
doan eta zer egingo duen, ez da uste izatekoa
Lehendakariak berak ere ote dakien; guk behin-
tzat ez. Jakin, Bull Doktoareak bakarrik daki hori.

— Madarika dadila! —egin zuen Syme-k
espantu—. Eta ez dakigu non den.

— Bai —esan zuen besteak, bere buru-joan
itxura xeble harekin—; nik badakit non den.

— Eta esango didazu? —galdetu zuen Syme-
k begi larriz.

— Eraman egingo zaitut —esan zuen Profeso-reak, eta bere kapelua hartu zuen gakotik.

Syme begira geratu zitzaion, zirrara zurrun halako batez.

— Zer esan nahi duzu? —galdetu zuen zorrotz—. Bat egingo duzu nirekin? Arriskua onartuko duzu?

— Hara, gazte —esan zuen Profesoreak atse-gintsu—; dibertigarri zait ikustea koldartzat nau-kazula. Hitz bat bakarrik nuke horretaz esateko, zure erretorika filosofikoaren ildo beretik erabat doana. Zuk uste duzu ezinezkoa dela Lehenda-karia porrokatzea. Nik jakin dakit hala dela, eta hala ere saiatu egingo naiz —eta atea irekirik, aire bolada mingots bat sartu baitzen horrenbes-tez tabernara, elkarrekin irten ziren kaien ondo-ko karrika ilunetara.

Elurrik gehiena baltsaturik edo lokatz-lardas-katurik zegoen, baina han-hemenka lapastada-ren bat ageri zen oraindik, erdilunbean zuri bai-noago gris. Kalekak lohi zeuden, istilez beterik, eta itxura aldakor, halabeharrezkoz ispilatzen zituzten putzuek faroletako argiak, mundu des-berdin eta erori baten zatiak irudi. Syme aztora-

tu samarturik zihoan argi-itzalezko nahasmen hartan barrena abian; lagunak, ordea, hankarinarin aski bizian ekina zion han aurrean, kale amaierako zirrikitan, ibai argiztatuaren tarte mehar batek suzko barra bat zirudien alderantz.

— Nora zoaz? — itaundu zuen Syme-k.

— Oraintxe bertan —erantzun zuen Profeso-reak— kale kantoi horretaraino noa, ea Bull Doktorea oheratu den dagoeneko. Osasunzalea izaki, goiz erretiratzen da.

— Bull Doktorea! —egin zuen espantu Syme-k—. Kale kantoi horretan bizi al da?

— Ez —erantzun zuen lagunak—. Egia esan, aparte samar bizi da, ibaiaren beste aldean, baina hemendik jakin dezakegu ohera joana den.

Solasean kale kantoiraino iritsirik, sugarrez pikardaturiko ibai goibelera begira jarri, eta aurrez aurreko ur-ertza seinalatu zuen makilaz. Gune hartan, Surrey aldetik, ia ibaiaren gain-gaineraino iristen zen etxebizitza multzo garai horietako bat bazen, leiho argiztatuz zipriztindua, fabriketako tximiniak irudi altura ia zoro baterainoko tantai. Haietako etxe multzo baten jite eta kokapenak, bereziki, ehun begiko Babel

Dorre halako bat iradokitzen zuen. Syme-k ez zituen ezagutzen Amerikako etxeorraz ia zerurainokoak, eta, amets batean baino ezin zituen irudikatu beraz, etxetzarrok.

Hantxe begira-begira zegoela, ezin konta ahal argiz josiriko dorretzar hartako argirik goren itzali zen tupustean, Argos beltz hark bere ezin konta ahal begi haietariko batez keinu egin balio bezala.

De Worms Profesoreak, bertan jiratu, eta bere botaren kontra jo zuen makilaz.

— Beranduegi da —esan zuen—; gure Dokto-re osasunzalea ohera joan zaigu.

— Zer esan nahi duzu? —galdetu zuen Syme-k—. Horrako horretan bizi al da, beraz?

— Bai —esan zuen De Worms-ek—; ikusten ez den leiho horrexen atzean, hain zuzen. Etorri nirekin eta afal dezagun zerbait. Biharko utzi beharko dugu bisita.

Gehiagoko hautsimautsirik gabe, Profesoreak zenbait zeharbidetan barrena eraman zuen Syme, harik eta East India Dock Road-eko distira eta ardailara iritsi ziren arte. Profesoreak, auzo-aren ezaguera aski nabaria erakutsiz, denda

argiztatuzko lerroa ostera halako ilunbista eta isiltasun tupusteko batean galtzen zen leku batera jo zuen, zeinean ostatu zuri zahar bat ageri baitzen, aski hondatua, bidetik hogeiren bat oinera.

— Aukerako ingeles ostatu mordoxka topa daiteke oraindik, nonahi halabeharrez utziak, fosilak irudi —esan zuen Profesoreak—. Behin leku txukun bat topatu nuen West End-en.

— Eta, jakina —esan zuen Syme-k, irribarrez—, hauxe da delako West End-eko leku txukun hori.

— Halaxe da —esan zuen Profesoreak begirunetsu, eta barrura sartu zen.

Afaldu eta lo egin zuten, inolako aitzakiarik gabe. Hirugiharrez lagunduriko indabek —uste guztiak hausten zituen jende hark ederki prantatuak—, etxepeko sotoetatik inork inondik inora agertzerik espero ez zezakeen borgoina botilak, arego indartu zuten Syme ordurako sentitzen hasia zen burkidetasun eta ongizate sentsazio hura. Pasatua zuen sofrikario latz hartan isola-menduarena izan zuen funts-funtseko izu, eta ez dago hitzik bakar-bakarrik egotearen eta aliatu

bat izatearen artean dagoen leize sakona adierazteko. Matematikariei onar dakieke lau bi bider bi dela. Baina bi ez da bi bider bat; bi mila bider bat da. Horra zergatik, desabantailak desabantaila (eta ehundaka dira), mundua hala ere monogamiara itzuliko den beti.

Syme gai zen, lehenbiziko aldiz, bere istorio latz bezain bitxi hura guztia barnetik jaregiteko, Gregory-k ibai ondoko taberna koxkor hartara eraman zuen unetik hasita. Mantso eta zabal jardun zuen, bakarrizketa naharoan, benetako lagun xaharrekin mintzatu ohi garen moduan. Bere txanda iritsi zitzaionean, De Worms Professorearen papera jokatu zuen gizonak ere ez zuen hitz egiteko gogo makala erakutsi. Haren historia Syme-rena bezain txoraa zen ia.

— Ez zaude batere gaizki mozorrotua —esan zuen Syme-k, baso bat Mâcon hustuz—; Gogol gaixoarena baino dexentez hobea mozorroa. Hasiera-hasieratik iruditu zitzaidan iletsuegixe zela hura.

— Teoria artistiko desberdinekin jokatzeko dugu —ihardetsi zuen Profesoreak, pentsakor—. Gogol idealista bat zen. Anarkistaren ideal abs-

traktu edo platonikoa irudikatu nahi zuen. Ni, berriz, errealista naiz. Portretgilea. Portretgile hitza, ordea, ez da guztiz zuzena noski. Izan, portret bat nauzu.

— Ez zaitut ulertzen —esan zuen Syme-k.

— Portret bat nauzu —errepikatu zuen profesoreak—. De Worms Profesore ospetsuarena, hain zuzen, zeinak, oker ez banago, Napolesen behar duen.

— Esan nahi duzu haren gisa mozorrotu zarela —esan zuen Syme-k—. Baina ba al daki berak beraren musua begirunerik gabe erabiltzen ari zarela?

— Bai ongi jakin ere —ihardetsi zuen Profesoreak adoretzu.

— Orduan zergatik ez zaitu salatzen?

— Nik salatu dut bera —erantzun zuen Profesoreak.

— Eta nola da hori? —esan zuen Syme-k.

— Atsegin handiz azalduko dizut, nire historia entzuten aspertzen ez bazara noski —ihardetsi zuen atzerriko filosofo ospetsu-bikainak—. Lanbidez antzezlea naiz, eta Wilks dut izena. Antzerki munduan era guztietako konpainia txarrekin ibi-

lia naiz, bohemio jiteko jendaila askorekin. Batzuetan zaldi-apustuetara arrimatzen nintzen, beste batzuetan artistakiloen lagunarte zarpaile-
ra, eta noizean behin errefuxiatu polikoenera. Ameslari atzerriratuak biltzen ziren zulo horieta-
ko batean, alemaniar filosofo nihilista goren-
bide zen De Worms Profesore delako hori aur-
keztu zidaten. Ez nuen gauza handirik atera
harengandik, salbu eta begibistako itxura nazka-
garri hura, arreta handiz arakatu bainuen. Froga-
tua bide zuen, nonbait, unibertsoaren printzipio
suntsitzailea Jainkoa zela; beraz, gogor aldezen
zuen haserrezko energia etengabe bat behar
zela, gauza guztiak jo eta txiki-txiki egingo zitue-
na. Energia, zioen, Guztia da. Herrena zen, begi-
laburra, eta partzialki elbarria. Ezagutu nuenean
aldarte txolin samarrear nengoen, eta hain ere
desatsegin iruditu zitzaidan, ezen imitatzea era-
baki bainuen. Marrazkigile izan banintz, haren
karikatura bat marraztuko nuen. Antzezle nin-
tzen soilik, eta haren karikatura antzeztu baino
ez nezakeen egin. Profesore zaharraren itxura
ustel gaitz haren esajerazio demasa izan nahi
zuen modu nabarmenean makilatu nintzen.

Haren jarraitzailez beteriko aretora sartu nintze-
nean, barre-algara ozenez hartzea espero nuen,
edo (kaskoak ordurako berotuegiak bazeuzka-
ten) irainaren kontrako haserre era berean oze-
nez. Ezin dut deskribatu nolako ezusteak jo nin-
duen, ikusirik isiltasun begirunetsuz hartzen nin-
dutela, eta gero (ezpainak estreina ireki nitue-
nean) miresmenezko murmurioz. Artista bete-
betearen madarikazioa eroria zitzaidan gainera.
Sotilegia izan nintzen. Errealitatearekiko fidele-
gia. Benetan Profesore nihilista bikaina nintzela
uste zuten. Gaztea ninduzun eta artean aski
sanoa, baina aitortu behar dut kolpe latza izan
zela. Erabat neure onera etortzeko betarik eman
gabe, ordea, aipatu miresle horietariko bizpahiru
sumin-jario lehiatu ziren niregana, esanez jen-
durrean niri burla egiteko ahalegin bat haute-
man zutela aldameneko gelan. Ea zer zen, nik.
Itxura zenez, tipo guztiz nabarmen bat nire paro-
dia itxuragabe bat eginez mozorrotua zen. Neure
neurria pasatuxea nintzen xanpainarekin, eta,
eroaldi halako batek jota, hasitakoarekin aurrera
segitzea erabaki nuen. Hala, salara sartu
zenean, bilerakideen begirakune gaitzei eta

neronen bekain jaso eta begi izoztuei eman behar izan zien aurpegi Profesoreak.

Ez dut noski esan beharrik bion arteko talka gertatu zela. Inguru guztian nituen pesimista haiek Profesore batetik bestera begiratzen zuten, ezinegonez larri, ea biotatik benetan erkinena nor zen. Nik irabazi nuen, ordea. Osasun kaxkarreko agure zahar bat, nire arerioa zen bezalakoa, nekez gerta liteke adinaren lorian dagoen antzezle gazte bat bezain txundigarriro erkin. Izan ere, benetakoa zuen elbarritasuna, eta, berezko muga estu hori kontuan harturik, ezin zen noski agertu ni bezain elbarri jatorpetoa. Gero intelektualki saiatu zen nire baieztapenak suntsitzen. Amarru guztiz simple batez erantzun nion erasoari. Berak baizik inork uler ez zezakeen zerbait botatzen zuenean, neronek ere uler ez nezakeen zerbaitekin ihardesten nion. «Ez zait buruan sartzan —zioen— nolatan gara zenezakeen eboluzioa ezeztapena baino ez delako printzipioa, kontuan izanik tartean hutsune direlako zerak sartzea eskatzen duela horrek berez, desberdintasunak bere funtsetariko bat horretantxe baitu.» Eta nik, berriz, destainatsu

oso: «Zuk Pinckwerts-i irakurri diozu hori dena; inboluzioak eugenesikoki funtzionatzen zuelako ideia aspaldi plazaratu zuen Glumpe-k.» Ez dut esan beharrik noski asmazio hutsak zirela Pinckwerts nahiz Glumpe direlakoak. Hango jendeak, ordea (hainbat niretzat ezustean), oso ongi gogoratzen bide zituen. Ikusirik metodo ikasi, misterioz bete hark aukeran eskrupulo gutxi samar zuen etsai baten eskuetan uzten zuela, modu arruntago batera lerratu zen: «Argi dago —esan zuen destainazko irrimurritzez—, Esoporen harako zerri gezur-huts hark bezain bete-betea asmatzen duzu.» «Eta zuk, berriz —erantzun nion nik, irribarrez— Montaigneren harako kirikino hark bezala egiten duzu huts.» Esan beharrik ba ote dut ez dela Montaigne-renean kirikinorik aipatzen? «Zure trikimailu horrek ez du —esan zuen— zure bizar horrek baino oinarri sendoagorik.» Ez nuen erantzun burutsurik halako ateraldiarentzat, azkarra ez ezik zoritxarrez guztiz zuzena baitzen. Bulartsu ekin nion, hala ere, barrez; zerbait esan behar, eta «Panteistaren botak bezala» etorri ahala bota, eta bertan jiraturik bizkarra eman nion, garaile ohoretsu.

Benetako Profesorea bota egin zuten; bortizkeriarik gabe, hala ere, nahiz bilerako bat pazientziaz saiatu zen hari sudurra tiraka kentzen. Orain, itxura denez, Europako bilera guztien kuttuna egina dago ustezko iruzurtia. Hain temati eta haserre agertzeak, pentsatuko duzunez, dibertigarriago bihurtzen du.

— Tira —esan zuen Syme-k—, uler dezaket bizar zahar higuigarri hori gau bateko txantxamantxa baterako janzteia, baina ez dut ulertzen ez gero gainetik kentzea.

— Historiaren beste partea duzu hori —esan zuen imitatzaileak—. Bileratik alde egin nuen, begirunez beteriko txalo sorta bat bizkarrean, karrika ilunean behera ekin nion herrenka, handik aski urrundurik laster gizaki bat bezala ibili ahal izango nintzen esperantzan. Uste gabean, ordea, kantoian jiratzekotan nintzela, ukitu bat sumatu nuen sorbaldan, eta, atzera jiraturik, polizia ikaragarri handi baten itzalpean kausitu nuen neure burua. Nire arrastoan zebiltzala esan zidan. Elbarri itxura halako bat saiatu, eta alemaniar azentu zorrotzez egin nion esantu: «Nire arrastoan, ibili, munduko zapalduak

dabiltza, horra. De Worms Profesorea deritzon anarkista bikaina izatearen kargupean atxilotzen nauzu noski.» Eskuan zuen paper bat kontsultatu zuen poliziak, patxadarik galtzeke. «Ez, jauna —esan zuen gisatsu—; ez, behintzat, zehazki horregatik, jauna. De Worms Profesorea deritzon anarkista ospetsua ez izatearen kargupean atxilotzen zaitut.» Kargu hori, inondik ere kriminala izatekotan, dudarik gabe bietatik arinena zen noski, eta han joan nintzen urdinezkoarekin, zalantzaz betea, baina ez bereziki lurjota. Hainbat gelatatik pasarazi, eta halako batean azkenean polizi-buru baten aurrera eraman ninduten, eta hark azaldu zidan anarkia-zentruen aurkako kanpaina gogor batean ari zirela buru-belarri, eta halako arrakasta izan zuen nire mozorrofesta hori oso baliagarria gerta zitekeela segurtasun publikorako. Soldata on bat eskaini zidan, eta honako txarteltxo urdin hau. Solasaldi laburra izan genuen arren, zentzuzkotasun ikaragarri eta umore zabaleko gizona iruditu zitzaidan bete-betean; hortik aurrera, berriz, ezin dizut gauza handirik esan haren itxuraz, zeren...

Syme-k bertan behera utzi zituen labana eta sardexka.

— Badakit, bai, zergatik —esan zuen—: gela ilun batean mintzatu zinetelako.

De Worms Profesoreak, buruaz baietz egin, eta bere basoa hustu zuen.

9. KAPITULUA

Betaurrekodun gizona

— Zoragarria da Borgoinako ardoa —esan zuen Profesoreak tristeki, edontzia mahai gainean utziz.

— Zuri begiraturik ez dirudi hala denik —esan zuen Syme-k—; botika balitz bezala edaten duzu.

— Barkatu beharko duzu nire portaera —esan zuen Profesoreak goibelki—; aski egoera xelebrean gertatzen naiz. Barnetik mutiko batenaren pareko bozkario bizian nago; baina hain ondo sartu naiz Profesore elbarriaren paperean, ezen orain ezin baitut alde batera utzi. Halako moldez non, lagun artean nagoela ere, mozorrotzeko beharrik gabe, ezin baitiot hala ere utzi astiro mintzatu eta kopeta zimurtzeari: neure kopeta balitz bezalaxe. Guztiz zoriontsua izan naiteke, ez dakizu?, baina halako modu elbarri batean edo soilik. Esan-beharrik sutsuenak erabil nitza-ke bihotzean jauzika, baina oso bestelakoturik iristen zaizkit ahora. Entzun behar zenidake

«Eutsi goiari, motell!» esaten. Malkoak irtengo litzaizkizuke.

— Hala da, bai —esan zuen Syme-k—; baina ezin dut burutik kendu horrez guztiaz landa ere apur bat kezkatuik zaudela benetan.

Profesoreak ikara txiki bat egin zuen bere aulkian, eta tinko begiratu zion.

— Oso tipo argia zara —esan zion—; pozik nago zurekin lan egiteaz. Hala da, bai, laino handi samar batek goibeltzen dit gogoia. Arazo latza dugu aurrean —eta esku bien artean hon-doratu zuen kopetalde soildua.

Gero, ahots apal-apalez:

— Pianoa jotzen badakizu?

— Bai —esan zuen Syme-k, ezuste garbian harrapaturik—; ez omen naiz batere txarra.

Gero, besteak hitz egiten ez zuenez, gaineratu zuen:

— Espero dut hodeitzarra aienatu izana.

Isilune luze baten ondoren, Profesorea bere eskuen itzal leize-antzekotik mintzatu zen:

— Berdin litzateke idazteko makina erabil-tzen bazeneki.

— Eskerrik asko lausenguarengatik —esan zuen Syme-k—; ez da horrenbesterako.

— Entzun esango dizudana —esan zuen besteak—, eta gogoratu norengana joan behar dugun bihar. Zu eta biok bihar saiatu behar duguna Koroaren Bitxiak Dorretik lapurtzen saiatzea baino askoz ere arriskutsuagoa da. Gizon ikaragarri zorrotz, ikaragarri sendo eta ikaragarri makur bati sekretu bat lapurtzen saiatu behar dugu. Ez dut uste dagoenik munduan gizonik —Lehendakaria alde batera utzirik, jakina— betaurrekodun gixon irrimirritsu hori bezain larriki txundigarri eta izugarria denik. Ez du beharbada Idazkariaren ezaugarri den heriotzaren aldeko joran gori hori, anarkiaren aldeko martiri-grina zoro hori. Idazkariaren fanatismo horrek berak, ordea, badu giza pathos halako bat, eta deusek salbatzekotan horrexek salba lezake. Doktore koxkorak, berriz, buru-osasun ikaragarria du, animalekoa, Idazkariaren gaitza baino gaitzagoa. Ez al zara ohartu nolako birilitate eta bizitasun higuigarria duen? Goma trinkozko pilota bat bezain jauzkari arina duzu. Sinestadazu, Igande ez zegoen noski lotan (inoiz egiten ote du

lorik?) prestatzen ari ziren izugarrikeriaren nondik-norako guztiak Bull Doktoarearen buru beltz biribil horretan giltzapetu zituenean.

— Eta zuk uste duzu —esan zuen Syme-k— munstro berdingabe hori ematuko dela nik pianoa jotzen badiot?

— Ez izan astakirtena —esan zuen Syme-ren leziatzaileak—. Atzamar bizkor eta independientek edukiarazten dituelako aipatu dut pianoa. Syme, elkarrizketa horretatik burutik onik edo bizirik irten nahi badugu, gizapiztia horrek ez antzemateko moduko zeinu-kode bat beharko dugu bion arterako. Bost hatzez baliatzen den alfabeto zifratu bat eratu dut, xingle-xinglea... honela, begira —eta mahai gainean dantzarazi zituen atzamarrak—: G A I Z K I, gaizki, segu-ruasko maiztxo erabili beharko dugun hitza.

Syme-k berriro bere basoa bete, eta trikimai-lua aztertzen hasi zen. Aparteko bizkorra zen buruhauste-jokoetarako, eta magiazkoetarako esku trebea zuen, eta ez zuen denbora luzerik behar izan mahai nahiz belaun gainean jotako kolpetxo oharkabeak iruditu behar zuten hatz-mugimenduz mezu sinpleak igortzen ikasteko.

Ardoak eta konpainiak, ordea, efektu berezia zuten Syme-engan, beti eragiten baitzioten halako xalotasun fartsazale nabarmen samar bat, eta Profesorea laster gertatu zen hizkuntza berriak Syme-ren garun bero-berotik pasatu ahala erakusten zuen indar soberatuaren kontra borrokan jardun beharrean.

— Hainbatsu hitz-zeinu behar ditugu —esan zuen Syme-k serio-serio—; akaso behartuko garen hitzak, esanahi-ñabardurak. Nire hitzik kuttunena «garaikide» da. Eta zurea?

— Utzi txorakerioi behingoan —esan zuen Profesoreak kexu-doinuz—; ez dakizu zein serioa den hau.

— Eta «jori» ere bai —esan zuen Syme-k, buruari maltzur-argi airez eraginez—. «Jori» behar dugu... belarrarengatik esaten da, ez daki-zu?

— Pentsatzen al duzu —galdetu zuen Profesoreak haserre bizian— belarrak hitz egin behar dugula Bull Doktoareekin?

— Bada modu bat baino gehiago gaiari heltzeko —esan zuen Syme-k hausnarkor— eta bortxa itxurarik gabe hitza tartean sartzeko. Esan

genezake: «Bull Doktoorea, iraultzailea zaren aldetik, oroit zara noski nola behin tirano batek belarra jateko aholkatu zigun; bada, halaxe, gutariko askok, udako belar berde joriari so...»

— Sartuko al zaizu buruan —esan zuen besteak— tragedia baten aurrean gaudela?

— Ederki sartu ere —ihardetsi zuen Syme-k—. Komikoa izan beharra dago beti tragedia batean. Zer beste arraio egin liteke, bada? Nahi nuke gure arteko hizkuntza honek irismen zabalagoa balu. Ezin genezake hatzetatik behatzetara hedatu, ezta? Solasean ari garela botak eta galtzerdiak kentzea eskatuko luke horrek, eta hori, modurik diskretuenean jokaturik ere...

— Syme —esan zuen lagunak, zuzen eta zorrotz—, segi ohera!

Syme, nolnahi ere, ohe gainean eserita egon zen luzaroan, kode berrian trebatzen. Hurrengo goizean, artean ekialdea iluntasun itxi-itxian zetzala esnatu zen, eta bere aliatu bizargris hura topatu zuen hantxe mamu bat bezala ohe ondoan.

Begiak kliskatuz tentetu zen ohean; gero, pixkanaka gauzen akordura etorririk, manta-iza-

rak alboratu, eta zutitu egin zen. Iruditu zitzaion nolabaiteko modu bitxian oheko arropa haiekin batera bertan behera desagertuak zirela aurreko gaueko babes eta elkarkidetasun guztia, eta arrisku hotz baten aire halako batek jota geratu zen hantxe zutik. Artean ere erabateko konfiantza eta leialtasuna sentitzen zuen bere lagunarengana; baina urkamendira doazen bi gizonen arteko konfiantza zen hura.

— Tira —esan zuen Syme-k, halako alaitasun bortxatu batez, galtzak janzten zituela—. Zure alfabeto horretaz egin dut amets. Asko kostatu al zitzaizun moldatzea?

Profesoreak ez zuen erantzunik eman; hantxe aurrez aurre begira geratu zitzaion, neguko itsasoaren koloreko begiz. Syme-k, bada, errepikatu egin zuen galdera:

— Zera, asko kostatu al zitzaizun halako triki-mailua asmatzea? Ni trebea omen naiz halako gauzetarako, eta ordubete luzeko nekea hartu behar izan nuen. Kolpetik bururatu al zitzaizun guztia?

Profesorea isilik zegoen; begiak zabal-zabalik zeuzkan, eta ia ez antzemateko moduko irribarretxo finko bat ezpainetan.

— Zenbat denbora behar izan zenuen?

Profesorea ez zen higitu.

— Arranopola!; ezin al duzu, bada, erantzun?

—oihukatu zuen Syme-k, azpitik beldurraren antzeko zerbait zuen haserre tupustekoan—. Profesoreak erantzun zezakeen ala ez gorabehera, ez zuen behintzat erantzun.

Syme osteria begira geratu zitzaien pergaminogisako aurpegi zurrun eta begi urdin soraio haiei. Lehen pentsamendua Profesoreari burutik egin ote zitzaion izan zen; bigarrena, ordea, ikaragarriagoa zen. Azken finean, zer zekien berak hain arinki laguntzat onartua zuen izaki bitxi hartaz? Zer, ezpada gizona gosari anarkista batean parte hartua zela eta istorio irriegangarri bat kontatua ziola? Zein probabilitate gutxi zegoen han beste lagun bat izateko, Gogol-ez gainera! Gerra aldarrikatzeko modu berebiziko bat ote zen aurrean zuen gizonaren isiltasuna? Eta so diamanterik hura, berriz, azken bihurraldia egin zuen traidore hirukoitz baten destaina latza

baino ez ote zen azken finean? Hantxe eutsi zion, isiltasun bihozgabe hartan adi-adi. Ia entzun zitzakeen irudimenean dinamitazaleak beraren bila etortzen, leun-leun kanpoko korridoretik gelarantz hurbiltzen.

Gero begiak beherantz apaldu, eta liparrean barre-algara bat lehertu zitzaion. Profesoreak berak estatua bat bezain ahoskabe bazirauen ere, haren bost hatz mutuak dantza bizian ari ziren mahai hilaren gainean. Syme-k kontu egin zion esku hiztunaren atabalatze arinari, eta argi irakurri zuen mezua:

— Honela bakarrik mintzatuko naiz. Ohitu beharra dugu.

Lasaitu ederraren ezinegon urduriz tikitakatu zuen erantzuna:

— Ederki. Goazen gosaltzera.

Hitzik gabe hartu zituzten kapelu-makilak; Syme-k, haatik, gogor ere gogor heldu zion bere ezpata-makilari.

Minutu batzuk baino ez ziren luzatu gosaria-
rekikoak egiteko —kafea eta ogitarteko gogor baldar batzuk kafe-txosna batean—, eta ibaiaren beste alderako beren bideari ekin zioten gero;

apurka zabalduz zihoan argi gris haren pean, Akeronte bezain lander ageri zen ibaia. Bezperan beste urertzetik ikusia zuten eraikin multzo eskergaren oinera iritsi ziren, eta isiltasunean abiatu ziren ezin konta ahal maila harrizkoetan gora, noizean behin baranda gainean iruzkin laburren bat egiteko baino gelditu gabe. Eskailera-tarte biz behin edo, leiho baten paretik pasatzen ziren; leiho bakoitzak egunsenti zurbil, trajiko bat erakusten zien, Londres gainera larri ere larri zabaltzen. Bakoitzetik begiraturik, ezin konta ahal teiltatu arbelezkoek euri ondoko itsaso gris, nahasi halako baten uhinaldi berunkarak ziruditen. Syme gero eta ohartzenago zen halako zuhurtasun hotz bat edo zuela abentura berri hark, eta horrek okerrago bihurtzen zuela lehenagoko ibilera zoro guztiak baino. Aurreko gauean, esate baterako, amets bateko dorre baten antza hartu zien etxebizitza garaioi. Orain, berriz, maila neketsu azkengabe haietan gora zihoala, haien kopuru ia infinituak zuen adoregabetzen eta aztoratzen. Ez zen, ordea, amets baten edo gehiegikeria nahiz tronpagarritzat harzitekeen zerbaiten izularri bero halakoa. Haien

infininitasuna areago zen aritmetikaren infinitutasun huts hori bezalakoa, zerbait pentsaezina, baina hala ere pentsamenduarentzat ezinbestekoa. Edo eta izar finkoen distantziari buruz astronomiak egiten dituen baieztapen txundigarriak bezalakoa. Arrazoiaren etxea igotzen ari zen, eta arrazoi-eza bera baino ere lazgarriagoa zen.

Bull Doktorearen solairura iritsi zirenean, azken leiho batek egunsenti zuri, zorrotz bat erakutsi zien, ertzetan zerrenda gorri halamoduzko batzuk ageri zituena, buztin gorriarena irudiago laino gorri batena baino. Hala, Bull Doktorearen atiko biluzira sartu zirenerako, argiz beterik zegoen goiza.

Syme-ri buruan inguruka ibili zitzaion gela huts harekin eta argi-urratze apainduragabe harekin loturiko oroitzapen historiko edo bat. Atikoa ikusi zuen unean, eta Bull Doktorea mahai batera jarririk idazten, orduantxe gogoratu zen zer zen: Frantziako Iraultza. Guillotina baten isla beltza bakarrik falta zen goizaren gorri-zuri larrien kontra. Bull Doktorea alkandora zuri eta galtzalabur beltz hutsetan zegoen; ile motz-motzeko buru ilun hura, inor ez zen batere harri-

tuko ileorde baten azpitik agertu balitz; Marat izan zitekeen, edo Robespierre moldakaitzago bat.

Zeharoago arakaturaz gero, haatik, laster ezabatzen zen frantses irudipen hori. Jakobinoak idealistak ziren; gizon honi, berriz, materialismo hilgose halako bat zerion. Goiz-argi zuri mina albo batetik sartzen zen, itzal zorrotzak sortuz, eta horrek aldi berean zurbilago eta angelutsuago bilakatzen zuen gizona, balkoiko gosarikoan zirudiena baino. Hala, haren begiak estaltzen zituzten bi lente beltz haiek zinez izan zitezkeen burezurteko zulo ilunbeltz bi, hilotz baten itxura petoa ematen baitzioten. Hain zuzen ere, inoiz Herio zurezko mahai batera eseri balitz idaztera, huraxe zatekeen hura.

Begirada jaso, eta, aski irribarre argiz harturik sartu berriak, arin asko zutitu zen, Profeso-reak aipatua zuen bizkortasun malgu harekin. Aulki bana eskaini zien, eta, ate atzeko gako batera joanik, txaleko-jakak jantzi zituen, *tweed* lakar ilunekoak biak; goraino lotu zituen botoiak, txukun eta egoki, eta gero atzera bere mahaira eseri zen.

Doktorearen jokaerari zerion aldarte on isilbareak defentsarik gabe utzi zituen haren bi aurkariak. Ez hasieran halako zailtasun bat gabe, Profesoreak isiltasuna hautsi zuen halako batean:

— Sentitzen dut hain goizetik eragotzi izana zure bakea, burkide —esan zuen, atzera De Worms-en hitz egiteko modu makal hura bere eginik—. Eginak izango dituzu noski Parisko afe-raren prestaketa guztiak, ezta?

Gero, astirotasun infinituz, gaineratu zuen:

— Iritsi zaizkigun berrien arabera, guztiz ere kaltegarri litzateke inolaereko atzerapena, baita minutu batekoa balitz ere.

Bull Doktoreak irribarre egin zuen ostera, baina hitzik gabe begira segitu zuen. Profesoreak berriro ekin zion, geldiene bat eginez hitz abaildu bakoitzaren aurretik:

— Ez ezazu, otoi, pentsa itsumustuan nator-kizunik hau esatera; baina aholkatzen dizut plan horiek aldatzeko, edo, beranduegi bada horretarako, zure agentearen atzetik joateko eta ahal duzun laguntza guztia emateko. Syme burkideak eta biok esperientzia bat izan dugu, zeinak den-

bora gehiago hartuko bailuke kontatzen, batere erremediorik jarri nahi badiogu geratzen zaiguna baino. Nolanahi ere, xehetasun osoz azalduko dizut, denbora galtzeko arrisku eta guzti, baldin eta hona ekarri gaituen auzia ulertzeko ezinbestekoa dela iruditzen bazaizu, noski.

Geldo-geldo biribilkatzen zituen esaldiak, ezin jasateko moduko luze eta iraupentsu bihurtuz, hain praktikoa zen Doktore koxkor hura zoratu eta ezinegonez leherrarazteko esperantzaz, hala bere jokaldia agerian utz zezan. Doktore koxkorrak, ordea, irribarrez so egin baino ez zuen egiten, eta bakarrizketa maldan gora larrian zihoan. Syme ordura arte ez bezalako ondoez eta etsi-larri halako bat sentitzen hasi zen. Doktorearen irribarre eta isiltasuna ez ziren, inondik ere, ordu erdi lehenago Profesorearekin buruz buru pairatu behar izan zituen begirakune kataleptiko eta isiltasun lazgarri haien gisakoak. Profesorearen mozorro eta imintzio haiek guztiek bazuten grotesko hutsa zen jite nolabaiteko bat, panpina muxubeltx-ilexut horietako baten tankeran. Batek haurtzaroan Mamuaz beldurtu izana gogoratzen duen bezala gogoratzen zituen

Syme-k bezperako larritasun xeblere haiek. Orain, ordea, egun argia zen, eta hantxe zegoen *tweedez* jantziriko gizon osasuntsu sorbalda-karratu hura, betaurreko itsusi haien halabeharra salbu deus berezirik ez zuena, begirada zorrotz ez irrimodu gaiztorik erakusteke, irribarre iraunkor betiberdin bat aurpegian, hitzik ere egin gabe. Errealitate eramanezin baten sentsazioa ematen zuen, oro har. Eguzkiaren argi gero eta distiratsuagoan, Doktoarearen aurpegiko koloreak, haren *tweed* oihalen ehunkera-ñabardurak, bizitasun guztiz nabarmena hartzeraino hazi eta zabalagotuz zihoazen, eleberri errealista batean halako xehetasunek garrantzi handiegia hartu ohi duten modu berean. Irribarrea, hala ere, leun askoa zen; buruaren posea ere adeitasun finekoa; lekuz kanpo zegoen gauza bakarra isiltasun hura zen.

— Esaten ari nintzaizunez —ekin zion berriro Profesoreak, hondar astunetan zehar lebilkeena-ren nekez—, gertatu zaigun ezbeharra, Markesari buruzko informazioa eskatzera bultzatu gaituen kontua, kontatzea komeniko litzatekeen gauza irudituko zaizu beharbada; baina berez

Syme burkideak zerikusi handiagoa izan zuenez gertakarietan nik baino...

Eresi-lelo baten antzera luzatzen zituen hitzak, herresta nagian; Syme-k, hala ere, begira baitzegoen, haren atzamar luzeak dantza bizko-rreran ikusi zituen mahai zoro haren ertzean. Mezua irakurri zuen: «Zuk segitu beharko duzu. Deabru honek tantarik ere gabe utzi nau!»

Larrienean ere laguntzan etortzen zitzaion inprobisaziorako ausardia berezko harekin oldar-tu zen Syme borrokalagun hitz-hustuaren lekua betetzera.

— Hala da, bai; niri gertatu zitzaidan kontua —esan zuen itsumustuan—. Suertatu zitzaidan detektibe baten ezaguera egitea, nire kapeluari esker errespetuzko pertsonatzat hartu bainin-duen. Errespetagarritasun sona horri eutsi nahian, Savoy-ra eraman eta bapo mozkortu nuen. Horren eraginpean, konfiantza hartu, eta oraintxe kontatzen ari natzaizun bezalaxe bota zidan handik egun pare batera Markesa atxilo-tzea espero zutela Frantzian. Beraz, non eta zu edo ni haren arrastoan joaten ez garen...

Doktoreak modurik adiskidetsuenean eusten zion artean ere bere irribarre hari, eta begi estaliek ez zuten inolako zirrikiturik uzten. Profesoreak aditzera eman zion Syme-ri berak jarraituko zuela azalpenekin, eta lehengo mantsotasun landu beraz ekin zion berriro:

— Berehala ekarri zidan Syme-k niri informazio hori, eta hona etorri gara biok elkarrekin, ea zuri zer iruditzen zitzaizun egin behar zela informazio horrekin. Esan beharrik ez da nolako larritasuna duen nire iritziz zera...

Bitarte guztian ia Doktoreak Profesoreari begiratzen zion bezain finko egon zitzaion Syme Profesoreari begira; halako irribarrerik batere gabe, orde. Arma-lagun bien kirioak abegikortasun geldi haren atezuan krask egiteko zorian zeudela, hara non Syme, bat-batean aurrerantz makurtu, eta oharkabean bezala hasten den mahai ertzean atzamarrak dantzatzen. Haren aliatuak mezua jaso zuen: «Intuizio bat dut.»

Profesoreak, bere bakarrizketan apenas etenik egiteke, zeinukatu zion: «Zeuretzat gorde».

Syme-k telegrafiatu zuen: «Berebizikoa da!»

Besteak ihardetsi zuen: «Berebiziko ustela!»

Syme-k esan zuen: «Poeta naiz.»

Bestearen erantzuna zorrotz iritsi zen: «Gizon hila zara.»

Syme bere ile laruraino gorri-gorri zegoen, begiak sukarretan su. Intuizio bat zuen, bai, zorabioaren antz handia zuen ziurtasun halako batetik sortua. Tip-tap sinbolikoei osterara ekinik, honako mezua bidali zion lagunari: «Ezin duzu pentsatu zenbaterainoko poetikoa den nire intuizioa. Udaberria datorrenean sentitzen dugun zertasun bat-bateko hori du.»

Horrenbestez, lagunaren atzamarrei begira geratu zen adi-adi. Hara erantzuna: «Zoaz infernuko zulara!»

Profesoreak, bada, berriro ekin zion Dokto-rearekin ari zuen bakarrizketa soilik ahozko hari.

«Edo beharbada zuzenago litzateke —esan zuen Syme-k atzamarren bidez— oihan hostotsuen barrenean inoiz topatzen dugun itsas usain bat-bateko horrekin parekatzea.»

Lagunak ez zuen erantzuteko lanik hartu.

«Edo eta esatea —tip-tapkatu zuen Syme-k— emakume polit baten ile gorri sutsuak bezain duda gutxi uzten duen kontua dela.»

Profesoreak hizketan segitzen zuen, baina Syme-k erdiz erdi sartzea erabaki zuen. Aurpegia aurrerantz bota, eta aintzat ez hartzerik ez zegoen ahotsez esan zuen:

— Bull Doktorea!

Doktorearen buru lerden irribarretsu hura ez zen higitu, baina haren solaskideek zin egin zezaketen betaurreko ilun haien azpian begiak Syme-rengana bihurtu zirela, zorrotz.

— Bull Doktorea —esan zuen Syme-k, bere zehatz eta adeitsuan bitxia gertatzen zen ahots batez—, mesedetxo bat egingo al didazu? Axola al litzaizuke betaurrekoak kentzea?

Profesorea bere aulkian brau jiratu zen, eta ezuste beteko haserregorri izoztu halako batez begiratu zion. Syme-k, bere bizitza eta fortuna guztia mahai gainera botatzen duen gizon baten gisa, aurrerantz egin zuen, aurpegi sutsuz. Doktorea ez zen higitu.

Segundo batzuez, orratz bat erortzen entzuteko moduko isilune bat gertatu zen, Tamesiseko bapore urrun baten tutu-jotze bakar batek behin erdibitua. Gero Bull Doktoreak, astiro

altxatu, irribarrez beti ere, eta betaurrekoak erantzi zituen.

Syme zart zutitu zen eta atzerantz egin, kimi-kalari batek eztanda arrakastatsu baten aurrean bezala. Izar irudikoak zituen begiak, eta une batez atzamarraz seinalatu baino ezin izan zuen egin Syme-k, hitzik gabe.

Profesorea ere bizkor asko zutitua zen, itxurazko elbarritasunaz erabat ahantzirik. Aulki-bizkarraren gainean bermatu, eta zalantza betean geratu zitzaion begira Bull Doktoareari, hura beraren begien aurrean apo bihurtu balitz bezala. Izan ere, ez zen antzaldaketa makalagoa huraxe.

la mutiko baten itxura zuen gizon gazte bat ikusi zuten bi detektibeek beren aurreko aulkian eseria; urraren koloreko begi alai xaloak zituen, begitarte tolesgabea, hiriko bulegari bati zegozkion *cockney* jantziak, eta on-puska eta aukeran arrunt samarra izateko aire dudarik gabe bat, oro har. Irribarreak hantxe segitzen zuen, baina nini baten lehen irribarrea izan zitekeen.

— Banekien poeta nintzela —egin zuen espantu Syme-k, estasi halako batean—. Banekien nire intuizioa hutsik gabea zela, Aitasantua-

rena bezala. Betaurrekoek zuten errua! Betaurrekoek eta kito! Begi beltz gaitzon ondoan, gainerako guztiak, osasun horrek eta alai itxura horrek, deabru hilen arteko deabru bizi halako bihurtzen zuten noski.

— Zinez alde bitxia dago lehengo itxuratik — esan zuen Profesoreak dardarka—. Bull Dokto-
rearen egitasmoari dagokionez, ordea...

— Utikan egitasmoa! —egin zuen orro Symek, bere onetik irtenda—. Begiraiozu! Begira aurpegi horri, begira alkandora-iduneko horri, begira bota dontsuoi! Ez diozu, bada, anarkista trazarik hartuko, ala?

— Syme! —egin zuen besteak espantu, artegatasun agoniazkoan.

— Jainkoarren! —esan zuen Syme-k—. Neure gain hartuko dut arriskua! Bull Doktoorea, hara: polizia nauzu. Hona nire txartela —eta mahai gainera hantxe bota zuen txartel urdina.

Profesorea artean ere beldur zen dena galdurik zegoela; hala ere, leiala zen. Berak ere polizia-agiri ofiziala atera, eta bere lagunarenaren ondoan ipini zuen. Hirugarren gizonak, orduan,

barre-algaraz ekin zion, eta goiz hartan lehen aldiz haren ahotsa entzun zuten:

— Izugarri pozik nago hain goiz etorri zarete-lako —esan zuen, eskola-ume baten nabarmen-puntu halako batez—, zeren honela elkarrekin abia gaitzke hirurok Frantziara. Bai, neu ere kide nauzue, horra —eta txartel urdin bat erakutsi zien arinki, formalitate hutsez bezala.

Xixtakoan bola-kapelu bat jantzirik buruan, mamu-lente haiek begi aurrean berriro, hain zen bizkor mugitu Doktorea aterantz, ezen oharkabean haren atzetik joan baitziren besteak, sen hutsez. Syme-k bere gogoetetan murgildu samarturik zirudien, eta halako batean, atea zeharkatzeko unean, makilaz jo zuen bet-betan atarteko zorua, burdin-hotsa aterarik harriaren kontra.

— Baina, baina, Jaungoiko Ahalguztidunaren izenean —egin zuen espantu—, gauzak honela, demoniozko detektibe gehiago ginen, demoniozko dinamitazale baino, demoniozko Biltzarre demonio guztietako horretan!

— Aise borroka gintezkeen —esan zuen Bull-ek—; lau hiruren kontra ginen.

Profesorea eskaileretan behera desagertua zen jadanik, baina haren ahotsa iritsi zitzaien sakonetik:

— Ez —esan zuen ahotsak—; ez ginen lau hiruren kontra... ez genuen halako aukera ederrik. Lau Baten kontra ginen.

Besteek isilik jaitsi zituzten eskailerak.

Bull zeritzon gaztea, berezko ezaugarri zuen adeitasun xalo harekin, kaleraino besteen atzetik joaten tematu zen; behin han, ordea, haren arintasun mardula nagusitu zen oharkabean, eta bizkor-bizkor egin zuen tren-konpainiako argibide-bulego batera zuzen, sorbalda gainetik hitz eginez besteei.

— Gauza ederra da lagunxaharren bat izatea aldean —esan zuen—. Nerbioetatik seko jota egon naiz, beti bakar-bakarrik. Ia-ia Gogol-enganaren joan eta besarkada bat eman nion hantxe, ez baitzen, haatik, zuhur jokatzeari izango nire aldeetik. Ez ahal nauzue erdeinatuko, espero dut, halako kakalarriak jota egoteagatik.

— Infernu larri hartako deabru larri guztiei zor diet —esan zuen Syme-k— neure kakalarria-

ren parte bat. Deabrurik okerrena, hala ere, zu eta zure betaurreko infernutiarrok zineten.

Gazteak barre egin zuen, poz-atsegin betean.

— Ederra trikimailua, ezta? —esan zuen—.

Halako ideia sinplea... ez nirea, jakina, nik ez dut halako buru argirik. Hara: nik detektibe sartu nahi nuen; dinamitarien aurkako taldean, ahal zela. Lanpostu hartarako, ordea, dinamitazale gisa mozorrotuko zen norbait nahi zuten; eta denek ere zera baino garbiago omen zeukaten nik ezingo nuela sekula izan dinamitazale baten itxurarik. Guztiz errespetagarria omen nuen ibilera, eta atzetik ikusirik Britainiar Konstituzioa ematen omen nuen. Osasuntsuegia omen nuen itxura, eta optimistaegia; fidagarri eta onberaegia; guztietariko izen gaitz pilo halakoa erantsi zidaten Scotland Yard-en. Esan zidaten gaizkile bat izan banintz fortuna egin nezakeela noski gizon prestuaren itxura honekin, baina gizon prestua izatearen zoritxarra fortunatu zitzaidanez ez zegoela aukerarik txikiena ere baliagarri izan nenkien, gaizkile itxurak eginik ere. Azkenean, hala ere, hango nagusietakoa behar zuen morroi baten aurrera eraman ninduten, sorbalda

gainean halako burutzar itxuraz mugarik gabea zuen morroi batengana, hain zuzen. Eta etsipe-
nez mintzatu ziren han guztiak ere. Batek galde-
tu zuen ea bizar trinko batek ezkuta ote zezakeen nire irribarre atsegin hau; beste batek esan zuen aurpegia belzten bazidaten akaso anarkista beltz baten itxura eman nezakeela; baina hara non sartzen den tartean esan dizuedan morroizahar hori, inork espero ez zuen ateraldi halako batekin: «Betaurreko keztatu batzuekin molda liteke», esan zuen, zalantzarik uzten ez zuen tonuan. «Begira zer itxura duen; bulego batean ari den mutiko aingerutiar bat dirudi. Jantziezazkiezue orain keturiko betaurreko batzuk, eta haurrak garrasika hasiko dira kalean topo egitean.» Eta halaxe gertatu zen, alajaina! Behin begiak estaliz gero, gainerako guztiak, irribarre eta sorbaldatzar eta ile motzak, deabru koxkor baten itxura peto-petoa ematen zidan. Esan dudan moduan, aski gauza sinplea zen, egin eta gero, mirariak bezala; baina hori ez zen kontu guztian mirarizkoena. Bazen guztiz ere txunditurik utzi ninduen beste zerbait, eta oraindik ere larritu egiten naiz oroitzean.

— Zer zen, bada? —galdetu zuen Syme-k.

— Hara —erantzun zuen betaurrekodun gizonak—: polizia-buru kankailu hark, neurria hain ondo hartu zidan eta nire ile eta galtzerdiei nola-ko betaurrekoak zihoazkien hain ederki asmatu zuen tipo horrek... tipo horrek, Jainko maitea, ez baininduen behin ere ikusi!

Syme-ren begiak dirdai biziz begiratu zioten ziplo.

— Nola, ordea? —galdetu zuen—. Uste nuen harekin mintzatu zinela.

— Halaxe izan zen —esan zuen Bull-ek agudeziaz—; baina ikaztegi bat bezalako gela ilun batean mintzatu ginen. Ez zitzaizuen sekula halakorik bururatuko noski.

— Ezta sekula ere —esan zuen Syme-k serio-serio.

— Hamaika ikusteko jaiok gara —esan zuen Profesoreak.

Aliatu berria haize-zirimola halakoa zen gauza praktikoetarako. Argibide-bulegoan, negozio-gizon baten laburtasunez galdetu zuen Dover-erako trenez. Informazioa lorturik, kotxe batera sartu zituen oldarrean lagunak, eta haie-

kin batera bera ere bai, eta laster ziren hirurak tren-bagoi batean, zertan zebiltzan guztiz jabetzeko betarik ere izan gabe presaren presaz. Solasa lasai jaregin orduko, Calais-erako ontzian ziren.

— Prest neukan guztia jadanik —azaldu zien— Frantzian bazkaltzeko; atsegin ezinago handia zait, baina, norekin bazkaldu izatea. Bere bonba eta guzti bidali behar izan nuen ero hori, Markes piztia basati hori, zeren Lehendakariak ez baitzidan begirik kentzen, Jainkoak jakin nola. Egunen batean kontatuko dizuet historia. Arnasa eteteko modukoa guztiz. Itzurtzen saiatzen nintzen bakoitzean, han zen non edo non Lehendakaria, klub bateko arku-leihotik irribarrez edo omnibus baten goretetik nire aurrean kapelua erantziz. Bene-benetan, nahi duzuen esan, baina tipo horrek deabruari saldu dio arima; sei lekutan egon liteke aldi berean.

— Markesa bidali zenuela diozu, beraz —galdetu zuen Profesoreak—. Aspaldi abiatu al zen? Garaiz al gabiltza hura harrapatzeko?

— Bai —erantzun zuen gidari berriak—. Dena kalkulatu daukat. Calais-en egongo da oraindik, gu iristen garenerako.

— Baina Calais-en harrapatzen dugunean —esan zuen Profesoreak—, zer egingo dugu?

Galdera horren aurrean, Bull Doktoarearen begitartea zapuztu egin zen lehen aldiz. Apur batez pentsatzen egon, eta gero esan zuen:

— Teorikoki, ustez, poliziari hots egin behar genioke.

— Nik ez, behintzat —esan zuen Syme-k—. Teorikoki nik neure burua ito beharko nuke, hori egin baino lehenago. Neure ohorearengatik promes egin nion benetako pesimista moderno bat zen gizagaixo bati ez niola deus salatuko poliziarri. Ez naiz kasuistikan aditua, baina ezin dut noski hautsi pesimista moderno bati emandako hitza. Haur bati emandako hitza haustea bezala da hori.

— Kinka berean gaude biok —esan zuen Profesoreak—. Saiatu, saiatu naiz poliziari salatzen kontua, baina ezin izan dut, noizbait egin nuen zin ergel bat dela eta. Hara: antzezle lanetan nenbilen garaian, goitik beherainoko piztia hala-

koa nintzen. Zin-haustea edo traizioa dira egin ez ditudan krimen bakarrak. Halakorik eginez gero, ez nuke jakingo ongiaren eta gaizkiaren artean bereizten.

— Ni ere pasatua naiz horretatik guztitik — esan zuen—, eta garbi daukat. Nik Idazkariari egin nion promes... ezagutzen duzue, irribarre gaianazpikatu hori duen gizona. Adiskideak, sekula gizaki izan den gizonik zorigaiztokoena duzue hori. Izan liteke liseriketa, edo kontzientzia, edo kirioak, edo mundu-ikuskerak, baina ederki izorraturik dago; horrena bai infernu gorria! Nola jazarriko natzaio, bada, eta erasoka hasi, halako gizagaixo bati? Legenardun bat zigorraz zehatzea bezala da hori. Akaso burutik eginda egongo naiz, baina horra zertan naizen; eta hori da, bada, guztia.

— Ez dut uste burutik eginda zaudenik — esan zuen Syme-k—. Banekien hala erabakiko zenuela, hasiera-hasieratik zera...

— Eh? —esan zuen Bull Doktoreak.

— Betaurrekoak kendu zenituenetik, esan nahi dut.

Bull Doktoorea, irribarre txiki bat egin, ontzigaila zeharkatu, eta eguzki argitako itsasoari begira geratu zen. Gero atzera itzuli zen, saltoka txiki arinean, eta isiltasun lagunarteko halako batek bildu zituen hiru gizonak.

— Tira —esan zuen Syme-k—, badirudi denok gaudela moraltasun nahiz moralgabekeria mota berari atxikiak; hobe dugu, beraz, horren ondorioei aurpegi ematea.

— Bai —baieztu zuen Profesoreak—; arrazoi osoa duzu; eta azkar ibili beharra dugu, zeren hor ageri baita jadanik Sudur-Gris delako lurmuturra, Frantziatik nabarmen.

— Eta ondorioa honako hau da —esan zuen Syme-k serio—: bakarrik gaudela hirurok planeta honetan. Gogol joan zaigu, Jainkoak daki nora; akaso Lehendakariak euli bat bezala jo eta txikitu du honezkero. Biltzarrean hiru gizon hiru gizonen kontra gara, zubiari eusten zioten erromatar haiek bezala. Baina gu askoz ere okerrago gaude; lehenik, haiek beren erakundera jo dezaketelako eta guk ezin dezakegulako jo geurera; eta bigarrenik, berriz...

— Bigarrenik, hiru gizon horietariko bat — esan zuen Profesoreak— ez delako gizona.

Syme, buruarekin baietz egin, eta isilik egon zen segundo pare batez; gero esan zuen:

— Hona zer bururatu zaidan. Zerbait egin beharra dago Markesa bihar eguerdira arte Calais-etik mugi ez dadin. Hogei plan edo gehiago erabili ditut buruan. Ezin dugu salatu dinamitazalez; horretan adostasuna dago. Ezin dugu atxiloarazi bestelako kargu nola-halako baten aitzakian, zeren aurpegia erakutsi beharko baiden; ezagutzen gaitu, eta amarru usaina hartuko lioke noski. Anarkisten beren aferaren batengatik gelditu behar duelako ziririk ere ezin diogu noski sartu; porru ederrik irentsaraz lekioke beharbada halako kontu batekin, baina ez Tsarra Parisen lasai asko dabilen bitartean berak Calais-en iraun behar duelakoa noski. Guk geuk harrapatzen saia gintezke, eta bahiturik edukitzen; oso gizon ezaguna da hemen, ordea. Bizkarzaintza pertsonal bat osatzeko adina lagun badu inguruan; sendoa da, oso, eta adoretua, eta lanak izango genituzke. Bururatzen zaidan aukera bakarra, beraz, Markesaren alde dauden

gauza horiexek berak geure alde aprobetxatzea da. Hain zuzen, Markesa itzal handiko aitoren seme bat izatea aprobetxatu behar dut. Adiskide asko baititu eta handikien lagunarterik bikaineneko kide baita, horixe aprobetxatu behar dut.

— Zer demonio ari zara esaten? —galdetu zuen Profesoreak.

— Syme-tarren lehen aipamena hamalaugarren mendekoa da —esan zuen Syme-k—; baina fama da haien leinukoa zela Bannockburn-eko zelaian Bruce-ren ondotik zihoan zalduna. 1350etik zuhaitza guztiz garbi dago.

— Tipo hau ez dago burutik ondo —esan zuen Doktore koxkorrak, begiak arranpalo.

— Gure ezaugarriak —segitu zuen Syme-k patxadan— «*chevron* bat zilar gule gainean eta hiru gurutzeño zelai zehar» dira. Ikur-hitza ez da beti bat.

Profesoreak zakar heldu zion Syme-ri txalekotik.

— Lehorra jotzear gaude —esan zuen—. Itsasgaitzak jota zaude, ala lekuz kanpoko adar-jotze bat duzu guztia?

— Esaten ari naizen kontuak ia mingarriro praktikoak dira —erantzun zuen Syme-k, inolako presarik ez duenaren patxadaz—. Saint Eustache-ko etxea ere oso antzinakoa da. Markesak ezin du ukatu zaldun-leinukoa dela. Ezin du orobat ukatu ni ere zaldun-leinukoa naizela. Eta nire gizarte-mailaren afera behin betiko erabat garbi uzteko, asmoa dut lehenbiziko aukera dudanean hari kapelua jo eta burutik kentzeko. Kaian gaude, baina, dagoeneko.

Aztoramendu halako batean lehorreratu ziren eguzki indartsuaren pean. Syme-k, Bull-ek Londresen bezala harturik orain bere gain taldearen buruzagitza, itsasertzeko ibilbide moduko batean barrena eraman zituen, harik eta itsas gaineko bista zuten kafe-etxe berdaje joriz ia estali batzuetara iritsi ziren arte. Harro-puntu bat zuen ibilera kulunkari batez zihoan besteen aurretik, eta ezpata baten gisa dantzatzen zuen makila. Kafe-etxe lerroaren azken muturreraino zihoala ematen zuen, baina halako batean tupustean gelditu zen. Keinu zorrotz batez isiltasuna eskaturik, atzamar eskularruz jantzi batez seinalatu zien kafeko hostaila loretsuaren peko

mahai bat, eta hara hantxe Saint Eustache-ko Markesa, hortzak bizarrarte beltz sarriaren erdian diz-diz, eta aurpegi beltzaran bipila, berriz, lastozko kapelu beilegi baten gerizpean, itsas urdin-ubelaren islan nabarmen.

10. KAPITULUA

Dueloa

Syme kafeko mahai batera eseri zen bere lagunekin, begi urdinak han beheko itsaso distiratsua bezala ñir-ñir, eta Saumur botila bat eskatu zuen, egonezin atsegintsuz. Arrazoiren bategatik, barre egiteko gogo bizi bezain bitxia ematen zion aldarte batean zegoen. Ohi zuen baino nabarmen piztuago zegoen ordurako, eta animoak gorago zihoazkion Saumur-aren galga behera ahala; ordu erdi barru, zentzugabekeria-jario hutsa zen haren solasa. Esan zuenez, laster berak eta Markes zorrotzak izateko zuten elkarriketaren plana lantzen ari zen. Arkatz batez oharrak hartzen zituen zoro-moro. Dotrina-liburu bat bezala antolaturik zegoen zirriborroa, galde-erantzunez, eta berealdiko isuri bizian irteten zitzaion plan-jario harrigarria ahotik.

— Hurbilduko naiz. Haren kapelua burutik kendu aurretik, neurea erantziko dut. Esango dut: «Sain Eustache-ko Markesa, noski.» Hark, berriz: «Syme jaun ospetsua, jakina.» Frantses

jiterik apain-bikainenaz esango du: «Zer berri?»
Eta nik, berriz, neure erarik jator-bikainenaz:
«Zaharrak berri, Syme-koari esker.»

— Isilduko ahal zara —esan zuen betaurreko-
dun gizonak—. Zeure senera etorri, eta bota
bebingoan paper puska hori. Zer egiteko asmoa
duzu benetan?

— Katexima polit askoa zen, baina —esan
zuen Syme-k patetikoki—. Uztazu irakurtzen.
Berrogeita hiru galde-erantzun baino ez dira, eta
Markesaren ateraldietako batzuk ederrak dira
benetan. Arerioarekin justua izatea gustatzen
zait.

— Zertarako, ordea, zer guztia? —galdetu
zuen Bull Doktoreak, bere onetik irtenxea.

— Aupadari bide emateko, bada; zertarako,
bestela? —esan zuen Syme-k, poz-pozik—. Mar-
kesak hogeita hemeretzigarren erantzuna ema-
ten duenean, honela baitio...

— Menturaz ez zaizu bururatu —galdetu zuen
Profesoreak, sinpletasun astunez— beharbada
Markesak ez dituela esango zuk hor jarri dituzun
berrogeita hiru gauzak? Kasu horretan, ustez,

zerorren epigramok bortxatu samar ager litezke aukeran.

Syme-k mahaia jo zuen, begiak brist-brist.

— Egia da eta! —esan zuen Syme-k—. Ez zitzaidan burutik pasatu. Jaun Profesore, aparte-ko buru argia duzu. Ospetsu egingo zara.

— Zu bai zaudela total eginda xelebregi! —esan zuen Doktoreak.

— Geratzen den aukera bakarra —segitu zen Syme-k entzungor eginez— neronen eta hil nahi dudan gizonaren artean (halako esapidea zilegi bazait hemen) *izotza hausteko* beste metodo bat bilatzea da. Eta, elkarrizketa baten nondik-norako ezin baitu alderdietako batek bakarrik aurreikusi (zuk hain agudotasun apartaz seinalatu duzunez), egin daitekeen gauza bakarra, noski, zera da, alegia, alderdi horrek berak egitea, ahal dueneraino, elkarrizketa guztia bakarrik. Eta halaxe egingo dut, bai horixe! —eta tupustean zutitu zen, ile larua itsas haize leunak inarosten ziola.

Banda bat jotzen ari zen zuhaitz artean ezkutatuturiko *café chantant* batean, eta orduxe arte emakume bat jarduna zen kantari. Syme-ren

kasko berotuan, bandaren metal-orroa eta behinola Leicester Square-en hiltzeko prest zutitara zi zuen akerpiano haren tringili-trangulu soinua paretsuak ziren. Markesa zegoen mahaitxora begiratu zuen. Bi mahaikide zituen ondoan, longainaz eta zetazko kapelu apainez jantziriko frantses jaun arranditsuak, Ohorezko Legioaren arrosa-ikur eta guzti bata, gizarte maila ez nolana hikoko jendea, bistan zenez. Jantzi beltz zilindriko haien ondoan, Markesak, lastozko kapelu baldar eta udaberri-arropa argi haiekin, bohemioa eta are barbaroa zirudien; eta, hala ere, Markesa zirudien. Alabaina, errege zirudiela ere esan zitekeen, animale-dotorezia berezko harekin, begi destainatsu haiekin hantxe, buru harroa itsaso purpura-kolorearen kontra jasorik. Ez zen, ordea, inondiko kristau erregea, inolaz ere; areago zirudien despota ilunbeltz halakobat, erdi greko, erdi asiatarra, esklabotza gauzarik normalena bide zen garaian han goitik Mediterraneoko bere galera-ontzi eta esklabo kexatietei begira legokeena. Itxura huraxe izango zuen, pentsatu zuen Syme-k, halako tirano baten aur-

pegi urre-beltzaranak olibondo berde ilunen eta urdin irazekiaren kontra.

— Hitzaldia egin behar duzu bilera horretan, bai ala ez? —galdetu zuen Profesoreak gaita txarrean, ikusirik Syme-k hantxe zutik segitzen zuela, mugitzeke.

Syme-k azken basokada hustu zuen txinpartardo hartatik.

— Bai —esan zuen, Markesaren mahai inguruko jendea seinalatuz—, ederra bilera. Ez dut batere gogoko bilera hori. Bilera horri bere sudurtzar kaoba-kolore itsusi horretatik tira egin behar diot.

Han abiatu zen oldar arinean, nahiz ez hala-ko oreka xuxenean. Markesak, hura ikusirik, harriduraz okertu zituen bere bekain beltz, asiriar haiek, baina adeitasunez egin zuen irribarre.

— Syme jauna zara, ezta? —esan zuen.

Syme-k gur egin zion.

— Eta zu Saint Eustache-ko Markesa, noski —esan zuen, atsegin asko—. Atrebentziarekin, sudurretik tira egingo dizut.

Hartarako aurreratu zelarik, Markesak atzerantz egin zuen, aulkia hankaz gora botarik, eta

jaun txisteradun biek sorbaldetik heldu zioten Syme-ri.

— Iraindu egin nau, horra! —esan zuen Syme-k, azalpen-imintziaz.

— Iraindu? —galdetu zuen, zorrotz, arrosa-ikur gorri eta guztikoak—. Noiz, ordea?

— Oraintxe bertan, bada! —esan zuen Syme-k itsumustuan—. Nire ama iraindu du.

— Zure ama iraindu! —egin zuen espantu jaundotoreak, sinesgogor.

— Tira, konforme —esan zuen Syme-k, aldez bederen amor emanez—: nire izeba.

— Nola liteke, ordea, Markesak zure izeba iraindu izana? —esan zuen bigarren jaundotoreak, harridura-puntu guztiz bidezko batez—. Hemen eseririk egona duzu-eta denbora guztian.

— Eta esan duena, zer?! —esan zuen Syme-k ilunki.

— Ez dut deus ere esan —esan zuen Markesak—, salbu eta bandari buruz zerbait. Wagner ongi jorik atsegin dudala esan dut soilik.

— Nire familiaz ari zinen zeharka —esan zuen Syme-k irmoki—. Nire izebak gaizki jotzen zuen

Wagner. Oso mingarri izan zaigu kontu hori beti. Mundu guztiak iraindu izan gaitu horregatik.

— Bai gauza bitxi-harrigarria —esan zuen dominadun jaundotoreak, zalantzaz beterik Markesari begiraturik.

— Zinez diotsut —esan zuen Syme-k serio-serio— zuen arteko solasaldi guztia nire izebaren puntu ahul horri buruzko iradokizun gaiztoz jositik zegoela.

— Baita zera ere! —esan zuen bigarren jaundotoreak—. Niri dagokidanez, ez dut deus esan ordu erdiz, ez bada atsegin nuela neska beltzarran horren kantaera.

— Ikusten?: berriro ari zarete! —esan zuen Syme-k, gaitziturik—. Izeba ile-gorria zen.

— Iruditzen zait —esan zuen besteak— besterik gabe Markesa iraintzeko aitzakia bila zabiltzala.

— Alazankoa! —esan zuen Syme-k, jiratu eta harengana so—. Argia tipoa!

Markesa bertan zutitu zen, begiak tigre bate-nak bezala garretan.

— Okasio bila nigana! —egin zuen espantu—. Nigana borroka bila! Ez du inoiz luzaroan itxa-

ron beharrik izan, ez horixe!, horren bila etorri denak. Jaun hauek nire lekuko izateko prest egongo dira agian. Lau ordu badira oraindik egun argiz. Gaur bertan borroka gintezke, nigatik.

Syme-k gur eder-galant bat egin zuen.

— Markesa —esan zuen—, zure egintza zure sona eta odolaren duin da. Uztazu, arren, une batez kontsulta dezadan nire jagole izango diren jaunekin.

Hiru zinki-zanka luzetan itzuli zen lagunengana, eta haiek, xanpainak eragindako asaldu hura eta eman zizkien azalpen ergelak artean gogotan, guztiz harriturik geratu ziren ikustean. Ezen orain ez zuen mozkor arrastorik ageri, nahiz aukeran zurbil samar zegoen, eta ahots apalean mintzatu zitzaien, zuzen eta zehatz.

— Lortu dut —esan zuen, ahots lakarrez—. Piztiarekin buruz buru borrokatzeko tratua egin dut. Adi orain, ordea, zer esan behar dizuedan. Ez dago berriketarako astirik. Nire ordezkariak zarete, eta zuen baitan dago dena. Hortaz, zue-nari eutsi behar diozue, amor eman gabe inolaz ere, bihar goizeko zazpietatik aurrera izan dadin

dueloa, hala aukera izan dezadan Pariserako 7:45eko tren hartzea eragozteko. Tren hori huts egiten badu, bere krimena ere huts egingo du. Ezin dizue aitzakiarik jarri leku eta orduari buruzko halako txikikeria batean. Baina hona zer egingo duen. Geltoki batetik hurbil dagoen zelairan bat aukeratuko du, hala handik tren hartu ahal izateko. Oso ezpatari ona da, eta konfiantza izango du ni hil eta astia emango diola tren harrapatzeko. Ni ere ez naiz, haatik, batere txarra, eta uste dut lanak emango dizkiodala, okerreanean ere, tren gal dezan arte. Orduan, menturaz, hil egingo nau, emango dion amorrutik kontsolatzeko. Ulertu duzue, ezta? Tira, bada, egin ditudan adiskide xarmagarri batzuk aurkeztuko dizkizuet orain.

Hala, bizkor-bizkor besteak zeuden lekuraino eramanez, eta aurretik entzun gabeak zituzten izen txit aristokratiko banaz aurkeztu zizkien Markesaren ordezkariak.

Syme-k tarteka zentzun berezia erakusten zuen, espasmo moduko argialditan, nahiz bestela ez izan izakeraz halakoa. Betaurrekoei buruzko bihozkada hartaz berak ongi esan zuen

moduan, intuizio poetikoak ziren, eta batzuetan profezien indarra ere hartzen zuten.

Kasu horretan zuzen kalkulatu zuen bere arerioaren jokabidea. Ordezkariek jakinarazi ziotenean Syme-k ez zeukala borrokatzerik hurrengo goiza arte, ondotxo konturatuko zen oztopo bat altxatzen zitzaiola hiriburura zeraman bonbasmo ezin utzizko haren bidean. Ezin zuen, jakina, eragozpen hori azaldu bere lagunaren aurrean, eta, beraz, Syme-k iragarritako aukerari heldu zion. Trenbidetik urrun ez zegoen landa koxkor bat aukeratzeko esan zien bere ordezkariari, eta lehen erasoaldiaren halabeharrari gomendatu zitzaion.

Ohorearen zelaian patxada osoan agertu zenean, ez zitzaion antzematen orduantxe bidaian inora joateko inolako itxura larririk zuenik; eskuak poltsikoetan zeuzkan, lastozko kape-lua buruan atzera, aurpegi eder brontzeztatua eguzkitara ausart. Lekuko arrotz bati, hala ere, harrigarri gerta zekioken ikustea haren konpainian ez zetozeala bakarrik ordezkariak ezpatakutxarekin, baizik eta Markesaren zerbitzarieta-

riko bi ere bai, maleta bat eta janari-otarre bat garraiatuz.

Hain goiz izanagatik, eguzkiak bere berotan biltzen zuen dena, eta Syme apur bat harritu ere egin zen hainbeste udaberri-lore ikusirik, urre eta zilar garretan dizdiz, belaun pareraino iristen zitzaien belartza jorian.

Markesa izan ezik, guztiak zeuden zeremonia-jantzi ilun hotsandikoz jantziak, tximinia beltzak ziruditen kapeluz; Doktore koxkorak bereziki, betaurreko beltz haien gehigarriaz, fartsa bateko lurperatzailea zirudien. Syme-k ezin zuen ekidin halako kontraste bat sentitzea hileta-elizkizun baterakoak ziruditen jantzi haien eta basaloreak nonahi hazten ziren belaze eder distiratsu haren artean. Hain zuzen ere, lore horien eta kapelu beltzen arteko kontraste komiko hura ez zen lore horion eta afera beltz haren arteko kontraste trajikoaren sinboloa baino. Eskuin aldera oihan koxkor bat zuen; ezker aldera, han urru-nean, trenbidearen bihurgune luzea, zeina, nolabait esateko, Markesarengandik zaintzen ari baitzen, hura baitzuen hark jomuga eta ihesbide. Aurrez aurre, arerioen multzo beltzen atzetik,

laino tindatu bat irudi, almindrondo koxkor bat ikus zezakeen, loretan, itsasoaren marra urrun-lausoaren kontra.

Ohorezko Legioko kideak —Ducroix Koronela, ustezko izenez—, Profesorea eta Bull Doktorea zeuden lekura kortesia handiz hurbildu, eta proposatu zuen aintzat hartzeko moduko lehen zauriarekin eman zedila amaitutzat buruz-burukoa.

Bull Doktorea, hala ere, Syme-k aholku zehatzak emanak baitzizkion, puntu horretan nola jokatu, duintasun handi bezain frantses kaxkarez tematu zen borrokarietako bat segitzeko gauza izan ez zedin arte luzatu behar zuela due-loak. Syme-k berekiko zeukan hogeituz gutxienez gai izango zela ez berak Markesa eta ez Markesak bera borrokan segitzeko gauzaezturik uztea galarazteko. Hogeituz minutuan Parisko trenak alde egina behar zuen.

— Monsieur de Saint Eustache-ri, mundu guztiak aitortzen dion trebetasun eta adorea kontuan harturik —esan zuen Profesoreak hotsandiro—, ez zaizkio noski axola izango halako metodo-gorabeherak, eta gure ordezkatuak arrazoi sendoak ditu topaldi luzeago bat eskatzeko. Deli-

kateziak eragozten dit hemen garbiago azaltzea arrazoioek, baina zin egin diezazueket guztiz arrazoi zuzen eta prestu...

— *Peste!* —jaulki zitzaion Markesari han atzean, aurpegia bat-batean ilundurik—. Utzi berriketari eta has gaitezen —eta lore garai baten burua ebaki zuen, zast, bere makilarekin.

Syme-ri, ezinegon zakar hura ulertzen baitzuen, Markesaren sorbalda gainera joan zitzaizkion sen hutsez begiak, ea trena bistaratzen zuen. Ez zen, baina, ostertzean kerik ageri.

Ducroix Koronelak, belaunikatu, eta, kutxa irekirik, bi ezpata biki atera zituen, zeinak eguzki argitan su zurizko zerrenda bi bihurtu baitziren. Markesari eskaini zion bat, zeinari hark zere moniarik gabe erantsi baitzion eskua, eta bestea Syme-ri, zeinak eskuan hartu, okertu eta haztatu baitzuen, duintasunak onartzen zuen patxada guztiarekin. Gero Koronelak, beste bi ezpata atera, berak bat hartu, bestea Bull Doktoeari eman, eta gizonak beren lekuan kokatzeari ekin zion.

Borrokari biek beren jaka-txalekoak erantziak zituzten ordurako, eta ezpata eskuan itxaroten

zuten. Ordezkarriak borroka-marraren alde banatan zeuden, haiek ere ezpatak biluzik, baina artean ere beren longain-kapelu beltzetan goibel. Ordezkatuek agurra egin zuten. Koronelak bare-bare esan zuen: «Ekin!», eta burdinorri biek tupust egin zuten ozenki.

Altzairuen talka besoan sumatu zuen unean, historia honen gaia izan diren beldur fantastiko guztiak aienatu egin zitzaizkion Syme-ri, ohean esnatzen denaren ametsak irudi. Beren ordenan garbi-garbi gogoratzen zituen, kirioen tronperia hutsak izan balira bezala: nola Profesorearen beldurra amesgaiztoetako halabehar tiranikoen beldurra izan zen, eta Doktoarearen beldurra, berriz, zientziaren huts airegabearen beldurra. Lehenbizikoa, edozein mirari gerta daitekeelako beldur zaharra zen; bigarrena, sekula miraririk gerta ez daitekeelako beldur modernoago, etsi-ago hori. Beldurrok, orde, fantasia huts iruditzen zitzaizkion orain, zeren zer gaitz baten aurrean baitzegoen: heriotzaren beldurraren aurrean, hain zuzen, horrek ematen duen zentzun gordin, gupidagabearekin. Gau guztian erroitzetan amiltzen zela amets egin, eta urkatu behar duten

goizean esnatuko litzatekeen gizona bezala sentitzen zen. Zeren, arerioak zeharka luzatzen zion ezpataren erretenean eguzkiaren argia lasterka ikusi zuen orduko, eta altzairu-mihi biak, bizidunak bailiran dardaraz, elkarrekin tupust egiten sumatu, garbi jakin zuen egokitu zitzaion etsaia borrokari ikaragarria zela, eta azken ordua iritsia zitzaiola aurki.

Halako balio bitxi bezain bizia sentitu zuen inguruko lur guztian, oin azpiko belartzan; bizi-tzaren maitasuna sentitu zuen gauza bizi guztietan. Ia imajina zezakeen belarra hazten entzuten zuela; ia imajina zezakeen, bera hantxe zegoen bitartean ere, lore berriak erretzen ari zirela eta kapulutan zabaltzen belazean: lore odol-gorri eta gar-urre eta urdinak, udaberri apainaren gala betean. Begiak Markesaren begi lasai, tinko, hipnotikoetatik lipar batez alderatzen zituen bakoitzean, loreturiko almendrondo koxkorra ikusten zuen zeru urdinaren islan. Iruditzen zitzaion ezen, mirariren batez onik ateratzea lortzen bazuen, prest egongo zela almendrondo hari begira bizi guztia pasatzeko, beste ezer desiratu gabe munduan.

Lurrak, zeruak eta gauza guztiek galdu den zer baten edertasun bizia zuten bitartean, ordea, Syme-ren buruaren beste erdia kristala bezalako garden zegoen, eta gai zenik apenas usteko zuen trebezia mekaniko zehatz batez egiten zion kontra bere etsaiari. Haren ezpata-puntak esku-muturra zarrastu zion arinki, odol arrasto axial bat utzirik, baina edo ez zen inor ohartu, edo ezikusen egin zuten denek. Noizik eta behin, *ihardetsi* egiten zuen, eta behin edo bitan ia pentsatu zuen aurkaria zastatzea lortu ote zuen, baina ez ezpata eta ez alkandoran odolik ikusi ez zenez, oker zegoela suposatu zuen. Gero etenaldi bat gertatu zen, eta harekin aldaketa bat.

Dena galtzeko arriskua ikusirik, Markesak, bere behako tinko hura etenik, begiratu bat bota zuen bere sorbalda gainetik eskuinaldera, trenbidea zegoen aldera. Gero Syme-rengana jiratu zuen atzera aurpegia, deabru batenera antzaldaturik, eta hogeit hamar armarekin ari balitz bezala ekin zion borrokan. Hain izan zen eraso azkarra eta oldartsua, ezen ezpata distiratsu bakarrak gezi distiratsuzko zaparrada bat baitzirudien. Syme-k ez zuen trenbide aldera begiratzeko aukerarik

izan; beharrik ere ez zuen, ordea. Aise asma zezakeen Markesaren tupusteko guda-grina zoro haren arrazoia: Parisko trena ikusmenean zen.

Markesaren ekinlarri hitsak leher gaizto egin zuen, ordea. Syme-k, bi defentsalditan, borroka-zirkulutik kanpora egotzi zuen aurkariaren ezpata; hirugarren batean, berriz, hain ekinaldi azkarrez egin zion kontra, ezen aldi hartan ez baitzegoen dudarik jo zuela. Izan ere, Syme-ren ezpata Markesaren gorputzaren pisuaz kuzkurtu egin baitzen, hura zulatu eta. Hain zegoen seguru Syme bere etsaia zastatua zuela, nola baratze-zain bat aitzurra lurrian sartu duela. Hala ere, Markesak atzerantz jauzi egin zuen ezpatakadatik, balantzarik ere gabe, eta Syme bere ezpata-puntari begira geratu zen, ergel baten moduan. Ez zegoen odol arrastorik ere.

Isilune zurrun bat gertatu zen, eta gero Syme-ren txanda izan zen besteari oldar bizian ekiteko, jakinguraz su eta gar. Seguru asko bera baino ezpatari hobea zen Markesa, oro har, hasieratik suposatu zuen bezala, baina une hartan arreta galdurik eta desabantailan zegoela zirudien. Zoroki bezain makalki ziharduen borro-

kan, etengabe trenbidearen aldera begiratu, ia trenari baidur beldur handiagoa, altzairu zorrotzari baino. Syme, berriz, sutsuki baina hala ere kontu handiz borrokatzen zen, haserre intelektual halako batez, bere ezpata odolgabearen igarkizuna asmatzeko grinaz. Xede horrekin, Markesaren gorputza bainoago, haren zintzurra eta burua bilatzen zituen. Handik minutu eta erdira, ezpata-muturra kokospean barrena sartzan ziola sumatu zuen. Ezpatan odolik ez. Bere onetik irtenda, berriro ekin zion ezpataz, eta zarrastada odoltsu bat izan behar zuena egin zion Markesari masailan. Zarrastada arrastorik ere ez, ordea.

Une batez izu naturazgainez belztu zen Syme-ren zerua. Gizon hura sorginduta zegoen noski. Oraingo beldur izpiritual hau, alabaina, gauza ezainagoa zen, jazartzen zitzaion elbarriak sinbolizaturiko gainazpikatze izpiritual soila baino. Profesorea intxixu bat zen; gizon hau, berriz, deabru bat: Deabrua bera, ausaz! Nolanahi ere, gauza segurua zen ezen hiru bider zulatua zuela giza ezpata batek haren gorputza, eta ez zuela markarik utzi. Syme, pentsamendu

horren aurrean, tente jarri zen, eta zerurantz kantari hasi zitzaion bere baitan onetik zuen guztia, haizea zuhaitzetan gora bezala. Bere historiako gauza gizatiar guztiak zebilzkion buruan: Saffron Park-eko txinatar argiontziak, jardineko neskaren ile gorria, kaiko itsasgizon prestu garagardoz lepo eginak, hantxe aldamenean zituen lagun leialak. Menturaz gauza bizi atsegin haien guztien ordezkari gisa aukeratua zen, sorkuntza ororen etsaiaren kontra borrokatzeko, ezpata ezpatari. «Azken finean» —egin zuen bere artean—, «deabru bat baino gehiago naiz ni; gizon bat naiz. Satanasek egiterik ez daukan gauza bakarretakoa egin dezaket: hil egin naiteke.» Eta burutazio horrekin bat, tutu-hots motel, urrun bat entzun zuen, laster Parisko trenaren txistu eta marrua izango zena.

Naturazgaineko arintasun halako batez ekin zion berriro borrokari, mahomazale batek paradisuaren irritsez nola. Trena hurbildu ahala, bere baitan irudikatu zuen jendea lore-arkuak jartzen Parisen; bat egiten zituen hots gero eta handiagoa eta bera Infernuaren kontra zaintzen ari zen Errepublika bikain haren loria. Pentsamenduak

gero eta gorago zihoazkion, trenaren marru gero eta ozenagoarekin batera. Marru larriaren ondotik, harrotasun-zantzo irudi, txistu luze zorrotz bat entzun zen. Trenak gelditzera egin zuen.

Bat-batean, mundu guztiaren harriduraz, Markesak jauzi egin zuen atzera, aurkariaren ezpataren irismenetik guztiz kanpo, eta bere ezpata lurrera egotzi zuen bertan. Jauzia miragarritzkoa zen, eta miragarritzkoa izateko arrazoirik ez txikiena zera zen: lehentxeago Syme-k gizonaren izterrean barrena sartua zuela noski ezpata.

— Gel! —esan zuen Markesak, berehala men egitera behartzen zuen ahots batez—. Zerbait esan nahi dut.

— Zer gertatzen da? —galdetu zuen Ducroix Koronelak, harriturik begira—. Joko maltzurrik izan da, ausaz?

— Nonbait izan da joko maltzurrik —esan zuen Bull Doktoreak, zurbil samar—. Gure ordezkatuak gutxienez lau aldiz zauritu du Markesa, eta ez zaio ezertxo ere gertatu.

Markesak eskua jaso zuen, pazientziaren akabuko aurpegikera bitxi batekin.

— Otoi, utzi mintzatzen —esan zuen—. Garrantzizkoa da oso. Syme jauna —segitu zuen, aurkariarengana jiraturik—, gaur hemen borrokan jardutearen arrazoia, zuzen gogoratzen banaiz, zuk agerturiko nahikunde bat da (nik bere garaian irrazionaltzat jo nuena): niri sudurretik tira egitekoa, alegia. Egingo al zenidake mesede lehenbailehen tira egiteko sudurretik? Tren bat hartu behar dut.

— Kexu dagit. Arau guztien kontra doa —esan zuen Bull Doktoreak sumindurik.

— Aurrez eredubiderik ez lukeen ebazpena litzateke hori zinez —esan zuen Ducroix Koronelak, bere ordezkatuari zalantza goibelez begira—. Ustez bada kasu bat jaso (Bellegarde Kapitana eta Zumt Baroia) zeinean topaldiaren erdian armak trukatu baitziren, borrokarietako batek hala eskaturik. Apenas har litekeen, baina, norberaren sudurra armatzat.

— Tira egingo didazu ala ez sudurretik? —esan zuen Markesak, asaldu bizian—. Tira, tira, Syme jauna! Hori nahi zenuen; egizu, bada! Ezin duzu pentsatu ere egin zein garrantzizkoa den niretzat. Ez izan zeurekoia! Tira egidazu sudurre-

tik behingoan, arren eskatzen dizut! —eta apur bat makurtu zen aurrerantz, irribarre xarmagarri. Parisko trena, arnaska eta kirrinka, aldame-neko muinoaren atzeko geltoki koxkor batera iritsia zen.

Abentura haietan zehar behin baino gehiagotan izaniko sentsazio bera izan zuen Syme-k: zeruraino altxaturiko uhin ikaragarri bezain sublime batek azpian hartu behar zuelako sentsazioa, alegia. Erdizka ulertzen zuen mundu batean aurrera bi pauso eman, eta aitoren seme txit nabari haren erromatar sudur nobleari heldu zion. Gogor egin tira, eta eskuan geratu zitzaion.

Segundo batzuetan hotsandikotasun zozo batekin halaxe egon zen, artean ere paper-orezko eranskina atzamarren artean, hari so, eguzkia eta lainoak eta oihan-muinoak agerraldi ergel hari goitik begira zeudela.

Markesak ahots gora animotsu batez hautsi zuen isiltasuna:

— Inork nire ezker bekaina beharko balu —esan zuen—, hona beretzat. Ducroix Koronela, onar ezazu, arren, nire ezker bekaina! Edozein egunetan ondo etor litekeen jeneroa duzu, horra

—eta bere asiriar bekain ilunbeltzetako bat erauzi zuen serio-serio, harekin batera bere kopeta beltzaran haren erditsua eramanez, eta adeitsu eskaini zion Koronelari, erresuminez gorri-gorri hantxe baitzegoen, hitz-gabe.

— Jakin banu —jaulki zuen, haserrez totelka— borrokatzeko bere burua gomaz estaltzen duen koldar batentzat ari nintzela...

— Oi, badakit, badakit —esan zuen Markesak, itsumustuan bere zati bat edo beste zelaian barrena egotziz ezker-eskuin—. Oker zaude; baina oraintxe ezin dizut azalpenik eman. Trena geltokira sartu da, horra!

— Bai —esan zuen Bull Doktoreak haserre bizian—, eta geltokitik irtengo da. Zu gabe alde egingo du. Ondotxo dakigu nolako deabrukeriarako...

Markes misteriotsuak etsipen-keinu batez jaso zituen eskuak. Txorimalo bitxi bat zen, hantxe eguzkitan, aurpegi zaharraren erdia kendurik, eta beste aurpegi erdia azpitik irri-mirriz ñir-ñir.

— Zoratu egin nahi nauzue, ala? —egin zuen espantu—. Trena...

— Ez zara tren horretan joango —esan zuen Syme-k irmo, ezpatari tinko heldurik.

Figura xelebrea Syme-rengana jiratu zen, eta esfortzu sublime baterako indarrak biltzen ari zela zirudien, hitz egin aurretik.

— Tripazaku gogaikarri, begilauso burugabe zikin halako, txotxolo zahar madarikatu alaena! —esan zuen, arnasarik hartu gabe—. Arbitzar musu-arrosa iztupa-buru ergel halako...

— Ez zara tren horretan joango —errepikatu zuen Syme-k.

— Eta zer demonioetako arraiorengatik izan behar nuke nik —egin zuen orro besteak— tren horretan joateko gogoaz?

— Dena dakigu —esan zuen Profesoreak zorrotz—. Parisa zoaz, bonba bat jartzera!

— Baita Jerikora ere, zeraren zera zertzera! —egin zuen espantu besteak, iletik tira eginez eta hura erraz asko askaturik—. Garunak beratu zaizkizue guztioi ala, ez konturatzeko zer naitzen? Benetan uste al duzue trena harrapatu nahi nuela? Joatea daukate, nirengatik, hogeitren ere Parisa. Utikan Parisko tren zikinok!

— Zerk kezkatzen zintuen, orduan? —hasi zen Profesorea.

— Zerk kezkatzen ninduen? Ez ninduen kezkatzen trena harrapatzeak; ea trenak ni harrapatuko ote ninduen nengoen ni kezkatu; eta azkenean, alafede, harrapatu egin nau.

— Sentitzen dut esan beharra —esan zuen Syme-k, euspen handiz— zure azalpenok ez dutela inolako inpresiorik eragiten nire baitan. Agian jatorrizko zure bekokitik geratzen dena eta zure kokotsa zenaren zatiren batzuk kenduko bazenitu, garbiago legoke zure esanahia. Buru-argitasuna modu askotara erdiets liteke. Zer esan nahi duzu trenak harrapatu zaituela diozunean? Nire literatur irudimena izan liteke, baina horrek zerbait adierazi behar duela sentitzen dut nolabait.

— Den-dena adierazten du —esan zuen besteak—, eta den-denaren akabua. Igandek bere eskuetan gauzka, horra.

— Bere eskuetan gauzka? —errepikatu zuen Profesoreak, zur eta lur—. Gu? Zer esan nahi duzu «gu» diozunean?

— Polizia, jakina! —esan zuen Markesak, eta buru-larrua eta geratzen zen aurpegi-erdia kendu zituen.

Agertu zen burua ingeles polizien artean arrunt dabilen buru ile-hori leun, ongi orraztua zen, baina aurpegia ikaragarri zurbil zeukan.

— Ratcliffe Inspektorea naiz —esan zuen, zakartasunaren mugan zegoen presa halako batez—. Nire izena aski ezaguna da polizian, eta ez dut zalantza handirik zuek kideak zaretela. Hala ere, dudaren bat geratzen bazaizue, txartel bat badut... —eta txartel urdin bat ateratzen hasi zen poltsikotik.

Profesoreak neke-keinu bat egin zuen.

— Oi, ez erakutsi hori guri —esan zuen, unaturik—; badugu halakoetatik nahikoa, altxor-bila jolas bat antolatzeko ere.

Bull zeritzon gizon koxkorrak, arruntasun eta bizitasun hutsez eginiko jendea dirudien askok bezala, bazuen kolpetik gustu oneko burubiderik. Kasu honetan, berak atera zituen, dudarik gabe, babak eltzetik. Antzaldaketa-agerraldi txundigarri haren erdian, ordezkari baten serio-

tasun eta erantzukizun osoz aurreratu, eta Markesaren bi ordezkariengana jo zuen.

— Jaunak —esan zuen—, behar bezalako azalpen bat zor dizuegu noski; baina zinez diotsuet ez zaretela izan gogoetatzen duzuen bezain gustu txarreko txantxaren biktima, ez eta gizon baten ohorea zikin dezakeen deus lotsagarriena ere. Ez duzue denbora galdu; mundua salbatzen lagundu duzue. Ez gara bufoiak, konspirazio zabal baten aurka guduka gabiltzan gizon etsi-etsiak baizik. Erbi-ehiza bagina bezala dabilkigu atzetik anarkisten elkarte sekretu bat; ez, hala ere, gosea nahiz aleman filosofia tarteko, han-hemenka bonba bat jar dezaketen gizagaixo zoro horietako bat, ez, baizik eta eliza aberats boteretsu fanatiko bat, mendebaleko pesimismoaren eliza, zeregin sakratutzat baitu gizadia piztia gaiztoen gisa suntsitzea. Zeinen gogor jazartzen zaizkigun, ikusi besterik ez duzue nolako mozorroetara behartu gaituzten —zeinengatik barkamena eskatzen baitizuet— eta nolako trikimailuetara, orain zuek pairatu behar izan duzuen hau kasu.

Markesaren ordezkari gazteena, gizon moz-
kote bibote-beltz bat, kortesiatsu makurtu, eta
esan zuen:

— Onartzen dizkizuet, noski, desenkusak;
baina zuek ere barkatuko ahal didazue zuen
kinka horretan gehiago ez laguntzea, eta berta-
tik agur esatea. Lagun eta herritar ospetsu bat
horrela eguratsean zati-zati egiten ikustea ez da
ohikoa, eta, oro har, aski dateke egun bakar
baterako. Ducroix Koronela, ez dut inolaz ere
zure egintzetan eragin nahi, baina niri bezala iru-
ditzen bazaizu honako lagunarte hau ez dela
xuxen-xuxen egokia, atzera herrira abiatzekotan
naiz oraintxe.

Ducroix Koronela ibiltzen hasi zen mekaniko-
ki, baina gero, tupustean bere bibote zuri harta-
tik tira egin, eta gogor ekin zion bertan:

— Ez horixe! Ezta pentsatu ere! Jaun hauek
halako jendaila makurraren arriskupean badau-
de, arrisku horretatik irten arte ni berekin nago.
Frantziaren alde borrokatua naiz, eta gogorra
litzateke orain zibilizazioaren alde borrokatzeko
aukera hau pasatzen uztea.

Bull Doktoreak, kapelua erantzi, eta airean astindu zuen, bibaka, jendaurreko bilera batean bezala.

— Ez egin zarata gehiegi —esan zuen Ratcliffe Inspektoreak—; Igandek entzun zaitzake.

— Igandek! —egin zuen espantu Bull-ek, eta kapelua erortzen utzi zuen.

— Bai —ihardetsi zuen Ratcliffe-k—; horien artean egon daiteke.

— Noren artean? —galdetu zuen Syme-k.

— Trenetik jaisten ari den jendearen artean —esan zuen besteak.

— Diozunak bururik ez hankarik ez du —hasi zen Syme—. Izan ere... Jainko maitea! —egin zuen bat-batean espantu, urrutian eztanda bat ikusten duen gizon batek bezala—. Jainkoarren! hau egia bada, Anarkisten Biltzarreko partaide ginen tontolapiko-aldra guztia anarkiaren kontra geunden! Denok ginen detektibeak, Lehendakaria eta haren idazkari pertsonala izan ezik. Nola ulertu behar da hori?

Nola ulertu behar den! —esan zuen polizia berriak, harrigarriro bortizki—. Hilda gaudela esan nahi du horrek! Ez duzu ezagutzen Igande,

ala? Ez al dakizu haren txantxak beti hain handi eta hain simple direla non bati ez zaizkion burutik pasatu ere egiten? Bururatzen al zaizu ezer hau baino Iganderen estilokoagorik; alegia, bere arerio boteretsu guztiak Biltzar Gorenean jarri, eta gero hura gorena izan ez zedin arduratzea? Sinestadazu, konpainia guztiak erosi ditu, hari guztien jabe egin da, trenbide-adar guztiak kontrolpean dauzka... batez ere trenbide-adar hauxe! —eta hatz dardarati batez seinalatu zuen geltoki koxkorra—. Mugimendu guztia berak kontrolatzen zuen; munduaren erdia beraren alde altxatzeko prest zegoen. Baina baziren doi-doi bost lagun, inondik ere, aurpegi emango ziotenak... eta deabru zahar horrek, zer, eta Biltzar Gorenean jartzen ditu, elkarren zelatan gal dezaten denbora. Ergelak ez bestelako ergelak, berak planifikatu zituen gure ergelkeria guztiak! Igandek bazekien Profesorea Syme-ri jazarriko zitziola Londresen, eta Syme nirekin borrokatuko zela Frantzian. Eta bera kapital-masa esker-gak metatzen ari zen, eta telegrafo-linea nagusien jabe egiten, gu ergelok bata bestearen atze-

tik korrika genbiltzan bitartean, itsumandoka jolasten ari diren haur inozo batzuen moduan.

— Eta? —galdetu zuen Syme-k, halamoduzko patxadaz.

— Bada —ihardetsi zuen besteak, bat-batean lasaiturik irudi—, itsu-itsuka jolasten harrapatu gaitu gaur hemen, basa-edertasun bikaineko zelai ezinago bakarti honetan. Munduaz jabetuko zen honezkero noski; zelai hau eta bertan gauden txorook harrapatzea baino ez zaio falta. Eta benetan jakin nahi baduzu zer nuen nik tren hori hona iristearen aurka, esan egingo dizut, zera, zein zen nire eragozpena: Igande edo haren Idazkaria jaitsi dira oraintxe tren horretatik, horra.

Syme-ri nahi gabeko oihu bat irten zitzaion, eta denek ere han urrutiko geltokira jiratu zituzten begiak. Egi-egia zen jendalde handi samar bat mugitzen ari zela zeuden lekurantz. Urrunegi zeuden, haatik, inola ere bereizteko.

— Saint Eustache-ko Markes ohiaren ekandua zen —esan zuen polizia berriak, larru-zorro bat aterarik— beti aldean eramatea operarako prismatiko pare bat. Lehendakaria nahiz Idazka-

ria, bietako bat guri jarraika dator jendetza horrekin. Geure zinak hautsi eta poliziari hots egiteko tentazioari lekurik uzten ez dion toki lasai-atsegin batean harrapatu gaituzte. Bull Doktorea, susmoa dut hobeki ikusiko duzula hemendik, zeure lente guztiz apaingarri horiekin baino.

Doktoreari luzatu zizkion prismetikoak, eta hark, bere betaurrekoak berehala kendurik, begietara eraman zituen.

— Ezin daiteke izan diozun bezain egoera txarra —esan zuen Profesoreak, dardara apur batez—. Jendetza handia da, bai, baina baliteke turista arruntak izatea noski.

— Turista arruntek ez dute noski —galdetu zuen Bull-ek, prismetikoak begietan—, aurpegia-
ren erdia estaltzen dien mozerro beltzik eraman-
go, ezta?

Syme-k ia erauzi egin zizkion prismetikoak eskutik, eta bere begietara eraman zituen. Berengana zetorren jendaldeko askok itxura arrunt samarra zuen; egi-egia zen, hala ere, guztien buru zetozen bizpahiruk ahorainoko mozerro-erdi beltzak zeramatzatela. Mozerro hori oso

erabatekoa da, batez ere halako urrutitik, eta Syme-ri ezinezkoa gertatu zitzaion inolako ondoriorik ateratzea jendetzaren aurrean hizketan zetozenen masaila-kokots bizargabeetatik. Halako batean, ordea, solasean ari zirela, denek irribarre egin zuten, eta haien arteko batek ahoaren alde bat bakarrik mugitu zuen irribarre egitean.

11. KAPITULUA

Gaizkileak

poliziari jarraika

Lasaitu ikaragarri bat hartu balu bezala kendu zituen Syme-k prismatikoak begietatik.

— Lehendakaria ez dator hor, nolana ere — esan zuen, eta bekokia xukatu zuen.

— Urruti daude, ordea, oso, han ostertzean — esan zuen Koronel txundituak, begiak kliskatuz, artean ere ez erabat bere onera etorria Bull-en azalpen adeitsu bezain presatu hartatik—. Hainbeste jenderen artean ezagutu ote zenezake inondik inora zuen Lehendakari hori?

— Ezagutu ote nezake elefante zuri bat hainbeste jenderen artean? —esan zuen Syme-k, pipertu samarturik—. Xuxen esan duzunez, ostertzean daude; hura haien artean baletor, ordea... ala Jainkoa! Lurra ikaraz legoke, benetan.

Isilunetxo baten ondoren, Ratcliffe izeneko lagun berriak burubide goibel bat azaldu zuen:

— Jakina Lehendakaria ez datorrela hor. Hobe genuke, bai, Geminis lagun, hor balitz. Ziu-rrenik, honezkero garaileen zaldian dabil Parisen barrena, edo San Pauloren Katedralaren hondakinen gainean eserita dago.

— Horrek ez du zentzurik! —esan zuen Symek—. Zerbait gertatzea baliteke gure absentzian; baina ez da posible hark mundua hola-hola tupustean bereganatzea. Egia da noski —gaineratu zuen, geltoki koxkorraren ondoko zelai urrutetara so bekokia zimurturik—, egia da, zinez, jendalde bat datorrela dirudiela honantz; ez dute, ordea, zuk diozun armada osatzen.

— Ah, horiek —esan zuen detektibe berriak destainaz—. Ez, horiek ez dira halako gudaroste indartsua. Sinestadazu, baina, gure indarrentzat kalkulaturik daudela doi-doi: gu ez gara, lagun, aparteko zera noski Iganderen unibertsoan. Hari eta telegrafo guztien jaun eta jabe egin da honezkero. Biltzar Gorena akabatzea, ordea, egiteko arrunta zaio, postal baten gisa; bere idazkari pribatuaren esku uzteko moduko kontua —eta ttu egin zuen belartza gainera.

Gero, besteengana jiratu, eta espanturik gabe esan zien:

— Zer esan asko dago noski heriotzaren alde; hala ere, inork beste alternatiba inolaz ere gogo-koago badu, aholku sendoa ematen diot nire atzetik abia dadin.

Hitz horiekin, bere bizkar zabala jiratu, eta oihanerantz ekin zion, kemen isilez. Besteek begiratu bat eman zuten beren sorbalden gainetik, eta ikusi zuten gizonezko hodei iluna, gelto-
kia utzi, eta diziplina misterioz mugitzen zela ordekan zehar. Jadanik ikusten zituzten, begi biluziz ere, pittika beltzak aurrealdeko aurpegie-
tan, zeramatzaten mozorroen ezaugarri. Jiratu, eta beren gidariaren atzetik ekin zioten, zeina ordurako oihanera iritsia baitzen, eta zuhaitz ñir-
ñir-dardarkarien artean aienatua.

Belazean eguzkia idor eta beroa zen. Oihan-
nean murgiltzean, bada, gerizpearen kolpe fres-
koa sumatu zuten, urpekariak pizina itzal
batean murgiltzean nola. Oihan barrua eguzki-
argi zatikatuz eta itzal dardaratiz beterik zegoen.
Errezela ikarati moduko bat osatzen zuten, zine-
matografoaren zorabiagarritasuna gogoraraziz

ia. Berekin zihoazen figura trinko haiek berak ere ozta-ozta ikus zitzakeen Syme-k, haien gainean dantzatzen ziren eguzki eta itzal guneei esker. Noiz giza buru bat Rembrandt-en eskutikoa zirudien argi batek argitzen zuen, beste guztia ezabaturik; noiz oster a esku zuri bizi-bizi, itsugarriak zituen, eta beltz baten aurpegia. Markes ohiak lastozko kapelu zaharra begi gaineraino sartua zuen, eta hegala itzal beltzak hain zorrozki ebakitzen zuen haren aurpegia bitan, ezen jarraika zetozkien mozorro-erdi beltz haiek bat zeramala baitzirudien. Irudikapen horren tintaz kutsatu zen Syme-ren harrimen gainezkaria. Mozorro bat ote zerman? Mozorro bat ote zerman inork? Ezer ote zen inork? Sorginkeriazko oihan hura, zeinean gizonen aurpegiak aldika beltz eta zuri bilakatzen baitziren, zeinean haien figurak aurrea eguzki-argiz blai baitzeuden eta gero berehala gau itxuragabea galtzen baitziren, argi-ilunezko kaos huts hura (kanpoko egunargi distiratsuen ondoren) hiru egunez bera mugitua zeneko munduaren sinbolo bete-betea begitandu zitzaion Syme-ri, gizonak beren bizar eta betaurreko eta sudurrak kendu eta beste

norbait bilakatzen zireneko mundu harena. Markesa deabru bat zela sinetsi zuenean sentitu zuen konfiantza trajiko hura harrigarriro aienatua zitzaion orain, Markesa laguna zela zekielarik. Hainbeste gauza txundigarriren ondoren, ia galdetzeko puntuan zegoen zer ote zen lagun bat eta zer etsai bat. Ba ote zen ezer zirudienaz landa zenik, izan? Markesa, bere sudurra kendu, eta detektibe bihurtua zen bertan. Ez ote zitekeen gerta berdin-berdin bere burua kendu eta iratxo bihurtzea? Ez ote zen dena, azken batean, oihanalde txundigarri haren, ilun-argi dantza haren gisakoa? Den-dena begitaldi labur bat baino ez, begitaldi beti iragarrigabea, eta beti ahantzia. Bada, pintore moderno askok bertan aurkitu dutena aurkitu zuen Gabriel Syme-k oihan eguzkiz blai haren erdian. Jende modernoak Impresionismo esaten dion zera aurkitu zuen; alegia, bestelako izenez, unibertsoari zorurik aurkitzeko gai ez den eszeptizismo akaberako hori.

Nola gizon bat amets gaizto batean saiatzen baita oihu egin eta esnatzen, hala egin behar zuen Syme-k ahalegin gogorra bere azken irudi-

kazio okerren hura uxatzeko. Bi pausotzar egonezintsuz hartu zion aurrea Markesaren kapelu lastozkoa zeraman gizonari, gerora Ratcliffe deitzera jarria zen gizonari. Ahots nabarmenegi ozen-alaitsuz, isiltasun hondogabea hautsi, eta solasean ekin zion.

— Galde al dezaket —esan zuen— nora arraio goazen honela?

Hain izan ziren zinezkoak gogoan erabili zituen zalantzak, non orain guztiz pozik baitzegoen laguna giza ahots erraz batean mintzatzen entzunik.

— Lancy-ko hiritik zehar ekin behar diogu itsasora bidean —esan zuen—. Eskualde horrek du, nik uste, probabilitate gutxiena horien alde egoteko.

— Zer demontre esan nahi duzu horrenbeste? —egin zuen espantu Syme-k—. Ez da posible horiek mundu erreala horrela beren eskupean edukitzea. Ez dira hainbeste noski anarkista diren langileak, eta, noski, hala balira, jendal-de hutsek ezingo lituzkete garaitu oraingo guda-rosteak eta polizia!

— Jendalde hutsak! —errepikatu zuen Syme-
ren lagun berriak, destainazko purrustada
batez—. Jendaldez eta langile-klaseez dihardu-
zu, beraz, horien baitan bailegoen auzia. Betiere-
ko ideia ergel horrekin zabilta noski, alegia,
anarkia baletor, behartsuengandik letorkeela.
Zergatik izan behar luke hala? Behartsuak
matxinakoiak izan dira, baina sekula ez anarkis-
tak: beste inork baino interes handiagoa dute
nolabaiteko gobernu prestu bat egon dadin.
Behartsuak asko ere asko du jokoan bere herrial-
dearen zortean. Aberatsa, berriz, ez da horrela
lurrari atxikia; Ginea Berrira joan liteke yate
batean. Behartsuek batzuetan aitzakia eman
dute txarra zela gobernatzen zituen gobernu-
a; aberatsek beti eman dute aitzakia gobernaturik
egotea bera zela txarra. Aristokratak beti izan
dira anarkistak, aitoren semeen arteko gerrak
lekuko.

— Txikientzako ingeles historiari buruzko
hitzaldi gisa —esan zuen Syme-k— ez dago bate-
re gaizki hori guztia, baina ez diot oraindik garbi
ateratzen zer-ikasirik gure auzirako.

— Bada, zera da —argitu zion lagunak—, Iganderen eskuin-eskurik gehienak Hego-Afrikar eta Amerikar milioidunak direla. Horregatik eskuperatu ahal izan ditu komunikazioak; eta horregatik gertatzen da orain polizia anti-anarkistaren azken lau borrokalari gailenak oihan batean zehar lasterka ibiltzea, untxiak bezala.

— Milioidunena uler dezaket —esan zuen Syme-k, pentsakor—; burutik daude ia denak. Baina denborapasa alferren zale diren jaun adintsu makur batzuk-batzuk eskuperatzea gauza bat da; kristau nazio handiak eskuperatzea, berriz, beste gauza bat da. Sudurra egiten dizut apustu (barka zehar-aipua) Igandek ez lukeela batere erraza izango edozein lekutan osasun oneko edozein pertsona arrunt berera bihurrarazi behar balu.

— Tira —esan zuen besteak—, zer motatako pertsonaz ari zaren, horren baitan dago hori noski.

— Bada, esate baterako —esan zuen Syme-k—, sekula ezingo genuke bihurrarazi horra pertsona hori —eta bere aurrez aurre seinalatu zuen zuzen.

Eguzki-argizko zabalgunek batera iritsiak ziren, zeina azkenean bere zentzu onera itzuli izanaren irudi adierazgarria baitzen Syme-ren irudimenean; eta oihaneko argiune haren erdian bazen figura bat, inguruan gauzak ikaratzeko moduan itsusitzen direnean hala ere zutik dirauen zentzun horren ikurtzat har zitekeena. Eguzkiak errerik eta izerditan blai, behar-beharrezko diren tresna koxkorren seriotasun hondogabeaz serio, frantses nekazari sendo bat egurra ebakitzen ari zen aizkoratxo batez. Haren orga handik hurbil zegoen, ordurako mozkinaz beterik; belar axala jaten ari zen zaldia ere, haren jabea bezala, adoretua zen, baina ez etsian zoro; nagusia bezala, are ondasuntsua zen, baina triste samarra hala ere. Normandiar bat zen, frantsesen batez bestekoa baino garaiagoa eta argal-hezurtsua oso; eta haren figura beltzarrana hantxe ageri zen, eguzkiargi-lauki baten kontra ilun, lanaren figura alegoriko halako baten gisa ia, freskoan irudikatua, hondoa urrez.

— Syme jaunak dio —hots egin zion Ratcliffe-k Koronel frantsesari— gizon hori, behinik behin, ez dela izango sekula anarkista.

— Syme jauna zuzen aski dabil horretan —
erantzun zuen Ducroix Koronelak, barrez—; bes-
terik ez balitz, ondare mordoia duelako zaindu
beharra. Ahantzia nuen, ordea, zuen herrialdean
ez dela ohikoa nekazariak aberatsak izatea.

— Behartsua dirudi —esan zuen Bull Dokto-
reak, zalantzatsu.

— Halaxe dirudi, bai —esan zuen Koronelak—
; horrexegatik da aberatsa.

— Ideia bat dut —hots egin zuen Bull Dokto-
reak bat-batean—; zenbat eskatuko liguke bere
organ eramateagatik? Zakur horiek oinez dira
guztiak, eta berehala utz genitzake atzean.

— Nahi duena eskaini! —esan zuen Syme-k
bizi-bizi—. Diru piloa daramat aldean.

— Horrela ez duzue ezer lortuko —esan zuen
Koronelak—; ez dizue inolako begirunerik eraku-
tsiko, tratu-tirabiran jardun ezean.

— Errekardaritzan hasi beharra ere, horratik!
—ekin zion Bull-ek egonezinez.

— Gizon librea delako jokatzeko du horrela —
esan zuen besteak—. Ez zara noski jabetzen; ez
luke ulertuko zer dela-eta eskuzabaltasun hori.
Ez da eskupekoak hartzeko egina.

Hala, beren atzetik beren jarraitzaile estrainio haien oin-hotsak entzuten zituztela zin egin bazezaketen ere, haatik hantxe eutsi behar izan zioten, harat-honat urdurian, frantses Koronela frantses egurginari azoka-egun bateko zirri-mirri eta tira-bira aisiatsuarekin mintzatzen zitzaion bitartean. Lau minuturen buruan, nolana ere, Koronela zuzen zegoela ikusi zuten, zeren egurginak beren planekin bat egin baitzuen, ez ongiegi ordaindutako kalesaltzaile baten morroitasun lausoarekin, sari egokia ordaindu zaion notario baten seriotasunarekin baizik. Esan zien egin zezaketen gauzarik onena zera zela, Lancy gainera muinoetan zen ostatu koxkor batera jo zuzenean, hango ostalariak, bere azken urteetan *dévot* bilakatua zen soldadu zahar bat, dudarik gabe begi onez hartuko baitzituen, eta are arriskuak hartzeko prest egongo laguntzeagatik. Talde osoa, beraz, egur sorten ganean nola edo hala metatu, eta hantxe joan zen orga baldarrean binbili-banbala oihanlurraren beste alde malkartsuagorantz abian. Bere astun eta porrokatuan, bizkor asko zihoan ibilgailua, eta laster iruditu zitzairen, pozez gainezka, erabat urruti

utziak zituztela, zirenak zirela, atzetik segika zetozkienak. Ezen, azken batean, igarkizun hura, alegia ea nondik lortu zituzten anarkistek jarraitzaile haiek guztiak, argitzeke zegoen artean. Gizon bakar baten presentzia aski izan zitzairen; Idazkariaren irribarre itxuragabea ikuste hutsarekin abiatuak ziren ihesi. Syme-k txitean-pitean begiratzen zuen bere sorbalda gainetik atzerantz, arrastoa segika zetorkien gudarostearen alderantz.

Zuhaiztia aurrea argalago eta gero distantziarekin txikiago bilakatu ahala, oihanaz haraindiko eta hartan gaindiko hegi eguzki-argituak ikus zitzakeen; eta haietan zehar hantxe mugitzen zen artean ere, dena bat, jendalde beltz karratu hura, kakalardo munstro bat bezala.

Eguzkiargi bizi-bizitan eta bere begi era berean zorrotzez, ia teleskopikoak baitzituen, oso garbi ikus zezakeen Syme-k gizonezko masa hura. Banakako giza irudi gisa ikus zitzakeen; baina gero eta harrituago zegoen gizon bakar baten gisa nola mugitzen ziren ikusirik. Arropa beltzez eta kapelu lauz jantziak ziruditen, kaleko edozein jendetza arrunt bezala; baina ez ziren

hainbat eraso-lerrotan barreiatzen eta sakabatatzen eta atzera geratzen, jendalde arrunt baten kasuan gertatuko litzatekeenez. Halako zurruntasun lazgarri, makur batez mugitzen ziren, automata-gudaroste tinko-tinko baten modura.

Syme-k Ratcliffe-ri ohartarazi zion hori.

— Bai —ihardetsi zuen poliziak—, horra zer den diziplina. Horra zer den Igande. Hemendik bostehun miliara egongo da beharbada, baina haren beldurra guztien baitan dago, Jainkoaren hatza bezala. Bai, martxa beti-berean doaz; eta zeure botak egin apustu beti-bera dutela solasa, eta bai pentsaketa ere, beti-bera. Baina guri axola zaigun gauza bakarra zera da, horrela martxa beti-berean bistatik galduz joatea.

Syme-k baietz egin zuen buruaz. Egia zen jarraikitzaileen mantxa beltza geroago eta txikiago bihurtuz zihoala, nekazariak bere zaldiari egurra ematen zion heinean.

Paisaia eguzkitsuaren galgak, oro har laua bazen ere, oihanetik urrundu ahala behera egiten zuen, hegi zorrotzeko uhinetan amilduz itsasorantz, Sussex-eko goi-ordekaren behe-

neko hegiaren antz-antzera. Alde bakarra zera zen, Sussex-en bidea errekatxo bat bezalako bihurgunetsua izango zela, eta han, berriz, frantses bide zuria txorrotxean amiltzen zela beren aurrez aurre, urjauzi bat bezala. Malda piko hartan barrena, binbili-banbala zorrotzean jaisten zen orga, eta handik minutu gutxira, bidea are pikoago bilakatzen baitzen, beren azpian ikusi zuten Lancy-ko portu koxkorra eta itsasoaren arku-atal urdin handi bat. Beren etsaien hodei ibiltaria erabat desagertua zen ostertzetik.

Zaldi eta orgak zumardi bat inguraturik braujiratu, eta zaldiaren sudurrak ia jo zuen betebetean «Le Soleil d'Or» kafe koxkorraren kanpoko aulkietan eserita zegoen jaun adintsu baten aurpegia. Nekazaria, desenkusa bat murduskatu, eta bere eserlekutik jaitsi zen. Besteak ere banan-banan jaitsi ziren, eta adeitasunezko esaldi zatikatuz hitz egin zioten jaun zaharrari, haren irekitasun adiskidekorrak argi eta garbi adierazten baitzuen ostatutxoaren jabea zela.

Agure ile-zuri sagar-musu bat zen, begiak loti eta bibotea grisa zuena; mardula, sedentarioa, eta xaloa oso, Frantzian maiz aurki daitekeen

baina Alemania katolikoan are ohikoagoa den tipokoa. Harekiko guztiak, haren pipak, haren garagardo-potoak, haren loreak, haren erlauntzak, arbaso zaharren garaidaniko bake halako bat iradokitzen zuen; gero, haatik, bisitariak ostatuko salara sartu eta gora begiratu zute-nean, ezpata ikusi zuten, hantxe horman esekirik.

Koronela, ostalaria lagun zahar bat bezala agurturik, ziztuan sartu salara, eta esertzera egin zuen, bizkorgarri erritualen bat eskatuz. Haren jokabidearen deliberamendu militarrek interesa piztu zuen Syme-rengan. Koronelaren ondoan eseri, eta, ostalaria alde egina zela eta, aukera ikusi zuen bere jakingura asetzeko.

— Atrebentziarekin, Koronel —esan zuen, ahots apalez— zergatik etorri gara hona?

Ducroix Koronelak irribarre egin zuen bere bibote zuri ile-zutaren azpian.

— Bi arrazoigatik, jauna —esan zuen—; eta aurrena, ez garrantzizkoena, baizik praktikoena azalduko dut. Zeragatik etorri gara, hain zuzen, hauxe delako leku bakarra, hogeit hamar milia barru, zaldiak lor ditzakeguna.

— Zaldiak! —errepikatu zuen Syme-k, bizkor jasorik begiak.

— Bai —esan zuen besteak; benetan zuen etsaiak atzean utziko badituzue, zaldiak dira aukera bakarra, non eta ez duzuen noski bizikletarik edo automobilik poltsikoetan.

— Eta nora jotzeko aholkatzen diguzu? —galdetu zuen Syme-k zalantzatsu.

— Dudarik ere gabe —ihardetsi zuen Koronelak—, herria pasaturik dagoen polizia-postura lehiatu beharko zenukete ahalik eta lasterren. Nire adiskidea, zeinarentzat zirkunstantzia badaezpadako samarretan egin baitut arestian ordezkari-lana, iruditzen zait gehiegikerian erortzen dela, nabarmen, matxinada orokor baten posibilitateez ari delarik; baina berak ere nekez aldeztuko du, pentsatzen dut, jendarmeekin seguru ez zaudetela.

Syme-k baietz egin zuen buruaz, serio-serio; gero, tupustean esan zuen:

— Eta hona etortzeko zenuen beste arrazioa?

— Hona etortzeko nuen beste arrazioa —esan zuen Ducroix-ek patxada lasaian— zera da, ez datorrela noski gaizki gizon on bat edo beste

ikustea, inor heriotzatik hurbil egon daitekeen.

Syme-k horman gora begiratu zuen, eta baldarki pintaturiko erlijio-irudi patetiko bat ikusi zuen hantxe. Eta esan zuen:

— Arrazoi duzu —eta ia lipar baten betarik emateke—. Inor arduratu al da zaldien kontuaz?

— Bai —erantzun zuen Ducroix-ek—, ziur egon zaitezke iritsi orduko eman ditudala aginduak. Zuen etsai horiek ez zuten ematen lehia-tzen zirenik, baina zinez harrigarriro bizkor mugitzen ziren, ongi trebaturiko gudaroste bat bezala. Ez nuen asko uste anarkistek halako diziplina handia zutenik. Ez duzue asti txikienik ere galtzeko.

Hark hizketan amaitu orduko, ostalari begi-urdirin ile-zuri xaharra sartu zen ttiriki-ttarraka gelara, esanez sei zaldi zeudela zelaturik kanpoan.

Ducroix-ek hala aholkaturik, aldean eramateko moduko janari eta ardo puska batzuk hartu zituzten beste bostek biderako, eta, beren duelo-etzpatak zituztela arma baliagarri bakar, han abiatu ziren kliniki-klanka bide zuri pikoan. Hura

markesa zen bitartean Markesaren ekipaia garraiatzen ibiliak ziren bi zerbitzariak, denen adostasunez, atzean utzi zituzten, kafean edaten, eta erabakia ez zen gertatu guztiz haien berezko jaiduraren aurkakoa.

Ordurako mendebalerantz apaltzen ari zen arratsaldeko eguzkia, eta haren izpiez Syme-k hantxe ikus zezakeen ostalari zaharraren figura sendoa, gero eta txikiago bilakatzen, baina artean ere bere lekuan zutik begira, isil-isilik, eguzkiaren distira ile zilarrezkoan. Syme-ri sinetzeriazko irudikapen bitxi bat finkatua zitzaion buruan, Koronelaren esaldi halabeharrezkoak irudimenean utzia, alegia benetan huraxe zela, beharbada, lurarren gainean ikusteko zuen azken arrotz prestua.

Txikiagotuz zihoan figura hari so segitu zuen, hark hantxe zirauela, arrasto gris soil bat irudi, gar zuri baten ukituarekin, atzean zuen malkarraren hormatzar berdearen kontra. Eta horrela begira zegoela, ostalariaren atzeko hegiaren gailurrean, han agertu zen gizon beltz-jantzi marxakarizko gudaroste halakoa. Gizon jatorraren eta haren etxearen gainean airean zintzilik zeu-

dela ematen zuten, oti-laino beltz bat bezala.
Doi-doi zituzten zaldiak garaiz zelatuak.

12. KAPITULUA

Lurra

anarkiak hartua

Bidearen aldapa larriari jaramonik egiteke zaldiei arrapalada bizia eraginik, laster berreskuratu zuten zaldizkoek oinezko martxariekiko abantaila, eta azkenean Lancy-ko lehen eraiki-nen islak galarazi zien bistatik jarraikitzaileen taldea. Nolanahi ere, luzea izan zen lasterraldia, eta, hirira sartzea egin zutenerako, ilunabarren kolore eta tonu beroz jantzten ari zen sartaldea. Koronelak iradoki zuen ezen, polizia-postura jo baino lehen, ahalegina egin behar zutela, pasakeran, agian baliagarria izango zen beste gizabanako bat biltzeko beren artera.

— Hiri honetako bost aberatsetatik lau — esan zuen— iruzurgile arruntak dira. Pentsatzen dut halatsu dela proportzioa mundu guztian barrena. Bosgarrena adiskide dut, oso gizon jatorra; eta, gure ikuspuntutik are garrantzizkoagoa baita, automobil baten jabea da.

— Oker ez banago, hala ere —esan zuen Profesoreak, bere aldarte on hura galtzeke, edozein unetan mantxa beltz narrastaria ager zitekeen bide zurian atzerantz begiraturik—. Oker ez banago, hala ere, apenas dugun astirik bisita-kunplimendutarako.

— Renard Doktoarearen etxea hemendik hiru minutura baino ez dago —esan zuen Koronelak.

— Gure galbidea —esan zuen Bull Doktoreak— hemendik bi minutura baino ez dago.

— Bai —esan zuen Syme-k—; lasterka bizian ekiten badiogu, atzean utzi behar ditugu, oinez dira eta.

— Automobil bat du —esan zuen Koronelak.

— Ez dakigu, hala ere, utziko ote digun —esan zuen Bullek.

— Bai, guztiz zuen aldekoa da.

— Kanpoan egon daiteke, ordea.

— Eutsi pixka batean mihiari —esan zuen Syme-k tupustean—. Zer da hots hori?

Segundo batez zaldizko estatuak bezain gel-dirik geratu ziren guztiak, eta segundo batez —bi edo hiru edo lau segundoz— zeru-lurrek ere halakoxe geldi ziruditen. Orduan belarri guztiek,

arretaren larri ezinagoan, gauza bat bakarrik adieraz dezakeen dardara-taupada deskribaezin hori entzun zuten bidean barrena: zaldiak!

Koronelaren aurpegiak bat-bateko mudantza bat jasan zuen, tximistak jo eta hala ere deusen zimikorik ere egin ez balio bezala.

— Ederra sartu digute —esan zuen, ironia militar hitz-laburrez—. Zalditeriari harrera egiteko prest!

— Nondik atera ote dituzte zaldiak? —galde-tu zuen Syme-k, mekanikoki trostan jarriz bere zamaria.

Koronela isilik egon zen apur batez, eta gero ahots bortxatuz esan zuen:

— Zehaztasun oso-osoaz ari nintzen aipatu nizuenean «Soleil d'Or» ostatua zela hogeit mila barru zaldirik lor daitekeen leku bakarra.

— Ez! —esan zuen Syme-k bortizki—. Ezin dut sinetsi halakorik harengandik. Ez da posible, ile zuri horrekin guztiarekin.

— Behartu egingo zuten, beharbada —esan zuen Koronelak ezti-ezti—. Ehun lagun izan behar dute gutxienez; horrexegatik joango gara

oraintxe nire adiskide Renard-engana, hark automobil bat baitu.

Hitz horiekin, kale kantoi batean brau jiratu zaldia, eta han joan zen kalean behera, halako ziztuan, ezen besteak, ordurako ondo arrapalada bizian zihoazen arren, lanak izan baitzituzten haren zaldiaren buztan hegakariari jarraitzeko.

Renard Doktorea kale piko baten gailurreko etxe garai eta eroso batean bizi zen, eta hala zaldizkoek, haren ate aurrean oineztu zirenean, berriro ikusi ahal izan zuten muinoaren ertz berde, gotorra, eta hartan bide zuria zeharka, hiriko teilatu guztien gainean hantxe. Arnasa hartu zuten berriro, bidean ez baitzen artean deus ageri, eta txirrina jo zuten.

Renard Doktorea gizon irritsu bizar-nabar bat zen, Frantziak Ingalaterrak baino are hobeki iraurarazten jakin duen profesional-klase isil baina oso egitekotsu horren adibide on bat. Kontua azaldu ziotenean, neurrizgainekotzat jo zuen, guztiz, Markes ohiaren izularria; esan zuen, Frantses eszeptizismo sendo horrekin, ez zela noski pentsatzekoa, inondik inora ere, anarkista-matxinada orokor bat gerta zitekeenik.

— Anarkia —zioen, soinburuak uzkurtuz—, zera, haurkeria hutsa!

— *Et ça* —egin zuen espantu Koronelak tupustean, besteen sorbalda gainetik seinalatu—, eta hori ere haurkeria hutsa da, ezta?

Guztiek so egin zuten harantz, eta zalditeria beltzeko lerro makur bat ikusi zuten muinoaren gailurrari gaina hartzen, Atilaren kemen eta oldar berberaz. Abiadaren arina gora-behera, oste osoak ondo ere elkaturik zirauen, eta lehen ilarako aurpegi-mozorro beltzak ere hantxe zetozen, uniforme-ilara bat bezain xuxen. Alabaina, lauki beltz nagusia berdina izanik ere, nahiz biziago abian, bazen haatik orain desberdintasun ez nolana hiko bat, muino-hegiaren gainean garbi atzeman zezaketena, etzanikako mapa batean bezala. Zaldizkoen aldrak bloke bakarra osatzen zuen; baina zaldizkoetako bat ostetik puska batez aurrerago zetorren, ziztu bizian, eta eskuen eta orpoen mugimendu zoro akuilatzen zuen zaldia gero eta bizkorrago joatera, halako gisan non pentsa baitzitekeen ez zela jarraikitzailea, jarraikia baizik. Are halako distantzia handitik, ordea, zerbait hain fantastiko, hain

zalantzan jarri ezina ageri zen haren figuran, ezen garbi baitzeukaten Idazkaria bera zela.

— Sentitzen dut honela moztea halako eztabaida kulturatsua —esan zuen Koronelak—, baina utziko al didazu zeure automobila, otoi, oraintxe bertan?

— Sumoa dut guztiz erotuta zaudetela guztiok —esan zuen Renard Doktoreak, gizartekoi irribarre eginez—; baina eromen horrek ez dezala, Jainkoarren, gure adiskidetasuna eragotz. Goazen garajera.

Renard Doktorea gizon otzan bezain animaleko ondasunen jabea zen; etxe-barrua Cluny-ko Museoaren parekoa zen, eta hiru automobil zituen doktoreak. Oso gutxitan erabiltzen bide zituen, nolana ere, Frantziako klase ertainaren gustu simpleak baitzituen, eta, doktorearen lagunak arakatu zituztenean, denbora dezente eman zuten haietako bat behintzat martxan jartzeko moduan zegoela konprobatzeko. Nekez bada ere, doktorearen etxe aurreko kaleraino eramatea lortu zuten. Garaje itzaletik irten zirenean, harritu egin ziren ikusirik tropikoetan gauak ohi duen tupustekotasun beraz etorria

zela iluntzea. Edo uste zuten baino luzeago egonak ziren han barruan, edo lainozko oihalpe ezohiko batek bildua zuen hiria. Kale pikoetan barrena begiratu zuten, eta iruditu zitzaien lanbro arin bat ote zetorren itsas aldetik gora.

— Oraintxe da aukera; bestela, jai dugu — esan zuen Bull Doktoreak—. Zaldia entzuten ditut.

— Ez —zuzendu zuen Profesoreak—; zaldibat.

Eta entzun ahala, gero eta garbiago zegoen harlauzen gainean klaska-klaska laster bizian hurbiltzen ari zen hots hura ez zela zaldialde osoarena, baizik hura atzean urrun utzia zuen zaldizko bakar batena: Idazkari buru-eria.

Syme-ren familia, geroztik bizi-maila arrunte-ra etorriak ziren asko bezala, auto baten jabe izan baitzen behinola, ederki ezagutzen zituen gure mutilak ibilgailuok. Jauzi batez igo txoferraren eserlekura, eta tiraka eta bihurrika ari zitzaion, aurpegia gorri-gorri, autoaren makinaria aspaldian erabili gabeari. Gider haietako baten gainean ahalegin guztian indar egin, eta gero ahots apalez esan zuen:

— Ez dago noski martxan jartzerik.

Hori esaten ari zela, kale kantoitik gizon bat agertu zen, oldar bizian zetorren bere zaldiaren gainean zurrun, gezi baten erru eta zurruntasunarekin. Okotsetik aurrera irten behar zuela zirudien irribarre bat zuen, masailezurra trokatua balu bezala. Automobil geldiaren pareraino etorri zen, zeinaren barruan pilaturik baitzeuden ordurako lagun guztiak, eta autoaren aurrealdean pausatu zuen eskua. Idazkaria zen, eta ahoa zuzen-zuzen jarri zitzaion garaipenaren hotsanditasunean.

Syme bolantearen gainean indar eginez makurturik zegoen, eta ez zen soinurik, hirira sartzen ari ziren beste jarraikitzaileen zaldidurundia baino. Halako batean, halare, burdina kirrinkarizko garrasi bat entzun zen, eta autoak jauzi egin zuen aurrerantz. Rast erauzi zuen autoak Idazkaria zela-gainetik, lekatik aizto bat nola; hogeiren bat yardaz ostikoka bizian arrastaka eraman, eta azkenean zoruaren kontra zabal-zabal eginda utzi zuen, han atzean urrun geratua zen zaldi ikaratuaren aurrez aurre. Bihurgunea bikain hartuz autoak kale kantoian

jiratu zuenean, doi-doi ikusi ahal izan zituzten beste anarkistak kalea betetzen eta beren buruzagi eroria lurretik jasotzen.

— Ez dut ulertzen zergatik dagoen hain ilun —esan zuen Profesoreak halako batean, ahots apalez.

— Ekaitza dakar, nik uste —esan zuen Bull Doktoreak—. Tamala da, noski, argirik ez izatea auto honetan, bidea ikusteko ere.

— Badugu —esan zuen Koronelak, eta autoaren behegainetik burdina landuzko argiontzi astun, antigoaleko bat al-txatu zuen bistara, barruan argi bat zuena. Antzinakoa zen, bistan zenez, eta, antza, eginkizun erdi-erlijiozkoren baterako erabilia edo zen jatorriz, ezen bazuen gurutze baten moldura baldar bat alboetariko batean.

— Non arraiotatik inguratu duzu hori —galde-tu zuen Profesoreak.

— Autoa inguratu nuen leku beretik —erantzun zuen Koronelak, irri murritzez—, neure adis-kide hoberenaren eskutik. Honako gure lagun hau bolantearekin borrokan ari zen bitartean, etxe atarira lehiatu naiz eta Renard-ekin hitz

egin dut, hantxe bere lorioan geratua baita, oroi-tuko zaretenez. «Ez dago noski —esan diot— argiontzi bat lortzeko betarik.» Gora so egin du, adiskidekor klisk eginez bere eskaratzeko sabai-arku ederrera. Hantxe zegoen, burdin lan fin-finezko katea batzuetatik esekirik, argiontzi hau, altxor-etxe horretako ehundaka altxorretatik bat. Indarka erauzi dut argiontzia sabaiko bere lekutik, xafla pintatuak urratuz eta bi txarro urdin eraitsiz bere oldarrean. Gero burdinazko argiontzia eskura eman dit, eta nik autoan sartu dut. Ez al nenbilen zuzen, noiz eta esan baini-zuen merezi zuela noski Renard Doktorea ezagu-tzea?

— Zuzen zenbiltzan, bai —esan zuen Syme-k serio-serio, eta autoaren aurrealdean eseki zuen argiontzi astuna. Zeuden kinkaren alegoria moduko bat hauteman zitekeen automobil modernoaren eta halako argiontzi berezi, ekle-siastikoaren arteko kontrastean.

Ordura arte hiriko alderik bareenetatik iraganak ziren, eta ez zuten topatu pare bat oinezko baino, lekuaren bake ala etsaitasunaz berri txin-tik ere emateko gai ez zirenak. Orain, aldiz,

etxeetako leihoak banan-banan argiztatzeko hasiak ziren, giza-bizitza eta jendetasun sentsazio handiagoa emanez. Bull Doktoreak, ihesaldian gidari izan zuten detektibe berriarengantz jiratu, eta hain berezko zituen irribarre adiskidetsu haietako bat baimendu zion bere buruari.

— Argi horiekin animatuago sentitzen da bat. Ratcliffe Inspektoreak bekainaldea zimurtu zuen.

— Areago anima nazaketen argi bakarrak zerekoak dira —esan zuen—, hiria pasatu eta hortxe ageri diren polizia-postu horretakoak. Jainkoak ailiotsa hamar minutuan horra hel gaitzen.

Une hartan Bull-en zentzu on eta optimismo irakinak gainez egin zuen borborka.

— Burua galdu ote dugu, ordea! —egin zuen espantu—. Benetan pentsatzen baduzu jende arrunta etxe arruntetan anarkista dela, zerori zaude noski anarkista bat baino okerrago burutik. Oraintxe jiratu eta tipo horien kontra borrokan hasiko bagina, hiri osoa borrokatuko litzateke gure alde.

— Ez —esan zuen besteak sinpletasun kordokagaitzez—, haien alde borrokatuko litzateke hiri osoa. Ikusiko dugu.

Hala hizketan ari zirela, Profesorea aurretantz makurtu zen, tupusteko asalduz.

— Zer da hots hori? —esan zuen.

— Zera, atzetik datozkigun zaldiak noski —esan zuen Koronelak—. Atzean utziak genituela uste nuen.

— Atzetik datozkigun zaldiak! Ez —esan zuen Profesoreak—; ez da zaldi hotsa, eta ez dator atzetik.

Hitzok esan orduko, aurrean zuten kalearen muturrean barrena bi forma distira eta zarata jario iragan ziren fiuka bizian. Tximista-ziztuan aienatu ziren ia, baina denek ikusi ahal izan zuten automobilak zirela, eta Profesoreak, zurbil-zurbil, zin egin zuen Renard-en garajeko beste bi automobilak zirela.

— Harenak ziren, baiki —errepikatzen zuen, begiak aurpegitik irten beharrean—, eta gizon mozorrodunez beterik zihoazen!

— Baita zera ere! —esan zuen Koronelak, haserre—. Renard Doktoreak ez zizkien inolaz ere utziko bere autoak.

— Behartu egingo zuten, apika —esan zuen Ratcliffe-k bare-bare—. Hiri osoa dute beren alde.

— Oraindik horretan zaude? —galdetu zuen Koronelak, sinesgogor.

— Denok sinetsi beharko duzue aurki —esan zuen besteak, esperantzarik gabeko patxada etsiz.

Unetxo batez isilaldi lelotu bat nagusitu zen, eta gero Koronelak ekin zion berriro kolpetik:

— Ez, ezin dut sinetsi. Zentzugabekeria da hori. Frantses hiri baketsu bateko jende xehe...

Horretan etenda utzi behar izan zuen esaldia, tiro-hots bat entzun eta argi-sastada bat ikusi baitzuen, bere begien aurrean hantxe. Autoak, dena emanda, ke zurizko arrasto bat uzten zuen bere atzetik, eta Syme-k bala baten fiua entzuna zuen belarri ondoan.

— Jainko maitea —esan zuen Koronelak—, norbaitek tiro egin digu.

— Hori ez da aski arrazoi solasa bertan behera uzteko —esan zuen Ratcliffe goibelak—. Segi, otoi, esaten ari zinenarekin, Koronel. Frantses hiri baketsu bateko jende xehea zenuen, oker ez banago, mintzagai.

Koronela oso urruti zegoen ordurako satira gaizki hartzeko aldartetik. Begi txundituak kalearen zabalean ibili zituen.

— Harrigarria da —esan zuen—, oso ere harrigarria.

— Pertsona gogaikarri batek —esan zuen Syme-k— desatsegina ere deituko lioke noski. Nolanahi ere, pentsatzen dut kale hau pasatu eta horrako zelai horretan ikusten diren argiok Jendarmeriarenak direla. Berehala iritsiko gara.

— Ez —esan zuen Ratcliffe Inspektoreak—, ez gara inoiz iritsiko.

Zutik egona zen, bidean aurrera erne-erne begira. Orain, eseri, eta neke keinu batekin pasatu zuen eskua bere ile-adats leunetik txukun.

— Zer esan nahi duzu? —galdetu zuen Bull-ek zorrotz.

— Bada, ez garella sekula iritsiko —esan zuen pesimistak patxada osoan—. Dagoeneko bi lerro gizon armatu jarriak dituzte bidean trabeska; hemendik ikus ditzaket. Hiria armatan altxatua da, nik nioen bezala. Bete-beteen asmatu izana dut kontsolamendu bakar, ihalozka nadin bertan.

Eta autoko bere eserlekuan erosotu eta zigarro bat piztu zuen Ratcliffe-k; besteak, berriz, asaldaturik tentetu ziren, eta bidean aurrera josi begiak. Planak zalantzaz bete ahala, Syme-k autoaren abiada moteldua zuen, eta justu itsasora malda zorrotzean zihoan albo-karrika baten kantoian egin zuen azkenean gelditzera.

Hiria itzalpeak hartua zuen ia, baina eguzkia ez zen artean sartu; haren argi zapalak zirrikitu bat irekitzea lortzen zuen guneetan, urre kolore gar biziko batez tindatzen zen dena. Albo-karrika hartan gora, antzokiko argi artifizialezko izpi-sortak bezain zorrotz eta mehar distiratzten zuen ilunabarraren azken argiak. Bost lagunak autoa jo zuelarik, gurdi irazeki bat bezala piztu zuen. Kalearen gainerakoa, ordea, haren bi muturrak bereziki, ilunbistarik sakonenean zetzan, eta

segundo batzuez ezin izan zuten deus ikusi. Gero Syme-k, zeinaren begiak baitziren zorrotzenak, txistu mingots bat ahapetik egin, eta esan zuen:

— Egi-egia da. Jendalde bat edo gudaroste bat edo zerbait halakoa dago kale honen muturrean trabeska.

—Tira, halakorik bada —esan zuen Bull-ek, erretasunez—, beste zerbait behar du: jolasborroka bat edo alkatearen urtebetzea edo halakoren bat. Ezin dut eta ez dut nahi sinetsi hone-lako leku bateko jende xume, atsegina dinamita poltsikoetan dabilenik hor zehar. Segi aurrera-xeago, Syme, eta ikus dezagun zertan diren.

Autoak ehunen bat yarda egin zuen aurretantz narraska, eta gero denak zurturik geratu ziren, Bull Doktoreak barre-algara ozen bat jaulki baitzuen bat-batean.

— Hara, inozo ergelok! —egin zuen espan-tu— zer esaten nizuen nik? Behi bat bezain legera etorkor da jendalde hori; eta, hala ez balitz ere, alde dugu.

— Nola dakizu hori? —galdetu zuen Profeso-reak, harriturik.

— Saguzar itsu halakoa —egin zuen Bull-el espantu—, ez al duzu ikusten nor duten gidari.

Arreta handiz begiratu zuten berriro, eta Koronelak, korapilo bat ahotsean, oihu egin zuen:

— Hara! Renard da eta!

Izan ere, gizairudi lausozko lerro bat mugitzen zen bidean zehar, eta haiek ezin ziren garbi berezi, baina, arratsapaleko argiak inoizka jo zezan haiengandik aski aitzinaturik, kolean gora eta behera hantxe zebilen Renard Doktorea baino ezin izan zitekeena, kapelu zuriz, bizar nabar luzeari tiraka, ezker eskuan errebolber bat zeukala.

— Bai tentela ni! —egin zuen espantu Koronelak—. Jakina, jator ere jator baita morroia, laguntzera etorri behar azkenean.

Bull Doktoeari belarrietatik gainezka ateratzen zitzaion barre-txinparta, eta eskumakila bat balitz bezain arduragabe dantzatzen zuen ezpata. Autotik jauzi egin, eta tarteko espazioa zeharkatzeari ekin zion oldarrean, hoska:

— Renard Doktorea! Renard Doktorea!

Handik lipar batera, Syme-k pentsatu zuen burutik eginak ote zituen begiak. Ezen Renard Doktore filantropiko hark, bere errebolberra deliberratuki jaso, eta bi aldiz egin zion tiro Bull-i, zartaden durundia ozen hedatu baitzen kalean barrena.

Eztanda lazgarri hartatik ke-laino zurizko putzada irteten zen segundo berean ia, orobat irteten zen ke-laino zurizko putzada luze bat Ratcliffe zinikoarengandik. Gainerako guztiak bezala, zurbilduxe zegoen, baina irribarre egiten zuen hark. Bull Doktorea —zeinari zuzenduak baitziren balak, burularrua gutxigatik huts eginez— hantxe geratu zen bidearen erdian geldi-geldi, beldur arrastorik gabe; gero, astiro-astiro jiratu, lagunak utziak zituen lekura herrestan itzuli, eta auto-barrura sartu zen, kapeluan bi zulo zituela.

— Eta? —esan zuen zigarro-erretzaileak astiro—. Zer deritzozu orain?

— Zera deritzot —esan zuen Bull Doktoreak zehaztasunez—, Peabody Eraikinetako 217. zenbakian nagoela, ohean, eta aurki esnatuko naitzela jauzi batez; edo, hori ez bada, Hanwell-eko zoroetxeko gelaxka koltxoiztatu batean nagoela,

eta doktoreak ez duela zer egin handirik nire kasuarekin. Aitzitik, jakin nahi baduzu zer ez deritzodan, hori ere esango dizut. Ez deritzot zuk deritzozuna. Ez deritzot, eta sekula ere ez diot iritziko, gizon arrunten masa, zera, pentsalari moderno satsuz osaturiko koadrila halako bat denik. Ez, jauna; demokrata naiz, eta oraindik ez dut sinesten Igandek berera bihur dezakeenik etxegintzako behargin edo dendamutil batez bestekoa. Ez, ni burutik egina egon ninteke, baina gizadia ez.

Eskuarki erakusten ez zuen seriotasun batez jiratu zituen Syme-k bere begi urdin distiratsuak Bull-engana.

— Jatorra zara oso —esan zuen—. Zurea soilik ez den buru-osasun batean sinesteko gai zara. Eta zuzen asko zabilta gizadiatz, nekazariez eta ostatulari zahar atsegin hura bezalako jendeaz. Ez, ordea, Renard-i dagokionez. Hasieratik hartu nion susmoa. Razionalista da, eta, okerrago dena, aberatsa. Eginbidea eta erlijioa zinez suntsitzekotan, aberatsek suntsituko dituzte.

— Zinez suntsituta daude dagoeneko —esan zuen zigarrodun gizonak, eta eskuak poltsikoan zutitu zen—. Hor datoz deabruak!

Automobileko gizonak larri so egin zuten haren begiratu ameskararen norabidean, eta han ikusi zuten kale muturreko gudari-talde guztia beren gainera etortzen, Renard Doktorea aitzindari sutsu, bizarra haize leunean hegan.

Koronela erretasun-espantu zakar ozenez jauzi zen autotik.

— Jaunak —zioen—, hau sinestezina da. Txantxa arrunt bat izan behar du noski. Nik bezala ezagutuko bazenute Renard... zera, Victoria Erreginari dinamitari esatea bezala da hori. Burua galdua behar du batek pentsatzeko halako gizona...

— Bull Doktoreak —esan zuen Syme-k sardotnikoki—, kapelua bederen ondo galdua du dagoeneko.

— Ezetz, bada, ezinezkoa dela! —egin zuen espantu Koronelak, zorua ostikoz jorik—. Azalpen bat emango du Renard-ek. Azalpen bat emango dit, bai horixe —eta aurrera ekin zion oldarrean.

— Ez izan halako presarik —ebaki zuen, nagi, erretzaileak—. Berehala emango digu guztioi azalpena.

Koronel erretxindua, ordea, entzunbidetik kanpo zen ordurako, aurrera eginez zetorren arerioarenganantz aurrera eginez. Renard Doktore buru-berotuak pistola jaso zuen ostera, baina, bere aurkaria nor zen hautemanik, zalan-tzan geratu zen, eta hala Koronela harekin buruz buru zegoen aurki, espantu biziko kargu-hartze keinuak eginez.

— Alferrik da —esan zuen Syme-k—. Ez du ezer garbirik aterako fedegaldu horrekin hitz eginez. Zera proposatzen dut: autoa ziztuan jarri abian, eta jo eta erditik pasatzea, balak Bull-en kapelua pasatu diren bezala. Denak hilko gaituzte beharbada gu, baina beretako mordo eder bat eramango dugu aurretik.

— Ezta pentsa'u 're —esan zuen Bull Dokto-reak, bere bertutearen zintzoak mintzamoldea arruntagoturik—. Gizajoak erratuta egotea bali-teke. Eman aukera bat Koronelari.

— Atzera egingo dugu, hortaz? —galdetu zuen Profesoreak.

— Ez —esan zuen Ratcliffe-ek ahots hotzez—, gure atzeko kalea ere harturik dago. Oker ez banago, zure beste lagun zahar bat ikusi dut hor, Syme.

Syme-k, bizkor arraio jiratu, eta ibilia zuten bidean atzerantz begiratu zuen. Zaldizko oste irregular bat ikusi zuen bil-bil egiten eta berenganantz arrapaladan jausten. Zaldi-zelarik aurretuenaren gainean ezpata baten zilar dirdira ikusi zuen, eta orobat, hura hurbildu ahala, agure baten adatsaren zilar dirdira. Bet-betan, ikaragarri zakar, bertan jirarazi autoa, eta itsasora txorrotxean zihoan karrikan behera abiarazi zuen oldarrean, hiltzea beste desirarik ez lukeen gizon baten gisa.

— Zer demonio gertatzen da orain? —egin zuen espantu Profesoreak, besotik heldurik.

— Goizeko izarra erori da! —esan zuen Syme-k, berak gidatzen zuen autoa ere izar loka bat bezala iluntasunean amiltzen zelarik.

Besteek ez zituzten ulertu haren hitzak, baina, kalean gora atzera begiratu zutenean, han ikusi zuten etsaien zalditeria, kale kantoian jiratu, eta maldan behera beren atzetik jausten;

eta denen aurretik ostatulari jatorra zetorren, arratsapaleko argiaren xalotasun ankerrak aurpegia gorriturik.

— Mundua burutik eginda dago! —esan zuen Profesoreak, eta eskuen artean hondoratu zuen burua.

— Ez —esan zuen Bull Doktoreak, umiltasun eragozgaitzez—, ni nago burutik.

— Zer egingo dugu? —galdetu zuen Profesoreak.

— Une honetan —esan zuen Symek, bihotz-hoztasun zientifikoz— uste dut jo eta zapart egi-tera goazela farola baten kontra.

Hurrengo liparrean, autoa pott egina zen, burdinazko zer baten kontra jota. Hurrenagoan, lau gizonak metalezko kaos baten azpitik irten ziren narraska, eta itsasaldeko ibilbidearen ertzeko farola luze argal bat han zetzan orain, oker-bihurriturik, zuhaitz moztu baten adarra bezala.

— Jo eta zapartatu egin dugu, beraz, zerbait —esan zuen Profesoreak, irribarre murritzez—. Kontsolagarri da.

— Anarkista bihurtzen ari zara —esan zuen Syme-k, txukuntasunerako sen berezkoz jantzie-tako hautsa kenduz.

— Denak ere —esan zuen Ratcliffe-k.

Hala mintzo ziren bitartean, zaldizko bizar-zuria eta haren jarraitzaileak trumoika zetozen han goitik, eta ia une berean gizon ilara ilun batek lasterka ekin zion itsas hegian zehar, deia-darka. Syme-ek ezpata bati eskua erantsi eta hortzetan kokatu zuen; beste bi besapeetan ezarri, laugarren bat ezker eskuan hartu eta eskui-nean argiontzia, eta ibilbide garaitik han beheko hondartzara egin zuen jauzi.

Besteek ere jauzi egin zuten atzetik, bueltarik ez zuen ekintza hura aho batez onetsiz horrenbestez, han goian utziz auto-hondakinak eta hara biltzen ari zen jendaldea.

— Beste aukera bat geratzen zaigu —esan zuen Syme-k, altzairua ahotik kendurik—. Zernahi ere den pandemonium hau guztia, pentsatzen dut Jendarmeriak laguntza emango digula. Ezin gara gu hara heldu, bidea ixten digute eta. Baina bada hortxe itsasoan barneratzen den moilarri edo uhin-haustarri halako bat, beste

ezer baino luzaroago defendatu dezakeguna, Horaziok bere zubi hura bezala. Jendarmeak agertu arte defendatu behar dugu. Segi nire atzetik.

Hondartzan barrena han abiatu ziren, bada, Syme-ren atzetik kriski-kraska, eta segundo batzuen buruan botek ez zuten gehiago itsas legarra zapaltzen, harri zabal, lauak baino. Adar bakarrean itsaso lauso irakinean barneratzen zen kaimihi luze eta behe batean barrena ekin zioten ilaran, eta haren amaierara iritsi zirenean, beren historiaren amaierara iritsiak zirela sentitu zuten. Bertan jiratu, eta hiriari aurrez aurre jarri ziren.

Antzaldaturik zegoen hiria, istilu huts. Jaitsi berriak zireneko ibilbide garai guztian zehar, jendezko korrante ilun orrokari bat ari zen, besoei eraginez, aurpegiak suturik, berak zeuden alde-rantz mehatxu-imintzioka. Lerro luze ilunean zuziak eta argiontzia ageri ziren han-hemenka; baina are ezin su-argik aurpegi haserre bat argizatzen ez zuenean, gizairudirik urrunenean ere ageri zen, keinurik itzaltzuenean ere, halako gorroto antolatu bat. Garbi zegoen gizon guztien

etsai madarikatu bilakatuak zirela, eta ez zekiten zergatik.

Bizpahiru gizon, tximinoak bezalako txiki eta beltz irudi, bide-ertzaren gainetik hondartzara jauzi egin zuten, lehenago berek bezala. Hondar sakona urratuz egin zuten aurrera, orroa ikaragarriak eginez, eta uretara sartu ziren itsumustuan. Haien eredura, gizon masa beltz osoa hasi zen handik gainetik azukre-zukua bezala parrastan isurtzen.

Hondartzaratu ziren gizonen artetik aurrera-tuenik, bera eta lagunak organ eraman zituen nekazaria ikusi zuen Syme-k. Zalgurditzar batean uretara plaust sartu, eta aizkora astinduz mehatxu egin zien.

— Nekazaria! —egin zuen espantu Syme-k—. Ez dira matxinatu Erdi Arotik hona.

— Polizia etorrira ere —esan zuen Profeso-reak itunki—, ez dauka ezer egiterik jendalde horrekin.

— Txorakeriak! —esan zuen Bull-ek etsi-etsian—; izango da oraindik ere hirian jenderik gizaki izena merezi duenik.

— Ez —esan zuen Inspektore esperantzaga-beak—, gizakia aurki desagertuko da mundutik. Gu gara gizadiaren azkena.

— Baliteke —esan zuen Profesoreak, bere gogoetan galdurik. Eta gero, bere ahots ameskaraz—: Nola da zer hura, *Dunciad* poemaren amaierako zera?

«Ez su publikori, ez pribaturi
Dario gizakiz jainkozko argi!
Hor hire erreinu gaitza, Kaos, zut;
Hire hitz galgarriz argia hil duk:
Antzes-oihala duk, Anarka, ixten;
Ilunbe osoak oro du hartzen.»

— Geldi! —egin zuen oihu Bullek tupustean—, jendarmeak irteten ari dira.

Izan ere, polizia-postuko argi apalek gizairudi presatu batzuk han-hemenka ezabatu eta haus-tan zituzten, eta zalditeria diziplinatu baten klas-ka eta txintxin hotsa entzuten zen iluntasunean.

— Jendalderen aurka kargatzen ari dira! —egin zuen oihu Bull-ek, larrialdizko estasian.

— Ez —esan zuen Syme-k—, ibilbidean zehar lerrokatuak daude.

— Karabinak eskuetaratu dituzte —egin zuen oihu Bull-ek, zirraraz dantzan.

— Bai —esan zuen Ratcliffe-k—, eta gure kontra su egitekotan dira.

Hitz horiekin, zizpa-desarraldi luze bat entzun zen, eta beren aurreko harrietan balek kazkabarra bezala kinki-kanka jotzen zutela zirudien.

— Jendarmeeak berekin bat egiten dute! —egin zuen espantu Profesoreak, bekokia joz.

— Gela koltxoiztatu batean nago —esan zuen Bull-ek, soraio.

Isilaldi luze bat gertatu zen, eta gero Ratcliffe-k, guztia gris-purpura halako batez jantzia zen itsaso harrotuaren gainetik begirada luzatuz:

— Zer axola dio nor dagoen eroturik eta nor ez? Denok hilik egongo gara aurki.

Syme-k, harengana jiratu, eta esan zuen:

— Batere esperantzarik ez duzu, hortaz?

Ratcliffe jaunak harria bezalako isil eutsi zion une batez; gero, azkenean, bare-bare esan zuen:

— Ez; harrigarria bada ere, ez dut oraindik itxaropen guztia galdu. Bada halako esperantza-

txo zoro bat burutik kendu ezin dudana. Planeta oso honen botere guztia aurka dugu, baina, hala ere, ezin diot utzi ezbaian jartzeari esperantza txiki zozo hori esperantzarik gabea ote den halaz guztiz.

— Zertan edo norengan duzu zeure esperantza hori? —galdetu zuen Syme-ek, jakinminez.

— Sekula ikusi ez dudan gizon batengan —esan zuen besteak, berunezko itsasoari begira.

— Badakit nortaz ari zaren —esan zuen Syme-k, ahots apalez—: gela iluneko gizona. Baina Igandek hil egingo zuen honezkero.

— Beharbada —esan zuen besteak irmo—; hala balitz ere, ordea, Iganderi hiltzen zail gertatuko zitzaion gizon bakarra da hura.

— Entzun dut zuen autua —esan zuen Professoreak, bizkarra jiraturik—. Nik ere gogor eusten diot sekula ikusi ez dudan zerbaiten esperantzari.

Tupustean, Syme-k, itsu gisa barne-gogoetan murgildurik egona, brau jiratu, eta oihuka ekin zion, lotatik esnatzen denaren gisa:

— Non da Koronela? Gurekin zela uste nuen!

— Koronela! Egia da —esan zuen Bull-ek—, non arraio sartu da Koronela?

— Renard-ekin mintzatzera joan da —esan zuen Profesoreak.

— Ezin dugu utzi piztia horien erdian —asal-
datu zen Sy- me—. Gizalegeari duin zaion
moduan hil gaitezela, baldin...

— Ez errukitu Koronelaz —esan zuen Ratclif-
fe-k, destaina-keinu margul batez—. Ederki dago
hura. Zera...

— Ez! ez! ez! —egin zuen oihu Syme-k, frene-
si gisako batek harturik—, Koronela ere bai, ez
eta ez! Sekula ez dut sinetsiko hori!

— Zeure begiei sinetsiko al diezu? —galdetu
zuen besteak, eta hondartzara seinalatu zuen.

Beren jarzarleatariko asko uretara oldartuak
ziren, ukabilak mehatxuka astinduz, baina itsa-
soa zakar zegoen, eta ezin zuten kaimingaina
erdietsi. Bizpahiru gizairudi, hala ere, harrizko
oinbidearen hasieran hantxe ziren, eta kontu
handiz hartan barneratzen ari zirela zirudien.
Argi batek, halabeharrez, aurreratuen zihoazen
bien aurpegiak nabarmendu zituen halako
batean. Haietako batek mozorro-erdi beltz bat

zeraman, eta haren azpian ahoa halako nerbiozorotasunez kizkurtzen zen, non bizar xerlo beltza hara eta hona bihurrikatzen baitzen, gauza bizi, egonezin bat bezala. Bestea, berriz, Ducroix Koronelaren aurpegi gorri eta bibote zuria zen. Eztabaida-saio serio-serioan ziharduten.

— Bai, Koronela ere kito —esan zuen Profeso-reak, eta harri baten gainean eseri zen—. Kito dena. Kito ni! Ezin naiz fidatu neure gorputz-makinariaz ere. Neure eskuak, berez altxatu, eta zapla joko banindu ere, ez nintzateke harrituko oraintxe.

— Nire eskua altxatzen denean —esan zuen Syme-k—, beste norbait jotzeko izango da —eta kaimingainean barrena ekin zion, Koronela zegoen alderantz, ezpata esku batean eta argiontzia bestean.

Azken esperantza nahiz duda suntsitzeko bezala, Koronelak, Syme hala zetorrela ikusirik, errebolberraz apuntatu eta su egin zuen. Tiroak ez zuen jo Syme, baina bai haren ezpata betebetean, eta girtenetik hurbil moztu zuen. Syme-ek oldarrean ekin zion aurrera, eta burdinazko argiontzia kulunkarazi zuen buru gainetik.

— Judas Herodesen aurrean! —esan zuen, eta jo eta harrien gainera lurreratu zuen Koronela. Gero Idazkariarengana jiratu zen, zeinaren ahoa bitsa dariola ageri baitzen orain ia, eta hain jestu zurrun eta zurgarriz zeukan argiontzia gora jasorik Syme-k, ezen gizona, hala esaterik bada-go, hantxe hormaturik geratu baitzen une batez, eta entzutera beharturik.

— Ikusten duzu argiontzi hau? —egin zion oihu Syme-k, ahots ikaragarritz—. Ikusten duzu grabaturik daukan gurutzea, eta barruko sugarra? Ez da zuk egina. Ez da zuk piztua. Zu baino gizon hobeak ziren, sinetsi eta men egiteko gai diren gizonak, burdinaren erraiak kizkurtu eta suaren elezaharra iraunarazteko gai diren gizonak. Ez da zuk ibiltzen duzun kalerik, ez da zuk janzten duzun haririk, argiontzi hau bezala egina ez denik, zure filosofia ustelkeriaz eta arratoikeriaz bete hori ukatuz. Zuk ezin duzu ezer egin. Suntsitu bakarrik egin dezakezu. Gizadia suntsituko duzu; mundua suntsituko duzu. Aski izango ahal zaizu hori. Halaz guztiz, honako kristau-argiontzi zahar hauxe ez duzu, ez, suntsituko.

Zuen tximino-inperioa sekula aurkitzeko trebe eta gai izango ez den lekura joango da hau.

Kolpe bat eman zion Idazkariari burdinazko ontziaz, hura kordokarazirik; gero, bi bira emanarazirik buruaren jiran, itsasoan barrena urrun jaurti zuen airean, eta han argiontziak, suziri orrokari bat bezala une batez gar bizitu, eta hondora egin zuen.

— Ezpatak! —egin zuen deiadar Syme-k, aurpegi gartsua atzeko hirurengana jiraturik—. Karga dezagun txakur horien aurka, heldu baitzaigu heriotzaren tenorea.

Hiru lagunak atzetik segitu zioten, ezpata eskuan. Syme-ren ezpata hautsirik zegoen, baina taket bat eskuratu zuen arrantzale baten ukabletik, gizona airean botarik. Laster jendaldearen kontra muturrez mutur jo, eta bertan akabatuko ziren noski, baldin zerbaitek bertan behera utzi ez balu gauza. Idazkaria, Syme hala mintzatu zenetik, eskuak bere buru kolpatuaren kontra egona zen, jota irudi; gero bat-batean bere mozorro beltza kendu zuen.

Agiontzien argitara azaleratu zen aurpegi zurbilak, amorrua bainoago, txundidura erakusten zuen. Autoritare artegaz jaso zuen eskua.

— Errakuntzaren bat dago —esan zuen—. Syme Jauna, apenas uste dudan zeure posizioa ulertzen duzunik. Legearen izenean atxilotzen zaitut.

— Legearen izenean? —esan zuen Syme-k, eta erortzen utzi zuen makila.

— Noski! —esan zuen Idazkariak—. Scotland Yard-eko detektibe naiz—. Eta txarteltxo urdin bat atera zuen poltsikotik.

— Eta zer uste duzu garela gu? —galdetu zuen Profesoreak, besoak gora jatorik.

— Zuek —esan zuen Idazkariak larriki—, nik ondo ere ondo dakidanez, Anarkisten Biltzar Goreneko kideak zarete. Zuen arteko baten gisa mozorroturik, nik...

Bull Doktoreak itsasora bota zuen ezpata.

— Sekula ez da izan Anarkisten Biltzar Gorenik —esan zuen—. Polizia koadrila ergel bat baino ez ginen, bata bestearen atzetik genbiltzana. Eta tiroka frejitu nahi gintuen jende jator horrek guztiak zera uste zuen noski, dinamita-

riak ginela, alegia. Banekien nik ezin nintzela oker egon jendalde horretaz —esan zuen, han behean alde bietara urrutiraino hedatzen zen jendetza ikaragarriari iribarrez so, poz-pozik—. Jende arrunta ez dago inoiz eroturik. Ni neu ere arrunta naiz, eta badakit hori. Banoa lehorrera, trago batera gonbidatzera mundu guztia.

13. KAPITULUA

Lehendakariaren atzetik

Hurrengo goizean, bost lagun aztoratu baina irritsuk Dover-erako ontzia hartu zuten. Koronel gaixoak bazukeen kexatzeko arrazoirik, existitzen ez ziren bi alderdiren alde borrokatzera behartua aurrena, eta gero, berriz, burdinazko argiontzi batez jo eta eraitsia. Baina eskola zaharreko jaunguren guztiz bihotz-zabala zen, eta, lasaitu ederra harturik ezein alderdik ez zuelako zerikusirik dinamitarekin, atsegintasun handiz egin zien agurra kaian.

Bost detektibe adiskidetuek mila xehetasun zeukaten elkarri azaltzeko. Idazkariak kontatu behar izan zion Syme-ri nola ustezko etsaiengana konspirazio-kide gisa hurbiltzeko xedez jantziak zituzten hasieran mozorroak; Syme-k, berriz, nola ihes egin zuten halako arin herrialde zibilizatu batean zehar. Baina esplika zitezkeen ñabardura horien guztien gainera, esplikatzen asmatzen ez zuten kontuaren mendi erdiz erdi-

koa nagusitzen zen. Zer esan nahi zuen hark guztiak? Polizia arriskugabe batzuk baino ez baziren guztiak, zer zen Igande? Mundua esku-peratu ez bazuen, zer arraiotan ibilia zen? Ratcliffe Inspektoreak kezka goibel zirauen.

— Ez diot zuek baino buru-hanka gehiagorik aurkitzen gure Igande zaharraren joko-mokoari —esan zuen—. Baina, dena dela ere Igande, ez da errurik gabeko hiritar prestua. Arraioa! Gogorutzen haren aurpegia?

— Zinez diotsut —erantzun zuen Syme-k— ez naizela inoiz gauza izan hura ahazteko.

— Tira —esan zuen Idazkariak—, aurki jakingo dugu, bihar baitugu hurrengo biltzar osoa. Barkatuko didazue —esan zuen, irribarre zurbil lazgarri samar batez— neure idazkari-eginbeharrerekiko hain jarria egotea.

— Zuzen zabilta noski —esan zuen Profeso-reak, gogoetatsu—. Apika harengandik jakingo dugu; baina aitortu behar dut ikara apur bat emango lidakeela Iganderi benetan nor den galdetzeak.

— Zergatik —galdetu zuen Idazkariak—; bon-bengatik?

— Ez —esan zuen Profesoreak—, galderari erantzungo dion beldurrez.

— Trago bat jo dezagun —esan zuen Bull Doktoreak, isilune baten ondoren.

Ontzi eta trenezko bidaialdi guztian biziki animaturik egonak ziren, baina, oharkabeko senez, taldean elkarrekin beti ere. Bull Doktoreak, zeina taldeko optimista izana baitzen beti, ahalegina egin zuen beste laurak bairatzeko gurgil-biko batean joan zitezkeela guztiak Victoria geltokitik; baina ez zen onartu proposamena, eta laugurgileko batean joan ziren, Bull Doktorea gida-aulkian, kantari. Piccadily Circus-eko hotel batean jaitsi ziren, hala hurrengo goizean Leicester Square-n izango zen gosari goiztiarretik hurbil egoteko. Haatik, artean ere ez ziren guztiz amaituak eguneko abenturak. Bull Doktorea, ohera joateko proposamen orokorraz kexu, hoteletik osteratxo bat egitera irtena zen hamaikak aldera, Londresko edertasunetariko zenbait ikusi eta dastatzeko asmoz. Handik hogeita minutura, hala ere, bueltan zen, harrabots ez nolana hiko ateraz ezkaratzean. Syme hasieran hura ematen saiatu zen, baina azkenerako haren esan

beharra zinezko arreta biziz entzun beste erre-
mediorik ez zuen izan.

— Benetan, ikusi egin dut —zioen Bull Dokto-
reak, enfasi gotorrez.

— Nor? —galdetu zion Syme-k bizkor—.
Lehendakaria ez, ala?

— Ez da horrenbesteraingoa izan —esan
zuen Bull Doktoreak, kontura ez zetorren barre-
algara batez—, ez da horrenbesteraingoa izan.
Hementxe atzeman dut.

— Hementxe atzeman nor? —galdetu zuen
Syme-k egonezinez.

— Gizon iletsua nola? —esan zuen besteak
argiro—, gizon iletsua izan zen gizona, zera,
Gogol. Hona hemen —eta gogoz kontrako ukon-
do batetik bultzatu zuen aurrera bost egun lehe-
nago ile gorri argalez eta aurpegi zurbilez Biltza-
rra utzi behar izan zuen gaztea, denborarekin
agerian utzitako sasi-anarkista guztietatik lehe-
na.

— Zergatik arduratzen zarete nitaz? —egin
zuen espantu—. Espioi gisa bota ninduzuen zuen
artetik.

— Denok gara espioi! —egin zuen hasperen Syme-k.

— Denok gara espioi! —egin zuen deiadar Bull Doktoreak—. Zatoz trago bat egitera.

Hurrengo goizean, ostera elkaturiko sei lagunen gudu-taldeak irmo ekin zion Leicester Square-ko hotelerantz martxan.

— Hau askoz hobeto dago —esan zuen Bull Doktoreak—; sei gizon gara, bati zertan ari den galdetzera doazenak.

— Uste dut hori baino bitxiagoa dela kontua —esan zuen Syme-k—. Zera, sei gizon, bati, berak zertan ari diren galdetzera doazenak.

Isiltasunean hartu zuten Square-rako kantoia, eta, hotela kontrako izkinan zegoen arren, liparrean ikusi zuten balkoi koxkorra eta haren-tzat handiegia zirudien gizairudi bat. Burua makurturik eserita zegoen, bakarrik, egunkari bat arretaz irakurtzen. Baina haren biltzarkide guztiek, hura agintetik botatzeko etorriak, zerutik ehun begi begira baleuzkate bezala zeharkatu zuten enparantza.

Luze eztabaidatu zuten hartu beharreko jokabideaz, ea Gogol mozorrogabea kanpoan utzi eta

diplomatikoki hastea komeni zen, ala hobe zen hura eramatea eta sutauts guztia leherraraztea behingoan. Syme eta Bull-en itzalak erabaki zuen kontua bigarren aukeraren aldera, nahiz Idazkariak azkeneraino itaundu zergatik erasotzen zioten Iganderi hain zuhurgabeko oldarrean.

— Nire arrazoia oso sinplea da —esan zuen Syme-k—. Beraren beldur naizelako erasotzen diot zuhurgabeki.

Isilik jarraitu zioten Syme-ri eskailera ilunean gora, eta gero aldi berean egin zuten topo kanpoko eguzki-argi zabalarekin eta Iganderen irribarrearen egun-argi goizarena bezain zabal harekin.

— Hau ederraren ederra! —esan zuen—. Atsegin zait oso zuek guztiok ikustea. Bai egun bikaina gaurkoa. Hil da Tsarra?

Idazkaria, zeina aurre-lerroan gertatu baitzen, agerpen duin baterako antolatu zuen bere burua.

— Ez, jauna —esan zuen, zorrotz— ez da sarraskirik gertatu. Ez dakarkizut halako ezein ikuskari nardagarriren berririk.

— Ikuskari nardagarri? —errepikatu zuen Lehendakariak, irribarre distiratsu, galdekari batez—. Bull Doktoarearen betaurrekoez ari al zara?

Idazkaria trabatu egin zen une batez, eta Lehendakariak kargu-hartze leun halako batez ekin zion aurrera:

— Jakina, guztiok ditugu geure iritziak eta are geure begiak, baina horrela gizonaren aurrean beraren betaurrekoei nardagarri deitzea, egia esan...

Bull Doktoreak, betaurrekoak kendu, eta mahai gainean hautsi zituen.

— Nire betaurrekoak ondra beltzekoak dira —esan zuen—, baina ni ez. Begiratu aurpegira.

— Bakoitzari berea hazten zaio, agi danean —esan zuen Lehendakariak—. Eta zuri, hain zuzen, duzun horixe tokatu zaizu; eta nor naiz ni Bizitzaren Arbolako fruituei aitzakia jartzeko? Agi danean, neuri haziko zait egunen batean halakoa.

— Ez dugu astirik tontakeriatarako —esan zuen Idazkariak, basakiro mozturik—. Zer honek guztiak zer esan nahi duen jakiteko etorri gara.

Nor zara zu? Zer zara zu? Zergatik bildu gaituzu gu guztiok hemen? Badakizu nor eta zer garen gu? Konspiratzailearena egiten duen buru-eskas bat zaitugu, ala zoroarena egiten duen tipo argi bat? Erantzun iezadazu oraintxe.

— Hautagaiei —murmurikatu zuen Igandek— papereko hamazazpi galderetatik zortzi erantzuteko baino ez zaie eskatzen. Garbi atera ahal izan dezakedanetik, nik zera esatea nahi duzu, nor naizen ni, eta nor zareten zuek, eta zer den mahai hau, eta zer den Biltzar hau, eta zer den mundu hau ere bai noski. Tira, misterio horietako baten estalkia kentzeko lana hartuko dut oraingoz. Interesatzen bazaizue, zera zarete zuek: intentzio onez beteriko asto gazte aldra bat.

— Eta zu —esan zuen Syme-k, aurrerantz makurturik— zer zara zu?

— Ni? Zer naizen ni? —egin zuen orro Lehen-dakariak, eta garaiera sinestezin bateraino altxatu zen astiro, beren gainean arku bat eginez gainera erortzekotan legokeen olatutzar bat bezala—. Zer naizen jakin nahi duzue, ezta? Bull, zu zientzia-gizona zara. Aztarrika egizu zuhaitz

horien sustraietan eta aurkitu aurkitu beharreko egia sakona. Syme, zu poeta zara. So egin arretaz goizeko laino horiei. Gauza bat eduki ezazue garbi, hala ere, alegia azken zuhaitzaren eta goreneko lainoaren egia lehenago aurkituko duzuela nirea baino. Itsasoa ulertuko duzue, eta nik asmakizun bat izaten segituko dut; jakingo duzue zer diren izarrak, eta ez duzue jakingo zer naizen ni. Munduaren hasieratik gizon guztiek otso bat bezala esetsi didate: errege eta jakintziek, poeta eta lege-emaileek, eliza guztiek eta filosofo guztiek. Baina sekula ez naute oraindik atzeman, eta ortzia eroriko da ni haien esku gertatu orduko. Garesti saldu dut beti neure larrua, eta orain ere bai.

Beretako inori mugitzeko betarik eman gabe, gizon munstrotzarra jauzika esekia zen balkoia-
ren kareletik kanpora, orangutan erraldoi bat bezala. Bere burua erortzen utzi aurretik, ordea, ostera gora egin zuen pultsuan, barra horizontal batean bezala, eta, bere kokots itzela balkoi ertzaren gainetik aurreraturik, hotsandiro esan zuen:

— Gauza bat badut zuei esateko, haatik, neure nortasunaz. Gela iluneko gizona nauzue, zuek guztiok polizia egin zintuztena.

Hitz horiekin, balkoitik amildu zen, gomazko pilota bat bezala bote eginez han beheko harrien gainean, eta zinki-zanka joan zen Alhambra-ren izkinarantz; han gurpil biko kotxe bat alokatu zuen, eta haren barrura salto egin. Sei detektibeak tximistak jota bezala zurturik eta iheslearen azken baieztapenaren argitan zurbil geratuak ziren; hura kotxe barrura desagertu zenean, ordea, Syme-ri praktikotasunerako sena itzuli zitzaion, eta, ia bernezurrak hausterainoko burugabetasunez jauzi eginik balkoitik behera, beste kotxe bati hots egin zion.

Bera eta Bull batera igo ziren kotxera, Profesorea eta Inspektorea beste batera, eta Idazkariak eta Gogol ohiak, berriz, justu-justu izan zuten beta hirugarren bat harrapatu eta Syme-ren atzetik segika joateko, hura Lehendakari ziztukariaren atzetik ziztuan zihoala. Igandek ipar-mendebaleranzko jazarpen-lasterketa zoro batean zeramatzan, kotxezainak, normala baino akuilu zorrotzago baten eraginpean nabarmen,

muturrak hausteko moduko abiada bizian lehiazten zuelarik zaldia. Syme ez zegoen, ordea, mizkeriatarako aldarlean, eta bere kotxean zutitu, eta deiadarka ekin zion —«Hel lapurrari!»—, harik eta jendetza kotxearen ingurura oldartu eta poliziak hara korrika zihoazenei itaunka hasi ziren arte. Horrek guztiak bere eragina izan zuen Lehendakariaren kotxezainarengan, zalantzan zegoela baitzirudien, eta abiada trostaraino moteldua baitzuen. Sabai-leihoa ireki zuen, bere bezeroarekin zentzuzko akordio batera iristeko asmoz, eta hartarako kotxearen aurrealdean bertan behera utzi zuen zigor luzea. Igandek, aurrerantz makurtu, zigorrari heldu, eta bortizki erauzi zuen gizonaren eskutik. Gero, kotxearen aurrealdean zutik bera, zaldia zigorraz zehatzen hasi zen, orroka, halako moldez non ihortziria baino arinago oldartu baitziren karraketan barrena. Kalez kale eta enparantzaz enparantza hala zihoan, bada, zirimola biziz, ibilgailu xelebrea, zeinean bezeroak zaldia akuilatzen baitzuen eta gidaria, berriz, ahalegin guztian saiatzen baitzen geldiarazten. Beste hiru kotxeak (hala esatea zilegi bada kotxeen kasuan) ehiza-zakur arnasla-

rritu batzuen gisa zetozen haren atzetik. Dendak eta kaleak zizti-zazta pasatzen ziren paretik, gezien ziztuan.

Abiaduraren heriosuharreanean, Igande-k, zutiturik zihoaneko gida-lekuan jiratu, eta, bere burutzar irri-mirritsua kotxetik aterarik, ile zuria haizean kulunkari, aurpegi izueragile bat jarri zien bere jazarleei, mutiko maltzur-bihurri esker-ga bat irudi. Gero, arin-arin eskuin eskua jasorik, Syme-ren aurpegira paper bola bat jaurti, eta ostera bistatik gorde zen. Syme-k zer hari heldu zion, sen hutsez eskua jarririk babes modura, eta bi paper zimurtuz osatua zela aurkitu zuen. Bat berari zuzendua zen, eta bestea, berriz, Bull Doktoareari, eta letra ilara luze eta, agi danean, aldez ironiko bat zekarren haren izenaren ondoren. Bull Doktoarearen helbidea, nolana ere, ondotxo luzeagoa zen harentzako mandatua baino, zeren mezua hitz doi hauez osatua baitzen:

Zertan da Martin Tupper-en kontua *orain?*

— Zer esan nahi du gure maniako zaharrak?
—galdetu zuen Bull-ek, hitzei begira leloturik—.
Zer dio zureak, Syme?

Syme-ren mezua, nolana ere, luzeagoa zen, eta honela zioen:

«Inork ez luke deitoratuko Artxidiakonoaren interferentzia bat edo estilo horretako zerbait nik baino gehiago. Esperantza dut ez dela kontua horretaraino helduko. Baina, azkeneko aldiz, non dira zure eskalaproiak? Gauzak gaizki jarri dira, batez ere osabak esan duena esan ondoren.»

Lehendakariaren kotxezainak kontrol apur bat berreskuratua bide zuen bere zaldiaren gain, eta, Edgware Road-era sartzeko jiratu zutenean, jarraitzaileek zertxobait murriztua zuten aldea. Han, berriz, aliatuei gelditze probidentzial bat iruditu zitzaiena gertatu zen. Era guztietako trafikoa eskuin zein ezker bazterreratzen zen edo gelditzen, zeren, kale luzean barrena, suhiltzaileen etorrera iragartzen duen orro nahastezin hori entzuten baitzen, eta gero berehala kotxea bera agertu baitzen, brontzezko halako oldar txi-

mista-irudi batean. Tximistak tximist, Igande-k, bere kotxetik jauzi egin, suhiltzaileenaren pare-raino heldu, eta, handik bere burua eskegirik, igotzea lortu zuen, eta han ikusi zuten urrunta-sun zaratatsuan desagertzen, suhiltzaile txundituari azalpen-imintzioak eginez.

— Segi atzetik! —ulukatu zuen Syme-k—. Orain ezin zaigu bistatik ostendu. Suhiltzaile-kotxe bat ez dago ezerekin nahasterik.

Hiru kotxezainak, zeinak une batez jota geratuak baitziren, beren zaldien gainean zigorra dantzatu, eta apur bat murriztu zuten beren eta han bistatik galdu nahi zitzaien harrapagaiaren arteko aldea. Lehendakariak modu bitxiz egin zuen hurbiltasun horren aitorten formala, kotxearen atzealdera etorri, eta han ekin baitzion erreberentzia sarriak egiten, bere eskuari muin egiten, eta azkenean Ratcliffe Inspektorearen bularrean jo zuen ohar txukun tolestu bat airean jaurtitzen. Jaun hark hura ireki zuenean, ez hala ere jakingura urduririk gabe, honako hitzak zekartzala kausitu zuen:

Ospa egizu. Zure galtza-uhalei buruzko egia jakin da. ADISKIDE BAT.

Suhiltzaileen kotxea are iparralderago joana zen horrenbestez, ezagutu ez zuten eskualde batean sartuz; hala, zuhaitzek itzalperatzen zituzten burdinsare garai batzuek osaturiko lerro baten paretik abian hura, sei lagunak harritu baina hainbestean lasaitu ere egin ziren ikusirik Lehendakariak lurrera jauzi egiten zuela, nahiz eta ezin igarri bere gogo bitxiak hala eman ziola-ko ote zen, ala beren ibilgailuan hura zeramate-
nen kexu areagotuengatik. Hiru kotxeak hara iritsi orduko, nolana ere, katu nabar erraldoi bat bezala igoa zen burdinsare garaien gainera; handik bestaldera arin asko pasatu, eta hostoen iluntasunean aienatu zen.

Syme-k, haserre biziko keinu batez bere kotxea geldiarazi, kanpora jauzi egin, eta eskaladari ekin zion berak ere oldarrean. Zango bat hesiaren gainean zeukala, eta lagunak atzetik orobat eskalatzen hasiak, aurpegia haiengana jiratu zuen, itzalpean zurbil-zurbil.

— Zer ote da leku hau? —galdetu zuen—. Deabru zaharraren etxea ote? Entzuna dut etxe bat ote duen Londresko iparraldean.

— Hainbat hobe —esan zuen Idazkariak aurpegia mudatu gabe, oin bat ezarriz bermagune batean—. Etxean harrapatuko dugu.

— Ez, ez naiz horretaz ari —esan zuen Syme-k, bekainak kizkurtuz—. Hots ezinago ikaragarriak entzuten ditut; zera, deabruak barrez eta doministituka eta zintz eginez ari balira bezala beren sudur deabruzkoetatik!

— Gure deabru zaharraren zakurrak zaunka, noski —esan zuen Idazkariak.

— Zera izango dira, labezomorroak zaunka! —esan zuen Syme-k, suturik—, barakuiloak zaunka!, geranioak zaunka! Entzun al duzu sekula zakur bat horrela zaunka egiten!

Eskua jasorik, adi egoteko imintzioa egin zuen, eta hostailatik zehar orro luze dardaraz jartzeko moduko bat iritsi zitzaien, larruazala zeharkatu eta haragia hozten zuela zirudiena... orro baxu-sakon lazgarri bat, inguruko aire guztian taupada moduko bat eragiten zuena.

— Iganderen zakurrak ezin izan eguneroko zakur arruntak —esan zuen Gogol-ek, eta dardarra egin zuen.

Syme bestaldera jauzi egina zen ordurako, baina hantxe segitzen zuen, erretasun nabarmenez adi.

— Entzun ondo hori —esan zuen—. Zakur bat al da hori... inoren zakurra ere?

Bat-batean, oinaze tupustekoz kexuz eta ardailaz ari liratekeen zer batzuen garrasi erlatsa belarriratu zitzaien; eta gero, oihartzun bat bezala han urrutian, sudur-tronpeta luze baten gisako zer bait.

— Hara, horren etxeak infernua izan behar du! —esan zuen Idazkariak—; eta infernua bada, hara noa ni! —eta ia aupada bakarrez gainditu zituen burdinsare garaiak.

Besteek atzetik segitu zioten. Landare eta zuhaixka sarrizko gune bihurri-itsua zeharkaturik, bidexka garbi batera iritsi ziren. Ez zen deus ageri, baina Bull Doktoreak eskuak zarta elkartu zituen bat-batean.

— Astoak alaenak! —egin zuen espantu—. Zooa da eta!

Begi amorratuz inguru guztian beren ehiza amorratua bilatzen ari zirela, uniforme-zko zaintzaile bat etorri zen bidexkan barrena lasterka, jantzi arruntezko gizon bat lagun zuela.

— Hemendik pasatu al da? —galdetu zuen zaintzaileak arnaska.

— Nor, ordea? —galdetu zuen Syme-k.

— Elefantea! —egin zuen espantu zaintzaileak—. Elefante bat erotu egin da eta hanka egin!

— Agure batekin hanka egin du —esan zuen beste arrotzak asnaslarriturik—; agure zahar ilezuri batekin, gaixo agurea!

— Zer tankeratako agurea? —galdetu zuen Syme-k, jakingura biziz.

— Agure zabal-zabal, lodi bat, gris argiz jantzia —esan zuen zaintzaileak arduratsu.

— Tira —esan zuen Syme-k—, tankera horretako agurea bada, guztiz ziur bazaudete grisez jantziriko agure zabal lodi bat dela, nire hitzaz fida zaitezke elefanteak ez duela harekin hanka egin. Hark egin du elefantearekin hanka. Elefantea ez du Jainkoak egin gizon hori gogoz

kontra bahiturik hanka egiteko. Eta, arraioa, horra non datorren!

Ez zen horretaz dudarik oraingoan. Belar gunearen beste aldean hantxe, berrehun bat yardara, jende aldra bat garrasika eta saltaka orpoetan zerraikiola, elefante gris eskerga bat zetorren urrats gaitzez zinki-zanka, tronpa itsasontzi baten branka-masta bezain tente, akabuko epaiaren eguneko turuta bezala turutari. Oldar bizian marruka zetorrèn animalia baten bizkar gainean, Igande Lehendakaria sultan baten patxada osoaz zihoan, baina eskuan zeukan zer zorrotz batez akuilatuz animalia lasterka bizira.

— Geldi ezazue! —egiten zuen deiadar jendeak—. Hesitik kanpora alde egitera doa!

— Luizi bat gelditu, zera! —esan zuen zaintzaileak—. Hesitik kanpora *da* jadanik.

Hark hizketan amaitu orduko, akabuko zapartada eta orro izulaborrizko batek iragarri zuen elefante gris itzelak Jardin Zoologikoko burdin hesiak zeharkatu zituela, eta han zihoala Albany Street-en barrena korrika, omnibus-mota berri bat bailitzan, arin askoa.

— Jainko maitea! —egin zuen espantu Bull-ek—. Ez nekien elefante bat hain bizkor ibil zitekeenik. Zalgurdiak beharko dira berriro, bistatik galduko ez badugu.

Elefantea desagertu zeneko burdinatetik zehar lasterka ekiten zioten bitartean, bidean pasatzen zituzten kioletako animalia bitxiak ikuspegi itsugarri bat izan zuen Syme-k. Gerora harrigarri zitzaion hain garbi ikusi izana. Pelikanoak gogoratzen zituen bereziki, beren zintzur dindilizkari xelebreekin. Jakin nahi zukeen zergatik ote zen pelikanoa karitatearen sinboloa, ez bazen karitate dexente behar zelako noski pelikano bat mirestekoa. Kalao bat gogoratzen zuen orobat: moko hori erraldoi bat, eta hari atzetik loturik txori txiki bat. Zer osoak hala sentazio berezi bat ematen zion, zeinaren bizitasuna ezin baitzuen esplikatatu, alegia Natura beti bromak egiten ari balitz bezala, broma guztiz misterio-tsua hala ere. Igandek esana zien izarrak ulertzen zituztenean ulertuko zutela bera. Zalantza gordina zuen ea goiaingeruek berek ere ulertzen ote zuten kalaoa.

Sei detektibe doakabeak, ariniketan sartu kotxeetara, eta elefantearen arrastoan abaiatu ziren, hark kaleen luze-zabalean hedatzen zuen izua partekatuz. Oraingoan Igandek, jiratu gabe, bere bizkar oharkabearen zabaltasun sendoa eskaini zien, eta horrek, posible den kasuan, lehenago burlek baino amorru handiagoa sorrazten zien. Baker Street-era iristeko zirenean-txe, ordea, zerbait airean gora-gora botatzen ikusi zuten, mutiko batek pilota bat nola, berriro harrapatzeko moduan. Zihoazen abiadan, ordea, askoz atzerago erori zen, Gogol zihoan kotxearen parean hantxe; eta hark, barne-bultzada esplikaezinen batek pista baten esperantza lausoa emanik, kotxea geldiarazi zuen, zer hura hartzeko. Berari zuzendua zen, eta pakete handi samarra zen. Arakaturik, hala ere, bata bestearen inguruan bilduriko hogeita hamahiru paper zatiz osaturik zegoela kausitu zen. Azken azalabarra kendurik, papertxo txiki baten tamainara errenditua zen, zeinean honako hau idatzirik zegoen:

Hitzak, ustez, «xuri-gorri» izan behar du.

Garai batean Gogol esaten zioten gizonak deus ez zuen esan, baina haren esku-oinen mugimenduek zaldi bat ahalegina saia dadin akuilatuko lukeen gizon batenak ematen zuten.

Kalerik kale, barrutiz barruti, han zihoan elefante ziztua bezain arinaren miraria, leiho guztietara erakarriz jendea, eta eskuin-ekker bazterreratuz trafikoa. Eta publizitate ero horren guztiaren arrastotik, ahal zuten moduan segitzen saiatzen ziren hiru kotxe, halako moldez non prozesio baten partetzat hartzen baitzituen jendeak, edota zirku baten iragarkitzat. Hain abiadura handian zetozen, non ez sinesteko moduan laburtzen baitziren distantziak, eta Syme-k Albert Hall ospetsua ikusi zuen, Kensington-en baita, artean Paddington-en zegoela uste zue-nean. Elefantearen urrats-martxa are bizkorrago eta trabagabeagoa zen South Kensington-eko kale jendegabe, aristokratikoetan zehar, eta azkenean Earl's Court-eko Gurpil eskerga ortzian gora ageri zeneko ostertz zati hartarantz jo zuen zuzen animaliak. Gurpila gero eta handi-zabala-

gotuz zihoan, izarren gurpilak bezala zerua betetzeraino.

Piztiak atzean utzi zituen kotxeak. Kale kantoi askoren jiran galdu zuten bistatik, eta, Earl's Court-eko Erakusketako sarreretako batera iritsi zirenean, bidea itxita zegoen beren aurrean. Aurrez aurre jendetza itzela zegoen; haren erdian, berriz, elefante itzela, burua zabuka eta gorputza dardaraz, izaki itxuragabeak ohi dute-nez. Lehendakaria, ordea, ez zen ageri.

— Nora joan da? —galdetu zuen Syme-k, lurrera brau eginik kotxetik.

— Jaun hori Erakusketara sartu da oldarrean, jauna! —esan zuen enplegatu batek. Gero, ahots minduz gaineratu zuen—: Jokaera xelebrea, horratik, jaun horrena. Bere zaldiari eusteko eskatu, eta hau eman dit, jauna.

Atsekabez erakutsi zuen paper tolestu bat, honako zuzenburuz: «Anarkisten Biltzar Nagusiko Idazkariarentzat.»

Idazkariak, sumindurik, papertxoak zakar ireki, eta honako hau aurkitu zuen barruan idatzirik:

Sardinzaharra lasterka doanean,
Has bedi Idazkaria barrez;
Ordea, saiatzen delarik *hegan*,
Idazkaria hil horrenbestez.

Baserritar Zuhur-hitza

— Demontreen demontre zaharra —ekin zion Idazkariak—, nola utzi diozu sartzen? Normala al da jendea elefante zoroen gainean zaldizka etortzea Erakusketa honetara? Normala al da...

— Begira! —egin zuen deiadar Syme-k tupustean—. Begira han!

— Begira zeri? —galdetu zuen Idazkariak zakarki.

— So egin globo gatibuari! —esan zuen Syme-k, eta bere senetik irtenda seinalatu zuen.

— Zer arraiorengatik egin beharko nioke nik so globo gatibu bati? —galdetu zuen Idazkariak—. Zer du bitxirik globo gatibu batek?

— Ezer ez —esan zuen—, salbu eta ez dagoela gatibu!

Denek itzuli zituzten begiak globoa, Erakusketaren gainean hantxe, haur baten globoa irudi, bere sokatik harro-harro puzturik airean kulun-

katzen zen aldera. Handik segundo batera soka bi zati egin, kroskoaren azpian justu, eta globoa, jareginik, han joan zen xaboi-borboila baten askatasun lasaiaz hegan-igerian.

— Hamar mila deabru! —egin zuen garrasi Idazkariak—. Globoan doa! —eta ortziaren kontra astindu zituen ukabilak.

Globoa, halabeharrezko haize batek eramani, justu beren gainean egokitu zen, eta Lehendakariaren buru zuri gaitza ikusi ahal izan zuten kareletik aterarik han beheko gizagaixoei onbera begira.

— Jainkoak anpara nazala! —esan zuen Profesoreak, bere bizar ile-urdindutik eta bere pergamino-aurpegitik askatu ezineko moduan itsatsia zitzaion mintzamolde adintsu harekin— Jainkoak anpara nazala! Iruditu baitzait ez ote zaidan zerbait erori kapelu gainera!

Esku dardarti bat jaso, eta paper kizkurtu bat hartu zuen kapelu-gainetik. Gogoetan murgildurik ireki zuen, zer, eta maitasun fidelaren adierazgarri diren begizta horietako bat aurkitzeko, eta honako hitzok:

Zure edertasunak ez nau soraio utzi.
ELUR TANTATXOK.

Isilune labur bat gertatu zen, eta gero Symek, bere bizarrari kosk eginez, esan zuen:

— Oraindik ez dut etsi. Traste madarikatu horrek behera egin beharko du non edo han. Goazen atzetik!

14. KAPITULUA

Sei filosofoak

Landa berdetan barrena eta hesi loretsutan zehar, ahal zuten bezala bide eginez zihoazen sei detektibe melatuak, Londrestik bost bat miliara. Taldeko optimistak, hasieran, proposatu zuen zalgurditan jarraitu behar ziotela globoari Hego Ingalaterran barrena. Baina, azkenerako, etsiarazi zuten globoak bideei jarraitzeari egiten zion uko setatiaz, eta kotxezainak globoari jarraitzeari egiten zion uko are setatiagoaz. Ondorioz, bada, bidaiari aldarte-erre baina hala ere nekagaitzek sastraka beltzetan barrena eta landa goldatutan zehar ekin zioten, harik eta arlote arrunt batenarekin nahasteko ere zarpailagia zen itxura negargarri baten jabe egin ziren arte. Surrey-ko muino berdeok izan ziren Symek Saffron Park-etik irten zenetik soinean eraman zuen janzki gris argi miresgarriaren akabuko gainbehera trajikoaren lekuko. Zetazko kapelua adar kulunkari batek hautsia zion sudur gainean, longaina sorbaldaraino tarratatua zioten arantza

zurgarri batzuek, Ingalaterrako buztinaren zipriztinak alkandora-idunaren pareraino iritsiak zitzaizkion; baina artean ere deliberamendu isil amorratuz botatzen zuen aurrera bere bizar larua, eta artean ere begiak tinko-tinko jarriak zeuzkan hegan-igerian zihoan gasezko bola hartan, zeina ilunabar-laino bat bezala koloreztatua ageri baitzen ilunabarraren gorridura betean.

— Azken batean —esan zuen—, oso ederra da.

— Bereziki eta estrainioki ederra, bai! —esan zuen Profesoreak—. Nahi nuke gas-poltsa nazkagarri hori lehertuko balitz!

— Ez —esan zuen Bull Doktoreak—, ez ahal da lehertuko. Horrek zauritu egin lezake gure xaharra.

— Zauritu! —esan zuen, mendekari, Profesoreak—, zauritu! Ez nik horra gora igotzerik baneuka zaurituko nukeen bezainbeste, hala ere. Elur Tantatxo!

— Ez dut nahi zauritu dadin, horra —esan zuen Bull Doktoreak.

— Zer? —egin zuen espantu Idazkariak, mingots—. Sinetsi al duzu gela iluneko gure gizona-

ren istorio hori guztia? Igandek edonor zela esan zezakeen berdin.

— Ez dakit sinesten dudan ala ez —esan zuen Bull Doktoreak—. Baina ez da hori kontua. Ezin dut desiratu gure Igande xaharraren globoak su hartzerik, zeren...

— Zeren zer? —esan zuen Syme-k egonezinez—. Zer dela eta?

— Bada, bera ere hain globo baten antzantzekoa delako —esan zuen Bull Doktoreak etsi-etsian—. Ez dut hitz bat ere ulertzen guri guztioi txartel urdinak eman zizkigun gizon bera izateraren kontu horretaz guztiaz. Dena zentzugabe bihurtzen duela dirudi horrek. Baina garbi esan behar dut, nahi duenak jakin, beti izan zaidala begiko Igande xaharra bera, bere oker-bihurrian. Xaltoka dabilen nini handi-handi bat balitz bezala. Nola azal dezaket zer zen nire hura begiko izate bitxi hori? Horrek ez dit noski eragotzi infernu-suhar borrokatzea beraren kontra, ez horixe! Aski argi geratuko al da esaten badut hain potoloa zelako zitzaidala atsegin?

— Ez, bada —esan zuen Idazkariak.

— Orain bururatu zait —egin zuen espantu Bull-ek—: hain potoloa eta hain arina zelako zen. Globo bat bezalakoxea. Beti irudikatzen dugu jende potoloa astun, baina silfide baten lotsarik ez zukeen dantzan. Orain konturatzen naiz zer esan nahi dudan. Oso-betea ez den indarra bortizkerian nabarmentzen da; indar gorena, berriz, arintasunean. Antzinako espekulazio haien antza zuen: zer gertatuko litzateke elefante batek matxinsalto batek bezala baleki airean jauzi egingen?

— Gure elefanteak —esan zuen Syme-k, gorantz begiraturik— matxinsalto batek bezala airean gora egin du jauzi.

— Eta horra edo —bukatu zuen Bull-ek— zergatik ezin dudan ekidin Igande xaharra atsegin izatea. Ez, ez da indarraren miresmena, edo halako beste edozein ergelkeria. Badu bere baitan alaitasun moduko bat, alegia berri onez lehertzeko zorian balego bezala. Ez duzue inoiz halakorik sentitu udaberri egun batean? Jakina dugu Naturak bere trikimailuak dituela, baina nolabait egun horrek frogatzen du parte oneko trikimailu jatorrak direla. Nik neuk sekula ez dut

irakurtzen Biblia, baina jendeak barre egiten duen pasarte hori hitzez hitzeko egia da: «Zergatik dagizue jauzi, muino garaiok?» Muinoek jauzi dagite... Edo, gutxienez, saiatu egiten dira... Zergatik zait atsegin Igande?... Nola azaldu?... Hala-ko oro-saltatzaile lotsagabea delako noski.

Isilaldi luze bat gertatu zen, eta gero Idazkariak, ahots bitxi, bortxatu batez, esan zuen:

— Zuk ez duzu batere ezagutzen Igande. Beharbada, ni baino hobea izanik, infernua ezagutzen ez duzulako. Ni oso tipo trabesa nintzen, eta gaixo-hits puntu bat izan dut betidanik. Ilunbean egoten den eta gu guztiok aukeratu gaituen gizonak konspiratzaile baten zoro itxura peto-petoa nuelako aukeratu ninduen: nire irribarrea oker bihurritzen zelako, eta nire begiak goibel ageri zirelako, are irribarre egiten nuenean. Baina ba bide zen zerbait nigan anarkista jende hori guztia nerbioak airean jartzen zuenik. Izan ere, Igande lehenbiziko aldiz ikusi nuenean, ez zidan inondik inora zuk diozun bizitasun airezko hori iradoki, baizik Gauzen Berezko Izaerari zegokion lodi-baldartasun triste edo bat. Erdi-ilunbean zegoen gela batean zigarro bat erre-

tzen aurkitu nuen, sareta marroia jaitsita zegoela, eta gure nagusia bizi den iluntasun amultsua baino infinituki larri-etsigarriagoa zen gela hura. Hantxe zegoen, aulki-luze batean eserita, giza puska itzel halakoa, ilun eta itxuragabe. Txintik atera eta are zirkinik egin gabe entzun zituen nire berba guztiak. Nik neure eskabiderik sutsuenak jaulki nituen, eta nire itaunik eledertsuenak egin. Gero, isilaldi luze baten ondoren, Zer hura dardarka hasi zen, eta nik pentsatu nuen gaixotasun sekreturen batek jota zegoela. Gelatina bizi higuigarri bat bezala zegoen dardarka. Bizitzaren jatorria diren oinarrizko organismo dorpeei buruz irakurria nuen guztia oroitarazten zidan: itsaso sakoneko mamarroak eta protoplasmak. Materiaren akabuko forma zirudien, itxuragalduea eta lotsagarriena. Kontsolagarri bakartzat, neure baitan egiten nuen, haren ikarari erreparaturik, zerbait bazela, hala ere, zoritxarrekoa izatea halako munstroa. Eta orduan ziplo konturatu nintzen animaleko mendi hura barre bakar batez ari zela dardarka, eta barre hura niri egina zela. Hori ere barkatu behar al diot, ausaz? Ez da gauza makala, gero, norbera

baino aldi berean baxuago eta indartsuago den zerbaitek horrela burla egitea.

— Gauzak beren onetik ateratzen ari zarete guztiz, noski —moztu zuen Ratcliffe Inspektorearen ahots garbiak—. Igande Lehendakaria tipo ikaragarria da baten adimenarentzat, baina ez da Barnum-en bidutzi halakoa ere fisikoki, ezta gutxiagorik ere. Bulego arrunt batean hartu ninduen, laukizko jaka grisez jantzia, egunargi betean. Modu arruntean mintzatu zitzaidan. Nik esango dizuet, ordea, zer duen Igandek apurtxo bat asaldagarria dena. Gela txukun dauka, arropak ere txukun, dena txintxo-txintxo daramala dirudi; baina ez du arretarik jartzen. Batzuetan haren begi handi distiratsuak zuri geratzen dira, itsu. Orduak pasa ditzake zu hor zaudela ahazturik. Arretarik ez hori, ordea, ikaragarri samarra da, hori esan nahi dut, gizon gaizto batengan. Gizon makur bat arretatsu irudikatzen dugu. Ezin dugu irudikatu zintzoki eta egiazki amestia den gizon makur bat, ez baikara ausartzen gizon makur bat bere buruarekin bakardadean irudikatzen. Gizon batek arreta erraz galtzeak gizon jatorra dela adierazten du. Halako gizona, tupus-

tean hor zaudela ohartzen bada, desenkusatu egingo da. Nola jasango duzu, ordea, halako gizon arretagabe bat zeinak, tupustean hor zaudela ohartzen bada, hilko baitzaitu? Horrexek jartzen ditu nerbioak kolokan: abstrakzio arretagabea krudeltasunarekin konbinaturik. Gizonek sentrazio bera izan dute batzuetan, noiz eta, oihan basatietan barrena zihoazela, sentitu baitute hango animaliak aldi berean gaizgabe eta gupidagabeak zirela. Jaramonik egin ez, edo jo eta garbitu, halabeharrak aginduko ziela. Zer irudituko litzaizueke hamar ordu hilgarri pasatzea mintzagela batean tigre arretagabe batekin?

— Eta zuk zer pentsatzen duzu Igandez, Gogol? —galdetu zuen Syme-k.

— Printzipioz, nik ez dut Igandez pentsatzen —esan zuen Gogol-ek sinpleki— eguerdiko eguzkiari begira egoten naizen baino gehiago.

— Gauzak ikusteko modu bat da hori, noski —esan zuen Syme-k gogoetatsu—. Zer diozu zuk, Profesore?

Profesorea han zihoan, burua makur, makila arrastaka, eta ez zuen txintik erantzun.

— Esnatu, Profesore! —esan zuen Symek atsegintsu—. Esaguzu zer pentsatzen duzun lgandez.

— Zera —esan zuen—, garbi adierazi ezin zerbait pentsatzen dut. Edo, hobeki esanda, pentsatu ere garbi pentsatu ezin dudan zerbait pentsatzen dut. Baina honelako zerbait da. Garai bateko nire bizitza, dakizuenez, largoegi eta laxoegia izan zen aukeran. Bada, lganderen aurpegia ikusi nuenean, largoegia zela iruditu zitzaidan (denei iruditzen zaie, baina niri laxoegia zela iruditu zitzaidan orobat). Hain zen zabala aurpegia, ezen batek ezin baitzuen hura zehatz begiz jo edo aurpegi peto bat osatu inondik inora. Begia hain zegoen sudurretik urruti, ezen ez baitzen begi bat. Ahoa hain zegoen bakarturik, ezen beste guztitik aparte kontsideratzera behartzen baitzuen bat. Zer guztia oso ere zail da azaltzen.

Atsedenauditxo bat hartu zuen, makila artean ere herrestan, eta gero segitu zuen:

— Baina jo dezagun honelatsu dela. Gauez bidean oinez noala, hor non ikusten ditudan faro-la bat eta leiho argiztatu bat eta laino bat, hiru-ren artean aurpegi peto nahastezin bat osatzen

dutela. Inork zeruan aurpegi hori badu, ezagutu-ko dut ostera. Hala ere, aurreraxeago joanik, konturatzen naiz han ez zegoela aurpegirik, leioa hamar yarda harantzago zegoela, farola hamar ehun yardara, lainoa munduaz haraindi. Igande-ren aurpegiak ihes egiten zidan, horra: eskuin eta ezker itzurtzen da, halako irudi hala-behar hutsezkoen gisa. Eta horrenbestez haren aurpegiak zalantza eragin edo dit, aurpegirik ba ote den batere. Nik ez dakit ea zure aurpegia, Bull, aurpegi bat den ala perspektibazko konbinazio bat. Beharbada zure betaurreko jasanezin horietako disko beltzetako bat oso hurbil dago eta bestea hemendik berrogeita hamar miliara. Materialista baten ditek ez dute kaka zaharrik balio. Igandek azken dudak eta okerrenak irakatsi dizkit niri, izpiritualista baten dudak. Budista bilakatu naiz, itxura denez; eta Budismoa ez da sineste bat, duda bat da. Bull gaixo maitea, nik ez dut sinesten zuk benetan aurpegirik duzunik. Ez dut fede nahikorik materian sinesteko.

Syme-k artean ere mundu-bola alderraietan josirik zeuzkan begiak, hark, arrastiriko argitan

gorriturik, arrosakoloreago eta gaizgabe-xaloago zirudiela.

— Ohartu al zarete gauza bitxi batez —esan zuen—, zuen deskribapen guztietan? Zuetako bakoitzak oso desberdin aurkitzen du Igande, baina hala ere zuetako bakoitzak gauza bat bakarra aurkitzen du hari parekatzeko: unibertsoa bera. Bull-i lurra udaberrian bezala dela otu zaio; Gogol-i, eguzkia eguerdian bezala. Idazkariari protoplasma itxuragabeak datozkio burura; Inspektoreari, oihan birjinen arduragabetasuna. Profesoreak dio paisaje aldakor baten gisakoa dela. Arraroa da hori, baina are arraroagoa da nik ere neure ideia bitxia izatea Lehendakariari buruz, eta nik ere mundu osoa irudikatzen dudan moduan irudikatzea Igande.

— Segi bizkortxoago, Syme —esan zuen Bull-ek—; ez kezkatu globoaz.

— Igande lehen aldiz ikusi nuenean —esan zuen Syme-k astiro—, bizkarra ikusi nion baka-rik; eta bizkarra ikusi nionean banekien munduko gizonik makurrena zela. Lepo-sorbaldak animalakoak ziren, tximino-jainko batenak irudi. Gizatiarra ote zen dudan jartzeko moduko jarre-

ran eusten zion buruari lepo gainean; idi baten jarrera makur berean, hain zuzen. Izan ere, burutazio guztiz asaldagarria izan nuen bat-batean, alegia ez zela inondik inora gizon bat, giza arropaz jantziriko piztia bat baizik.

— Segi —esan zuen Bull-ek.

— Eta orduan bai gauza bitxia gertatu zela. Kaletik ikusia nion bizkarra, hura balkoian eserita zegoela. Gero, hotelera sartu eta Iganderen beste alderainoko jira eginik, eguzkitan ikusi nion aurpegia. Aurpegi horrek ikaratu egin ninduen, guzti-guztiak ikaratzen dituen moduan; ez, ordea, piztiazkoa zelako, ez gaiztoa zelako. Aitzitik, hain ederra zelako ikaratu ninduen, hain onjatorra zelako.

— Syme —egin zuen espantu Idazkariak—, gaixorik zaude?

— Antzinako goiaingeru zenbaiten aurpegia bezalakoa zen, gerra heroikoren baten ondoren lege zuzenez epaitzen. Irria ageri zuen begietan, eta ahoan ohore eta tristura. Atzetik ikusia nion ile zuri bera zuen; sorbalda gaitz, grisez jantzi bera. Baina atzetik ikusi nuenean ziur nengoen

animalia bat zela, eta aurrez aurre ikusi nuen, berriz, jakin nuen jainko bat zela.

— Pan —esan zuen Profesoreak amesti— jainkoa eta animalia zen batera.

— Ordudanik, eta sekula betiko —ekin zion Syme-k, bere golkorako bezala—, hori izan da niretzat Iganderen misterioa, eta hori da munduaren misterioa ere. Bizkar ikaragarria ikusten dudanean, ziur nago aurpegi noblea mozorro bat baino ez dela. Aurpegia ikusten dudanean, lipar batez baino ez bada ere, badakit bizkarra bromahutsa dela. Gaizkia hain da gaitz, ezen ezin baitugu halabehar hutstzat baino irudikatu ongia; ongia hain da on, ezen ziur sentitzen baikara gaizkia esplikatu litekeela. Baina horrek guztiak bere gailurra jo edo zuen atzo, Iganderen kotxea harrapatu behar, eta denbora guztian justu haren atzetik gertatu nintzenean.

— Pentsatzeko astia izan zenuen orduan? — galdetu zuen Ratcliffe-k.

— Astia —ihardetsi zuen Syme-k—, pentsamendu lazgarri bakar baterako. Ideia batek hartu ninduen tupustean, alegia Iganderen buruaren atzealde itsu, huts-huts hura zela

haren aurpegia: aurpegi izugarri, begigabe bat niri begira-begira. Eta burutik pasatu zitzaidan nire aurrez aurre hantxe lasterka bizian zihoan figura hura, itxuraz beste, atzerantz begira zihola, lasterka dantza eginez.

— Ikaragarria! —esan zuen Bull Doktoreak, dardaraz.

— Ikaragarria ez da hitza —esan zuen Syme-k—. Zehazki nire denborako unerik txarrena izan da. Eta, hala ere, handik hamar minutura, burua kotxetik atera eta imintzio bat egin duenean, gargola baten itxuran, banekien ez zela bere haurrekin kuku-marroka jolasten dabilen aita baten modukoa baino.

— Jolas luzea doa —esan zuen Idazkariak—, eta bekoki-zimur begiratu zien bere bota hautsiei.

— Entzun —egin zuen espantu Syme-k, sekulako enfasis—. Kontatuko dizuet mundu osoaren sekretua? Zera da, munduaren atzealdea bakarrik ezagutzen dugula. Dena atzetik ikusten dugu, eta piztiazkoa dirudi. Hori ez da zuhaitz bat, zuhaitz baten atzealdea baizik. Hori ez da laino bat, laino baten atzealdea baizik. Ez al

duzue ikusten gauza guztiek aurpegia makurtu eta ostentzen dutela? Haien aurrez aurre jartzerik bageneuka, bederen...

— Begira! —egin zuen oihu Bullek, ozenki—, globoa beherantz egiten ari da!

Syme-ek ez zuen halako oihu beharrik, ez baitzion bitarte guztian begirik kendu. Globotzar argitsua bat-batean airean zabu egiten ikusi zuen, atzera zuzentzen, eta gero zuhaitzen atzean astiro hondoratzen, sartzen den eguzkia bezala.

Gogol zeritzan gizonak, zeinak ia ez baitzuen hitzik ere egin beren ibilaldi neketsu haietan guztietan, bere eskuak airean jaso zituen tupustean, izpiritu galdu baten gisa.

— Hil da! —egin zuen espantu—. Eta orain badakit nire laguna zela... ilunbeko nire laguna!

— Hil! —esan zuen purrustaka Idazkariak—. Kostako zaizu hori hilda ikustea. Kroskotik jausi bada, hortxe ibiliko da moxala larrean bezala pinpoilka, jolas hutsean salto eta brinko.

— Apatxez kraskaka —esan zuen Profeso-reak—. Hala egiten dute moxalek, eta orobat Panek.

— Ostera ere Pan! —esan zuen Bull Dokto-reak, haserrebeidean—. Itxura denez, zuretzat Pan edozer da.

— Hala da, bai —esan zuen Profesoreak—, grekeraz. Oro esan nahi du.

— Ez ahaztu —esan zuen Idazkariak, begirada lurrera apaldurik— «paniko» ere zer den.

Syme berean egona zen, lagunen espantuhitzei jaramonik egin gabe.

— Hor gaindi erori da —esan zuen brastadan—. Goazen atzetik!

Gero, keinu deskribaezin batekin, gaineratu zuen:

— A ze adarjotzea deskuiduan hil bada! Ohi duen moduko beste txantxa bat litzateke noski.

Kemen berriz ekin zion zuhaitz urrunetarantz, jantzien pilda zirtzilak haizetan pinpilika. Besteek pauso astun zalantzatiagoz jarraitu zioten atzetik. Eta ia une berean sei gizonak konturatu ziren ez zeudela bakarrik zelai koxkorrean.

Belardi-laukiaren bestaldetik gizon garai bat hurbiltzen ari zitzaien, zetro bat zirudien esku-makila luze baten ganean bermaturik. Belaunearainoko galtzazko janzki dotore bezain modaz

pasatu bat zeraman; etajantziaren kolorea oiha-
neko zenbait itzalgunetan ikus daitekeen urdin,
ubel eta grisaren arteko tonu horretakoa zen.
Ilea gris zurikara zuen, eta lehen begiratuan,
belaunerainoko frakek ematen zioten itxura
zaharkitua tarteko, hautseztaturik zeramala
ematen zuen gizonak. Oso begirakune barea
zuen; baina, buru gainean ageri zuen zilar-intzi-
gar haren kariaz, oiha-neko itzaletako bat izan
zitekeen.

— Jaunak —esan zuen—, nire nagusiak zal-
gurdi bat dauka zuen zain hor ondoko bidean.

— Nor da zure nagusia? —galdetu zuen
Syme-k, geldi-geldi.

— Esan didate badakizuela haren izena —
esan zuen gizonak begirunez.

Isilaldi bat gertatu zen, eta gero Idazkariak
esan zuen:

— Non da zalgurdi hori?

— Oso denbora gutxi da itxaroten dagoela —
esan zuen arrotzak—. Nire nagusia oraintxe pun-
tuan etxeratu da.

Syme-k ezker-eskuin begiratu zuen bera
zegoen zelai-gune berdean. Berro-hesiak berro-

hesi hesi arruntak ziren, zuhaitzek zuhaitz arruntak ziruditen; baina, hala ere, amandre-ipuin batean harrapaturik bailegoen sentitzen zen.

Goi eta behe arakatu zuen embaxadore misteriotsua, baina ezin izan zuen deus aurkitu, salbu eta gizonaren jaka itzal purpuren kolore peto-petokoa zela, eta gizonaren aurpegia, berriz, zeru gorri-marroi-urrezkoaren kolore peto-petokoa.

— Esaguzu non den —esan zuen Syme-k laburki—, eta, hitzik gabe, jaka ubelez jantziriko gizonak, bizkarra jiratu, eta hesiko hutsarte baterantz ekin zion oinez, zeinetik bide zuri baten argitasuna bistaratu baitzen bat-batean.

Sei ibiltariak errepide mutur hartara irten zirenean, zalgurdi ilara luze bat zirudienak blokeaturik kausitu zuten bide zuria, alegia zalgurdi ilara bat Park Lane-ko etxeren baterako irispidea mozten. Zalgurdi horien alboan, itxura bikaineko zerbitzari lerro bat zegoen, denak ere uniforme gris-urdinez jantziak, eta denak ere halako handi-duintasun eta askatasun eite baten jabe, ez baitira horiek tasun ohikoak jaun-dotore baten zerbitzariengan, baizik areago errege

bikain baten arduralari eta enbaxadoreengan. Sei ziren, sei, zain zeuden zalgurdiak, zorigaitzeko konpainia zarpatsuko partaide bakoitzarentzat bat. Laguntzaile guztiek (gorte-jantziz irudi) ezpata eta guzti zeramaten, eta, sei lagunetako bakoitza abailduraz ia herrestan zalgurdira sartu ahala, ezpatak atera, eta agurra egiten zieten, altzairu-distira tupustekoz.

— Zer esan nahi ote du honek guztiak? — jakin nahi izan zuen Bull-ek Syme-rengandik, banandu zirenean—. Iganderen beste txantxa bat ote?

— Ez dakit —esan zuen Syme-k, neke astuenez hondoraturik bere zalgurdiko kuxinen artean—, baina hala bada, zuk aipatzen zenituen txantxa horietako bat da. Asmo onekoa, alegia, jatorra.

Sei abenturazaleak abentura askotatik pasatuak ziren, baina ezeinek ere ez zituen hainbeste desorekatu, nola erosotasunezko azken abentura hartxek. Gauzak zakar joatera jarriak ziren aspaldi guztiak; gauzak bat-batean leun joateak, ordea, jota utzi zituen. Arrastorik lausoena ere ez zuten zer ote ziren zalgurdi haiek; nahikoa zuten

jakitea zalgurdiak zirela, eta kuxin eta guztiko zalgurdiak. Ezin zuten inondik ere igarri nor ote zen hara gidatu zituen agurea; baina nahikoa eta sobera zen zinez zalgurdietara eraman izana.

Syme bere burua erabateko patxadan jareginik zihoan zalgurdian, zuhaitz-ilunbe gorabeheratsuan zehar. Tipikoa zen harengan hori; alegia, bere kokots bizardunari tente eustea zerbait egin zitekeen bitartean, baina afera guztia bere eskuetatik at geratzean, aldiz, kuxinen artera amiltzea gainbehera betean.

Oso pixkanaka eta oso lausoki ohartu zen nolako errepide bikainetan barrena zeraman zalgurdiak. Ikusi zuen parke bat izan behar zuenaren harrizko sarreraren aurretik pasatu zirela, gero muino batean gora ekin ziotela pixkanaka, zeina, nahiz albo bietan zuhaitzak ageri ziren, oihan bat baino antolatuxeago zegoen. Aurki, loaldi osasungarri batetik astiro esnatzen den gizon bati gertatzen zaion moduan, ororekiko atsegin bizi bat nagusitu zitzaion. Sentitu zuen berro-hesiak berro-hesiek izan behar zutena zirela: hesi bizi; berro-hesi bat giza gudaroste bat bezalakoa dela, diziplinatua, baina bereziki

bizia. Zumar tantaiak ikusi zituen hesien atzean, eta lausoki pentsatu zuen zeinen ongi pasatu behar zuten mutikoek haietara igorik. Gero, zalgurdiak bihurtune bat hartu zuelarik, bat-batean bezain patxadatsu ikusi zuen agertzen, ilunabar-laino luze behe bat bezala, etxe luze, behe bat, ilunabarreko argi motelean leun-leun. Sei lagunek beren oharrak kontrastatu zituzten gerora, eta tirabira sortu zen; baina denak ere ados zuden nolabaiteko modu esplikaezinean lekuak haurtzaroa oroitarazten ziela. Zumar-kukula hau zein bidexka hura, horrako arboladia nahiz harako leiho-izla, denek ere aitortu zuten nork bere ama gogora zezakeen baino lehenagotik gogoratzten zutela leku hura.

Zalgurdiak halako batean sarbide zabal, behe, harpekara batera iritsi zirenean, uniforme beraz jantzirik zegoen baina jakaren bularralde grisean zilarrezko izar bat zeraman beste gizon bat irten zitzaion bila. Itxura bikain haren jabea honela mintzatu zitzaion Syme aztoratuari:

— Bizkorgarri bat prestaturik daukazu zeure gelan.

Syme, txundidurazkoloaldi hipnotiko beraren eraginpean, haritzeko eskailera zabalean gora abiatu zen laguntzaile begirunetsuaren atzetik. Berarentzat berariaz egina zirudien areto-multzo bikain batera sartu zen. Ispilu luze batera jo zuen, berezko klase-senaz, gorbata atontzeko zein ilea antolatzeko; eta hantxe ikusi zuen zeukan itxura beldurgarria: adarrak jo zuen lekutik aurpegian behera odola zeriola, ilea belar txarrezko kalpar horiak bailiran tente-tente, jantziak zarpa luze dindilizkaritan zirtzildurik. Tupustean, hara han enigma osoa berriro, galdera simple bat bezain simple; alegia, ea nola iritsia zen hara, eta nola irtengo zen ostera orain handik. Une hartantxe justu, urdinez jantziriko gizon batek, zeina bere gelaritzat jarria baitzioten, guztiz hotsandiro esan zuen:

— Atera ditut zure jantziak, jauna.

— Jantziak! —esan zuen Syme-k sardonikoki—. Ez dut jantzirik hauek baino—. Eta longainaren bi pilda luze jaso, txirikorda xarmant, eta ballet-neska baten jirabiraren imintzioa egin zuen.

— Nagusiak eskatu dit zuri esateko —esan zuen laguntzaileak— jantzi bitxizko dantzaldi bat duzuela arratsean, eta nahi lukeela zu hortxe prestatu dizudan arropaz jantziko bazina. Anar-tean, jauna, hor duzu botila bat borgoina-ardo, faisai hotzarekin hartzeko, afaritarako ordu batzuk falta dira-eta oraindik.

— Faisai hotza gauza ederra da —esan zuen Syme-k hausnarti—, eta borgoina-ardoa, berriz, ederretan eder. Baina sinestadazu ez dudala ez bata eta ez bestea hainbeste desiratzen, nola desiratzen baitut jakitea zer deabru esan nahi duen honek guztiak, eta zer-nolako arropa pres-taturik daukazun zuk niretzat. Non da jantzia?

Zerbitzariak sofa-kutxa moduko batetik bista-ra jaso zuen hegazterrenaren lumen kolore berde-urdineko arropa luze nasai bat, domino-jantzi baten itxurakoa, zeinak aurrealdean urrez-ko eguzki zabal bat baitzuen armarri-ikur, eta, han-hemenka zipriztindurik, izar irazeki eta ilgo-razko apaindurak.

— Ostegun-jantzia dagokizu, jauna —esan zuen gelariak, atsegintsu.

— Ostegun-jantzia —esan zuen Symek, gogotan—. Ez du ematen jantzi goxoa behar duenik.

— Bai horixe, jauna —esan zuen besteak suharki—; Ostegun-jantzia oso da goxoa, jauna. Kokotseraino lotzen da.

— Tira, ez dut ezer ulertzen —esan zuen Syme-k, hasperenka—. Hain luzaro ohitu naiz abentura deserosoetara, ezen abentura erosoek seko jota uzten bainaute. Halaz guztiz, zilegi izango ahal zait galdetzea zergatik izan behar nukeen nik Ostegun itxura berezirik eguzki-ilar-giz josiriko halako soinluze berde batez jantzirik. Beste egunetan ere distira egiten dute, ustez, bibiok. Behin asteartez ikusi nuen ilargia, gogoratzen naizenez.

— Atrebentziarekin, jauna —esan zuen gelariak—, Biblia bat ere bada zuretzat —eta begirunez beteriko hatz zurrun batez Genesiko lehen kapituluko pasarte bat seinalatu zuen bertan. Syme-k zer-oteka irakurri zuen. Astearen laugarren eguna eguzkiaren eta ilargiaren sorkuntzarekin lotzen deneko hori zen. Igande kristau baten arabera egina zen, nolana ere, egunen kontua.

— Gero eta buru-hanka gutxiago du honek — esan zuen Syme-k, aulkian eseriz—. Nor dira faisaiak eta borgoina-ardoa, jantzi berdeak eta Bibliak apailatzen dituztenok? Edozer apaila dezakete, ala?

— Bai, jauna, edozer —esan zuen laguntzailerak serio-serio—. Lagunduko dizut arroparekin?

— Jantz iezadazu, bai, demontrezko zer hori lehenbailehen! —esan zuen Syme-k, egonezinez.

Baina pantomima destainaz hartzen zuelako itxura gora-behera, janzki urdin-urrezkoa soinean sentitu zuenean, askatasun eta naturaltasun bitxia sumatu zuen bere mugimenduetan, eta, ezpata bat eraman behar zuela ohartu zenean, horrek mutikotako amets bat zuzpertz zuen. Gelatik irtetean, sorbalda gainetik bota zituen jantzi-hegalak imintzio batez, ezpata albotik nabarmendurik, eta han joan zen harro-harro, trobadore baten itxura bete-betean. Zeren jantzi haiek ez baitzuten mozorrotua mozorrotzen, agerian jartzen baizik.

15. KAPITULUA

Akusatzailea

Korridorean barrena zihoala, mailadi gora baten gailurrean hantxe tente ikusi zuen Syme-k Idazkaria. Sekula ez zuen izan hain itxura noble-rik. Beltz izargabezko arropa luze bat zeraman soinean, eta haren erdi-erdian zuri hutsezko zerrenda zabal bat zintzilik, argi-xorta bakartu bat irudi. Seriotasun handiko eliz beztidura edo baten itxura zuen, oro har. Syme-k ez zuen bere oroimenera edo Bibliara jo beharrik izan gogoratzeko sorkuntzaren lehen egunak iluntasunetik argia sortze soila seinalatzen zuela. Jankia bera nahikoa zen sinboloa irarokitzeko; eta Syme-k orobat sentitu zuen zein ederki adierazten zuen zuri-beltz huts-hutsezko konbinaketa hark Idazkari zurbil latzaren arima, haren egiazkotasun gizaz besteko hura eta haren frenesi hotz hura, berdin ongi baliatzen baitzitzaion anarkisten aurka borroka egiteko sutsu, nola anarkistatzat har zezaten bera ere. Syme ez zen batere harritu ikusirik, ostatu berri zuten etxe hartako abegi-

kortasun eta erosotasun guztiaren erdian, gizon haren begiek zorrotz zirautela. Ez zen lurrin gozorik, ez ardoki ez igali-sailarenik, Idazkaria galdera zentzuzko bat egitetik gibelatuko zuenik.

Syme, bere burua ikusteko gai izan balitz, konturatuko zen noski berak ere, aurreneko aldiz, bera eta ez beste inor zirudiela betebete. Ezen, Idazkaria jatorrizko argi formagabea gogoko duen filosofoaren eredu baten, argiari itxura bereziak eman, argi hori eguzki eta izarretan zatitu nahi duen poetaren irudia zen Syme. Filosofoa infinitu-zale izan daiteke batzuetan; poetak finitua maite du beti. Harentzat, uneetan bikainena ez da argia sortu zenekoa, eguzkia eta ilargia sortu zirenekoa baizik.

Eskailera zabalak elkarrekin jaisten ari zirela, Ratcliffe aurreratu zuten, zeina ehiztari bat bezala udaberri-berdez jantzirik baitzihoan, zuhaitz elkar-lotuzko apaindura batez, hura ere berdea. Zeren lurra eta landaredia sortu ziren hirugarren egun horren papera baitzegokion, eta haren aurpegi karratu, sentiberak, bere zinismo ez hala

ere bihozkortasunik gabe harekin, egoki askoa zirudien hartarako.

Beste pasabide zabal bezain behe batetik eraman zituzten antzinako ingeles jardin handi-handi horietako batera, zeinean zuzi eta sumetak ageri baitziren nonahi, eta haien argi hautsitant jendetzazko inauteri bizi bat jantzi nabarbitxiz dantzari. Syme-ri begitandu zitzaion izadiko itxurak oro hantxe zeudela jantziren batez antzeraturik. Bazen gizon bat haize-errota baten itxuran jantzia, beste bat elefante itxuran, beste bat globo itxuran; azken biei erreparaturik, ordu-ra arteko abentura xelebreek lehengo lepotik zirautela zirudien. Ikusi zituenen artean, eta horrek zirraratzen bitxi bat eragin zion Syme-ri, kalao-txori itzel baten itxuran jantziriko dantzari bat bazen, bera halako bi zen moko batekin (kalaoa, bai, Jardin Zoologikoko bide luze hura antxintxika zeharkatzen ari zela galdera bizi bat bezala irudimenean josia geratu zitzaion txori arraro hura). Bazen han halako beste mila gauza, nolana ere. Bazen farola dantzari bat, sagarrondo dantzari bat, itsasontzi dantzari bat. Musikari ero baten doinu hezigaitzak baserri eta

kaleko zer arrunt guztiak jiga eternal bat dantzatzen jarri ote zituen pentsa zitekeen. Eta handik urteetara ere, denborarekin orduko egonezinak bareturiko gizon adin ertaineko bat bilakatu zenean, ezin zuen Syme-k artean inoiz gauzaki haietako bat ikusi —farola bat, sagarrondo bat edo haize-errotat bat— pentsatu gabe maskaradazko parranda hartako partaide deslai bat zela.

Belardi dantzariz bizi-bizi haren albo batean, ezponda berde moduko bat zegoen, halako jardin antigoalekoen terraza irudi.

Hartan zehar, ilgora antzeko bat osatuz, zazpi eseraulki zeuden, zazpi egunen tronuak. Gogol eta Bull Doktorea beren lekuan jarririk zeuden ordurako; Profesorea orduantxe ari zen berean esertzen. Gogol-ek (bestelako izenez, Astearte) ongi sinbolizatzen zuen bere sinpletasuna uren banaketa irudikatzen zuen jantzi batez, zeina haren bekoki paretik bitan banaturik oinetaraino erortzen baitzen, gris eta zilar kolore, euri zerrenda bat bezala. Profesoreak, zeinaren eguna hegaztiak eta arrainak —bizidun motarik baldarrenak— sortu zirena baitzen, purpura motelezko jantzi bat zeraman, zeinaren

zabalean arrain begi-irtenak eta txori tropikal itxuragaiztoak barreiatzen baitziren, berarengan biltzen ziren irudimen hondogabearen eta duda larriaren batasuna irudikatuz. Bull Doktorea, Sor-kuntzaren azken eguna, gorri eta urrezko animalia heraldikoz josiriko kapa batez jantzirik zegoen, eta, buru gaineko gandorrean gailen, gizon bat zeraman, harmarrietako lehoien gisa atzapar garailea erakutsiz. Irribarre zabalez ageri zen, eserlekuan atzerantz botarik bere burua, bere elementuan dabilen optimista baten irudi petoa.

Banan-banan, noraezeko erromesek ezponda igo zuten, eta beren aulki bitxi haietan eseri. Haietako bakoitza esertzean, bozkario sutsuzko orro bat altxatzen zen inautetik, jendetzak errege bati harrera egiterakoan bezalatsu. Topaka zebiltzan kopak, agurka zuziak, lumadun kape-luak bibaka airean. Tronu haiek berentzat izendatuak zituzten gizonak merezimenduaren erei-notz bikainez koroaturik zeuden noski. Baina erdiko aulkia hutsik zegoen.

Syme haren ezker eskura zegoen, eta Idazkaria eskuinean. Idazkariak, tronu hutsaren gaine-

tik Syme-ri begiratu, eta, ezpainak estutuz, esan zuen:

— Ez dakigu ez ote dagoen zelai batean hilik.

Hitzok entzun orduko ia, aldaketa ikaragarri eta hala ere eder bat atzeman zuen Syme-k aurrez aurreko giza aurpegizko itsaso hartan, beraren buruaren atzetik zerua ireki bailitzan. Kontua zen, ordea, Igande pasatua zela handik isilka, itzal bat bezala, eta Erdiko aulkian eseri. Arropa sinple-sinplez jantzirik zegoen, zuri huts-huts, itsugarri batez, eta ileak zilarrezko sugar bat ematen zuen haren bekoki gainean.

Luzaroan —orduetan, itxuraz— martxazko musika poz-jario haren soinura dantzatu zen beren aurrean gizateriaren maskarada erraldoia. Dantzari-bikote bakoitzak erromantze beregain bat zirudien; ipuinetako amandre bat postontzi batekin, edo baserritar neskato bat ilargiarekin; kasu guztietan, ordea, Alice Lurralde Miresgarrian bezain zentzugabea zen, eta hala ere maitasun historia bat bezain atsegin eta txantxagabea. Azkenerako, hala ere, jendetza usua argal-bakanagotzen hasi zen. Bikoteak jardun-bideetan barrena galdu ziren, edo eraikinaren mutur bate-

rantz lerratzen hasi, non kea zeriela baitzeuzka-
ten zain, arrain-ontzi erraldoi moduko batzuetan,
pattar nahiz ardo zaharrezko edabe bero lurrin-
tsu batzuk. Haien guztien gaineratik, etxegainean
altxaturiko eraikin-egitura beltz batean, burdi-
nazko bere saskian orroka, sumeta eskerga
batek handik milietara argizatzen zuen lurra.
Sutargiaren etxe-giro hura oihan gris-nabar
zabalen aurpegira proiektatzen zuen su horrek,
eta gau goi-sakonaren hustasun iluna ere bere
epelez betetzen zuela zirudien. Halaz eta guztiz
ere, handik pixka batera, moteltzen utzi zuten;
talde lausoak gero eta gehiago biltzen ziren
pertz handien inguruan, edo irrika eta builaka
sartzen etxe hain antzinako haren barneko pasa-
bideetara. Laster hamarren bat berantiar lelo-
melo baino ez zen geratu jardinean; handik
pixka batera, lau baino ez. Hondarrean, azken
parrandari deslaidiak ere lasterka egin zuen etxe
barrura, bere parranda-lagunei eup eginez. Sua
iraungi egin zen, eta izar astitsu, indartsuak
agertu ziren. Eta zazpi gizon hain bitxiak baka-
rrik geratu ziren, harrizko zazpi estatua irudi,

beren eserleku harrizkoen gainean. Beretako inork ez zuen bitarte guztian hitzik ere egin.

Ez zirudien hizketan hasteko presarik batere zutenik ere; aitzitik, nahiago bide zuten isiltasunean egon, xomorroen burrunba eta txori baten kantu urruna entzuten. Hartan, Igande solasean hasi zen, baina hain ameskara, non areago baitzirudien elkarrizketa bati segida ematen ari zitzaioala, ezen ez hasiera ematen.

— Geroxeago jan eta edango dugu —esan zuen—. Egon gaitezen apur batean elkarrekin, gu, hain tristeki maitatu baitugu elkar gaixook, eta hain luzaro borrokatu. Mendeen mendeetako gerra heroiko luze bat baino ezin dezaket gogorra ekar, zeinean zuek beti heroiak zineten: epopeiak eta epopeiak, iliadak eta iliadak, eta zuek arma-lagun zineten beti. Oraindik orain (zeren denbora ez baita deus), edo munduaren hasieran, gerrara igorri zaituztet. Iluntasunean nirauen, non sorkaririk ez baita, eta zuentzat ez nintzen adorea eta bertute naturazbesteko bat agintzen zuen ahots bat baino. Ahotsa entzun zenuten behin iluntasunean, eta ez zenuten ostera sekula entzun. Zeru goietako eguzkiak

ukatu zuen, lurrak eta ortziak ukatu zuten, giza jakintza guztiak ukatu zuen. Eta, egun argiz zuekin topo egin nuenean, nik neuk ere ukatu nuen.

Syme-k zirkin tupusteko bat egin zuen bere aulkian, baina osterantzean isiltasuna zen nagusi, eta ulertezinak aurrera segitu zuen.

— Gizonak zineten, ordea. Ez zenuten zuen ohore sekretua ahantzi, kosmos osoak hura zuengandik erauzteko tortura-makina bat mar txan jarri bazuen ere. Banekien zein hurbil zeundeten infernutik. Badakit nola zuk, Ostegun, ezpataka jardun zenuen Satan Erregearen aurka, eta nola zuk, Asteazken, esperantza galtzeko tenorean hots egin zenidan.

Isiltasun erabatekoa zen nagusi izarrek argiztatzeko zuten jardinean. Hartan, Idazkari bekainbeltzak, gupidagabe, Iganderengana jiratu bere aulkian, eta ahots zakarrez esan zuen:

— Nor eta zer zara zu?

— *Sabata* naiz —esan zuen besteak zirkinik gabe. Jainkoaren bakea naiz.

Idazkaria, ziplo tentetu, eta hantxe geratu zen zutik, eskuaz bere arropa garesti hura bihurrika kuzkurtzen.

— Badakit zertaz ari zaren —egin zuen espantu—, eta horixe da, hain zuen, barkatzen ez dizudana. Badakit gogoasetasuna zarela, optimismoa, nola esaten diote, bakeak-egite erabatekoa. Bada, ni ez nago bakeak eginik eta gogoase. Gela iluneko gizona bazinen, zergatik zinen halaber Igande, eguzki-argiari egindako irain hori? Hasieratik gure aita eta gure anaia bazinen, zergatik zinen halaber gure etsairik handiena? Negar zinkurinez jardun dugu, izuak airean; burdinak arima-barneraino zulatu gintuen... eta zu Jainkoaren bakea zaitugu! Oi! nik barka diezaioket Jainkoari Bere haserrea, haserre horrek nazioak suntsiturik ere; baina ezin diot barkatu Bere bakea.

Igandek ez zuen hitzik ere erantzun, baina astiro-astiro harrizko bere buru hura Syme-rena jiratu zuen, galdera bat eginez bezala.

— Ez —esan zuen Syme-k—, ni ez nago horrela sumindurik. Esker ona dizut, ez bakarrik hemengo ardo eta harrera onarengatik, baizik eta hainbat ibilera jostari eta borroka jatorrengatik. Baina jakin nahi nuke. Nire arima-bihotzak jardun zahar hau bezain zoriontsu eta bare

daude, baina nire arrazoimenak oihuka dirau oraindik. Jakin nahi nuke.

Igandek Ratcliffe-ri begiratu zion, eta haren ahots argiak esan zuen:

— Hain gauza *txoroa* dirudi, horratik, zu alderdi bietan egon eta zeure buruaren kontra borrokatu izanak.

Bull-ek esan zuen:

— Ez dut ezer ulertzen, baina zoriontsu naiz. Lo ere egingo nuke oraintxe, hara.

— Ni ez naiz zoriontsu —esan zuen Profeso-reak, burua eskuen artean—, zeren ez baitut ulertzen. Infernura gehitxo hurbiltzen utzi zenidan nire bidegalduan.

Eta Gogol-ek, berriz, haur baten sinpletasun erabatekoaz:

— Nahi nuke jakin zergatik jasan behar izan dudan hainbeste min.

Igandek artean ere ez zuen deus esaten. Hantxe zirauen, kokots sendoa eskuaren gainean, urrutira begira. Halako batean, hala ere, esan zuen:

— Hurrenez hurren entzun ditut zuen kexuak. Eta hor dator, ustez, beste bat kexatzera, eta harena ere entzungo dugu.

Azpiltzarraren gaineko su motelduak akabuko errainu luze bat iraitzi zuen, urre gorizko barra bat irudi, belartza lausoan zehar. Argizerranda horren kontra, beltzik beltzenez nabarmentzen ziren beltzez jantziriko gizairudi baten zangoak urraska. Etxeko zerbitzariak zeramate-na bezalako belaunetarainoko galtzazko janzki itxi dotore batez jantzia zirudien, salbu eta jantzia ez zela urdina, ikatza bezain beltza baizik. Zerbitzariak bezala, ezpata moduko bat zerman saihetsean. Zazpiek osatzen zuten ilgoratik guztiz hurbil ordurako, han zeudenei so egiteko aurpegia jaso zuen arte ez zen ohartu Syme, tximista-halako argitasunez, bere lagun zahar Gregory-ren aurpegi zabal, ia tximukara zela hura, bere iletza gorri gainezkatu harekin eta bere irri-barre iraingarri harekin.

— Gregory! —egin zuen Syme-k aho-zabalik, bere aulkitik erdi-altxaturik—. Hau da-eta benetakoa anarkista!

— Bai —esan zuen Gregory-k, barearen barez arriskutsua zirudien tonuan—; ni naiz benetako anarkista.

— «Eta iritsi zen garaia» —murmurikatu zuen Bull-ek, zeina zinez loak hartu zuela baitzirudien— «zeinean Jainkoaren semeak Jaunaren aitzinera aurkeztu baitziren, eta Satan ere haien artean zen.»

— Arrazoi duzu —esan zuen Gregory-k, eta inguru guztian so egin zuen—. Suntsitzeko jaioa naiz. Ahal banu, mundua suntsituko nuke.

Lurraren sakonetik zetorren zirrara mingarri batek hunkitu zuen goitik beheraino Syme, eta etenka mintzatu zen, esaldiak lotu gabe:

— Oi, gizon zorigaiztokoan hori —egin zuen espantu—, zorientsu izaten ahalegindu zaitez! Zure arrebak bezalako ile gorria duzu.

— Nire ile gorriak, gar gorri antzo, su eman-go dio munduari —esan zuen Gregory-k—. Uste nuen gizon arruntek ezer gorrotatzen duten baino areago gorrotatzen nuela nik oro; baina konturatu naiz ez dudala oro gorrotatzen zu gorroto zaitudan bezainbeste!

— Nik ez zaitut inoiz gorroto izan —esan zuen Syme-k tristura handiz.

Orduan, sorkari ulertezin haren baitatik, akabuko tximistek eztanda egin zuten.

— Zu! —hasi zen oihuz eta espantuz—. Inoiz bizi izan ez zarela ez duzu zuk inoiz gorrotorik izan. Badakit zer zareten, zuek guztiok, lehenbizikotik hasi eta azkeneraino: boteredun jendea zarete! Polizia zarete: urdinez eta botoiz jantziriko gizon potolote irribarretsuak! Legea zarete, eta inork ez zaituzte inoiz hautsi. Baina ba ote da munduan arima librerik zuek hausteko irrikan ez dagoenik; zergatik, eta inork inoiz hautsi ez zaituztelako soilik? Matxinatuok tontakeria piloan esaten dugu, noski, Gobernuaren halako krimena edo beste halakoa dela eta ez dela. Txorakeria hutsa! Gobernuaren krimen bakarra gobernatu egiten duela da. Botere gorenaren bekatu barbaezina gorena izatea da. Nik ez zaituztet madarikatzen krudelak izateagatik. Nik ez zaituztet madarikatzen (madarika bazintzateket ere) onberak izateagatik. Salbu egoteagatik madarikatzen zaituztet! Harrizko zuen eserleku horietan jarri, eta ez zarete inoiz jaitsi hortik. Zeruko

zazpi aingeruak zarete, eta ez duzue kezka berik izan. Oi, edozer barkatuko nizueke, zuei, giza-terria gobernatzen duzuen izakioi, behin bada ere senti ahal baneza zinez pairatu duzuela, ordubetez bada ere, nik pairatu dudana bezalako agonia...

Syme ziplo zutitu zen, burutik behatzetaraino dardarka.

— Garbi ikusten dut dena —egin zuen espan-tu—; ikusteko dagoen guztia. Zergatik dihardu lurrean den gauza bakoitzak beste gauza guztien aurka gudukan? Zergatik egin behar du munduan den gauza txiki bakoitzak munduaren beraren kontra borroka? Zergatik egin behar dio aurre euli batek unibertso osoari? Zergatik egin behar dio unibertso osoari aurre lumabelar batek? Ni Egunen Biltzar lazgarrian bakarrik egon behar dudan arrazoi beragatik. Legeari men egiten dion zer bakoitzak anarkistaren loria eta bakartasuna izan dezan, noski. Ordenaren alde borrokatzen den gizon bakoitza dinamitari bat bezain bulartsu eta jatorra izan dadin. Satanen gezur zinezkoa biraogile honen aurpegira iraitzi ahal izan dadin atzera, malkoz eta tormen-

tuz gizon honi zera esateko eskubidea erdietsi ahal izan dezagun: «Gezurra diozu!» Ezein agonia ez da handiegia, akusatzaile honi zera esateko eskubidea irabaztearen truke: «Guk ere sofritu dugu». Ez da egia inork ez gaituela inoiz hautsi. Gurpilaren pean larrua urratu digute. Ez da egia ez garela tronu hauetatik jaitsi. Infernuraino jaitsi gara. Zorigaitz ahantzezinez kexatzen ari ginen, hain zuzen, gizon hau guri zorientasun-salaketa lotsagaldu hori egitera etorri den unean berean ere. Uko zina egiten diot gaitzesan horri: ez gara izan zorientsu. Legearen zaintzaile jatorrotariko bakoitzak du nire hitzaren bermea. Gutxienez...

Begiak aldera jiratuak zituen, Iganderen aurpegitzarra tupustean ikusteko. Irribarre estrainio bat ageri zuela begitandu zitzaion.

— Zuk ere —esan zuen Syme-k, ahots ozen lazgarriz—, zuk ere sofritu al duzu inoiz?

Hari so zegoela, aurpegitzarra izari ikaragarri batera hazten zen, haurretan garrasi eragin zion Memnon-en mozorro itzel hura baino handiago hazi ere. Gero eta handi-zabalago eginez joan zen, ortzi osoa betez; gero ilunbe beltzak hartu

zuen guztia. Burmuina erabat suntsituko zion iluntasun ikaragarri hori nagusitu aurretik, ordea, iruditu zitzaion ahots urrun bat entzuten zuela lehenago ere nonbait aditua zuen testu guztiz ezagun bat esaten: «Edan dezakezue nik edaten dudan kaliza honetatik?»

Liburuetan gizonak amets-ikuspen batetik atzartzen direnean, lo geratu bide ziren lekuren batean daudela konturatzen dira eskuarki; besaulki batean aharrausi egiten dute, edo soin atalak minberaturik altxatzen dira lurretik zelai batean. Syme-ren esperientzia zerbait psikologikoki askoz ere estrainioagoa zen, baldin eta deus irrealik bazen, noski, lurreko zentzu arruntetan, bizi izan zituen gauzetan. Ezen, aurrerantzean ongi oroitzen bazen ere Iganderen aurpegiaren aurrean konortea galdu zuela, ez zen batere oroitzen nola etorri ote zen berriz onera. Gogoratzen zuen bakarra zera zen, poliki-poliki eta berez-berez konturatu zela landa-bide batean barrena paseatzen ari zela eta ari izan zela adiskide atsegin eta solasturi batekin. Adiskide hori arestian bizia zuen dramaren parte har-

tua zen; Gregory poeta ilegorria zen. Lagun zaharrak bezala ari ziren paseatzen, eta txikikeria arrunt bati buruzko elkarrizketaren erdian zeuden. Syme-k, ordea, esan eta egin zezakeen ororen gainera zegoen naturazbesteko arintasun goxo bat baino ez zuen sentitzen gorputzean, eta halako sinpletasun kristalantzeko bat buruan. Iruditzen zitzaion berri ezinago on batzuen jabe zela, zeinen ondoan beste guztia txikikeria huts bilakatzen baitzen; txikikeria zoragarri, hala ere.

Egunsentia kolore argi eta aldi berean herabez janzten hasia zen oro; alegia Naturak horiz eta arrosaz lehen saiakerak egingo balitu bezala. Haizeño bat zebilen, hain garbi eta goxo, ezen ezin baitzen sinetsi ortzitik zetorrenik; areago pentsa zitekeen ortziko zuloren batean sortzen zela. Syme-k ezuste xalo bat jaso zuen, hantxe, bidearen alde bietatik eta inguru guztian, Saffron Park-eko eraikin gorri, irregularrak begien aurrean altxatzen ikusi zituenean. Ez zuen ideia-rik ere Londrestik hain gertu zebilenik paseatzen. Sen hutsez jo zuen bide zuri batean barrena, zeinean txori goiztarrak xaltoka eta txioka

baitzebiltzan, eta jardin hesitu baten kanpoaldean kausitu zuen bere burua. Barruan Gregoryren arreba ikusi zuen, ile urre-gorritzko neska, gosalaurrean lilak biltzen, neskatila baten seriotasun oharkabe zintzo horrekin.